




EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE  
Y POLÍTICA TERRITORIAL



II.

Azaroa 2015  
Noviembre

EAEko Lurralde Antolamendurako  
Gidalerroen Berrikuspena

Oinarrizko Dokumentua

Documento Base

Revisión de las Directrices de  
Ordenación Territorial de la CAPV

LAG

DOT





|                                           |                                                                                                                                                                                                                                         |
|-------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>ZUZENDARITZA:</b><br><b>DIRECCIÓN:</b> | Administrazio eta Lurralde Plangintzaren Sailburuordetza<br>Viceconsejería de Administración y Planificación Territorial<br>Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza<br>Dirección de Planificación Territorial y Urbanismo |
| <b>IDAZLEA:</b><br><b>REDACTOR:</b>       | Administrazio eta Lurralde Plangintzaren Sailburuordea<br>Lurralde Ordenazioa eta Planeamendua Zerbitzua<br>Viceconsejera de Administración y Planificación Territorial<br>Servicio de Ordenación Territorial y Planeamiento            |
| <b>LAGUNTZA:</b><br><b>APOYO:</b>         | Kartografiako Zerbitzua<br>Servicio de Cartografía                                                                                                                                                                                      |

**NOTA:** Oharra: Dokumentuak hasierako zirriborroari Eusko Jurlaritzako sailek egindako ekarpenak biltzen ditu.







## **AURKIBIDEA:**

|                                                                               |            |
|-------------------------------------------------------------------------------|------------|
| <b>SARRERA.....</b>                                                           | <b>7</b>   |
| <b>1 LURRALDE-ANTOLAMENDURAKO ESPARRU JURIDIKO ETA POLITIKOA EAEN .....</b>   | <b>9</b>   |
| 1.1. Lurralde-Antolamendurako Esparru Juridiko eta Politikoa EAEN.....        | 12         |
| 1.2. Indarreko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak eta horien garapena ..... | 16         |
| 1.3. Ingurune sozioekonomikoa eta lurralde-ingurunea.....                     | 25         |
| <b>2 LURRALDE-EREDUAREN OINARRIAK .....</b>                                   | <b>29</b>  |
| 2.1. Lurralde adimentsua .....                                                | 32         |
| 2.2. Lurralde jasangarria .....                                               | 34         |
| 2.3. Lurralde sozial eta integratzailea .....                                 | 37         |
| 2.4. Elkarlotutako lurraldea .....                                            | 39         |
| 2.5. Lurralde parte-hartzailea .....                                          | 40         |
| <b>3 LURRALDE-EREDUA (LE) .....</b>                                           | <b>43</b>  |
| 3.1. Indarreko LAGen lurralde-eredua .....                                    | 45         |
| 3.2. LAGen berrikuspenaren lurralde-eredua .....                              | 46         |
| <b>4 ZEHARKAKO ALDERDIAK .....</b>                                            | <b>47</b>  |
| 4.1. Genero-ikuspegia .....                                                   | 49         |
| 4.2. Klima-aldaketa.....                                                      | 57         |
| 4.3. Osasuna .....                                                            | 66         |
| 4.4. Lurraldea eta Euskara.....                                               | 77         |
| 4.5. Lurralde Erlazioa .....                                                  | 83         |
| <b>5 PAISAIA.....</b>                                                         | <b>91</b>  |
| <b>6 INGURUNE FISIKOA ETA AZPIEGITURA BERDEA .....</b>                        | <b>103</b> |
| 6.1. Ingurune Fisikoaren Antolamendua .....                                   | 106        |
| 6.2. Azpiegitura berdea .....                                                 | 109        |
| <b>7 LANDA-INGURUNEA.....</b>                                                 | <b>129</b> |
| <b>8 HIRIGUNEA .....</b>                                                      | <b>139</b> |
| 8.1. Hiri Birgaitzea eta Berroneratzea .....                                  | 144        |
| 8.2. Lurraldearen jasangarritasuna jarduera ekonomikoen erabileran .....      | 151        |
| 8.3. Hiri hazkundearen perimetroa.....                                        | 156        |
| 8.4. Metropolialdeak eta Eraldaketa Ardatzak .....                            | 160        |
| 8.5. Bizitegi kopurua.....                                                    | 209        |
| 8.6. Bigarren etxebizitza eta baliabide turistikoak.....                      | 214        |
| 8.7. Plangintzen bateragarritasuna .....                                      | 219        |



|                                                                                                             |            |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|
| <b>9 MUGIKORTASUN JASANGARRIA .....</b>                                                                     | <b>223</b> |
| 9.1.    Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna .....                                                        | 228        |
| 9.2.    Bide-mugikortasuna.....                                                                             | 235        |
| 9.3.    Trenbide-, portu-, eta aireportu-mugikortasuna .....                                                | 238        |
| 9.4.    Mugikortasun kolektibo multimodala .....                                                            | 244        |
| 9.5.    Eredu logistikoa .....                                                                              | 246        |
| <b>10 URA .....</b>                                                                                         | <b>249</b> |
| <b>11 ENERGIA .....</b>                                                                                     | <b>257</b> |
| <b>12 GOBERNANTZA: PARTE-HARTZEA, ANTOLAKETA, ADIERAZLEAK.....</b>                                          | <b>269</b> |
| 12.1.    Parte-Hartzea .....                                                                                | 272        |
| 12.2.    Gobernantza .....                                                                                  | 274        |
| 12.3.    Lurralde- eta Hirigintza-Adierazleak .....                                                         | 276        |
| <b>ERANSKINAK.....</b>                                                                                      | <b>281</b> |
| 1. <b>Eranskina: Indicadores de sostenibilidad .....</b>                                                    | <b>283</b> |
| 2. <b>Eranskina: Espacios naturales .....</b>                                                               | <b>297</b> |
| 3. <b>Eranskina: Actualización del procedimiento de cuantificación<br/>                residencial.....</b> | <b>305</b> |
| Laburpen plano.....                                                                                         | 319        |



## Sarrera

2015eko uztailaren 27an, Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) berrikusteko prozedura hasteko erabakia hartu zuen (gidalerro horiek otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez onetsi ziren) eta, orobat, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren esku uztea berrikusketa hori zuzendu eta prestatzeko lana, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 10. artikulua ezarritakoari jarraiki.

Horrez gain, erabaki horren bidez, Eusko Jaurlaritzak erabaki zuen gidalerroen berrikusketa parte-hartze prozesu zabal baten bidez egitea, egungo gobernu-programarekin eta X. legegintzaldi honetan gidalerro horiek berrikusteari buruz Eusko Legebiltzarrean eman diren ebazpenekin bat.

Aldi berean, LAGak berrikusteko prozesu formala partaidetza-prozesu gisa planteatzeak EAEko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legea egoera berrietara egokitzea dakar. Horren emaitza da, hain zuzen ere, aurkeztu den "Oinarrizko Dokumentua". Dokumentu honen helburua da agiri batean jasotzea LAGak berrikusteko prozesuan Eusko Jaurlaritzaren ikuspegia eta proposamenak, abiapuntu izan daitezen parte-hartze prozesua abian jartzeko eta azken emaitza moduan, "Gidalerroen Aurrerapena" dokumentua lortzeko, parte-hartze prozesu egoki baten ondoren.

"Oinarrizko Dokumentua":

- EZ DA Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak LAGak berrikusteko prozesuaren baitan ezarritako izapide formal bat.
- EZ DA "Gidalerroen Aurrerapena" .
- PROPOSAMEN-AGIRI BAT DA, "Gidalerroen Aurrerapena" onartzeko legeko izapide formala egin aurretik parte-hartze prozesu bat zabalitzeko.
- LAGak berrikusteko prozesuaren kudeaketaren BERRIKUNTZA BAT da.

"Oinarrizko Dokumentua" hiru ataletan egituratuta dago. Lehendabizi, lurralde-ereduaren oinarriak zein izatea proposatzen den adierazten da. Ondoren, proposatutako lurralde-eredua aurkeztu da, baita zein eremuk osatzen duten ere. Eta, azkenik, EAEren lurralde-antolamenduaren gobernantza adierazten da.

Parte-hartzea errazteko, "Oinarrizko Dokumentua" dokumentu exekutiboa eta sintetikoa da, lan-dokumentu zabalago eta garatuago baten emaitza, eta eskuragarria eta irekia izango da. Bi dokumentuak Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Sailburuordetzak eta Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritzak egin dituzte, Eusko Jaurlaritzako beste sailen lankidetzarekin eta ekarpenekin.

Eusko Jaurlaritzaren 2015eko uztailaren 27ko erabakiak, LAGen parte-hartze bidezko berrikusketa abian jartzeaz gain, bi epe ezartzen dizkio Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari, izapidetzeko hasierako faseari muga batzuk jartzeko. LAGak berrikusteko parte hartzeko ikuspegi horrekin bat etorrta, prozesuaren administrazio-izapidetzea eta Euskal Hiria



---

Kongresua aldi berean egin nahi dira. Euskal Hiria Kongresua lurralde-antolamenduaren arloko topaketa-foro irekia da, eta urtero egiten da, azaroaren amaieran.

“Oinarrizko Dokumentua” aurkeztuta, bete egiten da Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari hura egiteko emandako epea, eta urtebeteko epea dago, 2015eko azarora artekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen berrikuspenaren aurrerapena aurkezteko, orain abian jartzen den parte hartzeko prozesuaren emaitza moduan.

2015eko azaroaren 23a

# 1

Lurralde-Antolamen-  
durako Esparru Juridiko  
eta Politikoa EAEN





EAEEn, legez, lurraldea antolatzeko politika Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearekin hasi zen; izan ere, hark ezarri zituen Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak, lurralde-plan partzialak eta lurralde-plan sektorialak.


Hiru dira aipatutako Legean lurraldea antolatzeko aurreikusten diren tresnak, hau da, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG), Lurralde-plan Partzialak (LPP) eta Lurralde-plan Sektorialak (LPS). Hiru horiek elkarrekin lotuta daude eta "lurraldearen plangintzarako bloke" modura izendatzen dena osatzen dute, izan ere, hiruren artean EAEko lurralde-antolamendurako politikaren esparru juridikoa eta oinarriak osatzen dituzte, are gehiago LAGak nahiz LPP eta LPSak arau juridiko baten bidez onartzen direla kontuan hartuta, hau da, Dekretu bidez.

Lehen kapituluan, lehenik eta behin, lurraldea antolatzeko legez ezarritako tresnen esparru juridikoaren laburpena egiten da eta, bigarrenik, indarrean dauden Lurralde Antolamenduaren Gidalerroena eta orain arteko haien garapenaren ingurukoa.



## 1.1. LURRALDE-ANTOLAMENDURAKO ESPARRU JURIDIKO ETA POLITIKOA EAEN

**EAEn, legez, lurraldea antolatzeko politika Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearekin hasi zen; izan ere, hark ezarri zituen Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak, lurralde-plan partzialak eta lurralde-plan sektorialak.**



EAEn lurralde-antolamenduari dagokion kokapen juridiko labur bat egite aldera, jarraian, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legea, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak, Lurralde-plan Partzialak, Lurralde-plan Sektorialak eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea izango ditugu mintzagai.

### 1.1.1. EUSKAL HERRIKO LURRALDE ANTOLAKUNTZARI BURUZKO LEGEA

Lurralde-antolamendurako politika 1990ean hasi zen legalki EAEn, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legea onartuta, hura garatzeko esparru juridikoaren oinarria ezartzen duena.

Hala, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legean, lehenik eta behin, eskumeneko administrazio ezberdinetako lurralde mailan eragina duten arloko zehaztapenak, modu koordinatuan, jasotzeko lurralde-antolamendurako tresnak definitzen eta





arautzen dira. Eta, bigarrenik, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordea (EAELAB) ezartzen da, Herri Administrazio guztietako ordezkariak osatzen dutena, lurralde-antolamendu nahiz hirigintza arloko kontsulta- eta koordinazio-organo modura eta, era berean, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Politikako Organo aholku-emailea ezartzen da, Jaurlaritzako sailetakako ordezkariak eta herritarrak batzen dituen partaidetza-organo modura.

Hiru dira lurraldea antolatzekeo tresnak. Horietako bat, hain zuzen, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak izenekoa, beste biak, hots, Lurralde-plan Partzialak eta Lurralde-plan Sektorialak, eratzekeo oinarria eta erreferentziatzeko esparru orokorra da. Modu horretan, “kateko plangintza”<sup>1</sup> bat ematen da, lurralde-antolamendurako politika, “lurraldearen plangintzarako blokearen” korpus modura, arautzekeo printzipio gidari gisa.

### 1.1.2. LURRALDE ANTOLAMENDUAREN GIDALERROAK

Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen I. kapituluko II. tituluan, Euskal Herriko lurralde-antolamendurako tresnei buruzkoan, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak arautzen dira.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek honako hiru funtzio hauek betetzen dituzte:

1. Lurraldea orekatzea bermatzeko interes orokorreko jardura ekonomiko eta sozialak lurraldean finkatzeko prozesuak orientatu eta arautzekeo irizpideak eta arauak eratzea, eta lurralde-eremu aproposetara jardura ekonomikoa erakartzeko baldintza egokiak sortzea.
2. Herri Administrazio guztien arloko politiketako espazio eta lurraldeen antolamendu nahiz erabilerarako erreferentziatzeko esparru bat eraikitzea, hirigintza-jarduerarako ere baliagarri izango dena, horien guztien arteko koordinazio eta bateragarritasun egokia bermatzeko xedez.
3. Estatuarekin edo beste autonomia-erkidego batzuekin egitekeo baterako ekintzak eskatzen dituzten lurralde-ekintzak aurreikustea.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek honako zehaztapen hauek barneratu beharko dituzte, gutxienez:

1. Lurraldearen gaineko xehetasuneko azterketa, dauden arazoak zehatz-mehatz definituz eta balizko tratamenduak balioetsiz.
2. Hautemandako arazoak ebaztekeo Herri Administrazioen esku-hartzearen irizpide nagusiak.
3. Babes bereziko eremu edo zonaldeak.
4. Babestu edo areagotu beharrekeo nekazaritza-ustiapeneko lurzoruak, horien eta etorkizuneko hirigintza-garapenaren arteko proportzio egokia bermatze aldera.
5. Lurralde-plan Partzialen bidez xehetasuneko antolatzekeo eremuak.

<sup>1</sup> Ibid



6. Azpiegitura eta ekipamendu handiak finkatzeko eremu egokienak.
7. Etxebizitzan zenbaketa, babes ofizialekoak barne.
8. Ekipamendu aldetiko defizitaren ebaluazioa lurraldearen eremuetan.
9. Ondare higiezinak eta ondare historiko nahiz artistikoak eraberritzeko premien inguruko aurreikuspen orokorra.
10. Administrazioen arteko informazio-sistemen ezarpena.
11. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak egokitu eta aldatzearen arrazoiak eta adibideak.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak lotesleak izango dira eta horien eragina zuzena izango da orokorki aplikatzeko arau zehatzak direnean. Aldiz, zeharkako eragina izango dute, gerora garatzea eskatzen dutenean, hirigintza edo lurraldea antolatzeak tresnak baliatuz. Lotura hori izan daiteke espazioaren antolamendu eta erabilerarako irizpideei buruzkoa; Lurralde Antolamenduaren Gidalerroekin bateraezinak diren irizpideak baztertzeari buruzkoa; alternatibak zehazteari buruzkoa; eta gomendioei buruzkoa, nahiz eta, kasu honetan eskumeneko Administrazioak aukera izango duen haietatik salbuesteko, betiere, modu justifikatuan eta espresuki.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen zehaztapenak, era berean, hirigintza antolatzeak tresnetan eragina izango dute, izan ere, plan orokor eta bereziak nahiz plangintzako arau osagarriak eta subsidiarioak irizpide horien arabekoak izan beharko dira.

Indarrean diren Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak 1997an onartu ziren Euskal Autonomi Elkarteko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak behin betiko onartzeko otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez. Dekretu horretako hitzaurrean nabarmentzen denez, beharrezkoak dituen udal-plangintzan zuzenean aplikatzeko zehaztapen lotesle batzuk salbuetsita, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen gainerako zehaztapenak Lurralde-plan Partzialak eta Lurralde-plan Sektorialak idazteko erreferentzia dira.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen bidez lurraldea hamabost eremu funtzionaletan banatzen da eta horien lurralde-antolamendua bakoitzari dagozkion Lurralde-plan Partzialen bidez garatzen da. Eremu funtzionalak homogeneousun geografikoko irizpideen arabera, bere ingurune geografikoko udalerrien multzoan gune bat edo gehiago egotearen arabera, eta horien arteko bateragarritasunaren arabera hautatzen dira. Modu horretan, eremu funtzionalen arteko artikulazioa eta lurralde osoaren oreka lortze aldera.

Halaber, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan aurreikusten denez, ezinbestekoa da Lurralde-plan Sektorial batzuk kontuan hartzea.

### 1.1.3. LURRALDE-PLAN PARTZIALAK

Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen arabera, Lurralde-plan Partzialen bidez garatzen dira Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak eta horietako antolamendu-irizpideak zehazten dira Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan aurreikusitako eremu funtzional bakoitzerako.



Halaber, 4/1990 Legean ezartzen dira Lurralde-plan Partzialetan, gutxienez, barneratu beharreko zehaztapenak:

1. antolamendurako helburuak;
2. azpiegitura handiak finkatzeko espazioak;
3. baterako interesekoak diren ekipamenduen kokapena;
4. irizpide, printzipio eta arau orokorrak, esate baterako, hirigintza-antolamendua;
5. eraberritu, birsortu edo birgaitzeko espazioak;
6. bizitegi-lurzorua eta industria-lurzorua zenbaketa;
7. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako zehaztapenak garatzeko irizpide, arau eta printzipioak.

Lurralde-plan Partzialak Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek era ditzakete eta, edozein kasutan, Eusko Jaurlaritzaren Dekretuz onartuko dira Behin betiko.

#### 1.1.4. LURRALDE-PLAN SEKTORIALAK

Lurraldean eragina duten Plan sektorialekin osatuko dira Lurralde-plan Sektorialak, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legez arautzen direnak.

Lurralde-plan Sektorialak Eusko Jaurlaritzak (oro har, EAEko lurraldeari buruzkoak direnean) eta foru-aldundiek (horiei dagozkien lurralde historikoei buruzkoak direnean) ere onar ditzakete.

Orobat, 4/1990 Legean ezartzen denez, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen aurkakoak diren Lurralde-plan Sektorialetako zehaztapenak baliogabeak izango dira. Horrela, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak lehenesten dira, ondoren Lurralde-plan Partzialak hartuko dira kontuan eta, azkenik, Lurralde-plan Sektorialak.

#### 1.1.5. LURZORUARI ETA HIRIGINTZARI BURUZKO EKAINAREN 30EKO 2/2006 LEGEA

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean berretsi egiten da lurralde-antolamendua gailentzen dela hirigintza-antolamenduaren aurrean, eta horrela zehazten da 52. artikuluan. Horren ondorioz, gatazkarik izango balitz, lurralde-antolamendurako tresnetan ezarritako zehaztapenak lehenetsiko dira hirigintza arloko antolamendu eta plangintzarako zehaztapenetan ezarritakoaren aurrean, lurralde-antolamendurako legediaren arabera.

## 1.2. INDARREKO LURRALDE ANTOLAMENDUAREN GIDALERROAK ETA HORIEN GARAPENA

***Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek lurralde-eredu bat zehaztu zuten, eta horiek espazioan gauzatzeko, udal-plangintzarako jarraibideak erabiltzen dira, baina, bereziki, lurralde-plan partzialak eta lurralde-plan sektorialak, haien bidez garatzen baitira ezarritako estrategiaren xedapenak.***



Euskal Autonomi Elkarteko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak behin betiko onartzeko otsailaren 11ko 28/1997 Dekretua onartu zenetik, lurraldea antolatzeko tresna ugari onartu dira orain arte eta horiek osatzen dute “lurraldearen plangintzarako blokea”.

Jarraian ibilbide bat egiten da: hasteko, indarreko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aztertzen dira eta Lurralde-plan Partzialean nahiz Lurralde-plan Sektorialean nola garatzen diren; ondoren, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aldatzeko prozedurak (2010ekoak eta 2014koak) aztertzen dira; azkenik, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko egungo prozedura aztertzen da.

### 1.2.1. 1997KO LURRALDE ANTOLAMENDUAREN GIDALERROAK ETA HORIEN LPP ETA LPSAK

Otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuz onartutako Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek EAEko lurralde-estrategia definitzen dute helburu jakin batzuekin:



- Europar garapena gidatzen duten esparruekin integrazio handiagoa lortzea eta penintsularen iparraldean kokapen estrategikoa izatearekin lotutako garapenerako abaguneak aprobetxatzea.
- EAEko hiriburuak sustatzea, beren hirigintza-profil ezberdinak sendotuz eta hiriburuen sistema polizentriko bat artikulatuz garapen- eta berrikuntza-prozesuak zuzentzeko beharrezkoa den indarrarekin.
- Lurralde osoa hirigintza eta zerbitzu aldetik oinarri egokiz hornitzeko gaitasuna izango duen hiri ertainen sare bat sendotzea.
- Berrrokatze-prozesu bat sustatzea, saturazio gehien dauden eremuetatik presio demografiko gutxiagoko zonaldeetara.
- Hirigintzako ekimenetan nahiz ekimen sektorialetan natura babesteko sistemak eta ingurune fisikoa sendotzeko irizpideak ezartzea.
- Azpiegitura-sistemak eta hornidurak udalerriz gairikoko irizpideekin zehaztea, eta proposatutako lurralde-ereduaren egituraketara bideratuak.
- Plan sektorialak eratzeko lurralde-irizpideak ematea eta tarteko maila duten lurralde-planetak ezaugarriak konfiguratzeko.
- Etxebizitzaren parkea handitzeko eta jarduera ekonomikoko lurzorua garatzeko irizpideak ezartzea, lurralde-ereduarekin koherentzia mantenduz.
- Hondatuta edo gainbeheran dauden espazioak eta eremu berezi batzuk (esate baterako, herrigune historikoak eta landa-nukleoak) berriro eta dinamizatzearen prozesuak aktibatzea.

**Indarrean diren Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen** egitura lau ataletan antolatzen da: Lehenik eta behin, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen lurralde-eredua garatzeko oinarriak identifikatzen dira. Bigarrenik, lurralde-eredua bera zehazten da. Hirugarrenik, ongizatea eta berrikuntza ahalbidetzeko lurralde-ekimenak identifikatzen dira. Eta laugarrenik, eta azkenik, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aplikatzeko gako eta erreferentzia zenbait ematen dira.

Zehazki, **lurralde-ereduaren oinarriekin** industria tradizionalen oinarritutako eredua gairitzeko eta lehiakortasun ekonomikoarekin, gizarte-ongizatearekin eta garapen jasangarriarekin lotutako irizpideei erantzuteko premiari erantzun nahi zaio, demografia atzera doala eta biztanleria zahartzen ari dela erakusten duen dinamika batean. Lurralde-antolamendua garatzeko oinarri modura, era berean, EAEko Lurralde-eredua zehaztearekin zerikusia duten gai nagusiei buruzko adostasun zabala lortzeko premia adierazten da eta, baita EAEko hiriburuen sistema polinuklearra Behin betiko garapen ekonomikorako gune garrantzitsuenekin lotzeko premia ere, kulturari, ingurumenari eta hirigintzari dagokienez balio handia duten eta ekonomikoki eta demografikoki atzerantz doazen gune txikiak berreskuratzeko estrategia integratuak planteatzeko premiarekin batera. Halaber, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak garatzeko oinarritzko elementu modura, arloko politiken koordinazioa eta integrazioa eta udal mailako plangintzen koordinazioa ezinbestekoa dela aitortzen da. Azkenik, gure lurraldeak Europako testuinguruan eta, bereziki, Arku Atlantikoan, duen kokapen estrategikoari balioa ematen zaio.



Oinarri horietatik abiatuz, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek (1997) lurraldeko hiru geruza gainjarrien inguruan zehazten dute lurralde-eredua: ingurune fisikoa, lurralde-ereduaren oinarri eta euskarri modura, finkapenen sistema eta azpiegiturak. Hala, ingurune fisikoa elementu eta erabilera nagusietarako jarraibide orokor batzuen arabera antolatzen da, eta zazpi erabilera mota eta erabilera-matrize bat aurreikusten dira. Bederatzi eremu babestu eta aisialdiko, eta lurraldera sartzeko guneak proposatzen dira. Bestalde, finkapenetan bizitegi-lurzoruetarako politikak aurreikusten dira. Bertan hazkuntza nagusiko udalerri zenbait planteatzen dira, eta udalerri bakoitzerako biztanleko hazkuntzaren kalkulu-sistema bat, Lurralde-plan Partzialetan zehazten diren arte eta, beste alde batetik, jarduera ekonomikoko lurzoru berriak finkatzeko orientazio eta eremuak iradokitzen dira. Bigarren bizitegia eta aisialdiko eremuak antolatzen dira. Beharrezkoak diren azpiegiturei dagokienez, sistemen hierarkia oso bat planteatzen da, hiriburuak, eremu funtzionaletakoko gune nagusiak, eta gainerako finkapenak konektatuko dituen errepideen, abiadura handiko, ibilbide luzeko eta aldirietako trenen, aireportuen, portuen, telekomunikazioen eta energiaren bidez. Ura eta hondakin solidoak berezko identitateko azpiegitura modura antolatzen dira.

Bestalde, **ongizaterako eta berrikuntzarako aurreikusten diren lurralde-ekimenak** hiru motakoak dira: hirigintza-berrikuntzarako estrategiak (gune historikoak eta zaharkitutako industria-paisaia hobetzeko zonaldeak birgaitzea barne), kultura-ondarearen antolaketa eta ekipamenduak lurralde mailako ikuspegian.

Azkenik, **Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aplikatzeko gako eta erreferentziek** lurraldearen plangintza garatzeko eremuak zedarritzen dituzte, udal-plangintzen arteko bateragarritasunak eragindako udalerriak nahiz eremu funtzionalen osaera identifikatuz. Gainera, bizitegi-lurzoruen eskaintzari dagokion behin-behineko kalkulua egiteko irizpideak ematen dira eta aisialdi-sistema integratuaren eta lurraldera sartzeko guneen osaera zehazten da. Atal horretan, azkenik, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aplikatzeko arauak aipatzen dira.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek lurralde-eredu bat zehaztu zuten, eta horiek espazioan gauzatzeko, udal-plangintzarako jarraibideak erabiltzen dira, baina, bereziki, lurralde-plan partzialak eta lurralde-plan sektorialak, haien bidez garatzen baitira ezarritako estrategiaren xedapenak.

**Lurralde-plan Partzialak (LPP)** eratzeak ekarri du Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen garapen nagusia. LPPek udalaz gaindiko planen sistema bat osatzen dute, lurraldean Gidalerroetako funtsezko alderdiak zehazten dituztenak xehetasun osoz, esate baterako, ingurune fisikoa babesteko eremuak, bizitegien garapenerako eremu handiak eta jarduera ekonomikoak hartzeko espazioak, azpiegitura eta ekipamenduen sistemak edota hirigintza berritzeko esku-hartzeak. Sarritan, udal-plangintzako proposamenak eta Lurralde-plan Sektorialetakoak bateratzearen ondorioz sortu dira tresna horiek.

LPPak abian jartzeak dinamika berri bat ekarri du. Horren ondorioz, udal eta erakunde arduradun guztiak beren lurraldea ikuspegi konplexu eta elkarlotu baten arabera hautematen hasi dira, tokiko mugak gaindituz. Sarritan, baterako estrategiak eskatzen ditu dinamika horrek, etorkizuneko erronka handiei aurre egin ahal izateko. EAEn hirigintza eta lurralde mailako plangintzaren esparru berrian grabitate-zentroa tarteko eskalara mugitu da pixkanaka lurraldeko eremu funtzionaletakoko Lurralde-plan Partzialen bidez.



LPPen aktibo nagusia, haiek eratu diren modua kontuan izanik, EAEren esparru orokorrean, eremu funtzional bakoitzaren abantaila eta berezitasun partikularretatik abiatuz lurraldea egiaz dinamizatu ahal izatera bideratutako tresna direla da. Horrela, LPPEk osagai erregulatzailerik bat baitaratzen dute, lurralde-prozesuen gaineko nolabaiteko kontrol publikoa mantentzea ahalbidetzen duena eta abaguneak eta ongizatea orokorki galtzea eragiten duten ekintza eta joerak ekiditen dituen. Plan horiek, gainera, ezinbesteko erreferentzia-esparru dira udal-plangintzetako ekimenen eta arloko politiken arteko koherentzia egokia lortzeko, eremu funtzionaleko lurraldeari dagokion estrategia orokor batekin.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen bidez identifikatutako eremu funtzional bakoitzerako aurreikusitako 15 LPPetatik, hamaika LPP dagoeneko Behin betiko onartu dira<sup>2</sup>, bi Behin betiko onartzeaz daude<sup>3</sup> eta beste bi izapidetze-fasean dira<sup>4</sup>.

Aldi berean, **Lurralde-plan Sektorialak (LPS)** garatu dira, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako Lurralde-eredua ezartzeko tresna erabakigarriak izan direnak. Horietako bederatzia Behin betiko onartuta daude dagoeneko<sup>5</sup>, beste hiru aurrerakin-fasean daude<sup>6</sup> eta indarreko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan aurreikusitako zortziren kasuan izapidea ez da oraindik hasi<sup>7</sup>. Foru-aldundiek ere beren LPSak onartu dituzte<sup>8</sup>.

Horrela, honako eremu hauetako LPSak garatu dira:

- Ingurumena: Ibaiertzak eta Errekaertzak antolatzen diren LPSak, Kostaldekoa, Hezeguneena eta Nekazaritza eta Basozaintzakoa onartzearen ondorioz, eremu berezi horietan antolamendu espezifiko bat planteatu behar izan da. Gainera, lehenengoaren kasuan, uholdeen arazoarekin lotutako irizpide egoki batzuk ezarri behar izan dira.
- Azpiegiturak: EAEko Trenbide Sare berriaren LPSa eta Errepideen inguruko LPS ezberdinak onartzearen ondorioz, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan

<sup>2</sup> Behin betiko onartutako LPPak honako eremu funtzional hauei dagozkien: 1.- Laguardia (Arabar Errioxa) (271/2004 Dekretua, abenduaren 28koa); 2.- Araba Erdia (277/2004 Dekretua, abenduaren 28koa); 3.- Audio (19/2005 Dekretua, urtarrilaren 25koa); 4.- Eibar (Deba Behea) (86/2005 Dekretua, apirilaren 2koa); 5.- Arrasate-Bergara (Deba Garaia) (87/2005 Dekretua, apirilaren 12koa); 6.- Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) (32/2006 Dekretua, otsailaren 21koa); 7.- Bilbo Metropolitarrak (179/2006 Dekretua, irailaren 26koa); 8.- Beasain-Zumarraga (Goierri) (34/2009 Dekretua, irailaren 29koa); 9.- Igoerre (239/2010 Dekretua, irailaren 14koa); 10.- Durango (182/2011 Dekretua, uztailaren 26koa); 11.- Balmaseda-Zalla (Enkarterriak) (226/2011 Dekretua, urriaren 26koa).

<sup>3</sup> Gernika-Markina Eremu Funtzionaleko LPPa eta Mungia Eremu Funtzionalekoa.

<sup>4</sup> Donostiako (Donostialdea - Bidasoa Behea) Eremu Funtzionaleko LPPa, hasiera batean 2015eko martxoan onartua; eta Tolosaldea (Tolosaldekoa) Eremu Funtzionaleko LPPa, hasiera batean 2013ko urrian onartua.

<sup>5</sup> LPS hauek: 1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzen diren (Kanturiko isurialdea) (415/1998 Dekretua, abenduaren 22koa); 2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzen diren (Mediterraneoko isurialdea) (455/1999 Dekretua, abenduaren 28koa); 3.- Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarea (41/2001 Dekretua, otsailaren 27koa); 4.- Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Eolikoa (104/2002 Dekretua, maiatzaren 14koa); 5.- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneak (160/2004 Dekretua, uztailaren 27koa); 6.- Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Ekonomikoak eta Merkataritza Ekipamenduak hartzen dituzten Lurzoru Publikoen Sorrera (262/2004 Dekretua, abenduaren 21koa); 7.- Euskal Autonomia Erkidegoko Kostaldeko Babestu eta Antolatzen diren (43/2007 Dekretua, martxoaren 13koa); 8.- Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzakoa (177/2014 Dekretua, irailaren 16koa); 9.- Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideena (1999ko ekaina).

<sup>6</sup> Etxebizitzaren Sustapen Publikorako LPSa (2003ko aurrerakina), Kultura Ondarearen LPSa (2001eko aurrerakina) eta Garraioaren Sare Intermodal eta Logistikaren LPSa (2003ko aurrerakina).

<sup>7</sup> LPS hauek: 1.- Euskadiko Baliabide Turistikoen Antolamendua; 2.- Euskadiko Aireportu Sistema; 3.- Kirol Portuak eta Instalazio Nautikoak; 4.- Garraioaren Antolamendua eta Gasaren Banaketa; 5.- Ekipamenduen Antolamendua; 6.- Energia Programak; 7.- Harrobiak egin daitezkeen Eremuak; 8.- Hondakin solido inerteak eta inertzatuak Behin betiko baztertzen diren Sistemaren Antolamendua.

<sup>8</sup> Gipuzkoako Hiru Hondakinen Azpiegiturarako LPSa (24/2009 Foru Dekretua, uztailaren 21koa) eta Gipuzkoako Bidegorrien LPSa (2/2013 Foru Araua). Halaber, lurralde izaerako zenbait plan onartu dira, esate baterako, Arabako Errepideen Plan Integrala (30/1998 Foru Araua) eta Bizkaiko Errepideen Plana (8/1999 Foru Araua).



proposatutakoa xehetasunaz jaso eta areagotu behar izan da, programazio-elementuak eta konpromiso finantzarioak txertatuz, aipatu planak neurri handiago batean garatzea bermatzen dutenak. Bestalde, Energia Eolikoaren LPSak energia berriztagarrien interes sozioekonomikoaren eta mendietako gailurren babesaren arteko oreka dakar.

- Lurzorua: Jarduera Ekonomikoak eta Merkataritza Ekipamenduak hartzeko Lurzoru Publikoak Sortzeko LPSa, zalantzarik gabe, dimentsioari eta hiri barneko merkataritzaren eta aldirietako merkataritzaren arteko orekari dagokionez aurrerapausoa izan da, baina ondoriorik gabe geratu da partzialki eta Auzitegi Gorenaren azken epaiak aintzat hartuz berrikusi egin beharko da. Izan ere, epai horien arabera, indargabetu egiten dira irizpide ekonomikoen ondorioz mugak ezartzen dituzten LPSaren zehaztapenak.

LPP eta LPSak dira Lurralde Antolamenduaren Gidalerroekin lotura zuzenena duten elementuak eta lurralde mailan eragin handienekoak. Dena den, ez dira izan Gidalerroek ezarritako ildoaren barnean lurraldea eraldatzea eragin duten bakarrak.

Hala, Ingurune Fisikoan Naturagune Babestuen sistema garatu da ia osorik. Sistema horretan, gaur egun, eremu eta kategoria ugari barneratzen dira (Parke Naturalak, Biotopo Babestuak, Zuhaitz Bereziak, KBE edo Hegaztientzako BBE Natura Sarea). Gainera, natura eta ingurumena babesteari dagokionez legedi zabala garatu da, eta orotariko esku-hartze zehatzak ere bai, esate baterako, basoko espezieak berreskuratzeko planak, baso-programak, ingurumenaren kudeaketarako programak, etab.

Azkenik, gogorarazi behar da lurraldea antolatzeako tresnak udal mailako hirigintza-plangintzetan islatu eta txertatu behar direla, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legean nahiz Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean xedatzen den moduan. Ildo horretatik, eta aipatutako legeekin bat etorritik, Lurralde Antolamendurako Batzordeak lurraldea antolatzeako tresnak udal mailako hirigintza-plangintzan txertatzeko eginahalean koordinazio eta ikuskapen lan garrantzitsuak betetzen du.

### **1.2.2. 2010EKO LURRALDE ANTOLAMENDUAREN GIDALERROAK ALDATZEKO PROZEDURA**

2006an, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berraztertzeako barne-prozesu bat abiatu zen eta; 2010eko urrian<sup>9</sup>, Jaurlaritzako Kontseiluak Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aldatzeko, ez modu funtsezkoan, prozedura abiatzea erabaki zuen. Horren ondorioz, 2012ko otsailean “Euskal Hiria Net, lurralde-estrategia berria. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aldatzea berrazterketaren ondorioz” izeneko proposamena aurkeztu zen. Aldaketak ez nabarmenizat jo ziren proposamenak indarreko lurralde-eredua aldatzea ez baitzuen eragiten eta hura baliozkotzat ematen baitu.

Euskal Hiria Net izenekoan jasotako proposamenaren arabera, gure lurraldea lurralde bikaintasunezko, lehiakor eta aurreratua da, indarreko lurralde-eredua oinarritzat hartuz ingurune fisikoan eragiten zuena hainbat arlotan, esate baterako, espazio babestuen eta

<sup>9</sup> 3687/2013 zenbakidun eta 3408/2014 zenbakidun kasazio-errekurtsoak, biak 2015eko irailaren 3koak.

<sup>10</sup> Jaurlaritzako Kontseiluaren urriaren 26ko Akordioa, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aldatzeko prozedura abiatu eta hura ez nabarmen modura emateari buruzkoa





korridore ekologikoen babesean, eraldaketa-ardatzen finkapenerako sisteman, berrikuntza-lurralde berezietan, berrikuntza-nodoetan eta herrigune txikietako sisteman. Halaber, beste hainbat arlo garatzen ziren, esate baterako, paisaia, klima-aldaketa, energia-efizientzia, mugikortasun jasagarria eta hiriaren berrantolaketa eta bizitegi-kuantifikazioan.

Orobat, Euskal Hiria Net proposamenean gure lurralde-ereduaren (Euskal Hiria Plus) eragin-eremua herri eta lurralde mugakideetara irekitzeko premia adierazten zen, aurreikusitako lehiakortasun- eta berrikuntza-mailak lortzeko beharrezkoa den masa kritikoa izate aldera. Hori guztiori, jakina, lankidetzaz-esparru egokiak ezarrita.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak, modu ez funtsezkoan, aldatzeko prozedurak aurrera jarraitu zuen, jendaurreko entzunaldi eta erakusketarako izapideak burutu ziren eta 287 arrazoibide jaso ziren, ikertu eta aztertu egin zirenak.

X. Legedia hasita eta Jaurlaritzaren programa berria onartuta, Eusko Jaurlaritzak Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak modu ez funtsezkoan aldatzeaz harago, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozesu sakon bat abiatzea erabaki zuen. Gainera, ikuspegi integral parte-hartzaile bat eman nahi izan zion prozesuaren hastapenetik amaierara arte. Noski. Eusko Legebiltzarra ere zentzu berean mintzatu zen 2013ko otsailean, 10/2013 legez besteko proposamena onartuta, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen aldaketa bertan behera uztekoa.

Hala, eta prozedurazko gaiak aintzat hartuz, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozesua formalki abiatu aurretik, zera egin behar zen: aurretik zegoen prozeduraren izapidea (ez nabarmena) gauzatu. Aldatzeko, ez modu funtsezkoan, prozeduran barneratzen ziren gai guztiak berrikusteko prozesu berri batera eraman eta bertan txerta zitezkeen, izan ere, eta logikoki, abiatzeaz zen berrikusteko prozesua ordura arte baitaratutako ezagutza eta esperientzia uneoro kontuan izango zuen prozesu modura planteatzen zen eta, bereziki, izapidetuta zegoen baina Behin betiko onartuta ez zegoen Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aldatzeko, ez modu funtsezkoan, prozeduran eskuratutako emaitzak kontuan izanez.

Haatik, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aldatzeko, modu ez funtsezkoan, prozedurako gaiak LAG horiek berrikusteko prozesu berrira eramateari zegokionez, bazen tratamendu berezia eskatzen zuen gai bat: bizitegi-kuantifikazioa.

Indarrean ziren Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako eta LPPetako bizitegi-kuantifikaziorako irizpideak, lehenbailehen, jasangarritasun-printzipioetara eta lurraldearen erabilera arrazionalerako printzipioetara egokitzeko premia argia ikusi zen. Inguruabar sozioekonomikoak nabarmenki aldatu ziren, eraikuntzaren krisia eta higiezinaren sektorearen boom-a gertatu ziren, LPPetako ereduaren osagaietako zenbait aurreikuspen dagoeneko haiek sortu zireneko testuinguruan aplikatu zirela ikusi zen, edo testuingurua aldatu egin zela eta, horrez gain, aurrez kontuan hartu ez ziren gaiak kontuan hartu behar zirela erabaki zen, esate baterako, etxebizitza hutsaren fenomeno eta hiri-birgaitzea eta -birsortzea sustatzea.

Horrenbestez, lurraldea antolatzeko ikuspegitik ezinbestekoa zen inguruabar berrietara egokitutako bizitegi-kuantifikaziorako formula bat erabiltzea, baliogarri izango dena lurralde-antolaketa dagokionez koordinazio-organo nagusiari horren berri emateko: EAELAB. Gainera, adierazi behar da udalerriek kalkulatu beharreko etxebizitza berrien kopuruari buruzko datua



funtsezkoa dela udal-plangintzak berrikusi eta haiek Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea egokitzeari dagokionez. EAELAB Batzordea, horien izapidean, horri buruz mintzatu behar da eta, horretarako, ezinbestekoa da bere eginkizuna behar bezala burutu ahal izateko tresnak izatea.

Horren ondorioz, 2014ko martxoan Jaurlaritzako Kontseiluak Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aldatzeko izapidearekin jarraitzea adostu zuen, soilik bizitegi-kuantifikazioari dagokiona jasoz eta, 2010eko urrian abiatutako Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aldatzeko, modu ez funtsezkoan, prozesuko gainerako gai guztiak berrikusteko prozesu berantiarago baterako utziz.

### **1.2.3. LURRALDE ANTOLAMENDUAREN GIDALERROAK ALDATZEKO PROZEDURA, BIZITEGI-KUANTIFIKAZIOARI DAGOKIONEZ (2014)**

2014ko ekainean, Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailburuordearen aginduz, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen aldaketaren hasierako onarpena eman zen bizitegi-kuantifikazioari zegokionez.

Aldaketa horren helburua udalerrietan etxebizitza berriak sortzeko aurreikuspenak kalkulatzeko formula egokitzea da, herriak azken urteetan izandako bilakaera, familia-tamainaren aldaketa nahiz etxebizitzetan bizi diren pertsona kopurua eta udalerrietan hutsik edo okupatu gabe dauden etxebizitza kopuruan kontuan hartuz, edo aldaera horien arabera. Horrenbestez, lurraldearen gainean erantzukizun- edo jasangarritasun-irizpide zenbait hartu behar dira kontuan, behar dena baino lurzoru gehiago okupatu edo sortu beharrik gabe.

Proposamen horren ondorioz, bi mozio aurkeztu ziren 2015ean: Arabako Batzar Nagusiaren 18/2015 Mozioa eta Eusko Legebiltzarraren 7/2015 Mozioa. Batzar Nagusiaren Mozioan Eusko Jaurlaritzari eskatzen zaio aldaketak bertan behera uzteko, foru eta udal mailako eskumenak urratzen dituelakoan. Gainera, lurralde-antolamendurako legedian egiten den edozein aldaketan Arabako tokiko erakundeek partaidetza erreal, zuzen eta eraginkorra izan dezatela eskatzen zaio. Bestalde, Eusko Legebiltzarraren Mozioan Eusko Jaurlaritzari eskatzen zio Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozesua formalki hasteko eta, era berean, erakunde arteko lankidetzak eta erakundeen arteko eskumenen banaketa errespetatzen dadila bermatzeko lankidetzak-tresnak ezartzeko, eta Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozesuan bizitegiak zenbatzeko proposamena txertatzeko.

Bi mozio horietako edukia errespetatuz, 2015eko uztailan Eusko Jaurlaritzak Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozesua abiarazi zuen formalki, bizitegi-kuantifikazioaren gaineko berrikuspenera ere barneratzen duena. Prozesu parte-hartzailea da eta erakundeen arteko lankidetzak sendotzen duena, eskumenen banaketa erabat errespetatzeko esparru batekin.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen aldaketa horrekin onartutako bizitegi-kuantifikazioa, aldi berean, aztertu egingo da Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozesuaren barnean, eta dagozkion aldaketa edo egokitzapenak egin ahal izango dira.



#### 1.2.4. 2015EKO LURRALDE ANTOLAMENDUAREN GIDALERROAK BERRIKUSTEKO PROZEDURA ABIATZEA

2015eko uztailaren 27an, Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozedura abiatzea adostu zuen, otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuz onartuak<sup>11</sup>.

Akordio horretako hitzaurrean Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozesua abiaraztea justifikatzeko arrazoiak jasotzen dira, laburbilduz, bi helburu nagusi dituztenak: alde batetik, lurralde-antolamendurako politika eta tresnak berrikusi nahi dira eta, beste alde batetik, lurraldearen politikaren kudeaketan eta garapenean partaidetzarako kultura eta gobernu ona sustatu nahi dira.

Horrela, ia hoguei urte igaro dira gidalerro horiek onetsi zirenetik, eta, horregatik, egokitzeak jotzen da Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) berrikusteko prozesua hastea. Prozesu horrek orain arte pilatutako esperientziari esker ikasitakoa kapitalizatuko du, lurralde-antolamenduaren erronka berriei erantzungo die eta, batez ere, prozesu zabal parte-hartzailea oinarri hartuta eraikiko da, erakunde publiko ezberdinen aldetik, eragile sozioekonomiko eta politikoen aldetik eta herritarren aldetik.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko hasiko den prozesua prozesu berria, eta, batez ere, berritzailea izango da. Izan ere, parte hartzeko plan baten inguruan garatuko da. Plan hori diseinatu eta zehaztu eta lehen aldiz abian jarri beharko da. Horrela, lurralde-antolamenduaren arloan lan egiteko beste modu bat ekarriko du; azken finean, gobernantza berri bat.

Aldi berean, berrikusteko prozesu formala partaidetzarako prozesu gisa planteatzeak Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legea gobernantzaren inguruko ikuspegi berrietara egokitzea dakar. Horren adibidea da "Oinarrizko Dokumentu" hau, hots, "Gidalerroen Aurrerapena" izeneko agiriaren aurreko dokumentua. Izan ere, oinarrizko dokumentu hori ez dago aurreikusita aipatutako legearen nahitaezko izapideen artean, baina beharrezkotzat jotzen da Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak aurkeztea, partaidetzarako prozesuaren hasiera bezala. Horren ondorioz, geroago, "Gidalerroen Aurrerapena" izeneko agiria egingo da, eta agiri hori maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 10. artikuluan xedatutakoaren arabera izapidetuko da.

Jaurlaritzako Kontseiluaren Akordioaren hitzaurrean, sustatu nahi den partaidetza-ikuspegi horrekin bat etorrira, berrikusteko prozesuaren administrazio-izapidetzea eta Euskal Hiria Kongresua aldi berean egiteari buruzko plana aipatzen da. Euskal Hiria Kongresua lurralde-antolamenduaren arloko topaketa-foro irekia da, eta urtero egiten da, azaroaren amaieran. Horregatik, administrazio-izapidetzea sustatzeko kronograma modura ere funtzionatuko duen lan-programa bat proposatzen da. Horrela, proposatzen da "Oinarrizko Dokumentua" 2015eko azaroko Euskal Hiria Kongresuan aurkeztea; "Gidalerroen Aurrerapena" 2016ko azaroko Euskal Hiria Kongresuan aurkeztea; Gidalerroen hasierako onespina 2017ko azaroko Euskal Hiria Kongresuan aurkeztea, eta, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak 2018ko azaroko Euskal Hirian onartzea. Aurretiazko plangintza horrek aldaketak izan ahalko ditu, eta, beraz, behin-

<sup>11</sup> 157. zenbakidun EHAA, 2015eko abuztuaren 20koa.



behineko plangintza da. Hala ere, komenigarritzat jotzen da gutxi gorabeherako kronograma bat izatea eta kronograma hori etengabe eguneratzea. Horri esker, ahal den neurrian behintzat, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-estrategian garrantzi handia duen gai hori ez da denboran luzatuko.

Parte hartzeari dagokionez, logikoa denez, entzunaldiaren eta informazio publikoaren nahitaezko izapideez gain, parte hartzeko kanal irekiak ezarriko dira, eta partaidetzarako prozesu edo plan bat diseinatuko da. Partaidetzarako prozesu edo plan horrek berrikusteko prozesuari lagunduko dio Oinarrizko Dokumentua aurkezten denetik (2015eko azarotik), eta hori ere etengabe eguneratuko da, aldatuz doan egoerara egokitzeko.


Lurraldearen ikuspegitik, besteak beste, gai hauen inguruko gogoeta-prozesu bat irekitzea, proposatzen da: zeharkako gaiak, hala nola, klima-aldaketa, generoa, osasuna, euskara; ingurune fisikoarekin lotutako gaiak, hala nola, erabilera-matrizea eta antolamendua eguneratzea, naturagune babestuak eta Natura 2000 Sarea, azpiegitura berdeak, ekosistemetako zerbitzuak eta paisaia; mugikortasuna, ura eta energia; landa-ingurunea; eta hiri-ingurunea, honako hauetan arreta berezia jarrita: hiri-berroneratzea, metropoli-eremuak eta eraldaketa-ardatzak, hiri-hazkundearen perimetroa, bizitegi-kuantifikazioa eta lurralde-jasangarritasuna jarduera ekonomikoen lurzoruan.

Azkenik, 2015eko uztailaren 27ko Jaurilaritzako Kontseiluaren Akordioan xedatzen denez, alde batetik, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozedura abiatzen da eta, beste alde batetik, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari dei egiten zaio 2015eko azaroan Oinarrizko Dokumentua, Gidalerroen Aurrerapenaren aurretiko dokumentua, aurkezteko, eta baita partaidetzarako plana ere, berrikusteko prozesuan txertatuko dena. Halaber, Akordio horretan xedatzen denez, 2016ko azaroan Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteari buruzko Aurrerapena eratzea aurreikusten da, nahiz eta epe hori luzatu egin daitekeen hala justifikatzen duten arrazoiak daudenean.

Oinarrizko Dokumentu honekin, beraz, 2015eko azaroan Eusko Jaurlaritzaren lurralde-estrategia berrikusteko proposamena, partaidetzarako prozesuaren hasiera modura, jasotzen duen dokumentua aurkezteko deiari erantzuten zaio, hasiera batean, 2016ko azaroan aurkeztuko den Aurrerapena landuz joateko xedez.

### 1.3. INGURUNE SOZIOEKONOMIKOA ETA LURRALDE-INGURUNEA

**EAEko azken urteetako historiak erakusten du zenbait etapetatik igaro garela, eta une hau ulertzen laguntzen digute etapa horiek. Arlo soziologikoari dagokionez, populazio konstantea, beharrezko joera duena, dugu demografikoki, eta krisi ekonomikoa dugu, langabezia-datuek eta beste zenbaitek erakusten duten bezala.**



EAEk 2.172.877 biztanle ditu, eta 7.229,26 km<sup>2</sup>-ko azalera; beraz, biztanle-dentsitatea 300,33 hab/km<sup>2</sup> da; hau da, Europar Batasunean metropoli ez diren eskualdeen artean dentsitate handienetakoa duen eskualdeetako bat da.

UDALPLAN Eusko Jaurlaritzaren lurralde-plangintza eta hirigintzako informazio grafikoko datu-biltegiko 2015. urteko datuek erakusten dutenez, azalera urbanizatua 488,87 km<sup>2</sup>-koa da (guztizko azaleraren % 6,76) eta hiri-populazioaren dentsitatea 4.444,66 biz./km<sup>2</sup>-koa. Horrenbestez, EAEk hiri-eremu zentralagoen berezko dentsitatea du.

Jatorrian, eginkizunak ongi zehaztuta eta hierarkizatuta eta egitura ekonomikoei oso lotuta zeuden hiri zentralak, industria-guneak eta landa-nukleoak ziren espazio-antolamenduen oinarria, baina gauzak aldatu eta eskualde-hirirantz bilakatu da, eta zentroen mugak eta eginkizunak eta jarduerak gero eta lurralde zabalagoetara eta askotarikoetara zabaldu dira.

EAE benetako eskualde-hiri bihurtzen ari da, gero eta nabarmenago. Demografian eta geografian antzeko neurria duten beste eskualde-hiri batzuen pareko eskala du, nahiz eta haietako askok biztanleria-dentsitate txikiagoa duten, hiri-eredu estentsiboagoak baitituzte eta, horrenbestez, biztanleria- eta ekonomia-masa kritikoa ez baitute eraginkortasun berdinez baliatzen. Honako hiru lurralde-ezaugarri hauek dira, seguruenik, eskualde-hiriaren ezaugarri bereizgarriak:




- Hiri-hedapena eta lurraldea okupatzeko modu berriak: landa-espazioak eta metropoli-dinamikak bateragarri egitea, ohiko zentroen bilakaera, zentralitate berriak sortzea eta abar.
- Garraio-sistema berriak, lehen elkarrengandik urrun zeuden espazioak antolatzen eta gero eta mugikortasun-eskaera handiagoak bideratzen dituztenak.
- Gero eta maila altuagoa duten eta gero eta sofistikatuagoak eta konplexuagoak diren zerbitzu- eta ekipamendu-sistema bat izatea.

**BPGd-aren bilakaera (2000-2015) EAEn-  
Eurogunea 19n**



Iturria EUSTAT

**Biztanleria aktiboaren ehunekoaren aldaketa,  
sektoreen arabera, EAEn (1985-2015)**



Iturria EUSTAT

Azken bi hamarkadetako eraldaketa handiak hiri-iraultza sakona ekarri du. Industria-garaitik zetozen eremu hondatuak berritzeko prozesuak izan dira aldaketa horien ikurra eta oinarria. Aldaketa garrantzitsuena ekoizpen-egituran gertatu da: industria nagusi zuen ekonomia batetik zerbitzuetarantz dibertsifikatzeko bidea hartu da, beste ekonomia batzuen antzeko bilakaera-ereduari jarraiki. Baina urte horietan guztietan, eta industrian oinarritutako ekonomiatik zerbitzuetan oinarritutako ekonomiara egindako urratsa aintzat hartu behar bada ere, pentsamendu ekonomikoak kontuan izan du EAEk krisiari beste eskualde batzuek baino hobeto erantzun diela, industria-sektorearen garrantzia dela-eta, hain zuzen. Eta horrek agerian utzi du zein garrantzitsua den sektore hori ekonomiarako, eta kontuan hartu ez ezik sustatu ere egin behar da. Beste alde batetik, lehen sektoreko jarduerak pisua galdu dute EAEko ekonomian, eta arrantza, basogintza, nekazaritza eta abeltzaintza EAEren BPGd-aren % 2 inguru dira.

Tertiarizazio-prozesua askoz handiagoa izan da Bizkaian eta Gipuzkoan, iraganean industriak garrantzia handia izan zuten lurraldeetan, hain zuzen; eta Araban izan du, azken urteetan, hazkunde handiena industriak, Vitoria-Gasteizen inguruan eta Arabako Lautadan, A-1 errepideak osatutako ardatzean zegoen lurzoru-erreserben ondorioz.

2011. urteko biztanleria-eroldako datuen arabera, EAEk 2.172.877 biztanle ditu (1.115.422 emakume eta 1.057.455 gizon), eta horietatik, 148.877 atzerritarrak dira. Biztanleriari dagokionez, industria-krisiko urteetan zehar, zenbait faktore ekonomiko eta sozialek bat egin zuten, eta biztanleriak behera egin zuen pixka bat, eta beherakada txikia izan arren izan zuen, bai, garrantzia. Duela gutxira arte ez da aldatu beheranzko joera hori, eta orain biztanleria berreskuratzen ari da erkidegoa eta ia laurogeiko hamarkadaren hasierako gehieneko kopuruak lortu dira berriro ere. Dena den, datozen urteetarako populazioak behera egingo duela aurreikusten da, nahiz eta beherakada hori ez den oso homogeneoa izango. Araban





biztanleriak hazten jarraituko du etengabe, eta Gipuzkoan eta Bizkaian behera egingo duela aurreikusten da.


Metropoli-zentroek izandako eraldatze-prozesuek, industria-eremu handiek garrantzia galtzeak, eta bizimodu berriek eta gero eta mugikortasun handiagoak dakartzaten eskaera berriek urbanizazio-prozesuak zabaltzea eragin dute. Aldiri berriak zabaltzeak egin dira eta lehen baino konplexuagoak dira: metropoli-espazioen mugak gainditu eta eragin zuzenetik kanpo zeuden eremu funtzionalak eta orain artean landa-eremuak izan direnak ere hartu ditu. Eta prozesu horrek azaltzen du zergatik handitu den azalera urbanizatua biztanleria askorik aldatu ez bada ere.

UDALPLANeko hirigintza-plangintzako 2015eko datuek adierazten dutenez, lurzoru urbanizagarriaren aurreikuspena % 19,75ekoa da hiri-lurzoruarekiko eta lurzoru urbanizagarriarekiko, eta hori ez da hirigintza-hedapen handia. Orobat, udal-plangintzak etxebizitzaren kopuruan aurreikusitako igoera % 20,38koa da, egungo etxebizitza-kopuruarekiko (53,23 etxebizitza 100 biztanleko).

Etxebizitza-dentsitateari dagokionez, EAEko bizitegi-lurzoru hiritarreen dauden etxebizitzaren dentsitatea 59,62koa da hektareako. Balio horretan, ordea, alde handiak daude lurralde historikoen artean eta Kantauri-isurialdearen eta isurialde mediterraneoaren artean, batez ere: Bizkaian, dentsitatea 73,78 etxebizitzakoa da hektareako; Gipuzkoan, 67,93koa; eta Araban (lurzoru eskuragarri gehien duen lurraldea), 31,17 etxebizitzakoa hektareako.


Lurzoruaren artifizialtzeari dagokionez, bizitegi-lurzoruak, ekonomia-jardueretarakoak eta sistema orokorrekin 48.887 hektarea hartzen dituzte guztira, eta, lehen esan bezala, EAEko azaleraren % 6,76 dira. 2005. urtetik 2014. urtera, 306 hektarea lurzoru artifizialtzen dira, batez beste, urtean, eta beheranzko joera nabarmena du azken urteetan.

**EAEko biztanleriaren bilakaera  
(1950-2020)**



Iturria EUSTAT eta INE

**EAEko biztanleriaren piramidea (1976-2014)**



Iturria EUSTAT





# 2

## Lurralde-Ereduaren Oinarriak





1997an onartu ziren eta indarrean diren Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen lurralde-ereduko oinarrietan funtsezko erronka edo gaiak aipatzen dira, esate baterako, lehiakortasun ekonomikoko, gizarte-ongizateko eta garapen jasangarriko irizpide batzuei erantzuteko premia, demografia atzera doala eta biztanleria zahartzen ari dela erakusten duen dinamika batean; industria tradizionalen oinarritako eredua gainditzeko premia; EAEko Lurralde-eredua zehaztearekin zerikusia duten gai nagusiei buruzko adostasun zabala eskuratzeko premia; EAEko hiriburuen sistema polinuklearra garapen ekonomikoko gune garrantzitsuenekin Behin betiko lotzeko premia eta kulturari, ingurumenari eta hirigintzari dagokienez balio handia duten eta ekonomikoki eta demografikoki atzerantz doazen gune txikiak berreskuratzeko estrategia integratuak planteatzeko premia; arloko politika eta udal-plangintzak koordinatzeko premia; eta gure lurraldeak Europako testuinguruan eta, bereziki, Arku Atlantikoan, duen kokapen estrategikoari balioa emateko premia.

Lurralde-ereduko oinarri horien euskarri diren helburu edo erronkak oraindik mantendu egiten direla kontuan hartuta, gure ustez, berrikusitako lurralde-ereduaren oinarrietan mantendu eta txertatu egin behar dira, baina eguneratuta eta egokitzat jotzen diren oinarri berriei osatuta.

1997an Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak finkatu zirenetik gaurdaino aldaketa garrantzitsuak izan dira, berrikusitako lurralde-ereduaren oinarrietan islatu behar direnak ezinbestean.

Halaber, 1997an geroztik, orduan berritzaileak ziren gai batzuk sendotuz joan dira eta orain nolabaiteko heldutasuna dutela esan daiteke, besteak beste, klima-aldaketa, paisaia, azpiegitura berdea, ekosistemetako zerbitzuen balioespen eta ebaluaketa, genero-ikuspegia, osasuna, euskara, immigrazioa, partaidetza eta gobernu ona.

Baina, era berean, Europan eta Mundu mailan krisi ekonomiko, finantzario eta fiskal sakona gertatu da eta gure lurraldean ere eragin nabaria izan du. Horren ondorioz, higiezinaren sektorearen boom-aren eta eraikuntzaren krisiak utzitako aztarnak gainditu egin behar ditugu eta gastu publikoaren kontrolari dagokion inpaktu ekonomikoaren ondorioak ere gainditu egin behar ditugu. Testuinguru horretan, berrikuntza egoera horiek utzitako eragin negatiboak aurre egiteko pieza erabakigarria da oraindik eta baita gure bizi-kalitatea eta gure inguruneak hobetzeko ere.

Inguruabar berri horretan, aurretiaz zegoen lurralde-ereduaren oinarriekin batera, ondorio modura, adierazi behar dugu berrikuntza gure gizartearen ardatz eragile nagusi izango duen lurralde bat nahi dugula, bere kudeaketa jasangarria mantendu eta indartuz jarraituko duena, pertsona guztiak integratuko dituen eta gizarte-batasun sendoa izango duena, bere ingurune hurbilarekin nahiz urrunarekin harremanetan izango den eta barnean ere harremanak egituratuko dituen lurralde aktiboa, eta lurralde horretan partaidetza eta gobernu ona politika publikoetan sendotutako elementuak izatea nahi dugu.

Horren guztiaren ondorioz, berrikusitako lurralde-ereduaren oinarriak jarraian adierazten diren 5 ikuspegieng inguruan antolatzea proposatzen dugu, gure lurraldea, finean, halakoa izan dadin:

1. Lurralde adimentsua.
2. Lurralde jasangarria.
3. Lurralde sozial eta integratzailea.
4. Elkarloturiko lurraldea.
5. Lurralde parte-hartzailea.



## 2.1. LURRALDE ADIMENTSUA

***Xedea da EAEko lurraldea anitzagoa izan dadila lortzea (bertako ekonomiari dagokionez, biztanleriaren ezaugarriei dagokienez, espazio eta inguruneen eskaintzari dagokionez, etab.), lurraldearen elementu ugarien arteko eta kanpoko elementuen arteko elkarrenerginak areagotzea, espazio trinko, artikulatu eta konplexuagoak lortzea, eta ezagutza, sormen eta berrikuntzarako elementu eta modu berriak garatzea.***



EAEko gizarteak eta bere ekonomiak euskarri industrial historiko eta sendoa dute eta horren isla dira bertako hiri-paisaia industrial eta gure lurraldean zehar finkatutako enpresak. Industria- eta enpresa-eremu hori merkatu ezberdinetako, finantza arlokoak barne, nazioarteko lehiakortasunaren baitan dago.

2007ko finantza-krisiak eta higiezinaren merkatuko krisiak EAEko gizartean eta ekonomian ere izan dute eragina, higiezinaren boom-aren hedatze-uhinak ere harrapatu zuelarik.

Mundu mailako krisi horiekin batera, erakundearen gastu publikoaren krisia ere gertatu da gure ingurunean, izan ere, moneta bakarreko kide izatetik eratorritako finantza-egonkortasunerako irizpideak bete behar izan dituzte eta, horrek azken urteotan gastu publikoari eusteko joera ekarri du eta, horrek bere ondorioak izan ditu zerbitzuetako eta inbertsioetako merkatu hurbilen dinamizazioan, batez ere, azpiegiturei dagokienez.

Horren guztiaren ondorioz, ezinbestekoa da proiektu berritzaileak bilatu eta abian jartzea enpresa-lehiakortasuna hobetzeko xedez, modu horretan, gure ingurunea dinamizatu eta kalitatezko enplegua sortzeko eta, hori guztiori, ingurumena errespetatzeko jardute-irizpide batzuen arabera.

Gainera, badugu lurralde artifizial nahikoa, hobeto erabil eta aprobeitxu daitezkeen espazioak dituen. Horrela, dagoeneko urbanizatuta dagoen espazioari errendimendu handiagoa atera



ahal zaio, behar baino lurzoru gehiago artifizial bilakatu gabe. Hiri-ingurune kaltetuenak, bizitegi erakoak nahiz industrialak, mugikortasun jasangarrian, eraikin eta enpresen energia-efizientzian, espazio publikoa balioesteko jarrerari, azpiegitura berdean eta herritarren partaidetzan oinarritutako ikuspegi berritzaileekin birstortuz gure eguneroko paisaia eta gure bizi-kalitatea hobetu egingo dira. Lanketa horiek gauzatu ahal izateko irtenbide teknologiko eta sozial garrantzitsuak finkatu beharko dira, gure ingurunea dinamizatze aldera. Finean, lurralde adimentsu batez ari gara.

Lurraldeak kokapen berezia dauka berrikuntzarako beharrezkoak diren faktoreen artean. Berrikuntzarako gainerako faktoreekin (hezkuntza, gizarte-balioak, kapitala eta enpresa- eta administrazio-ingurunea) alderatuta, lurraldearena da deslokalizatu ezin den faktore bakarra. Lurraldea abagune bat da identitateari, berezitasunari eta lehiakortasunari dagokienez. Ekonomia berriari dagozkion aktibo ukigarriak ditu eta bertan funtsezkoak dira berrikuntzarako faktore erabakigarriak, esate baterako, talentua eta enpresa berritzaileak erakarri eta finkatzeko gaitasuna eta beste espazio batzuekin modu aberasgarrian uztartzeko gaitasuna. Horrez gain, ezinbestekoa da garraio-sistema eraginkorrek egotea, kalitatezko paisaia eta naturaguneak izatea eta bizitza- eta jarduera-eremu erakargarri eta jasangarriak izatea.

EAE lurralde adimentsua izan dadin berrikuntza-faktoreak sustatu behar dira eta gure lurraldea eta gure jardura ekonomikoak egoera berrietara egoki daitezela ahalbidetu behar da. Ekosistema naturalak bezalaxe, lurralde adimentsuak aldaketak eta berrikuntzak gertatzen diren espazioak dira, kasu honetan, gizarte egoera aldakorretara egokitzea ahalbidetzen dutenak.

Ekosistema sozial horietako ahalmen berritzailea baldintzatzen duten ezaugarriak ekosistema naturaleko ezaugarrien antzekoak dira oso. Aniztasuna, konplexutasuna, dentsitatea, kanpora begirako jarrera, konektibitatea eta elkarreraginerako aukerak dira espazio sortzaile eta berritzaileak bultzatzeko funtseko faktoreak. Talentua eta sormena baitaratzen duten ezagutza- eta ikerketa-espazioak prozesu berritzaileen oinarrian dauden eta elkarrekiko lotura nabarmenean diren “espezie erabakigarriak” beregana ditzakete.

Hiri eta lurralde dinamiko eta erakargarriak dira ekosistema berritzaileetako elementu nagusiak, berrikuntza-guneen kokapenerako arauak aldatzen ari diren aro batean. Berrikuntzarako espazio dira, era berean, herrigune historikoak, kostaldeko espazioak, landa- eta nekazaritza-paisaiak edota arkitektura bereziko hiri-eremuak. Hots, identitate eta kalitatezko espazioak, lana, bizitegia eta aisialdia uztartzeko ahalmena dutenak errealitate erakargarri, iradokigarri eta bizi-kalitate handiko baten atal bereizezin modura.

Xedea da EAEko lurraldea anitzagoa izan dadila lortzea (bertako ekonomiari dagokionez, biztanleriaren ezaugarriari dagokionez, espazio eta inguruneen eskaintzari dagokionez, etab.), lurraldearen elementu ugarien arteko eta kanpoko elementuen arteko elkarreraginak areagotzea, espazio trinko, artikulatu eta konplexuagoak lortzea, eta ezagutza, sormen eta berrikuntzarako elementu eta modu berriak garatzea.

## 2.2. LURRALDE JASANGARRIA

***Jasangarritasunaren eztabaidak honelako lurraldea lortzea eskatzen digu: asentamendu-sistema dentsuagoa eta trinkoagoa duena; hobeto konektatua kanpoaldearekin eta elkarrekin hobeto konektatua barnean; orekatuagoa, anitzagoa eta elkarrekin lotuagoa; aniztasun aberatsagoa duena, egoera hobean eta paisaia erakargarriagoekin; garraio kolektiboko sistemak ahalik gehien erabiltzera bideratutako hiri-espazioak dituen; berrikuntzaren eta birziklatzearen aldeko apustua egiten duena; eta energia-eraginkortasun handiagokoa.***



1997an Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak onartu zirenetik, jasangarritasunak garapen nabaria izan du ingurumenaren ikuspegitik eta funtsezko balioa hartu du. Klima-aldaketa, paisaia, azpiegitura berdea edo ekosistemek ingurune sozial eta naturalari eskaintzen dizkioten zerbitzuen ebaluazioa eta balioespena garrantzi handiko alderdiak dira, berrikusitako Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan islatu egin behar direnak.

Jasangarritasun kontzeptuaren esentzia zera da, etorkizuneko belaunaldiei beren beharrianak asetzeko gaitasuna mugatzen ez duen ingurune bat helaraztea. Horrek baliabide naturalak modu arduratsuan kudeatzea eskatzen du, ez berriztagarriak agortzea ekidinez eta, era berean, baliabide berriztagarriak beren berritze-erritmoa baino erritmo apalagoan aprobetxatzea eskatzen du, horiek mugagabeki mantentzea bermatzeko.

Halaber, baliabideen kalitatea ziurtatzea eskatzen du, horien erabilera-ahalmena mantentzeko moduan. Horrez gain, ezinbestekoa da hondakin eta kutsatzaileen sorrera mugatzea, ekosistema naturalek horiek asimilatzen duten ahalmenaren gainetik sor ez daitezen.



Jasangarritasuna esparru zabalago batean txertatutako helburu modura planteatuta soilik da bideragarri. Esparru horrek gizarte-batasuna ez ezik, ongizatea nahiz etorkizuneko erronkei aurre egiteko beharrezkoak diren baliabideen erabilgarritasuna ere ziurtatzeko adina aberastasun sortzea eskatzen du. Jasangarritasuna ez da ingurumen arloko politiken emaitza soilik, nahiz eta horiek jasangarritasun arloan duten garrantzia handia izan. Lurralde-eredua eta lurralde nahiz hirigintza mailako ekimenak elementu erabakigarriak dira garapen jasangarria lortzeko, izan ere, horien ekarpenak funtsezkoak dira arloko politikak egiaz bideragarri eta eraginkorrak izan daitezen.

Epe luzean garapen egiaz jasangarria lortzeko gaintitu beharreko erronka nagusiak lurralde eta hirigintza arloko gaiekin daude hertsiki lotuta. Lurzorua artifizial bilakatzea elementu kritikoa da gure lurraldean. EAEko azaleraren % 6,76a azpiegitura “grisak” eta zonalde urbanizatuak osatzen dute dagoeneko. Hazkuntza azpimarratzearen aurrean, hiri-finkapenen trinkotasuna berreskuratzea proposatzen da, eraikitako zonaldeen hedatze-prozesuak mugatzea eta eraikitako guneak berritu eta berrerabiltzeko ekimenak etorkizuneko ekimenen ardatz bihurtzea.

Ikuspegi hau funtsezkoa da jasangarritasunerako; izan ere, landaretzarako euskarri diren lurzoruak hondatzea ekiditen du, baliabide estrategikoen kudeaketa hobetzea ahalbidetzen du (hondakin eta urarena kasu), joan-etorri motorizatuen beharrezana murrizten du, eta garraio kolektiboko sistemen erabilera lehenesten du. Hiri-forma edo erabilera jakin batzuen kokapena, besteak beste, funtsezkoak dira garraio kolektiboa ibilgailu pribatuaren gainean nagusitzeko eta errepide berrien beharra murrizteko.

Lurraldearen jasangarritasun orokorrerako funtsezkoak diren eta aldaketa sakonak izan dituzten nekazaritza-espazioak, naturaguneen arteko elkarlotura eta lurraldean egiten diren esku-hartzeetan paisaia ikuspegia txertatzea ezinbesteko ekimenak dira biodibertsitatea berreskuratzeke eta oinarritzko baliabideak erabilgarri egon daitezela bermatzeko funtsezkoak diren ziklo naturalak lehengoratzeko, arriskuei aurrea hartzeko eta lurraldearen erakargarritasuna eta herritarren bizi-kalitatea sustatzeko.

Garraio, energia, naturagune, gizarte-kohesio, hondakin-kudeaketa edota ur-horniduraren politikak egiaz efizienteak eta bideragarriak dira soilik aldez aurretik adostutako eta jasangarritasunaren helburuak lortzera bideratutako lurralde- eta hiri-eredu baten ondorio badira. Jasangarritasunarekin lotutako alderdiak indartzea da Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Berrikuspenaren oinarritzko helburuetako bat.

Finean eta laburbilduz, jasangarritasunaren inguruko eztabaidak honako ezaugarri hauek dituen lurralde baten alde lan egitera garamatza:

- Finkapen-sistema trinkoago eta konpaktuago bat.
- Kanpora begirako lotura hobeak eta barnean ere elkarlotura gehiago.
- Oreka, aniztasun eta elkarlotura gehiago, Sarean egituratutako Hiri-Eskualde Polizentrikoa konfiguraturaz.
- Biodibertsitate aberatsagoa eta hobeto zaindua, eta paisaia erakargarriagoak.
- Garraio kolektiboaren sistemak ahalik eta gehien erabiltzera bideratutako hiri-espazioak.





- Berrikuntza eta birziklapenaren aldeko jarrera hazkuntzaren aurreko alternatiba modura.
- Energiari dagokionez efizienteagoa, kutsatzaile eta berotegi-efektuko gas gutxiago sortuz.

Lurraldearen jasangarritasuna EAEko lurraldearen abantaila lehiakorretan oinarritzen da eta bat dator gaur egun dagoeneko Europako herrialde guztiok partekatzen ditugun lurralde mailako helburuekin: polizentrismoa, identitatea eta finkapen ezberdinen arteko bateragarritasuna.

Polizentrismoak gun e bakoitzari indarra ematen dio haren ahalmenetan oinarrituta, eta aukera gehiago ahalbidetzen ditu; izan ere, eratzen duen egitura konplexuago, anitzago, berritzaileago eta jasangarriagoa da, elementu bakoitza bakarka hartuta baino. Sarean egituratutako lurralde polizentrikoak sinergiak sortzen ditu, eta lurraldeko elementuen aniztasun eta bateragarritasunean oinarritzen da.

Sareko egiturarekin batera, lurralde-elementuen kalitatea da etorkizunera begira beste faktore erabakigarri bat. Jasangarritasunerako eta bizi-kalitaterako baldintzak erakusten dituzten paisaia naturalek (basoetakoek, nekazaritzakoek edo kostaldekoek) eta hiri-paisaiek ingurune aldetiko aniztasuna osatzen dute, ezinbestekoa dena gure lurraldea erakargarria izan dadin.

Hiri-garapenerako teknologia berriak, eraikuntza jasangarria, garraiatzeko modu berriak, bioklimatismoa eta energia berriztagarriak, bioteknologia eta ingurumenaren kalitatea, domotika eta telekomunikazioak eta beste zenbait alderdi gure lurraldearen eraikuntzan gero eta gehiago txertatu beharreko alderdiak dira, izan ere, horien ekarpena funtsezkoa da lurraldearen kalitateari eta erakargarritasunari so.





## 2.3. LURRALDE SOZIAL ETA INTEGRATZAILEA

**1997. urtean LAGak onartu zirenetik, zenbait auzi sortu dira, bereziki aztertu beharrekoak, eta lurralde sozial orekatuaren oinarrian eragiten dutenak.**



Indarreko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak finkatu zirenetik badira zenbait alderdi, 1997an berretsitako lurralde-ereduan zuzenean edo zeharka aipatzen baziren ere, gaur egun tratamendu espezifiko eta arreta berezia eskatzen dutenak eta, gainera, horiek guztiek eragina dute lurralde sozial orekatu baten oinarrian.

Besteak beste, genero-ikuspegiarekin, ingurune osasuntsuekin, euskararen erabilera eta presentzia aintzatestearekin, hondatuen dauden zonaldeetan arreta berezia eskaintzen duen hiri-birsorkuntzarekin, hiri-espazioetarako irisgarritasun unibertsalarekin, etxebizitzaren gizarte-politikak lurraldean islatzearekin, jarraibide demografiko berriekin (esate baterako, jaiotze-tasa baxua, herritarren zahartzea eta immigrazioa), txirotasun energetikoarekin eta zahartze aktibo eta autonomoarekin lotutako alderdiei buruz ari gara.

Politika publiko ezberdinetan alderdi horiek kontuan izateko lege nahiz programetan agindutakoei erantzuna emateaz gain, beharrezkotzat jotzen da gai horien inguruko azterketa bat egitea berrikusitako lurralde-ereduan eta haren ondorengo garapenean (lurralde-antolamenduari eta hiri-antolamenduari dagozkien tresnen bidez) nola jasotzen diren ikuste aldera.

Genero-ikuspegiari dagokionez, beharrezkotzat jotzen da alderdi hori aztertzea eta ikuspegi hori lurralde-antolamenduan txertatzeko eta hura hiri-antolamenduan garatzeko modua aztertzea. Lan-bizitza eta bizitza pertsonala uztartzea eta segurtasun pertsonala pertsona guztiei eragiten dieten alderdiak dira, baina emakumeengan bereziki eragiten dute. Lurralde-antolamendutik abiatuz genero-ikuspegiaren gaiari heltzea planteatzen da hainbat eremutan, esate baterako, mugikortasunean, irisgarritasunean, ekipamenduetan, baita merkataritzan, etxebizitzaren arloan eta landa- nahiz hiri-ingurunean ere, edota partaidetzan.

Osasunari dagokionez, gaixotasunen arrisku-faktoreak babestu, prebenitu eta murriztera bideratutako osasun publikoko joera tradizionala osasun publiko positibora birbideratu da. Azken horrek osasunerako aktiboetan jartzen du arreta, esate baterako, pertsonen eta populazioen osasuna eta ongizatea mantentzeko duten gaitasuna areagotzen duten faktore edo



baliabideetan. Horrek berekin dakar aukera osasuntsuak erraz eta eskuragarriak izatea eragiten duten ingurune eta abaguneak garatzea. Ikuspegi positibo hori da 2003ko ekainaren 11ko Ingurumenaren eta Osasunaren Europako Estrategiak nahiz Eusko Jaurlaritzaren Euskadiko Osasun Planak (2013-2020) sustatzen dutena. Bi estrategien abiapuntua da osasun-arazoak ezin direla modu isolatuan jorratu eta, ildo horretatik, lurralde-antolamenduak eta hiri-garapenak eginkizun garrantzitsua betetzen dute, izan ere, eragin nabaria dute hiri-plangintzan, garraioan eta komunikazioetan, etxebizitza arloan, ingurumenean, aisialdirako guneetan, gizarte-zerbitzuetan edota kulturarekin, kirolarekin, lanarekin, langabeziarekin eta tokiko ekonomiarekin lotutako zerbitzuetan. Horiek denak faktore zinez erabakigarriak dira komunitateetako osasunean eta gizarte-desberdintasunetan. Halaber, aipagarria da gizarte-ekitatea osasunaren ikerketan nahitaez gaineratzeko faktore modura, izan ere, ikusi denez, adibide batera, eremu hondatuenean bertan bizi diren pertsonen osasunaren kalitatean ere eragina dute. Horren ondorioz, berrikusitako lurralde-ereduan ingurune osasuntsuen ikuspegia ere barneratzea proposatzen da.

Gure lurraldeko hizkuntza ofizialkideen hizkuntza-ikuspegiari dagokionez, lurraldearen ikuspegitik euskararen presentziaren gaineko tratamendua alderdi berritzailea da, ikergai bilakatzen ari dena. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozesu horretan egokitzen jotzen da lurralde antolamenduak eta hiri-antolamenduak euskararen erabilerarekin eta lurralde mailako proposamenak egiteko aukerarekin zer-nolako harremana duen aztertzea.


Hiri-birsorkuntza eta zaharkitutako edo erabileraz kanpoko espazio eraikien berreskurapena, irisgarritasun unibertsala, herritarren zahartzea, immigrazioa eta norberaren etxean garatzen den zahartze aktibo eta autonomia indarreko LAGetan lurralde-oinarrietan agertzen diren alderdiak dira. Haatik, denbora honetan zehar, alderdi horiek garrantzia berezia hartu dute eta, era berean, arreta berezia eskaini behar zaie esku-hartze horiek duten efektu biderkatzailea dela medio, hirien alferrikako hedapena eta lurzorua beharrik gabe artifizial bilakatzeko joera mugatzen saiatzen den testuinguru batean. Horrenbestez, helburua berrikusitako lurralde-ereduan hainbat neurri sustatzea da, lurralde-eredu horretan bertan indarreko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan ongizaterako eta berrikuntzako lurralde-ekimen modura lantzen dena txertatzeko.

Halaber, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legea indarrean sartu ostean etxebizitzaren gizarte-politikak lurraldean izango duen isla ere aztergai izan beharko da eta horren inguruko proposamenak luzatu beharko dira Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozesuaren barnean.



## 2.4. ELKARLOTUTAKO LURRALDEA

***Euskadi Europako espazio handien testuinguruan kokatzea izan da, eta da oraindik ere, indarreko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako lurralde-ereduaren oinarrietako bat.***



EAE Europako espazio handien testuinguruan kokatzea da indarreko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako lurralde-ereduaren oinarrietako bat eta oinarri hori mantendu egiten da oraindik. Haatik, oinarri hori birmoldatzea proposatzen da, maila guztietan elkarlotuta dagoen lurralde baten premiei erantzungo dien oinarri bilakatuz.

Ildo horretatik, Europako belaunburu izaten jarraitzeko premia azpimarratzen da, bereziki Europako ardatz atlantikoan, Europaz gaindiko sareen barnean funtsezko pieza izaten jarraituz, besteak beste, garraio eta logistikari dagokienez, tren-autopistei dagokienez eta Europako Natura 2000 Sare ekologikoari nahiz korridore ekologikoei dagokienez.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen gainean egindako berrazterketaren ondorioz planteatutakoaren ildotik, lurralde-ikuspegi batetik EAEko mugakide diren lurraldeekin ere harremanak izateko aukera jasotzen da, hala Euskadi-Akitania Euroeskualdearen esparruan, nola Nafarroarekin eta Pirinioetako dimentsioarekin, nahiz Kantabria, Errioxa edo Gaztela Leonekin finka daitezkeen lankidetzak-esparruetan.

Halaber, barnetik elkarlotutako lurraldea izan behar du Euskadik, egiazko sare polinuklearra eratuz. Horrela, besteak beste, Lurralde Historiko ezberdinen artean eta horietako eskualdeen artean mugikortasuna ahalbidetuz eta, gainera, garraio publikoaren mugikortasun jasangarria sustatuz hainbat neurriekin, esate baterako, lurralde osorako txartel bakarra ezartzekoarekin. Barneko elkarlotura hori funtsezko elementua da ereduaren barnean eta gure lurralde zehaztua antolatzekeo lurralde-estrategiaren barnean ere. Estrategia horrek erakundearen arteko lankidetzak eta errespetua nahiz gizartearen partaidetza izan behar ditu oinarritzat derrigorrez.

## 2.5. LURRALDE PARTE-HARTZAILEA

***Diziplina-garai berri hauetan, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legean, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetarako ezarritako izapideei partaidetza zabaleko prozesu bat eranstea proposatu da. Prozesuak hasierako faseetatik aurrerapena idatzi arteko fase guztiak hartuko ditu, eta hiru asmo ditu: erantzunak ematea, sentsibilizatzea eta edukia sozializatzea.***



Berrikusitako lurralde-ereduaren oinarrietako bat edo lurralde-estrategia berriak erantzun beharreko erronketako bat Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozesua hasieratik amaierara arte prozesu parte-hartzaile modura gauzatzearena da.

Partaidetzaren erronka hori ez litzateke mugatu behar berrikusteko prozesu horretara; aitzitik, lurralde-estrategiaren garapenean partaidetza modu egonkorrean ahalbidetzeko beharrezkoak diren mekanismoak bilatu beharko lirateke.

Euskadiko Demokraziaren eta Herritarren Partaidetzarako Liburu Zurian (2014ko abendua) agerian geratzen da gobernu onari begira prozesu parte-hartzaileak kontuan hartzeak duen esanahia eta garrantzi handia. Horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzak Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozesu hori zehazterakoan partaidetza azpimarratu du prozesu horretako funtsezko pieza modura. Horrela, prozesua ikaskuntza-esperientzia bat izan dadin, partaidetza modu eraginkorrean txertatzeko, gure politika publikoak eratu eta garatzeko pieza irmo modura. Horrenbestez, entzunaldi- eta informazio-izapide publikoak gainditu eta partaidetza gure kudeaketa publikoan txertatu nahi da.

Horrek, era berean, gogoeta bat eskatzen du, azken hogeitun urteotan baitaratu dugun esperientziari buruzkoa, bai lurralde-antolamendurako politikaren lorpenei dagokienez eta baita hobekuntza-eremuei dagokienez ere.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroekin lurralde-antolamenduari begira funtsezkoak diren alderdiak sendotu dira, esate baterako, udalerriz gaindiko eremu funtzionaletan lanketa abiatzearena, hain zuzen, udalerriz gaindiko ikuspegi horren ondorioz, lurralde-ikuspegi integrala ematen duena; edo lurzoru urbanizaezinetan soilik jasangarritasun-irizpideen arabera erabilerak baimentzea bermatzearena; landa-nukleoetan etxebizitzaren eraikuntza mugatzearena, izaera naturala lehenetsiz eta ingurune horiek urbanizatzea ekidinez; ibai edo



erreka gunetan uholde arriskua dagoen ingurunetan, hezeguneetan, kostaldean edo nekazaritzako edo basozaintzako erabilera duten lurzoru urbanizaezinetan lurzoruaren erabilera erregulatzearena; jarduera ekonomikoak eta merkataritza-ekipamenduak ezartzera bideratutako eremuak mugatzearena; eta udalerrietan etxebizitzari nahi lurraldeari begira, arrazionaltasun-eta jasangarritasun-irizpideak aplikatuta, dauden premiak kalkulatzeko formula bat izateko premiarena.

Baina, jakina, badira hobetu daitezkeen alderdiak ere eta, edozein kasutan, prozesu parte-hartzaile hau baliagarri izan beharko litzateke aztertu beharreko hainbat gai plazaratzeko. Horrela, besteak beste, lurralde-antolamendurako tresnen izapideak denboran gehiegi ez luzatzearen premia planteatzen da, edo LPPen arteko koherentzia izatearena, edo lurralde-antolamendurako tresnetan jasotzen diren zehaztapenen izaera argitzearena, udal-plangintzetan modu errazean txerta daitezen.

Finean, lurralde-antolamendurako politika gobernu onean oinarritutako politika izatea lortu nahi da.



3

Lurralde-Eredua (LE)







### 3.1. INDARREKO LAGEN LURRALDE-EREDUA

Indarrean diren Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek, oinarrizko zehaztapen gisa, honako eduki hauetan gainjarrita zehaztu zuten Lurralde-eredua:

- I. **Ingurune Fisikoa, Lurralde-ereduaren oinarri eta euskarri gisa**, horri emandako tratamenduarekin, Antolamendu Kategoria batzuk eta lotutako erabileren erregulazioa ezarrita.
- II. **Kokaleku-sistema eta Lurralde-eredua**, honako hauek zehaztuta: EAEko hiriburuen sistema polinuklearra; eremu funtzionalak, eremu funtzionaletako gune nagusiak eta azpinagusiak adierazita; eta landa-ingurunekeo estrategiak. Kokapenei buruzko kapituluak honako estrategia hauek zehazten zituen: Lurzoruaren Politikan parte hartzea; Bigarren Etxebizitza eta Turismorako Baliabideak: Aisialdirako Guneen Sistema eta Lurraldean Sartzeko Guneak; eta, Bizitegi Eskaintzaren Kuantifikazioa.
- III. **Lurralde-ereduaren azpiegiturak**, honako hauek zehaztuta: Garraio Azpiegiturak, Komunikazioak eta Energia; Ura; eta, Hondakin Solidoak.

Era berean, **LAGek ongizaterako eta berriztapenerako lurralde-ekimenak** izeneko kapitulu bat jasotzen zuten. Hori honako puntu hauetan egituratzen zen: Hiri-berrikuntzarako Estrategiak, Kultura-ondarearen Antolamendua, eta Ekipamenduak Lurralde mailako Ikuspegian.

Hurrengo kapituluetan aipatzen diren kontzeptuen egokitzapen edo berriskupenak eginda, uste da indarreko LAGen Lurralde-eredua eratzen duten elementuek baliagarriak izaten jarraitzen dutela. Prozesuaren hurrengo faseetan (aurrerapen dokumentua), eta parte hartzeko prozesua kontuan hartuta, baliagarritzat jotzen den indarreko LAGen edukia eta zehaztapen berriak uztartuko dira.



### 3.2. LAGEN BERRIKUSPENAREN LURRALDE-EREDUA

Lurralde zuhurra, jasangarria, integratua eta kohesionatua, elkarrekin lotua eta parte-hartzailea lortzea da azken asmoa, eta horri erantzun nahi dio proposatzen den lurralde-ereduak.

Honako zortzi multzo hauetan dago banatuta proposatzen den lurralde-eredua:

- Honako zortzi multzo hauetan dago banatuta proposatzen den lurralde-eredua:
- Zeharkako Gaiak;
- Paisaia (berez, zeharkako gaia da, baina bereizita lantzea iritzi da egokiena);
- Ingurune Fisikoa eta Azpiegitura Berdea;
- Landa-ingurunea;
- Hiri-ingurunea;
- Mugikortasun Jasangarria;
- Ura;
- Energia.

Goian adierazitako multzoak modu homogeneoan lantzen dira dokumentuan, eta multzo bakoitzean lantzen den alderdi bakoitza hiru ataletan egituratuta dago. Lehendabizi, egoera zein den azaltzen da. Ondoren, gai horri dagokionez zer helburu lortu nahi diren adierazten da. Eta, azkenik, helburu horiek lortzeko lurralde-orientabide batzuk planteatzen dira.

Oinarrizko Dokumentua oso luzea denez, ereduaren proposatutako multzo bakoitza kapitulu batean lantzea iritzi da egokiena, dokumentuaren egitura argiagoa eta arinagoa izan dadin. Horregatik, jarraian lantzen diren lurralde-ereduko multzoei buruzko kapituluaren epigrafe guztiak lurralde-ereduaren LE erreferentziarekin hasten dira.

4

Zeharkako Alderdiak





## 4.1. GENERO-IKUSPEGIA

***Lurraldearen kudeaketa onerako beharrezkoak diren neurri estrategikoek metodo global bat eskatzen dute, diziplina anitzekoa eta sektore artekoa. Asmo nagusien artean, nabarmentzekoa da ikuspegi teoriko eta metodologiko berritzaile batean aurrera egitea, genero-ikuspegia, emakumeen parte-hartzea eta zuzendaritza funtsezkoak diren bidean aurrera egitea..***



Lurralde-antolamenduak biztanleriako sektore guztientzat interesgarriak diren auziei heltzen die, eta kontuan izan behar ditu gizon eta emakumeen, adin, gizarte-maila, talde etniko, egoera fisiko eta sexu-orientazio desberdineko gizon eta emakumeen gizarte-rolak, aukerak eta nahiak. Horren haritik, lurraldea antolatzeko tresnek denek baliabide guztiak baldintza berdinetan eskuragarri dituztela bermatu behar dute. Genero-ikuspegia hirigintzan sartzea ez da oraingo kontua eta azken urte hauetan hiriak eta auzoak aztertzeak ikuspegia aberastu du. Horrenbestez, aitortutako bidea eginda dauka hirigintzan. Gaur egun, genero-ikuspegia lurralde-antolamenduan sartzea nahitaezkoa izateaz gain, aukera bat ere bada diziplina hori elikatzeak eta lurraldeari buruz duen ikuspegia zabaltzeko. Zeharkako ikuspegi konplexuagoa eta osoagoa edukiko du, pertsona guztiak bilduz eta partaide bihurtuz.

## I EGOERA

Aztergai dugun erronka gure lurraldea genero-rolen aldaketari egokitzea da (I. Sánchez de Madariaga). Genero-harremanak aldatu izana, eta horiekin batera familia-egiturak eta joera demografikoak, gizarte-erlaketak sakonenetako bat da eta lurralde-antolamenduak ere eman behar dio erantzuna. Emakumearen emantzipazioak, emakumeak ordaindutako lanean aritzea ohiko bihurtzeak eragindakoak, hautsi egin du lanaren banaketa tradizionala: gizona soilik arduratzen zen lan produktibo ordaindua egiteaz, eta emakumea soilik erreproduktzioarekin lotutako guztiaz. Aldaketa handi horrek zenbait behar berri dakartza, honako hauei erantzuna emateko:

**"El espacio urbano, producto y productor de relaciones de género"**

Inés Sánchez de Madariaga . 14/10/2010

**"La importancia de la mujer en el medio rural español"**

Inocencia María Martínez León, Dolores de Miguel Gómez (2007)



- Orain arte batez ere emakumeek duten lan-karga bikoitza: etxeko espazioan eta handik kanpo.
- Familia-egitura berriak: seme-alabadun familia tradizionala ez da jada eredu hegemonikoa, eta gero eta ugariagoak dira guraso bakarreko familiak, aurreko ezkontzetatik dituzten seme-alabekin bizi diren bikoteak, bakarrik bizi diren pertsonak, etab.
- Pertsonen bizi-zikloetan aldaketak (langabeziako aldiak, lanaldi partzialeko lana, luzaroan beste pertsona batzuk zaintzea, erretiratuta denbora asko bizitzea lan ordaindurik egin gabe, etab.) izatea gero eta biztanle gehiagok eta luzaroago.

Behar espazial berri horiek eskala guztietan gertatzen dira (eskualdean, hirian, auzoan, etxetik gertuko ingurunean eta etxean bertan) eta hirigintzako ohiko sektore guztietan (garraioa, etxebizitza, ekonomia-jarduera, ekipamenduak, segurtasuna, espazio publikoa, partaidetza eta erabaki-hartzea).

Hirigintza klasikoak ekoizpen ekonomikoaren arloko premiei eman die lehentasuna nolabait, eta horregatik, askotan, hiri-eremu batzuetan zaila da eguneroko bizitzako jarduerak egitea, mugikortasun txikia, ekipamendu falta, segurtasun falta, eta abar dagoelako. Eta ohikoa da, gainera, eragozpen gehienak emakumeek izatea, bai eta adineko pertsonen eta hurrek ere, emakumeen menpekoak askotan. Emakumeek diziplina honetan gero eta parte-hartze handiagoa izateak hiriak/lurraldeak diseinu gero eta funtzionalagoa eta seguruagoa izaten laguntzen du.

Aldaketa honen ikuspegi-alderdietatik, genero-ikuspegia kontuan duen hausnarketa egin da garapen berrien eredu hedakorrei eta lurraldea okupatzen duten prozesuen ikuskera globalari buruz.

## II HELBURUAK

Genero-ikuspegia lurralde-eragina duten arloetan sartzeari kontua. Besteak beste, honako hauetan:

- Garraioa eta mugikortasuna.
- Ekipamenduak eta irisgarritasuna.
- Merkataritzaguneak eta merkataritza-ekipamenduak.
- Etxebizitza
- Landa-ingurunea.
- Segurtasuna.
- Partaidetza.



### III LURRALDE-ORIENTABIDEAK

Honako lurralde-orientabide hauek proposatzen dira, lurralde-antolamenduan eta haren hirigintza-garapenean genero-ikuspegia sartzeko:

1. Auzoek erabilera bat baino gehiago izatea, bizitza sortzen duten ekipamenduak eta dendak edukitzea, segurtasun handiagoa eta bizi-kalitate hobea izatea, topaguneak egotea eta espazio publikoak eta pribatuak bereizita ez egotea, pertsona guztien autonomia sustatzea, eta egoera ahulenean dauden taldeen beharrei erantzutea: hori guztia lortzeko neurriak sustatu behar dira.
2. Hiri hurbila sustatu nahi da, distantzia handirik ez duena, garraio publiko ona duena, auzoetan oinez iristeko distantziara dauden ekipamenduak eta dendak izango dituen, eta ekipamendu handietara garraio publikoa erabiliz iristeko aukera emango duena. Ildo horretatik, periferiei hirigunearekiko mendeko ez izateko adinako azpiegiturak eman beharko litzaizkieke, zentraltasun-ezaugarriak izan ditzaten.
3. Lurraldearen plangintza irizpide multidimentsionalez egin behar da, lurralde berean erabilera bat baino gehiago izateko, lekuetara eta instalazioetara iristea erraza izateko moduan, baina, aldi berean, bidaiatzeko beharra murriztuz. Horren haritik, hiriguneetan espazio interstizialen erabilera eta zaharkituta dauden espazioen birmoldaketa sustatu beharko litzateke erabilera mistoetarako, hiriguneetan bizitegi-erabilerarekin bateragarriak diren ekonomia-jarduerak eta zuzkidurak jarri ahal izan daitezen.
4. Lurzoru berrien sailkapena eta kalifikazioa egitean, zaintzea garraio publikoa erabiliz, oinez edo bizikletaz iristeko aukera dagoela, irisgarritasun modu hori bermatzeko.
5. Hirietako espazio publikoetan segurtasuna funtsezko eskubide moduan txertatzea. Hirigintza-plangintza berrikusteko prozesuetan, herritarren parte-hartzearen laguntzaz, “gune arriskutsuak” hautemango dira, plangintza berriak konponbidea eman diezaiei.

### IV UDAL-PLANGINTZARAKO ORIENTABIDEAK.

#### a) Garraioa eta mugikortasuna

Garraio-azpiegiturek lotu egiten dute lurraldea, baina banatu ere bai. Mugikortasun-azpiegituren gaur egungo diseinuak argi eta garbi lehenesten ditu lan-bidaiak bidaiatzeko beste edozein arrazoiren gainetik, neurri handi batean eguneroko bizitzaren konplexutasunetik bereizitako mugikortasun-premia bati erantzunez. Gaur egun, bizitzaren konplexutasun handiagoak elkarren segidako bidaiak eragiten ditu, zenbait helburu betetzeko (erosketak, pertsonen zaintza, pertsonen laguntzea, gestioak, etab.), lehen egiten ziren helburu bakarreko bidaiak (etxetik lanerakoa) ez bezalakoak. Bidaiak laburragoak dira eta helmuga bat baino gehiago dituzte. Horregatik, honako hau da funtsezkoa:

- Garraio-azpiegiturek lotu egiten dute lurraldea, baina banatu ere bai. Mugikortasun-azpiegituren gaur egungo diseinuak argi eta garbi lehenesten ditu lan-bidaiak bidaiatzeko beste edozein arrazoiren gainetik, neurri handi batean eguneroko bizitzaren konplexutasunetik bereizitako mugikortasun-premia bati erantzunez. Gaur egun, bizitzaren konplexutasun handiagoak elkarren segidako bidaiak eragiten ditu, zenbait helburu betetzeko (erosketak, pertsonen zaintza, pertsonen laguntzea, gestioak, etab.),



lehen egiten ziren helburu bakarreko bidaiak (etxetik lanerakoa) ez bezalakoak. Bidaiak laburragoak dira eta helmuga bat baino gehiago dituzte. Horregatik, honako hau da funtsezkoa:

- Garraio publikoa berdintasun handiagoko gizarte bati egokitzea, kontuan izanda nahikoa maiztasun izan behar duela, ordutegiei fidagarriak izan behar dutela, eta merkea, malgua eta segurua izan behar duela.
- "Egunerokotasuneko mugikortasuna edo zaintzakoa" baloratzea. Horretarako, lan-tresna berriak behar ditugu. Adibidez, sexuaren arabera eta bidaia-motaren arabera bereizitako estatistikak (bidaia kateatuak edo etxetik lanerakoak).
- Garraiobide-moten (trena, errepidea, oinezkoa eta bizikleta bidezkoa) arteko intermodalitatea aztertuko da, bidaia kateatuak segurtasunez egitea errazteko.
- Azterketa espazio-tenporalak egingo dira, eta planoetan adieraziko: distantziak, ordutegiak, erritmoak, maiztasunak, erabilera-dentsitateak, etab.

### **b) Ekipamenduak eta irisgarritasuna.**

Oinarrizko ekipamenduak (osasunarekin, hezkuntzarekin, kulturarekin eta kirolarekin lotutakoak) hurbil edo eskura edukitzea ezinbestekoa da pertsona guztiek nolabaiteko bizi-kalitatea edukitzeko, eta, batez ere familia-kargak eta/edo etxeko kargak dituztenek.

Osasunarekin, hezkuntzarekin eta aisiarekin lotutako ekipamenduak eskuragarri dituztela bermatzeaz gain, gure lurraldeak ekipamendu berriak eduki beharko ditu arreta-premia berriei erantzuteko: mendekotasunak dituzten pertsonen, desgaitasun fisiko edo psikiko bat duten pertsonen, adin txikikoen eta adineko pertsonen premiei erantzuteko. Hau da, autonomiaz lekualdatzeko garraio eta espazio publiko segurua eta kalitatezkoa behar dutenei erantzuteko.

- Ekipamendu komunitarioak ekipamenduen irisgarritasuna eta/edo hurbiltasuna kontuan edukita diseinatzea eta planifikatzea, eta, beharrezkoa bada, horren arabera egokitzea.
- Lurraldean hurbiltasuneko zerbitzuak ekitatez banatzea.
- Norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri egiten laguntzea: haurren zaintza, desgaitasunak dituzten eta mendekotasunak dituzten adinekoen zaintza, eguneko zentroak, egoitzak, eskolak, jangelak, eta eskola-laguntzako zentroak eta oportetakoak.
- Bermatzea dotaziozko ekipamenduetara errepide bidezko edo trenbide bidezko garraio-sarearen bidez iristeko aukera izateaz gain, oinez edo bizikletaz iristeko aukera ere badagoela.

### **c) Merkataritzaguneak/merkataritza-ekipamenduak.**

Lurralde-antolamendutik dendak lurraldean modu orekatuan banatuta egotea sustatzen dugu, eta, bereziki, hiriko merkataritza. Merkataritzako eta aisiako eremu handiak gehiagi fokalizatuta egoteak eragin kaltegarria du gure herrien eta hirien egitura funtzionalean, herriek eta hiriek bizirik ez izatea eragiten baitu, jenderik ez ibiltzea haietan. Hirigune bakoitzean, hirugarren sektoreko ekipamenduko eremuen banaketa orekatuak lurralde-okupazio konpentsatuagoa dakar, nahitaez automobila erabiltzea eskatzen ez duena.





- Merkataritza-ekipamenduei lotutako aisia ez litzateke hirietatik aldendu behar eta hirietako hiriguneetan eta auzoetan kokatutako hirugarren sektorearen biziraupena sustatu beharko litzateke, irisgarritasuna eta/edo hurbiltasuna handitzeko, hau da, bizikalitatea handitzeko.
- Merkataritzaguneak txikiagoak izatea defendatzen da, eta, horrenbestez, eremu funtzionalean ezarri beharreko merkataritza-ekipamenduak espazioan gehiago banatuta egotea. Horrela eginez gero, hirugarren sektoreko dotazio horiek hobeto, modu konplexu eta orekatuagoan banatuta egongo lirateke, aurretik dagoen hiriaren ingurune orokorrean, eta hirigintza-helburu bat erraztuko luke: eskaintza erabiltzaileari gehiago hurbiltzea.
- Oro har, proposatzen da hirugarren sektoreko jarduerak eta merkataritza-jarduerak hiriguneen barneko espazio interstizialetan jartzea lehentasunez. Helburu hori lortzeko, zaharkituta dauden industria-eremuak birmoldatu eta hirietan erabiltzen ez diren hondar-espazioak okupatzeko ekintzak jar daitezke abian.

Aldaketa honek bat egiten du, erabat, Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planeko postulatuekin, periferiako merkataritza-ekipamendu handien azalera-mugei dagokionez eta hiri-merkataritza sustatzeari dagokionez.

#### **d) Etxebizitza**

Gaur egun, gizarte-egitura gero eta konplexuagoa da, eta etxebizitza-tipologiek hori kontuan hartu eta erantzuna eman behar diete egungo beharrei:

- Etxebizitza-parkeak gaur egungo familia-egitura eta -osaera berri eta askotarikoetara egokitzea, gaur egungo bizimoduaren beharrei erantzuteko eta pertsona guztien bizikalitatea errazteko.
- Etxebizitza-tipologia dibertsifikatzea. Etxebizitzek familia-egitura aldakorrei egokitzeko gai izan behar dute, bai eta haietan bizi direnen adinari ere, espazio komunak eskainiz, segurtasun-irizpideei jarraituz. Jada ez du balio 90 m<sup>2</sup> eta hiru gelako eredu bakarrak.
- Tipologia berriak sustatuko dira, egungo premiei zaintzako espazio komun bidez eta topalekuen bidez erantzuteko, haietan oinarrituta bizilagunen laguntza-sareak sortzeko (garbitegiak, hartzaindegia eta belaunaldiartekotasuna sustatzen duten etxebizitzak, etab.)

#### **e) Landa-ingurunea.**

Emakumeek rol garrantzitsu-garrantzitsua dute landa-ingurunearen garapen jasangarrian eta funtsezko eginkizunak dituzte lurraldean landa-gizartearen iraupena bermatzean. Emakumearen lana, baserrian eta baseritik kanpo, funtsezkoa da, baina landa-ingurunean bizi diren emakumeen ehunekoa txikiagoa da hiri-ingurunean bizi direnena baino. Batez ere gizonezkoek lan egiten duten sektorea da, baina landako emakumeak behar-beharrezkoak dira landak irauteko, eta hartan bizitzen jarraitzea eta lan egitea ezinbestekoak dira lurraldearen ekonomia- eta gizarte-garapenerako.



Egia da askoz emakume gutxiago dagoela nekazaritzako prestakuntzaren arloan eta lana eginda ere Gizarte Segurantzaren kotizatzen ez duten emakume asko dagoela. Eta, aldiz, nekazaritza-turismoa aukera handia izan da eta funtsezko eginkizuna izan du. Dena den, azken urteetan asko egin du gora lanaldi partzialeko lanak emakumeen artean, eta, askotan, aldi berean egiten dute lana familia-ustiategian eta soldatapeko lanean. Horrez gain, ugalketari eta zaintzari lotutako betebeharren ondorioz, lan horiek beren gain hartzen dituzte, askotariko betebeharrak eta lanaldi luzeak bateragarri egiteko ahaleginean. Emakume askok zenbait ibilbide egiten dituzte, familia- eta ekonomia-zikloen eta -estrategiaren arabera, eta emakume horien jarduera-aniztasuna eragiten du.

- Zerbitzuak eta ekipamenduak. Landa-ingurunearen ezaugarrietako bat biztanleria-gunearen egitura da: etxebizitzak, gehiago edo gutxiago, sakabanatuta daude, eta zerbitzuen eta ekipamenduen behar oso zehatzak eragiten dituzte, bai eta haietara iristeko modu oso zehatzak ere. Landa-ingurunean emakumeek izan duten kezka nagusietako bat hauxe izan da: beren garapena, ikaste-prozesua eta hazkundera beren ingurunean bermatzeko beharrezkoak diren zerbitzuak eta ekipamenduak eskuratu ahal izatea. Oro har zerbitzuetan eta ekipamenduetan egiten den inbertsioa nahikoa ez bada, arazo hori larriagoa da landa-ingurunean, eta behar-beharrezkoa da zerbitzu nahikoa eta kalitatekoa edukitzea.
- Mugikortasuna: azterketa orokorrek erakusten dute emakumeen eta gizonen mugikortasunak ezaugarri desberdinak dituztela. Emakumeek gehiago erabiltzen dute garraio publikoa, eta ibilbideak konplexuagoak dira, bidaia gehiago egiten dituztelako zaintzak eta erosketak egiteko, eta bidaia gehiagotan eramaten dituztelako haurrak eta zamak. Egoera hori larriagoa da landa-eremuan, azpiegitura gutxiago dagoelako, garraio publikoaren maiztasuna askoz txikiagoa delako, eskolarako garraioaren ibilbideak konplikatuagoak direlako, etab.
- Segurtasuna: landa-ingurunean segurtasunarekin lotutako egoera batzuk larriagoak dira eta hori garrantzitsua da; baina, horrez gain, badira arazo berezi batzuk ere, anonimotasun ezarekin lotutakoak, adibidez.
- Informazioa eta komunikazioa: teknologia berriak landa-ingurunera hurbiltzea, oso tresna garrantzitsua baitira lurralde horiek garatzeko eta landa hirira hurbilduko duen prestakuntza eta informazioa izateko. Emakumeak, gehienetan, ez du astirik izaten prestakuntza eskuratzeko eta gela batera joateak dakarren lekualdatzea egiteko, eta teknologiak denbora ahalik gehien baliatzeko aukera ematen dio, alferrikako lekualdatzerik egin gabe.

#### **f) Segurtasuna.**

Espazio publikoan segurtasuna izatea hirian txertatu beharreko eskubideetako bat da. Gai horrek zeharka eragiten die emakumeei, neska-mutilei, adinekoei, gazteei, eta abarri, horiek baitira, abiapuntua eta helmuga berdinak izanda, ibilbidea aldatzen dutenak eguneko orduaren arabera edo uneko egoeraren arabera. Gainera, segurtasuna ezinbestekoa da herritar guztiek espazio publikoa erabiltzeko aukera berdina dutela bermatzeko.

Pertsonak espazio publikoarekin duten harremanean zenbait faktorek eragiten dute (denborak eta espazioan ibiltzeko edo hartan geratzeko segurtasunak, adibidez), bai eta gizarte- eta kultura-baldintzatzaile batzuek ere, zenbait jarrera esleitzen baitizkiete eta beste batzuk



galarazten. Segurtasun ezarekin lotutako arazoek konponbiderik onena topalekurako espazioak sortzea da, edozein unetan erabiltzeko modukoak, norbanakoak segurtasun eza sentitu gabe.

- Horren haritik, lurralde-antolamenduko tresnek zalantzan jartzen dute zatika osatutako hiria, funtzio bakarreko zonez osatutakoa, eta erabilera-nahastearen aldeko apustua egiten dute.
- Udal-plangintza berrikusteko prozesuetan, herritarren parte-hartzearen laguntzaz, “gune arriskutsuak” hautemango dira, plangintza berriak konponbidea eman diezaien. Horretarako, beharrezkoa izango da azterketa eta puntu arriskutsuak adierazten dituzten planoak edo mapak egitea, biztanleen zenbait sektoreren partaidetzaz, eta, bereziki, emakumeen partaidetzaz, haiek baitira, funtsean, hiria hobekien ezagutzen dutenak, helmuga bat baino gehiagoko bidaia laburrak egiten dituztelako (eskolara, lanera, eguneko zentrorra, eta abarretara), ordutegiaren arabera ibilbidea aldatzen dutelako eta segurtasun ezarik handiena haiek sentitzen dutelako. Hiri seguruago bat, genero-ikuspegitik aztertua, hiri seguruagoa da guztiontzat.

Funtsean, udal-plangintzak, berrikuspen-prozesuetan, eta partaidetza-prozesu baten eta partaidetzazko diagnostiko baten ondoren, kalitatezko dokumentazio grafikoa jasoko du, segurtasun-alderdiei konponbidea emateko.

### **g) Parte-hartzea**

Herritarren parte-hartzea lurralde-antolamenduan eta hirigintzan txertatzeko beharra pixkanaka jarri da agerian, baina etengabeko urratsak eman ditu, gero eta leku garrantzitsua izan arte.

Partaidetzako tresnen edo tekniken bidez (inkestak, talde-bilerak, eta abar) aztertu behar da nola bizi garen lurraldean eta biztanleriaren sektoreek eguneroko bizitzan zer arazo dituzten diagnostikatu behar da. Kontua da genero-ikuspegia txertatzea partaidetzazko prozesuen bidez, plangintzako tresnari ikuspegi oso, konplexu, erreal eta eguneratuagoa ematea, eta zenbait alderdi txertatu ahal izatea: irisgarritasuna, segurtasuna eta eguneroko bizitzarako beharrezkoak diren ekipamenduekiko hurbiltasuna. Hori eginda, lurralde orekatuagoa lortuko dugu (erabilera-nahastea), erantzun egokia emateko biztanle-sektore ahulenen (haurrak, helduak, mendekotasunak dituztenak, etab.) gizarte-beharrei.

### **h) Udal-plangintzatik heldu beharreko beste zenbait gai:**

Generoaren ikuspegitik, garrantzitsutzat jotzen da udalek lehentasuneko inbertsioen artean hiria hobetzekoak edukitzea; hau da, udal-ekipamendurik ez dagoen lekuan haiek sortzea, erabilera nahastea auzoetan eta hiriguneetan eta konponbidea ematen saiatzea “puntu arriskutsuei” edo segurutzat jotzen ez direnei eta gatazkatsuak direnei.

Inbertsio horiek seguruak ez diren espazioak hobetzea helburu izateaz gain, beharrezkoak izan daitezke hiriko kaleak hobetzeko edo mantentzeko (argiteria, landaredia, seinaleak, eta abar), espazio batzuetara iristea edo kale jakin batzuetatik ibiltzea seguruago izan dadin. Espazio horien kokapenak eguneratuta egon beharko du, eta, horretarako, beharrezkotzat jotzen da herritarren parte-hartzea dagokien teknikarientzat gain.



Diagnostikoak egiteko eta/edo plangintza idazteko kontratazioetarako baldintza tekniko berezien agirietan, gomendatzen da genero ikuspegia sartzea, eta parte-hartzeari buruzko klausula bat, biztanle-segmentu guztiek parte har dezaten (emakumeak, gizonak, helduak, mendekotasunak dituzten pertsonak, etab.).



## 4.2. KLIMA-ALDAKETA

***Klima-aldaketa datozen hamarkadetan gizateriak aurre egin beharreko erronka handienetako bat da, eta ezinbestekoa da modu koordinatuan egitea. Berotegi-efektua duten gasen orotarako emisioen, emisioak murriztearen eta biosferak emisio horiek xurgatzeko ahalmenaren arteko oreka funtsezkoa da jasangarritasunerako.***



## I EGOERA

### a) Klima-aldekataren erronka

Gizakiak eragindako klima-aldaketa, atmosferara berotegi-efektuko gasak isurtzeak eragindakoa, erronka handia da, lurralde-arloan ere eragina duena, atmosfera berotzen baitu, itsasoaren maila igotzea baitakar eta zenbait fenomenoren eragina handiagoa izatea eragingo baitu (uholdeak eta lehorteak, esate baterako).

Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Konbentzioak, 194 estatutako gobernuek osatutakoak, ikusita fenomeno hori gertatzen ari zela adierazten zuten froga sendoak, Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldeak (IPCC) bildutakoak, honela definitzen du klima-aldaketa: “giza jarduerak zuzenean edo zeharka sortutako klima-aldaketa, munduko atmosferaren konposizioa aldatzen duena eta garai alderagarrietan zehar behatutako klimaren aldakortasunari gehitzen zaiona”.

Klima-aldaketaren arazoa giltzarria da jasangarritasunaren arloan eta funtsezko honako hiru alderditan eragiten du: ingurumenean, gizartean eta ekonomian. Berotegi-efektuko gas-isurketa

- 
- EAEko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua Klima-aldaketa arintzeko eta Klima-aldaketara egokitzeko, Udalsarea 21 Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.
  - Euskal Autonomia Erkidegoko berotegi-efektuko gasen emisioen inbentarioa, Ihobe, Ingurumen eta Lurralde Politika Saila



globalen eta biosferak gas horiek xurgatzeko ahalmenaren arteko oreka da jasangarritasunaren gakoa; hots, gaur egungo beharrak etorkizuneko belaunaldikoen beharrak asetzeko ahalmena kolokan jarri gabe asetzeko modua. Horrenbestez, esan daiteke klima-aldaketa gizateriaren erronka handienetako bat dela, eta modu koordinatuan egin behar dio aurre horri.

### **b) Klima-aldekataren aurkako EAEko Estrategia**

Klima Aldaketaren Aurkako EAEko Plana 2008-2012 amaitu ondoren, 2013. urtean, denbora-aldi zabalagoa hartuko zuen estrategia bat lantzen hasi zen, bide-orri bat egiteko emisioak txikitzeko ekintzetarako eta klima-aldekataren ondorioei egokitzeko. Gaur egun, Eusko Jaurlaritzak Klima-aldekataren aurkako 2050erako EAEko Estrategia dauka, Klima 2050 (KAAE 2015), 2015eko ekainaren 2an behin betiko onartutakoa.

Klima-aldekataren aurkako 2050erako EAEko Estrategiak, 2015eko ekainean onartutakoak, bi helburu nagusi ditu: batetik, EAEn berotegi-efektuko gasen isurketak % 40 murriztea, gutxienez, 2030an, eta % 80, 2050. urtean, 2005eko isurketetik, eta 2050. urtean energia berriztagarrien kontsumoa azken kontsumoaren % 40 izatea; eta, bestetik, EAEk klima-aldekataren aurrean erresilientzia izan dezan bermatzea, eta helburu hori, jakina, kontuan izan behar da lurralde-ereduaren berrikuspenean.


Klima-aldaketa kontu globala da, eta, beraz, nazioarteko erakunde bat arduratzen da arlo horretan erabakiak hartzeaz eta jarduteko irizpideak ezartzeaz: Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Konbentzioa (United Nations Framework Convention on Climate Change-UNFCC ingelesez). Nazioarteko esparru horretan, oso aintzat hartu da eskualdeek eta hiriek egiten duten ekarpena, eta horren adierazle, 2015eko abenduan, berebiziko protagonismoa izango dute lurralde-maila horiek UNFCCk Parisen egingo duen gailurrean. Bada garrantzi horren beste adierazle bat ere: Eusko Jaurlaritzak bat egin du Under 2 MoU and the compact of States and Regions ekimenarekin, eta autonomia-erkidegoko udalerri askok, Compact of Mayors ekimenarekin. Bi ekimen horiek mundu-mailakoak dira, eta tokiko agintariak eta eskualdeetako agintariak berotegi-efektuko gasen emisioak murrizten eta klima-aldekataren eraginak arintzen egiten duten lanaren balioa kontuan hartu eta nabarmendu nahi dute. Besteak beste, haien datuak eta konpromisoak UNFCCen NAZCA datu-basera igortzen dituzte.

KAAE 2015 egiteko kontsultarako eta parte-hartzeko prozesuaren barruan, kontsultatutako eragileek hauek jotzen zituzten epe laburrerako lehentasuneko ekintzatzat: batetik, ezagutza hobetzea, eraginda egon litezkeen sektore askotan, eta, bereziki, klima-aldekataren egokitzearen arloan, eta, bestetik, berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko teknologia berriei buruzko ezagutza hobetzea.

Erakundeen arteko lotura, klima-aldekataren egokitzea lurralde- eta hiri-plangintzan txertatzea, hondakinen kudeaketa optimizatzea, muturreko gertaera klimatikoaren ezagutza hobetzea eta urrakortasun-ikerketak: horra hor klima-aldekataren egokitzeko ekintzak abian jartzeko funtsezko elementuak.



## EVOLUCIÓN DE EMISIONES EN LA CAPV, ESPAÑA Y UE



\* Fuente: Índice GEI's de España: Avance del inventario de Emisiones GEI 2012 del Ministerio de Agricultura, Alimentación y Medio Ambiente.

[CO<sub>2</sub>]-ko emisioen bilakaera EAEn, Espainian eta Europar Batasunean

### c) Klima-aldekata eta hirien eginkizuna

Hiriei dagokienez, lurralde-sistemaren funtsezko elementua direnez, energia, elikadura eta ura eskatzen duten guneak eta emisioak eta beroa sortzen dituzten espazioak baitira, ez da nahikoa ikuspegi sektoriala, ekoizpena sustatu eta azpiegiturak hornitzea helburu duena, batez ere. Aitzitik, hiri-plangintzak, bere tresnen bidez bete egiten ditu adierazitako betebeharroriek, eta badu ahalmena erantzun egokiak koordinatzeko epe labur, ertain eta luzera. Eta, horrenbestez, hiriak gero eta efizienteagoak izango dira eta biztanleen kalteberatasuna txikituko da.

Gero eta kezka handiagoa sortzen dute hiriek klima-aldaketa-erikiko dituzten eginkizunek, emisioak murriztearen, karbono-kredituen transakzioen eta tokiko eta eskualdeko inpaktuei egokitzeko moduaren gainean. IPCCren dokumentazioak, Kyotoko tresnek (Munduko Bankuaren garapen garbiko mekanismoa eta karbono-funtza, adibidez), eta hiriek sortutako eta jasan beharreko arriskuek argi eta garbi erakusten dute klima-aldaketa-erikiko buruzko eztabaidaren muinean jarri behar direla. Iturri horiek eta beste batzuk beharrezkoak dira klima-aldaketa-erikiko alderdiak sartzeko gure hirien plangintza estrategikoan, eta erabakiak hartzen dituztenen hiri- eta eskualde-pentsamenduan ere sartu beharko dira. Funtsezkoa da aldaketak aurreikusi eta horiek kontuan hartuta planifikatzea azpiegiturak, ekoizpena, etxebizitza, nekazaritza eta baliabide berriztagarriak, besteak beste.

### BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN GUZTIZKO IGORPENAK SEKTOREEN ARABERA ETA OINARRI-URTEAREKIN ALDERATUTA (CO<sub>2</sub> baliokidearen milaka tonatan neurtuta).

| Sektorea         | Urte      | 2005      | 2006      | 2007      | 2008      | 2009      | 2010      | 2011      | 2012      | 2013      | 1990-2013 |
|------------------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|
| Energetiko sek.* | 7.878,60  | 10.576,20 | 11.005,80 | 11.191,50 | 9.990,60  | 8.697,20  | 7.719,50  | 7.705,30  | 8.014,90  | 6.680,20  | -1.198,40 |
| Industria        | 7.801,90  | 5.860,00  | 5.904,80  | 5.676,00  | 6.034,00  | 5.333,40  | 5.929,40  | 5.003,40  | 4.671,70  | 4.281,20  | -3.520,60 |
| Garraia          | 2.718,70  | 5.486,10  | 5.691,50  | 6.080,40  | 5.713,00  | 5.287,70  | 5.104,70  | 5.033,60  | 5.288,30  | 5.363,80  | 2.645,10  |
| Bizitegia        | 629,60    | 941,50    | 776,00    | 779,40    | 879,60    | 870,40    | 885,30    | 770,70    | 807,90    | 783,20    | 153,60    |
| Zerbitzuak       | 223,50    | 461,40    | 433,30    | 432,30    | 505,00    | 485,10    | 518,30    | 502,80    | 517,90    | 494,70    | 271,10    |
| Nekataritza      | 1.110,90  | 1.121,70  | 1.088,80  | 831,00    | 800,20    | 799,80    | 776,50    | 753,00    | 740,30    | 708,40    | -402,50   |
| Ondakinak        | 1.098,20  | 1.222,10  | 1.201,90  | 1.141,40  | 1.219,80  | 1.172,90  | 1.048,10  | 1.010,00  | 1.034,70  | 992,30    | -106,00   |
| Guztiak:         | 21.461,40 | 25.669,00 | 26.102,00 | 26.132,00 | 25.142,20 | 22.646,70 | 21.981,70 | 20.778,70 | 21.075,70 | 19.303,80 | -2.157,60 |

Oharra: kalkulatzeko metodologia eguneratu denez, aurreko urteetako igorpenen balioek aldaketak izan ditzakete, aurreko argitalpenei dagokienez. Inbentario honetan, berotzeko ahalmenak eguneratu dira, IPCCren IV. txostenarekin bat.





Klima-aldaketaren erronkak eta aukerak etorkizunean (epe laburrean, ertainean eta luzean) funtsezko elementuak dira XXI. menderako plangintza estrategikoan (Barton, 2006), eta horien azterketa eta plangintza egiteko moduak bi dira: arintzea eta egokitzea.

1990ko hamarkadaren hasieran Klima Aldaketari buruzko Konbentzioa (UNFCC) sortu zenetik, ikuspegi nagusia BEGen emisioak arintzea izan da. Agerikoa da aldaketa-prozesuak hurrengo hamarkadetarako ezarri direla, eta arintzeak epe luzerako aldaketetan eragin dezake, baina epe laburrean eta ertainean ezinbestekoa da lurraldeak eta giza asentamenduak klima-aldaketa egokitzea, eta, bereziki, biztanleen kontzentrazioaren eta urrakortasunaren ondorioz. Klima-aldaketari buruzko joerak ikusita, agerikoa da BEGen emisioak murrizteko edo arintzeko kanpainarekin batera ahalegin handiagoak egin behar direla aldaketetara egokitzeko.

#### **d) Arintzea eta egokitzea.**

Klima-aldaketaren eraginak arintzeko eta haiei aurre egiteko, bi neurri daude: arintzea eta egokitzea. Bi neurriak elkarri lotuta daude eta beharrezkoa da zertan diren jakitea, lurralde-antolamenduan eragiten duten agirietan txertatu ahal izateko.


#### **Arintzea.**

Arintzearen helburua da berotegi-efektuko gasen emisioaren eta hobien bidez gas horien immisioaren arteko balantzea hobetzea. Emisio eta immisio horiek, oro har, jarraituak direnez (egokitzeko ekintza gehienak ez bezala, aldian behingo gertaerekiko erresilientzia handitzeko helburua baitute), alderdi hauetan oinarrituta kudeatu behar dira, besteak beste:

**Mugikortasun jasangarria.** Klima Aldaketaren Aurkako Euskal Planak adierazten duenez, garraioaren sektoreak EAEko berotegi-efektuko gasen % 25 sortzen du, ibilgailu pribatuaren erabilerak sortutakoa, gehiena. Europako zenbait hiri-eremutako datuek adierazten dutenez, dentsitate handiko eta garraio kolektiboko sistema egokiko hiri-eremuetan ibilgailu pribatuetan egiten den motordun joan-etorrien % 60 bidera daiteke garraio kolektiboko sistemetara. Funtsezkoa da, beraz, lurralde-estragieiek garraio kolektiboko sistemak indartzen jarraitzea. Azpimarratu behar da errepideko garraioek igortzen dituztela sektoreko BEGen % 96. Salgaien nahiz bidaiarien garraioak ia-ia bikoiztu egin dute emisioen kantitatea 1990. urtearen aldean.

Horren haritik, LAGen berrikuspenak zenbait proposamen planteatzen ditu aldirietako trenbide-sistemak indartzeko eta garraio kolektiboko ardatz egituratzaileak garatzeko, garraio-modu horietara bideratutako hiri-ereduak diseinatzeko, sistema intermodalak planteatzeko garraio-sistemak egituratzeko ikuspegi orokor moduan, eta hiri-zentralitateko espazioak sortzeko geltokien eta garraio-kolektiboko sistemetara iristeko guneen inguruan. Oinezkoak eta bizikletak ibiltzeko sarea zabaltzea eta ohiko hiriguneak indartzeko eta hiri-dentsitatea handitzeko politikak funtsezkoak dira mugikortasun motordunaren beharrak murrizteko.





Garraio-sektoreak 2011. urtean EAEn sortutako emisioak.

**Eraginkortasun energetikoa.** Garapen berrietan, hiri-diseinuan eta -arkitekturan printzipio bioklimatikoak sartzea planteatu da, lehentasunezko gomendio gisa. Horrela, lehendik eraikita zeuden espazioak eraginkortasun energetikorik handieneko baldintzetara egokitu dira eta igorpen kutsagarriak gutxituko dira. Uste da bizitegi-sektorea eta zerbitzu-sektorea EAEko atmosferara berotegi-efektuko gasen % 17 igortzearen arduradunak direla. Gainera, uste da zenbateko hori %40an gutxitu ahal dela, honako hauetara zuzendutako diseinuak ezarrita: eraikuntzak eta eraikitako espazioak ahalik eta gehien egokitzea inguruko baldintza klimatikoetara; eta, isolamendu eraginkorrak eta kontsumo energetiko baxuen sistemak erabiltzea (argiztapena, etxetresna elektrikoa, berogailua, etab.)

**Energia berriztagarriak.** Aurreko atalean adierazitako murrizpena % 100ekoa ere izan daiteke elektrizitatearen, fuel-olioaren eta gasaren ohiko horniduraren ordezkari eguzki-energia eta energia eolikoa jasotzeko sistemak jarriko balira etxeetako eta hirugarren sektorerako hornidura egiteko. Gaur egun, energia berriztagarri ez kutsatzaileen kontsumoa ez da iristen EAEn kontsumitutako energiaren % 7ra ere. Bada aukera bat energia berriztagarriak gehiago erabiltzeko: eraikitako espazioetan txertatzea, eta horrelako energia ekoizteko moduko eremuak lokalizatzea, erabilera bateragarria duten lurzoruetan.

**Landa-ingurunea.** Klima-aldaketari dagokionez, arreta handiena industrian eta hiri-ingurunean jarri da, eta ez zaio garrantzia handirik eman landa-ingurunearen eginkizunari. Baina landa-ingurunea gaur egungo klima-egoeraren eragile eta konponbidearen parte ere bada, eta zeresan handia du karbono-erabilera gutxiko trantsizioarako bidean. Munduan berotegi-efektuko gasen emisioen % 14 nekazaritzak egiten ditu, eta baso-soiltzeak, berriz, guztirako emisioen % 18.

Arintzeko estrategietan funtsezkoa izateaz gain, landa-ingurunea nahitaezko elementua da klima-aldaketari egokitzeko estrategietan. Landa-lurzorua giltzarriak dira klima-aldaketarekin lotutako arriskuak moteltzeko. Basoguneak karbono-hobiak dira: Lurra berotzea eragiten duten gasen kontzentrazioa murrizten dute. Kalkuluen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko basoek 2 Mt CO<sub>2</sub> inguru atxikitzen dituzte urtean, eta laboreak, larreak eta asentamenduak, berriz, emisio-iturri dira.



Nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-sektoreak, beraz, funtsezko eginkizuna dute, eta eginkizun hori gainerako sektoreekin (energia, garraioa, eta abar) batera garatu beharko da, gizartearen, ingurumenaren eta ekonomiaren aldetik erresilientea eta jasangarria izango den lurralde-antolamendua bermatzeko. Politika publikoak, Nekazaritza Politika Erkidea eta klima-aldaketaren erronkari aurre egiteko jartzen diren pizgarriak barne, elementu giltzarria dira ildo horretan. Landa-ingurunea aldaketa ekologikoen eta espezieen migrazio klimatikoaren (eta horiek biodibertsitatean dituzten inpaktuen) protagonista ere izango da.

Baso-masak zabaltzea —oihaneztatzea— eta prebentzio-neurriak hartzea hiri-orbana zabaltzeko ez dadin funtsezko estrategiak dira guztirako kutsadura-zama murrizteko eta gure lurraldea balizko klima-aldaketari hobeto egokitzeko. Oihaneztatzea, hirigintza mugatzea eta eremu kalteberetan (kostaldea eta urak har ditzakeen eremuak, adibidez) erabilerak kontrolatzea, zenbait arrisku arintzeko ekintzak dira; esaterako: ur-ekasak, arrisku naturalen eragin handiagoa, eta biodibertsitatea galtzea landare-estaldura murriztu edo eraldatu delako.

### **Egokitzea.**

Sistema naturalek eta antropogenikoek klima-aldaketaren benetako edo aurreikusitako eraginekiko duten ahultasuna murrizteko ekimenak eta neurriak adierazteko erabiltzen da egokitze terminoa. Funtsezkoa da herrialdeek eta komunitateek neurriak eta jardunbideak ezartzea gerta daitezkeen kalteetatik eta asaldatzeetatik babesteko.

Klima-aldaketari egokitzea ez da soilik inpaktu kaltegarriekiko ahultasuna murriztea, eragin positiboak etekina nola atera ere aztertu behar du. Egokitze-neurriek epe laburrerako eta epe luzerako ikuspegia izan behar dute, eta ingurumena eta plangintza erabiltzeko eta hondamendiak kudeatzeko moduak ere txertatu beharko dituzte.

Klima-aldaketak ondorio asko eta askotarikoak izan ditzake hiri-ingurunean, haren kokapenaren arabera. Dena den, probabilitate handiena dutenak izaki, honako hiru ondorio hauek funtsezkoak dira biztanleen segurtasunean zuzenean eragiten baitute: bero-uhartea efektuaren eraginpean egotea; Itsasoaren mailaren igoeraren eta olatuen aldaketaren eraginpean egotea; eta uholdeen eraginpean egotea, uraldi handiak direla eta.

Beste inpaktu batzuk ere aurreikusten dira (adibidez, biodibertsitatearen espazio-banaketa aldaketa, eta nekazaritza eta abeltzaintzako jardueretarako eta beste jarduera ekonomiko batzuetarako egokia izatea), baina lehendabizi aipatutako hirurak dira hiri-ehunei zuzenen eragingo dietenak.

**Bero-uharte** efektuarekiko esposizioa. Hirietako egoera bat da, bereziki hiri-handietan erabiltzen diren materialak bero-xurgatzaileak direlako gertatzen den bero-metaketa sortutakoa, eta honetan datza: gauez egunez metatutako beroa disipatzeko zailtasuna, hiri-eremuak ez direnetan ez bezala. Klima-aldaketaren egungo egoeran, hiriak ingurune estrategikoak dira eta izango dira, eta proban jarriko dute gizakiak tenperaturak etengabe gora egiteari aurre egiteko duen gaitasuna.

Hirietan egiten diren esku-hartzeak giltzarriak dira gizakia fenomeno horren aurrean egokitzeko. Hona hemen esku-hartzeko arlo horien adibide argi batzuk:



- Inguruneko hezetasuna, zuzen-zuzen lotuta baitago landaredia urriari eta eraikinetarako eta zorurako material iragazgaitzak erabiltzeari.
- Eraikuntzan eta azpiegiturretan erabiltzen duten materialek erradiazio termikoa igortzeko duten ahalmena. Albedo handiko materialak erabilia bero gutxiago metatuko litzateke, eta horrenbestez, gutxiago irradiatuko litzateke gero.
- Giza jarduerak igortzen dute beroa: zirkulazioak, berogailuek, hozkailuek, makinek, eta abarrek.
- Gure kaleen eta eraikinen geometria eta tipologia, airea berritzea baldintzatzen dute eta.
- Hiriko gainazalen zimurtasuna, eta, bereziki, eraikinen inguratzailena.
- Topografia, bai naturala, bai eraldatua, obra zibilen lur-erazketak eta betelaneak eragindakoa.

**Itsasoaren mailaren igoerarekiko eta olatuen aldaketekiko esposizioa.** Kostaldeko sistemak oso sentikorrak dira itsasoaren mailaren igoerarekiko, bai eta beste faktore klimatiko batzuekiko ere. Adibidez, uraren azalerako tenperatura handitzea, azidotzea, ekaitzen aldaketak edo olatuen aldaketak. Eta azken horiek, hain zuzen, gure kostaldeari eragin diezaieketen dinamika nagusietako batzuk dira. Azkenengo sei hamarkadetan, aldaketa handiak hauteman dira olatuen intentsitatean eta noranzkoan, eta olatu handienetan, urteko 0,8 cm arteko handitze esanguratsua ikusi da. Mendearen amaierarako, kostaldeak atzera egingo duela aurreikusten da, eta aurreikuspena betetzen bada EAEko eta Kantabriako kostaldearen 22 km galduko lirateke, guztizkoaren % 30. Halaber, ezin da ahaztu eragin horrek itsasadarretan izango lukeen ondorioa, eta kontuan hartu behar da hiri-asentamendu handiak daudela haietan.

Jada aurreikusita dauden arriskuei aurre egiteko neurriak hartzea lurralde-plangintzari zuzen-zuzen lotuta dagoen lana da, hein handi batean. Horren haritik, beharrezko neurri bat da kostaldeko ekosistemak leheneratzea, itsasoaren aurrera egiteari hesi naturalak jartzeko eta eragin horren ondorioak txikitzeko.

**Uraldiek eragindako uholdeekiko esposizioa.** Klima-aldaketaren eraginez aurreikusten da euri-prezipitazioen intentsitatea eta maiztasuna handitu egingo direla, eta horren eraginez, zenbait arro hidrologikok, haranek, mendi-hegalek, ibai-ibilguk, alubioi-lautadak, eta abarrek azkar sortutako eta emari eta abiadura handiko uraldi handien eraginak jasateko arriskua dute. Eremu horiek urbanizatuta badaude, urak har ditzakeen eremu horietako biztanleek eta eremua okupatzen azpiegiturek uraldien ondoriozko uholdeekiko arriskua izan dezakete, maila batean edo bestean.

Kalte handiak ez gertatzeko, epe laburrean edo luzean zer neurri har daitezkeen erabakitzea da Uraren Euskal Agentzia (URA) azken urteetan egiten ari den azterketen helburua, baina, oro har, alderdi hauek aipa daitezke, esku-hartzeetarako:

- Udalerrri bakoitzaren historial plubiometrikoa eta hidrologikoa. Horretatik abiatuta, jakinarazpen- eta alarma-plan bat landu daiteke maila guztietan.



- Eraginpean dauden elementuak babesteko aukerak; ingeniaritzako konponbideak eta konponbide sozialak izan daitezke.
- Laminazio-urtegiak, puntako emaria kontrolatzeko.
- Jarduerak ibilguetan; zubiak, presa txikiak eta ura bideratzeko lanak izan daitezke.
- Presen segurtasunari eta ibilguak ixteko arriskuari buruzko azterketak egotea.
- Ibaien, erreken, eta abarren estaldurak.

## II HELBURUAK

Klima-alaketaren arloan lurralde-estrategiaren berrikusketaren helburuak Klima-alaketaren aurkako 2050erako EAEko Estrategiak dituenak dira, funtsean, eta, bereziki, lurralde-eragin handiena dutenak:

1. Lurraldearen efizientzia eta erresilientzia handitzea.
2. Karbono gutxi erabiltzen duen energia-eredua sustatzea.
3. Mugikortasun jasangarria bultzatzea.
4. Natura-ingurunearen erresilientzia handitzea.
5. Lehen sektorearen erresilientzia handitzea eta haren emisioak murriztea.
6. Ur-hornidura bermatzea eta eraikitako ingurunearen eta azpiegitura kritikoen (energia, ura, elikadura, osasuna eta IKTak) erresilientzia handitzea muturreko egoerekiko.
7. Hondakinen sorrera gutxitzea eta kontsumo jasangarriagoa sustatzea.
8. Plangintza-dokumentuek lurralde-jasangarritasunaren balioetan sentsibiliza-tzea gizartea.

## III LURRALDE-ORIENTABIDEAK

Honako lurralde-orientabide hauek proposatzen dira, klima-alaketaren arloan:

1. Klima-alaketaren gaia lurralde- eta hiri-plangintzan txertatzeko moduetan lan egitea. Klima-alaketaren aurkako estrategian jasotzen den bezala, udalerriz gaindiko plangintzan frogapen-proiektu bat gauzatzea, klima-alaketarekiko urrakortasun-ikerketa bat eta egokitzapen-neurriak sartzeko mekanismoak txertatuko dituenak.
2. Azpiegitura berdea eta naturan oinarritutako konponbideak sustatzea, klima-alaketara egokitzeko eta hiri-jasangarritasuna bermatzeko.
3. Klima-alaketara egokitzea txertatzea, inpaktuen eta klima-alaketaren inpaktuen eta harekiko urrakortasunaren kartografia tematikoaren bitartez.
4. Ekosistemak leheneratu eta naturalizatzea, lurraldearen erresilientziari eusteko.



5. Espezieen migrazioa ahalbidetuko duten ekosistemen arteko konexioak sustatzea eta horien konektibitatea erraztea.
6. Itsasoaren maila igotzeak eta muturreko olatuek eragiten dieten kostaldeko eremuak identifikatzea.
7. Degradatutako eremuak basotzea eta baso naturalaren azalera handitzea, karbono-hobiak baitira.
8. Baso-kudeaketa hobetzea, ziurtatutako azalera handituz eta suteei aurrea hartzeko programak hobetuz.
9. Intermodalitatea eta BEG emisio txikiagoak dituzten garraiobideak bultzatzea.
10. Energia-eraginkortasuneko irizpideak eta energia-berriztagarriak sustatzea.



### 4.3. OSASUNA

***Osasunaren eta lurraldearen arteko lotura diziplina-paradigma moduan txertatzen da lurralde-antolamenduan, eta osasuna lurralde-politiken zeharkako elementua da. Lurralde- eta hiri-plangintzako erabakiek inguruneak aldatzen dituzte, bizileku eta lantoki ditugun lekuei eragiten diete, bai eta lekualdatzeko moduari eta aisialdia igarotzeko moduari ere. Eta gaur egun dauden ebidentziek erakusten dutenez, horiek guztiak biztanleen osasunean eragiten duten faktoreak dira. Horretarako, faktore horiek aztertu eta haien jarraipena egiteko, plangintza-prozesuetan kontuan hartu behar da ekitatea, komunitatearen parte hartzea eta plangintzaren lehenengo etapetatik haiek ikusgai egiteko tresnak garatzea.***



Historian zehar, lurraldearen plangintzak eta hirigintzak osasun-erronka handiak gainditzen lagundu duten neurriak proposatu eta diseinatu dituzte. Adibidez, XIX. mendean Europan triskantza handia eragin zuten kolera-epidemiak gainditzen, edo tuberkulosia gainditzen, XX. mendean. Eta nola lortu zen hori? Besteak beste, biztanleria-dentsitatea murriztuz, giza pilaketarik egon zedin, estolderia-sareak eginez, espazio berdeak sortuz, eta etxebizitzaren bizigarritasun-ezaugarriak hobetuz (argia, aireztatzea, komunak).

Historian zehar, gaixotasunen prebentzioan eta osasunaren sustapenean izandako lorpen handi askoren jatorria lurralde-plangintzan eta hirigintzan pertsonen bizi-baldintzei eta lan-baldintzei buruz hartutako erabakiak dira. XXI. mendearen hasieran, osasun publikoak dituen erronkak beste batzuk dira, transmititzen ez diren gaixotasun kronikoak ditugu eta: minbizia, gaixotasun kardiobaskularrak, diabetesa, obesitatea, asma eta buru-gaixotasunak, esate baterako.

Gaur egun badakigu lurralde-antolamendua eta hirigintza-plangintza, osasuna eta ingurumena dimentsio konplexuak direla eta elkarri oso lotuta daudela zenbait aldagairen



bidez, batzuk zuzenak, beste batzuk zeharkakoagoak. Hirien eta haietan bizi diren biztanleen egungo arazoak (airearen kutsadura eta zarata, jarduera fisiko gutxiago egitea, elikadura-ohiturak aldatzea, gizarte-loturak galtzea, eta hiria garatzea landa/natura garatu beharrean, adibidez) osasunaren oso alderdi garrantzitsuak dira eta elkarri oso lotuta daude. Mugikortasun moduen aldaketek enpleguari, elikadura osasungarriari, jarduera fisikoari eta gizarte-harremanak izateko aukerari eragiten diete, besteak beste.

Hiri-espazioei eman dakizkiekeen tipifikazioen eta osasunaren eta ongizatearen arteko lotura hainbat azterketaren gaia da, eta haietan, zenbait ondorio jarri dira agerian. Adibidez, gaixotasun kronikoekin eta osasun mentalarekin lotutako ondorioak, estresarekin, bizimodu osasungarriarekin eta ez-osasungarriarekin lotutakoak, edota herritarren segurtasuna eta bizi-kalitatearekin lotutakoak. Azterketetan erabilitako metodologia ere askotarikoa da. Besteak beste: azterketa kuantitatiboak eta kualitatiboak, adierazle espazialen erabilera eta haien modelazioa, eta herritarren hiri-espazioa ulertzeko eta sentitzeko modua jasotzen duten testak edota inkestak. Tipifikazio berritzaileenetako bat hau da: espazioei kolore bat esleitzekoa, kontuan hartuta zer erabilera eta jarduera duten, burura zer dakarten eta zer aldarte eragiten duten. Horrela hiru espazio zehazten dira: berdeak, grisak eta urdinak. Espazio berdeak, berdeguneak landaredia duten eremuak dira (zuhaiztiak, basoak, belar-eremuak edo parkeak), eta espazio urdinak, berriz, ur-azalerak (ibaiak, urmaelak, aintzirak edota itsasoa). Eremu grisak, berriz, hiri-ehundurako, merkataritzako eta garraioko edo industria-jarduerako inguruneak dira.

Hau da osasunaren arloko planteamendu horren azpiko hipotesia: berdeguneak eta espazio urdinak eskura edukitzea eta hiri-ehunduraren beraren diseinua osasuna sorrarazten duten edo laguntzen duten elementuak izan daitezke (osasunaren alderdi guztietan). Ohikoa da azterketa espezifikoek azterketa geografikoko adierazle konplexuak erabiltzea, norbanakoaren eta komunitatearen intereserako esanahia dutenak. Besteak beste, hauek: oinez ibiltzeko ahalmena (walkability), konektibitatea (connectivity), ingurune atseginak (amiability) eta erabilera mistoko espazioak (zenbait definizio operatibo izan ditzake, kontuan hartuta zenbat informazio dagoen eskuragarri, edo aztergaia neurri fisikoak diren edo neurri pertzeptibo-psikologikoak edo biak).

Ingurumenaren aldetik atseginak diren inguruneak izatea, baliabide berdeak eta aisiarako eta topaleku izateko espazioak eskuragarri dituztenak izatea, herritarrek gero eta gehiago eskatzen duten gauza da. Nahi horri gauza bat erantzun beharko litzaioke: nahi horrek, gainera, onurak ekartzea norbanakoaren osasunari dagokionez, baina baita osasun publikoaren ikuspegitik eta, beraz, osasun-politiken ikuspegitik. Hau da, dagokion ebidentzia zientifikoaren azterketa erantsi behar zaio. Ikuspegi hori urrun dago esparru teoriko eta enpiriko sendo bat osatzetik, hau da, neurri orokorrak eta espezifikoak zein diren eta zer onura lortzea espero den jakiteko aukera ematen duen esparrua izatetik.

Hirigintzako erabakiak oso eragile garrantzitsuak dira biztanleen osasuna sustatzeko, eta lurralde-antolamenduak eta hirigintzak funtsezko eginkizuna dute osasunari, ongizateari eta bizi-kalitate onari lagunduko dioten bizi-baldintzak bermatzen. Kontua da bermatzea aukera errazena osasungarriena izatea beti.





Funtsean, kontuan izanda lurralde-mailan osasuna aztertzea zein konplexua den eta, aldi berean, zein aberatsa den eta zer zeharkakotasun dakarren, irizten diogu aukera egokia dela ikuspegi berri bat emateko Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legearen zenbait helbururi; hala nola, eskualdeen garapen sozio-ekonomiko orekatua, eta bizi-kalitatea hobetzea, biztanle-sektoreen arteko alde handiak desagerraraziz.

## I EGOERA

Osasuna erabateko ongizate fisiko, mental eta sozialeko egoera da, eta ez soilik gaixotasunik eza (OME, 1946). Definizio horretan oso elementu garrantzitsuak daude:

- Osasuna zerbait positiboa da.
- Osasuna jatorri asko dituen elementua da.
- Osasuna pertsona askoren erantzukizuna da.
- Osasuna bizi-kalitatea hobetzeko baliabide gisa

Gure eguneroko bizitzako eta gure inguruneko alderdi askok eragiten dute gure osasun-egoeran. Izan ere, pertsonen osasun-egoeran eta bizi-kalitatean zenbait faktorek eragiten dute: gizarte-, politika-, ekonomia-, ingurumen- eta kultura-faktoreek. OMEk “osasunaren gizarte-faktore erabakigarriak” deritze, hau da, pertsonen osasun-egoeran eragiten duten faktoreak, izan bakarka, izan beste faktore batzuekin lotuta. Faktore erabakigarri horiek, “banakako” osasun-faktore erabakigarriekin batera jarduten dute: adinarekin, sexuarekin, ondare genetikoarekin eta bizimoduarekin batera.

Beraz, gure osasuna baldintzatzen duten faktoreak dira pobrezia- eta bazterketa-maila, langabezia, hezkuntza, elikagaiak eskura izatea, edateko ura, etxebizitza, oinarritzko zerbitzuak, klima-aldaketarekiko kalteberatasuna, eta generoaren, adinaren, etniaren edo kokapen geografikoaren araberrako diskriminazioa.

### **Desberdintasunak osasunean**

Osasunaren arloko gizarte-desberdintasunak desberdintasun bidegabeak eta saihesgarriak dira, eta, gizarte-klasea, generoa, sexua, etnia edo jaiolekua tarteko, pertsonak eskura ditzakeen aukeren eta baliabideen eraginez gizarteak, ekonomiak, demografiak edo geografiak zehaztutako biztanle-taldeei eragiten die.

Osasunaren arloko desberdintasunek heriotzak eta gaixotasunak gehiegi izatea eragiten dute. Ebidentzia zientifikoek adierazten dute osasunaren arloko desberdintasunak murriztu egin daitezkeela esku-hartze eta politika egokiak egiten badira zenbait sektoretan.

Hau da osasun-ekitatea: pertsona guztiek beren osasun-maila gorena lortzeko aukera berdina izatea, desabantaila-egoeran egon gabe, gizarte-posizioa dela-eta edo gizarte-faktoreek eragindako beste egoeraren bat dela-eta.

Esparru horretan, zenbait estrategia garatu dira herritarren osasuna sustatu eta babesteko. Adibidez, Garapen Jasangarriko Europar Batasunaren Estrategia. EAEn, 2013-2020 Osasun





Planak ezartzen ditu lehentasuneko ekintza-arloetan desberdintasunak murrizteko helburuak eta estrategiak. Osasunaren estrategia politika guztietan txertatzeko politikek ingurune eta jarrera osasungarriak sustatzen dituzte, osasunaren gizarte-baldintzatzaileen, ekitatearen eta sektore arteko ekintzaren bidez.

### **Hiri-garapen osasungarria**

Lehen aipatu bezala, bizileku dugun lekuaren faktore egituratzaileak —hau da, eraikitako ingurunea eta ingurune naturala— osasunaren baldintzatzaile garrantzitsuak dira. Eta horrek eragin berezia du estatus sozio-ekonomikoa, sexua, etnia, desgaitasuna edo adina dela-eta egoera ahulenean dauden biztanle-taldeetan.

Eskura ditugun frogek agerian jartzen dute inguruneak —haren diseinuan esku-hartzen du hirigintza-plangintzak— eragin handia izan dezakeela zenbait alderditan, hala nola elikadura-motan, jarduera fisikoan, etxebizitzan, enpleguan, garraioan, hiri-konexioetan, espazio publiko irekietan, gizarte-azpiegituran, kohesio eta konektibitate sozialean eta ingurumenean. Eta faktore giltzarri horiek, berriz, biztanleriaren osasun-mailan eragiten dute.

Horrez gain, garrantzitsua da kontuan hartzea gizarte-eskalaren arabeko gradiente bat dagoela osasunean: egoera okerreneko auzoetan bizi diren pertsonak lehenago hiltzen dira eta denbora gehiago ematen dute gaixorik auzo onenetan bizi direnak baino. Eta gizarte-eskalaren arabeko gradiente argi bat dago ingurumen-desabantailetan ere. Horrela bada, maila ekonomiko txarreneko pertsonak probabilitate handiagoa dute zarata-maila handiagoko ingurune batean bizitzeko, kalitate okerragoko aire bat arnasteko, eta berdegunetara iristeko zailtasun handiagoak izateko, eta horrek osasun-eragile okerragoak eragiten ditu.

Horrenbestez, hau da osasunaren aldeko hirigintza: garapen jasangarriaren oinarriak errespetatuz biztanleen osasuna eta ongizatea sustatzen duena. Haren oinarria ekitatea, sektore arteko lankidetzeta eta parte-hartzea dira, OMEren “persona guztientzako osasuna” politikaren funtsezko balioak, alegia.

### **Osasunaren alderdiak EAEn**

Osasun-politikek, laneko osasuneko aurrerapenak, etxebizitzak, hezkuntzak eta ingurumen fisikoa hobetzeak azken hamarkadetan osasun-adierazleak hobetzen lagundu dute. Horrela bada, 2013. urtean jaiotzean zegoen bizi-itxaropena 87,2 urtekoa da gizonen artean EAEn, eta 80,2 urtekoa, emakumeen artean. EAEko 2006-2010 aldiko jaiotza-uneako bizi-itxaropenak 2001-2005 aldiarekoarekin alderatzen baditugu, ikusten da 1,6 urtean egin duela gora gizonetan, eta 1,3 urtean, emakumeetan.


Baina hurbilago begiratuta, ikus daiteke osasun-egoeraren hobekuntza ez dela berdina biztanleria osoan. Eredu geografiko txikiagotan aztertzen badugu, oinarritzko osasun eremutan, hau ikusten da 2006-2010 aldirako (1. irudia, 1. taula):

- EAEn jaiotzeko unean dagoen bizi-itxaropenak eredu geografiko argia du: balio handiagoak hegoaldean eta ekialdean gizonen kasuan, eta hego-ekialdean, emakumeen kasuan.



- Bai gizonengan, bai emakumeengan, bizi-itxaropenak behera egiten zuen bizilekuaren gabezia sozioekonomikoak gora egiten zuen heinean.
- Emaizta onena eta txarrena dituzten oinarritzko osasun-eremuen arteko bizi-itxaropeneko arraila 10,5 urtekoa da gizonengan eta 7,0 urtekoa, emakumeengan.
- Bizi-itxaropen baxuena duten oinarritzko osasun-eremuak gabezia sozioekonomiko handiena dutenak dira.

**1. irudia. Jaiotzako bizi-itxaropena EAEko oinarritzko osasun-eremuetan. 2006-2010**



Iturria: Calvo M, Esnaola S. EAEko oinarritzko osasun eremuetan bizi-itxaropenean dauden desberdintasunak, 2006-2010

**1. taula. Jaiotzako bizi-itxaropen handiena eta txikiena duten oinarritzko 10 osasun-eremuen rankinga, EAE; 2006-2010**

| GIZONEZKOAK                                 |       |               |       |
|---------------------------------------------|-------|---------------|-------|
| EAE                                         | 78,1  | BI % 95eko KT |       |
| Oinarritzko osasun-eremua (ESI)             |       |               |       |
| Hego Gasteiz (Araba)                        | 82,0* | (79,4         | 84,6) |
| Arabako Mendialdea (Araba)                  | 81,9* | (79,0         | 84,9) |
| Algorta (Uribe)                             | 81,2* | (80,1         | 82,3) |
| Lakua-Arriaga (Araba)                       | 80,9* | (78,4         | 83,3) |
| Legazpi (Goierrri-Urola)                    | 80,8* | (79,2         | 82,5) |
| Aranbizkarra I (Araba)                      | 80,6* | (79,4         | 81,8) |
| El Pilar (Araba)                            | 80,3* | (78,9         | 81,7) |
| Arabako Lautada (Araba)                     | 80,2* | (78,6         | 81,9) |
| Ipar Araba (Araba)                          | 80,1* | (78,5         | 81,6) |
| Arabako Haranak (Añana)                     | 79,9  | (78,0         | 81,9) |
| Alde Zaharra (Araba)                        | 76,1* | (74,7         | 77,4) |
| Intxaurren (Donostia aldea)                 | 75,9* | (74,3         | 77,5) |
| Abetxuku (Araba)                            | 75,7  | (72,6         | 78,8) |
| Abusu-Zamakola (Bilbo-Basurtu)              | 75,7* | (74,0         | 77,4) |
| Sestao-Markonzaga-Kueto (Barakaldo-Sestao)  | 75,6* | (74,6         | 76,6) |
| Ortuella (Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzeta) | 75,1* | (73,1         | 77,1) |
| Pasaia San Pedro (Donostia aldea)           | 75,0* | (73,3         | 76,7) |
| Alde Zaharra (Bilbo-Basurtu)                | 74,2* | (72,6         | 75,8) |
| Otxarkoaga (Bilbo-Basurtu)                  | 73,7* | (72,1         | 75,3) |
| Bilbo Zaharra (Bilbo-Basurtu)               | 71,5* | (69,4         | 73,5) |
| Tartea (BI handiena-BI txikiena)            | 10,5  |               |       |

\* EAErekiko ezberdintasun nabarmenak.

\*: Konfiantza-tartea

| EMAKUMEZKOAK                                            |       |               |       |
|---------------------------------------------------------|-------|---------------|-------|
| EAE                                                     |       | BI % 95eko KT |       |
|                                                         | 85,1  | (85,0         | 85,2) |
| Oinarritzko osasun-eremua (ESI)                         |       |               |       |
| Santa Luzia (Araba)                                     | 88,0* | (85,9         | 90,2) |
| Lakua-Arriaga (Araba)                                   | 87,1  | (83,9         | 90,2) |
| Gasteiz-Erdialdea (Araba)                               | 87,0* | (86,1         | 88,0) |
| Arabako Mendialdea (Araba)                              | 86,7  | (82,7         | 90,8) |
| Zorrotza (Bilbo-Basurtu)                                | 86,7  | (85,2         | 88,1) |
| Legazpi (Goierrri-Urola)                                | 86,6  | (84,5         | 88,7) |
| Portugalete-Castaños (Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzeta) | 86,6* | (85,5         | 87,7) |
| Lakuabizkarra (Araba)                                   | 86,5  | (83,6         | 89,5) |
| Gazalbide-Txagorritxu (Araba)                           | 86,5* | (85,3         | 87,7) |
| Aranbizkarra I (Araba)                                  | 86,5* | (85,3         | 87,7) |
|                                                         |       |               |       |
| Abetxuku (Araba)                                        | 83,7  | (79,5         | 87,9) |
| Abanto-Muskiz (Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzeta)        | 83,7* | (82,6         | 84,7) |
| Alde Zaharra (Bilbo-Basurtu)                            | 83,4  | (81,8         | 85,1) |
| Leioa-Erdialdea (Uribe)                                 | 83,0* | (81,9         | 84,2) |
| Intxaurren (Donostia aldea)                             | 82,5* | (80,8         | 84,2) |
| Erandio-Basamortua (Uribe)                              | 82,3* | (80,8         | 83,7) |
| Aranbizkarra II (Araba)                                 | 82,1* | (80,1         | 84,0) |
| Otxarkoaga (Bilbo-Basurtu)                              | 82,1* | (80,3         | 83,8) |
| Ibarra (Tolosaldea)                                     | 81,3* | (78,9         | 83,7) |
| Bilbo Zaharra (Bilbo-Basurtu)                           | 81,0* | (78,8         | 83,3) |
|                                                         |       |               |       |
| 7,0                                                     |       |               |       |

Iturria: Calvo M, Esnaola S. EAEko oinarritzko osasun eremuetan bizi-itxaropenean dauden desberdintasunak, 2006-2010




Beste adierazle batzuek ere —hautemandako osasunak, adibidez— gizarte-, genero-, eta lurralde-desberdintasunak dituzte. Bi sexuetan, hautemandako osasun onak behera egiten du klase sozialean behera egitearekin batera, eta alde handiena kualifikatu gabeko eskulangileen eta zuzendari, kudeatzaile eta goi-teknikarien artean ikusten da: 17 portzentajezko puntu emakumeetan, eta 14, gizonetan. Hautemandako osasun ona (osasunaren norberaren balioespena) osasuna neurtzeko eskura dugun modurik errazenetakoa da. Gaixotasunari eta osasunaren balioespen subjektiboari lotuta dago.

Osasun mentalak, antsietate- eta depresio-sintomen prebalentziari erreparatuta, nabarmen egin du okerrera emakumeen artean, 2002an % 18koa baitzen, eta 2013an, berriz, % 24koa. Gizonen artean, prebalentziak gora egin du, % 11tik % 16ra igo baita (2. irudia). Osasun mentalak okerrera egiten du klase sozialean behera egitearekin batera. 2013an, antsietate- eta depresio-sintomen prebalentzia % 10ekoa zen I. taldeko gizonen artean, eta V. taldekoen artean, % 20koa. Emakumeen artean, berriz, % 19tik % 28ra artekoa da.

Osasun mentala zenbait alderdirekin lotuta dago: komunikatzeko gaitasunarekin eta sare eta harreman sozial onak izatearekin, gizarte-euskarri handiagoa izatearekin, auzoko jardueretan inplikazio handiagoa izatearekin, langabeziarekin eta kalitate txarreko enpleguekin eta lanera joateko denbora asko ematearekin, ariketa fisikoa egitearekin, eta berdeguneekin, ekosistemekin eta paisaiarekin kontaktuan egotearekin. Lurralde-antolamenduak eta hirigintzak osasun mental ona izaten eta sendotzen laguntzen du.

#### Antsietate eta depresioaren sintomen prebalentzia



Iturria: Osasun Inkesta. Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza

## II HELBURUAK

1. Lurraldeak osasunean dituen inpaktuen azterketa sistematikoa bultzatu eta laguntzea.
2. Ekitatearen alde egitea; hots biztanle orok, haren generoa, adina, etnia, estatus sozioekonomikoa eta dibertsitate funtzionala edozein izanda ere, aukera berdinarik



izatea komunitatearen zerbitzu guztiak eskuratu, lortu eta erabili ahal izateko. Horretarako, desberdintasunak plangintza-prozesuaren hasieratik aztertuko dira.

3. Herritarren parte-hartzea sustatzea lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren arloan, gardentasuna, demokrazia eta berdintasuna printzipioetan oinarrituta.

### III LURRALDE-ORIENTABIDEAK

#### **a) Bizimodu aktibo eta osasungarriari laguntzea.**

Bizi-ohitura edo bizimodu osasungarriak sustatzea, elikaduraren, ariketaren eta mugikortasun aktiboaren bidez.

##### **a.1. Mugikortasun aktiboa**

Mugikortasuna pertsonen eta komunitatearen osasunean eragiten duten faktore ekonomiko eta sozialetako bat da.

a.1.1. Mugikortasun aktiboko moduak (oinez, bizikletaz edo motorrik ez duen beste modu batean mugitzea) sustatzeak eta garraio kolektiboen erabilera sustatzeak jendeak egunero gomendatutako ariketa fisikoa egitea dakar, eta horrek gehiegizko pisua eta obesitatea prebenitzen du, eta gaixotasun kardiobaskularrak, minbizi mota batzuk eta II. motako diabetesa izateko arriskua txikitzen.

a.1.2. Hiriguneetan ibilgailu pribatua murrizten bada eta garraio publikoa erabiltzea sustatzen, airearen kalitatea hobetzen da, istripuen ondoriozko heriotzak murrizten dira eta osasun-eragin onak ditu: arnas gaixotasunak eta bihotz-gaixotasunak murrizten dira, zaratak eragindako estresa txikitzen da, bai eta istripuek eragindako desgaitasunak eta heriotzak ere.

a.1.3. Hiri-eremu trinkoa, lurzoruaren erabilera misto askotarikoak dituztena, sustatzea, garapen berriak jada egindakoekin txertatzea, eta oinarrizko zerbitzuak arrazoizko distantziara eskura eta iristeko moduan edukitzea oso lagungarria da mugikortasun aktiborako.

##### **a.2. Elikadura Osasungarria**

Elikadura-aukera zabala eskuratzeko ahalmena pertsonen egoera sozialak eta ekonomikoak mugatzeaz gain, bizi diren lekutik hurbil elikagai-dendak egoteak ere mugatzen du.

a.2.1. Askotariko elikagaiak eta garesti ez direnak eskuragarri izatea sustatzeak gehiegizko pisua eta obesitatea prebenitzen du, bai eta gaixotasun-arriskua ere, eta osasun-ekitatean laguntzen du.

a.2.2. Nekazaritzako lurak babestu eta berreskuratzeak, produktu freskoak eskura edukitzeko aukerari laguntzeaz gain, ingurumen-inpaktu txikiagoa eragiten du (garraio gutxiago behar delako), tokiko enplegua handitzen du eta baliabide naturalak eta ingurunea ez galtzen laguntzen du.

a.2.3. Tokian-tokian elikagaiak egiteak (baratze komunitarioak eta hiri-ortuak, adibidez) elikagai osasungarriak eskuratzeko errazteaz gain, jarduera fisikoa eta gizarte-kohesioa laguntzen dute.



### **a.3. Jarduera fisikoa**

Bizitza fisikoki aktiboak onura asko ditu osasunerako, bai fisikoak, bai psikologikoak.

a.3.1. Diseñar entornos que proporcionen oportunidades para andar, ir en bici u otras formas de movilidad activa, eliminando barreras que dificultan la realización de actividad física.

a.3.2. Promover el acceso a parques y espacios públicos abiertos seguros, apropiados y atractivos.

### **b) Sare eta ekipamenduetarako irisgarritasuna sustatzea**

Sareen eta ekipamenduen eskuragarritasuna sustatzea, oinarritzko ekipamenduen sarearen plangintza egitean eskuragarritasun-berdintasuna kontuan izanda.

Ekipamendu-sare irisgarri, eskuragarri eta kalitatekoak, biztanle-talde guztien beharrei erantzuten dienak, komunitate osasuntsu eta jasangarriak garatzen laguntzen du.

1. Oinarritzko ekipamendu-sareen plangintza egitea, eta hartan adieraztea egungo eta etorkizuneko komunitatearen beharrak, eta ziurtatzea guztiek erabiltzeko aukera berdinak dituztela.
2. Oinarritzko ekipamenduen koordinazioa eta efizientzia sustatzea.
3. Herritarren parte-hartzea sustatzea eraikin komunitarioen garapenean eta diseinuan.

### **c) Lurraldeak enplegua erakartzeko dituen baldintzak bermatzea.**

Enplegua funtsezkoa da gure gizartean eta badira enpleguarekin lotutako zenbait alderdi osasunean eragin ona edo txarra dutenak.

1. Tokiko enplegua sustatzea, lekualdatze-denbora murrizten baitu eta bizitza pertsonalaren eta profesionalaren arteko orekari laguntzen baitio
2. Zorua erabilera mistoa duten hiri-garapen konpaktuak sustatzea, enplegu-aukera zabalagoak sustatzen baititu.
3. Lana, familia eta aisia bateragarri egiteko aukera berrietan lan egitea; eta lurralde eta espazio malguak planteatzea, erantzunak emateko gai izanik, sinergiak maximizatzen dituztenak eta erabileren, ordutegien, espazioen askotariko aukerak eta jardueren eta profesionalen lankidetzak eta osagarritasuna baliatzen dituztenak, komunitatea sustatzeko.

### **d) Kalitatezko inguruneak eta etxebizitzak sustatzea**

1. Espazio publiko irekiak eta kalitatezko ingurunea eta etxebizitza sustatzea.
2. Espazio atseginak, seguruak eta herritarren ongizatea eta gizarte-kohesioa laguntzen dutenak sortzea.



3. Osasuneko gizarte-desberdintasunak murriztea, bizi-kalitatea hobetzen duten giroak eta inguruneak eskuragarri izanda. Lurraldeko eremu funtzionalen garapen homogeneorako ekintzak ekitatez gauzatu behar dira. Horretarako, desabantaila sozial handiagoa duten eremuei baliabide gehiago esleitu behar zaizkie, kontuan hartuta gaur egun eremuen artean eta eremu bakoitzaren barruan dagoen desberdintasun abiapuntua.

#### **d.1. Espazio publiko irekiak**

d.1.1. Berdegune eta/edo eremu berde natural eskuragarri, erakargarri eta seguruak izatea. Jarduera fisikoa sustatzen dute, bai eta gizarte-interakzioa eta -kohesioa.

d.1.2. Berdeguneak eta/edo eremu naturalak, elkarren artean eta hiri-ingurunearekin lotutakoak, erabil daitezen bultzatzea, jarduera fisikoa sustatzeaz gain, gizarte-interakzioa eta -kohesioa hobetzen baitute.

d.1.3. Berdeguneak hiriguneetan txerta daitezen sustatzea, bai eta kaleetan zuhaitzak eta landaredia landatzea ere. Bero-uhartearen ondorioak arintzen laguntzen dute, airearen kutsadura xurgatzen eta paisaia hobetzen, eta horrela, biztanleen osasuna hobetzen dute.

d.1.4. Naturaren, historiaren eta kulturaren aldetik garrantzia duten edo oroitzapen kolektiboan garrantzia duten lekuak zaindu eta/edo hobetzea, leku honetako kide izateko sentimendua eta gizarte-kohesioa sustatzeko.

#### **d.2. Etxebizitza**

Etxebizitzak eragin handia du pertsonen ongizatean eta osasunean, baina enplegu-aukerei, gizarte-konektibitateari eta ingurumenaren jasangarritasunari ere eragiten diote.

d.2.1. Kalitate-estandarra eta energia-eraginkortasuna duten etxebizitzak sustatzeak ingurumen-inpaktua murriztu eta osasuna hobetzen du.

d.2.2. Zenbait tipologiako etxebizitzak (zenbait neurri, jabetza-erregimen, eta abar dituztenak), ordaintzeko moduko prezioan, biztanle-talde guztientzat eskuragarri eta guztiak eremu berean txertatuta (ez sakabanatuta) edukitzeak gizarte-aniztasuna eta komunitate orekatua errazten du.

d.2.3. Hiri-plangintza jasangarria sustatzea, eta hiri-lehenegatzea eta infraetxebizitzak desagerraraz daitezen bultzatzea.

#### **d.3. Komunitatearen segurtasuna eta babesa**

Hiri-diseinuak pertsonak beren eguneroko jarduerak egiteko espazio seguruak sortzeko ahalmena du. Segurtasun eza hautematen bada portaera-ereduak aldatzen dira, eta isolamendua, gizarte-kontakturik eza eta jarduera fisikoa murriztea eragiten du.

d.3.1. Norberak ikusteko aukera eta besteek ikusteko aukera ematen duten espazioak sortzea, segurtasun-pertzepzioa handitzen dute eta.



d.3.2. Trazadura sinpleak, seinale egokiak dituztenak eta zirkulaziotik babestuta dituztenak egitea, mugikortasun erraza eta segurua bultzatzen dutelako.

d.3.3. Lurzoruaren erabilera mistoa, jarduera-aniztasuna egotea errazten duelako, kalean jarduera gehiago egotea eta zaintza natural hobea.

#### **d.4. Ingurumena**

Airearen kalitateak, uraren kalitateak eta haren kontsumo jasangarriak, zaratak, usain txarrak, argi eskasak, arrisku naturalek edo gizakiak eragindakoek eta klima-aldaketak eragindako ondorioek osasunean eragiten dute. Horrez gain, lurzoruaren erabilera mistoa egiten bada, zaratak, usainek edo argiek eragindako eragozpenik ez izateko neurriak txertatuta dituen, han bizi direnen pertsonen osasun fisikoa eta osasun mentala hobetuko da.

Kutsatzaileen kontzentrazioa murriztea, kutsadura-iturria murrizten saiatuz, eta biztanleria haren eraginpean ahalik gutxien egon dadin ahaleginduz.

d.4.1. Lurzoruaren erabileren plangintza egiteak, kontuan izanda bizilekuetatik lantokietarako eta oinarrizko zerbitzuetarako distantziak, eta garraio publikoko sistema egokia izateak lekualdatze aktiboak sustatzen ditu, ibilgailu pribatuetan egindako leku-aldatzeak murrizten ditu eta airearen kalitatea hobetzen du.

d.4.2. Leku sentikorretan (parkeak, eskolak, hirigunea) motordun ibilgailuen zirkulazioa murrizteak airearen kalitatea hobetzen du, zaratak eragindako eragozpenak murrizten ditu eta mugikortasun segurua sustatzen du.

d.4.3. Klima-aldaketaren ondorioak arintzeko eta hari egokitzeko irizpideak aplikatzeak klima-aldaketaren arriskuak eta eraginak murrizten ditu.

d.4.4. Kontuan hartzea azpiegitura grisek osasunean duten eragin kaltegarria (batez ere, hiri-eremuetan) ingurumenean, konektibitatean eta segurtasunean, biztanleen osasun fisikoan, osasun mentalean eta gizarte-kohesioan eragiten baitu.

#### **e) Gizarte-kohesioa eta gizarte-harremanak**

Gizarte-harremanek kalitatea, eta konfiantza, elkarrekiko obligazioak eta komunitatean edo gizartean errespetua izatea, oso lagungarria da pertsonak eta haien osasuna babesteko.

1. Baliabideak modu ekitatiboan eskuragarri izatea, gizarte-interakzioa errazten duten inguruneak emanez, eta biztanleen parte-hartze aktiboa sustatzea. Horrek guztiak atxikimendua eta tokiko kide izateko sentimendua sustatzen du, bai eta gizarte-kohesioa ere, eta, beraz, osasun fisikoa eta osasun mentala hobetu eta osasuneko desberdintasunak murrizten ditu.
2. Osasuneko aktiboak sustatzea. Norbanakoek, komunitateek eta populazioek osasunari eta ongizateari eusteko duten ahalmena handitzen duten faktoreak edo baliabideak dira. Horren haritik, erraztu egin beharko lirateke gizarte-kohesioari eta osasunari laguntzen dieten ekimenak, bai administrazioak berak sustatutakoak, bai eta herritarrek sustatutakoak ere.





---

**f) Parte-hartzea**

Biztanle-talde guztiek beren arazoak identifikatzen eta zehazten parte hartzea. Ekintza horrek ekarpen handia egiten dio erabaki-hartzeari eta aberastu egiten du, parte-hartze aktiboa sustatzen du prozesuen hasieratik bertatik, gizarte-kohesioan laguntzen du, gizarte-desberdintasunak murrizten ditu eta osasuna hobetzen du.





#### 4.4. LURRALDEA ETA EUSKARA

***Euskaldunen kopuruak gora egin du, etengabe, azken 30 urteetan, eta ezinbestekoa da alderdi hori kontuan izango duen lurralde-antolamendua eta hiri-antolamendua egitea, ezagutza-indizeak handitzeko eta euskararen arnasmuneak zaintzeko.***



### I EGOERA

Oraindik orain indarrean dauden **Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak** onartzeko otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuak, 17. kapituluak, ondare kulturalaren antolaketari buruzkoan, honako hau ezartzen du:

*“Lurralde-antolamenduarekin zuzeneko erlazioa duen eta, hortaz, arreta eman behar zaion arkitektura-motako kultur ondarea alde batera utzita, bada, halaber, biztanleen bizimoduetan inplizitu dagoen kultur ondarea. (...) Moduak globalizatzeko joerak eta joerak berak orokortzeak badu eraginik inguru hauetan ere, inolako zalantzarik gabe, eta gero eta desberdintasun gutxiago dute hurbilean duten inguruekin, eta homogeneousaziorako joera nabarmena dute, komunikabide handien eraginez batik bat.*

Al margen del patrimonio cultural de tipo arquitectónico que es el más directamente relacionado con una ordenación territorial y al que es preciso prestar atención, existe también el patrimonio cultural implícito en los modos de vida de la población. (...) La tendencia, sin embargo, de la globalización de modos y de generalización de tendencias está sin duda afectando también a estas zonas, que se ven cada vez menos diferenciadas del entorno más inmediato y que tienden hacia la homogeneización a través fundamentalmente de los grandes medios de comunicación



*Aurreko puntuarekin loturik, baina pisu espezifiko handiagoarekin, hizkuntzaren gaia aipatu beharra dago. Euskal idiosinkrasiaren funtsezko gotorlekua da. Kasu honetan, euskararen presentziak heterogeneotasun handia azaltzen du lurraldean zehar: inguru batzuetan ia ez da azaltzen eta beste batzuetan hizkuntza nagusia da. Inolako zalantzarik gabe, lurraldearen antolamenduko elementu batzuek, telekomunikazioen edo garraio-sareen garapenak esate baterako, funtsezko garrantzia izango dute hizkuntzaren eta ezagutzen transmisio- prozesuetan, inguru desberdinetako pertsonen artean sortzen dituzten erlazioen ondorioz. Lurraldearen antolamenduak, arazo honetan funtsezko elementua edo behin-betikoa ez izan arren, ezaugarri hauek kontuan hartuta ihardun beharko du, proposatzen diren iharduketek horien gainean izan ditzaketen eragina aintzat hartuz beti.”*

Relacionado con el anterior punto pero con un mayor peso específico hay que hacer mención de la cuestión lingüística. Se trata del baluarte fundamental de la idiosincrasia vasca. En este caso, la presencia del euskera a lo largo del territorio muestra gran heterogeneidad, con zonas en las que es prácticamente inexistente frente a otras en las que es el preferente. Qué duda cabe que elementos presentes en la ordenación del territorio tales como el desarrollo de telecomunicaciones o de redes de transporte resultarán fundamentales en procesos de transmisión lingüística y de conocimiento en virtud de las interrelaciones que provoca entre personas de las distintas zonas. La ordenación del territorio, sin ser un elemento clave o definitivo en esta cuestión, deberá de actuar teniendo en cuenta estas características, considerando siempre el efecto que sobre ellas puedan tener las actuaciones que se propongan.

Lurraldea eta gure nortasuna gordetzeko eta sendotzeko dinamikaren barruan, nahitaezkoa da hizkuntzaren faktorea ere kontuan izatea, jakitun izanda zer arrisku dauden baina baita zer aukera eta indargune dauden ere, euskararen eta hirigintzaren arteko harremana behar bezala ikertu eta azaltzeko.

Inolako zalantzarik gabe, gaur egun indarrean dauden lurraldearen antolamenduko elementu batzuek, telekomunikazioen edo garraio-sareen garapenak esate baterako, funtsezko garrantzia izango dute hizkuntzaren eta ezagutzen transmisio-prozesuetan, inguru desberdinetako pertsonen artean sortzen dituzten erlazioen ondorioz. Lurraldearen antolamenduak (...) ezaugarri hauek kontuan hartuta jardun beharko du, proposatzen diren jarduketek horien gainean izan ditzaketen eragina aintzat hartuz beti”.


Euskal Autonomia Erkidegoa urrats handiak ematen ari da euskararen erabilera normalizatzeko, eta euskaraz dakitenen kopuruak etengabe egin du gora azken 30 urteetan. Horrela bada, “Euskara 21. Itun berritu baterantz” gogoeta irekiaren ondorengo txostenean (Euskararen Aholku Batzordeak 2009. urtean onartu zuen eta Eusko Jaurlaritzak urtebete geroago) jasotzen denez, funtsezkoa da ezagutza-indizeak handitzea eta euskararen arnaguneak zaintzea, hizkuntza-politika orekatu baten oinarritzko elementuak dira eta.

EAEko V. inkesta soziolinguistikoa eta V. mapa soziolinguistikoa (Eusko Jaurlaritza, 2011) adierazten dutenez, 5 urtetik gorako biztanleen %36,4 euskaldunak dira, % 19,3 euskaldun hartzaileak dira eta % 44,3 erdaldunak dira. Gaur egun, euskaldunak 749.182 dira, 1981. urtean baino 318.000 gehiago. Horrek esan nahi du euskaldunen ehunekoak 14,5 puntu egin duela gora azken 30 urteotan. Jatorriz elebidunak diren pertsonen eta euskaldunberrien artean, gero



eta gehiago dira etxean beti edo ia beti euskara erabiltzen dutenak. Euskara ama-hizkuntza dutenen artean, erabilerak behera egin du.

#### HIZKUNTZA-GAITASUNA. EAE, 2011 (%)



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2011

Ondorio orokorra, printzipioz, positiboa bada ere, txosten horietan adierazitako euskaldunen dentsitate geografikoari erreparatuz, ondorio hau atera dugu


*"Azken 20 urteetako bilakaera aztertuta, ikusten da euskararen erabilerak gora egin duela, arian-arian, EAEn (4 puntu batez beste). Hiru lurraldeetan eta lehenengo hiru gune soziolinguistikoetan gertatu da hori. Baina laugarren gune soziolinguistikoan euskararen erabilerak behera egin duela ikusten da (7,5 puntu, 1991. urtetik). Gune euskaldunetara hiri erdaldunenetatik bizitzera etorri diren biztanleen ezaugarri linguistikoek eragin dute beherakada hori".*

#### GUNE SOZIOLOGISTIKOEN BILAKAERA. EAE, 1981-2011 (%)

Gune soziolinguistikoaren bilakaera. EAE, 1981-2011 (%)

1981

2011



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak.

Bilakaerari erreparatuz gero, ikus daiteke EAEn euskaldundu egin diren guneen artean, bigarren gunea (1. taula) hazi dela gehien azken hogeita hamar urteetan, eta, batez ere, azken hamarkadan. Azken urteotan, biztanle gehien zituzten hiriak lehen gunetik bigarrenera pasatu



dira (Bilbao, Vitoria-Gasteiz, Getxo, Irun eta Errenteria), baita haien eragin-eremuaren barruan dauden hainbat udalerri ere. Hirugarren eremuan ere egin du gora euskaldunen kopuruak eta udalerri-kopuruak, eta, bereziki, Donostialdea, Tolosaldea, Debagoiena eta Durangaldeako herri batzuetan.

Laugarren gune soziolinguistikoari dagokionez, nabarmendu behar da azken 30 urteetan jaitsi egin dela, pixkanaka, gune horretan sartutako udalerrien kopurua, eta haietako batzuk hirugarren gunean sartu dira. Hain zuzen ere, duela 30 urte 79 udalerri zeuden laugarren gunean, orain baino 17 gehiago, eta hirugarren guneko udalerri bihurtu dira.

**1 taula. Biztanleriaren banaketaren bilakaera gune soziolinguistikoaren arabera. EAE, 1981-2011**

| Guneak       | Biztanleak (≥ 5 urte) |           | Euskaldunak (≥ 5 urte) |         | Udalerri-kopurua |      |
|--------------|-----------------------|-----------|------------------------|---------|------------------|------|
|              | 1981                  | 2011      | 1981                   | 2011    | 1981             | 2011 |
| 1. (<% 20)   | 1.263.529             | 178.591   | 75278                  | 31.403  | 82               | 22   |
| 2. (% 20-50) | 485.305               | 1.365.969 | 146.986                | 384.243 | 37               | 80   |
| 3. (% 50-80) | 249.083               | 448.083   | 156.440                | 280.008 | 52               | 87   |
| 4. (% 80)    | 78.531                | 63.493    | 69.072                 | 53.528  | 79               | 62   |
| EAE          | 2.076.448             | 2.056.136 | 447.776                | 749.182 | 250              | 251* |

Esan dezakegu, euskararen etengabeko hazkunde demografikoaren ondorioz, gehien murriztu den gune soziolinguistikoa lehenengoa dela, 60 udalerri gutxiago baititu (bigarren guneko udalerriak bihurtu dira). Izugarri hazi dira 2. eta 3. guneak eta haietan bizi dira biztanle gehienak eta euskaldun gehienak. Lehen adierazi bezala, laugarren gune soziolinguistikoan ere izan da jaitsiera, baina udalerrien zein euskaldunen jaitsiera askoz txikiagoa da 2. eta 3. gune soziolinguistikoetan izan den igoera baino. 3. gune soziolinguistikoaren igoera izugarri horrek bi arrazoi ditu: batetik, 2. guneko udalerriak eta euskaldunak sartu direlako 3. gunean, eta, bestetik, eragin gutxiago badu ere, 4. gunekoak sartu direlako. 4. gune soziolinguistikoaren jaitsiera zenbait faktorek eragin dute. Haien artean, nabarmentzekoak dira, eragina kontuan hartuta, bi hauek: jaiotza-tasarekin zuzen-zuzenean lotutako bilakaera demografikoa eta hirigintza-garapena. Izan ere, hirigintza-garapenak eragin handia izan du gune horretako udalerriek pisu demografiko txikia zutelako. Faktore horrek hizkuntzan duen eraginaz eta inpaktuaz ez dugu jardungo hemen, hamarkada bat baino gehiago baita zenbait adituren azterketetan jaso zela, bai eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren analisietan ere. Dena den, euskararen gizarte-bilakaera aztertzeke, kontuan hartu behar da ikuspegi global eta diakroniko hori, ikusten baita bigarren guneak lehen gunearen kaltetan egin duela gora —eta ez hirugarren gunearen kaltetan—, eta hirugarren guneak bigarren gunearen kontura egin duela gora eta pixka bat laugarren gunearen kaltetan. Horretatik guztitik ondorioztatu behar da Euskal Autonomia Erkidegoan azken hiru hamarkadetan euskarak izan duen bilakaerak hazkundera eta irabaziak ekarri dituela, ez galerak, izan Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiaren ikuspegi demografikotik, izan ikuspegi funtzional eta geografia- eta lurralde-ikuspegitik.

Euskaldunen dentsitate handieneko eremu geografikoak edo arnasmuneak (terminologia hori erabili zen hizkuntza-politikako lan-ildoei buruzko “Euskera 21 – Itun berri baterantz”



dokumentuan) funtsezkoak dira euskararentzat. Arnasguneak egoera soziolinguistiko eta psikolinguistiko bereziko guneak dira, eta espazio funtzionalak zein geografikoak izan daitezke. Esate baterako, eskola, administrazioa, hedabide batzuk, haurren aisia eta haurren udalekuak, besteak beste, euskararen bizi-espazio funtzionalak dira, eta ez arnagune geografikoetan soilik —dena den, oso garrantzitsua eta funtsezkoa da eremu funtzional horiek bermatzea, bai eta beste batzuk ere, arnagune geografikoetan—.

Bestalde, arnagune geografikoen ezaugarri nagusia da han bizi diren eta han lan egiten duten pertsona asko elebidunak direla, eta pertsonen eta erakundeen arteko harreman gehienek euskaraz egiten dira. Horregatik, beharrezkoa da gune horietan euskararen erabilera funtzionala eta naturala sustatu eta sendotzea, hein handi batean euskaraz bizitzeko aukera bermatzen baitute, euskal hiztunen komunitatea kohesionatzen baitute, eta eredu izan baitaitezke gainerako espazioentzat, hizkuntzaren bilakaerari dagokionez. Horrenbestez, babestu eta sustatu beharreko espazioak dira, besteak beste —baina ez horregatik bakarrik— haietan bizi direnen hizkuntza-eskubide eta -aukerak ez oztopatzeak. Aitzitik, bermatu eta sustatu egin behar dira, eta ahalegindu behar dugu euskara ohiko hizkuntza, naturala eta nagusia den espazioak izan daitezen.

Horretarako, gune horietan euskara udalerriko gizarte-bizitzan eta biztanleen arteko harremanetan ohiko hizkuntza eta hizkuntza funtzionala izateko proiektuak sustatu behar dira. Administrazioak euskaraz normaltasunez funtziona dezan bultzatuko da. Herriarrek administrazioarekiko harremanetan euskara modu naturalean erabili ahal izateko ekintzak sustatuko dira. Euskara-planen diseinua eta planak abian jartzea diruz lagunduko da. Gizarte-zerbitzuek, zentzu zabalean (osasun-zerbitzuak, mendekotasunak dituztenentzakoak, hezkuntzakoak, etab.), euskaraz normaltasunez funtziona dezaten bultzatuko da. Ekintzak sustatuko dira euskara dendetan eta lanean naturaltasunez erabiltzeko. Azken finean, neurri egokiak hartuko dira euskara zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza izan dadin eremu formaletan, eta ohiko erabilerako hizkuntza pertsona arteko harremanetan.”

## II HELBURUAK

Euskararen arloan, honako helburu hauek proposatzen dira lurralde-ereduaren berrikusketan:

1. Euskarak lurraldean duen presentzia kontuan izatea lurralde-antolamenduko eta hirigintza-plangintzako tresnak egin eta garatzean, hizkuntza-politikari eta koofizialtasunari laguntzeko tresna moduan.
2. Egokiak diren neurriak sustatzea euskararen erabilera normalizatua egiteko, pertsonen arteko ohiko erabilerako hizkuntza izan dadin administrazioan, gizarte-zerbitzuetan (osasunean eta hezkuntzan, esaterako), merkataritza- eta enpresa-arloan eta aisiako espazioetan.

## III LURRALDE-ORIENTABIDEAK

Euskararen arloan, honako lurralde-orientabide hauek proposatzen dira lurralde-ereduaren berrikusketan.

1. Euskarak lurraldean duen presentzia aztertu eta behatzea, eta alderdi hori kontuan izatea dagozkion lurralde-plangintzako tresnak egitean.
2. Euskara kontuan izatea lurraldeko hizkuntza-paisaian.



- 
3. Euskararen arnasguneak edo bizi-espazioak zehazteko eta mugatzeko irizpideak garatzea, eta lurralde- eta hirigintza-plangintzako tresnetan erabiltzea.
  4. Auzoen, industrialdeen, osasun-zentroen, ikastetxeen eta abarren izen berrietan euskarazko toponimoak edo terminoak erabiltzea, eta, bereziki, arnasguneetan eta hiru hiriburuetan, euskaldun gehien dituzten eremuak dira eta.





## 4.5. LURRALDE ERLAZIOA



**Euskal Hiria, eskualde-hiri irekia. Abiapuntu hartuta EAE Europako errotula moduan ikusten duen kontzeptua, garraio- eta komunikazio-sistemetan izandako aurrerapenak sortutako baldintza berriek eta lurraldeen arteko interakzio ekonomiko eta sozial berriek Europa-esparruko lurralde-garapeneko estrategia berriak diseinatzeko aukera ematen dute, eremu zabalagokoak, EAE eta inguruko eskualdeak biltzen dituztenak.**



## I EGOERA

### a) Indarrean dauden LAG-ak. EAE Europako errotula.

LAGen ekarpen handienetako bat errotula kontzeptua sustatzea izan da. Eta erreferentzia egokia da etorkizunerako ere, EAEren kokapenarekin eta dinamiarekin eta Europako espazioaren garapenarekin bat datorren ikuspegia baita.




EAEk kokapen estrategikoa du: errotula modukoa da, bat egiten baitute Paris-Madril ipar-hego korridoreak eta zeharkako bi korridorek: Ebro ardatzak eta Kantauri itsasoko ertzeko ardatzak. Etorkizunean garrantzia handiagoa izango duten bi euroeskualderen, Arku Atlantikoaren eta Hegoaldearen Iparraren, arteko giltzadura garrantzitsua da. Horrez gain, Arku Atlantikoa

Europako zentraltasun-nodo baten grabitate-zentroan dago. Hartan, EAEko lurraldeaz gain, Kantabria, Errioxa, Nafarroa eta Akitania daude.

EAEko hiriburuen sistema polinuklearra inguruneko hiri-sistemen erdian eta haietatik hurbil egoteak eta haien berezko hiri-garrantziak leku garrantzitsu batean jartzen dute Europako hiri-sisteman. Gaur egun, Bilbo nazioarteko konexio-loturak eta zerbitzu aurreratuak jasotzeko ahalmena duen hiria dela esaten da, eta inguruko espazioekin artikulatzeko gero eta prozesu gehiago daude. Mendebalderantz, Bilboko metropolia Kantabriako ekialdeko kostalderantz garatzen da. Ekialdera, finkatzen ari da Donostia-Baiona eurohiriaren artikulazioa.

Euskal Hiriak, eskualde-hiri moduan, landa-ingurunea eta hiri-ingurunea biltzen ditu eta, bereziki, EAEko hiru hiriburuak osagarritasunean eta integrazioan oinarritutako hiri-sistemako elementu giltzarritzat ditu. Garraio- eta komunikazio-sistema berriek sortutako baldintza berriek eta lurraldeen arteko gizarte- eta ekonomia-interakzioek aukera ematen dute lurralde-garapeneko estrategia berriak sortzeko. Harreman-aukera berriak daude hurbileko eta urruneko espazioekin, lurraldeen arteko mendekotasunak handiagoak dira, bai eta haiek elkarri onurak ekartzekoa ere, eta integrazioko, lehiako eta lankidetzako espazio berriak eratzen ari dira.



Testuinguru horretan, EAE errotula moduan eratzea elkarren osagarri diren bi eskalatan planteatu behar da. Lehenengo eskala kontinentala da, eta gero eta garrantzia handiagoa duen estrategia da, harremanak gero eta estuagoak baitira. Bigarren eskala eskualdekkoa da, eta hartan txertatzen da EAEren inguruko lurralde-sistema.






## b) Dortsala eta Europako hegoaldeko Diagonala.

Europako lurraldearen ikuspegi konbentzionalarekin (Dorsalak, Hegoaldearen Iparraldeak, Arku Atlantikoak eta Aldiriek osatzen dute) batera Europako Diagonala sortu da, kontinenteak azken hamarkadan bizitako transformazioaren ondorioz. Lisboa, Madril, Bartzelona, Marseilla eta Milano hiriak buru dituen espazio bat da, gero eta garrantzi handiagoa duena. Hiri horiek izugarritzko ahalmena dute espazio ekonomiko zabalen buru dira beren herrialdeetan, eta mugakide dituzten hiri-sistemekin elkarrengatzen. Hiri- eta ekonomia-ardatz sendo hori egituratzea mundu osoan eragingo duen Europako hazkunde-espazio berri bat finkatzeko elementuetako bat da.

Garrantzi handia lortzen ari den diagonal horrek lehen mailako ikerketa-zentroak eta unibertsitateak ditu, nazioarteko portuak eta aireportuak, naturaguneak, garapeneko eskualde-korridoreak, metropoli-eremu handiak eta hiri ertainak, azpiegitura sendo batean oinarrituta (gainera, azpiegitura sendotzen ari da, abiadura handiko trenen Europa barneko sarea txertatzea aurreikusten baita). Eremu batzuetan, diagonaleko espazioen integrazio ekonomikoko prozesuak oso garrantzitsuak dira. Adibidez, Lisboa eta Oportoren artean, Madril, Bartzelona eta Valentziaren artean, eta Milano eta Marseilla artean. Eskualdeaz gaindiko hiri-sistema handiak egituratuz eratuko da diagonal, komunikazio-sistema berrien bidez, elkarrengatzen ekonomiko eta sozialak handituz garatzen ari diren hiri-sistema handi horiek egituratuz, alegia. Lurralde horren barruan, hiri-intentsitate handiko espazioak daude, eta indarrez ari dira agertzen, aukera ematen baitute ekoizpen-jarduerak jartzeko gogokoenak izan diren espazioek (Erdialdeko Europak) duten pilaketa-maila gainditzeko.

Testuinguru horretan, EAE Europako garapeneko ipar-hego ardatz nagusietako batean egoteak aukera berriak ekartzen dizkio. Diagonaleko espazioak garatu eta finkatzen badira, handitu egingo dira Europa iparraldeko hiriguneekiko harremanak, eta EAEk funtsezko eginkizuna izango du eremu horiek lotzeko.





### **c) Inguruko lurraldeekin lankidetzan jarduteko aukerak.**

#### **c.1. Frantziaren hegoaldearekin egituratzea.**

Mugaren inguruan antzeko ezaugarriak dituzten kostaldeko bi hiri-eremu daude: Donostiako eremu funtzionala eta Baionako hiri-eremua. Bi eremu horiek hiri-continuum bat osatzen dute mugaren inguruan. Baiona-Donostia Euskal Hiria osatzen dute elkarri lotuta dauden bi eremu horiek. Komunikazio-sistema onak dituzte, eta lankidetzako prozesuak abian dituzte. Bien artean 700.000 biztanle inguru dituzte.

Azken bost urteetan hobetu egin da garraio-sarea, bi muga arteko eremuan, eta abiadura handiko trenarekin lotuta, batez ere. Baina badira konpondu gabe dauden lotura-arazoak. Bi muga arteko eremuan erabiltzen diren garraio-motak ez daude orekatuta, eta errepidez egiten da garraio osoaren % 80. Muga, salgaien errepide bidezko garraioaren pilaketa handia dago.

Aquitaine-Euskadi Euroeskualdea, Lurralde Lankidetzako Europa Talde (LLET) moduan sortutakoa, erakunde berria bada ere, erronka handiak ditu. Besteak beste, Baionaren eta Donostiaren arteko ardatzean pertsonen mugaz gaindiko mugikortasuna aztertzen duen proiektu bat azpimarratu behar da, garraio publikoa errealitate horretara egokitzeko eta Europar Batasunak finkatutako jasangarritasun-konpromisoak betetzeko helburua duena. Euroeskualdearen 2014-2020 proiektu estrategikoak Akitania-Euskadiren helburuak Europako gidalerroekin parekatzea du helburu, betiere berrikuntza ekonomikoaren, mugikortasun jasangarriaren eta euroeskualdeko herritarren arloan.

#### **c.2. Nafarroarekin egituratzea.**

EAEren inguruko hiri- eta ekoizpen-eremu nagusia Iruñea da. Horrez gain, Nafarroaren iparreko eta mendebaldeko eremu askok lotura funtzionala dute EAErekin. Bi lurraldeek gero eta elkarreragin handiagoa dute, loturako azpiegiturak egin direlako. Alderdi horretan, nabarmentzekoak dira Iruñea-Donostia autobidea eta Iruñea-Altsatsu autobidea, EAEko errepide-sareekin lotzen dute eta. Bidasoa Behearen Nafarroako eremua guztiz integratuta dago, funtzionalki, Irunekin eta, oro har, Donostia eremu funtzionalarekin.

#### **c.3. Kantabriarekin egituratzea.**

Kantabriaren ekialdeko kostaldean Kantabriako hirigintza-garapenaren zati handi bat biltzen duen eremu bat dago, eta Bilbo metropolitarraren garapenaren parte garrantzitsua ere bada. Ia 90.000 biztanle ditu, eta etengabeko hazkunde demografikoa, azken hamarkadan areagotua, batez ere. Mugikortasunari buruzko inkestek diotenez, egunean 60.000 bidaia baino gehiago egiten dira espazio horren eta EAEren artean. Berez, Bilbo metropolitarraren atal moduan funtzionatzen duen lurraldea da. Espazio hori oraintsu sortzen ari den Santander-Torrelavega metropoli-eremuraino luzatzen da. Eremu horrek 360.000 biztanletik gora ditu, Kantabriako biztanleen % 62 inguru.

#### **c.4. Errioxarekin egituratzea.**

Logroñoren garapen funtzionalaren ondorioz, hiri horrek gero eta zentralitate handiagoa du Errioxako hiriburu horren hurbileko Ebro ibaiaren ertzeko lurraldeekiko. Arabako Errioxako udalerrietatik Logroñorako zirkulazio-fluxuak eta eguneroko lekualdatzeak handitu egin direla




ikusten da, eta Errioxako hiriburuaren merkataritza- eta zerbitzu-eskaintzak funtsezko eginkizuna izango duen lurralde-egitura planteatzen da. Ardoak eskualdeko ekonomian duen oinarritzko eginkizunak dakartzan lotura ekonomikoak erantsi behar zaizkio.

### c.5. Burgosekin egituratzea.

Burgosen bitartez Madrilekiko eta penintsularen erdialdearekiko harremanak egituratzen dira, eta EAEko intereseko garraio-ardatz nagusietako bat da. Miranda de Ebroko eremuak, gainera, hiri-lotura handia du Arabaren hegoaldearekin eta Vitoria-Gasteizek polarizatzen du erreferentziako hirigune moduan, probintziako hiriburuarekiko lehentasuna baitu.

### d) Euskal Hiria, Eskualde-Hiri Irekia.

EAEko hirien eta inguruko lurraldeen kokapenak eta egitura polizentrikoak funtsezko eremu bat osatzen dute, gure lurraldea Europako mendebaldeko hiri-espazio handien artean sartzeko eta iparraldearen eta hegoaldearen arteko komunikazioen erdigunea izateko. EAEren inguruko lurralde-sistemako lurraldeekin eta hiriekin sinergiak eta lankidetzak aukerak daude, gero eta handiagoak, gainera, komunikazio-sareak finkatzen doazen neurrian. Eskala handiago horri esker, neurri eta kalitate handiagoko ekipamenduak, azpiegiturak eta zerbitzu-sistemak bideragarriak izan daitezke. Lurralde-integrazioak modu erabakigarrian laguntzen dio EAEri Europaren hegoaldeko zentralitate-espazio moduan kokatzen, toki estrategiko bihurtzen du garraio-fluxuetarako eta ekonomia berriko jarduerak bertan kokatzeko aukeretarako.



Tiempos de viaje por autovía. Tiempos de viaje tren de alta velocidad.

Aireko, autobide bidezko eta abiadura handiko trenen bidezko konexio berriek aukera handiak sortzen dizkio Euskal Autonomia Erkidegoari lurralde-harremanetan eta lurralde honek gero eta protagonismo handiagoa izateko Europako diagonalen. Aire-konexioak funtsezkoak dira nazioarteko konektibitatearen estrategian, eta Bilboko aireportua penintsularen iparraldeko eta Frantziaren hegoaldeko aire-nodo nagusi moduan indartzea gakoa da estrategia horretan. Abiadura handiko trena Europako hiri-sistemak egituratzeko elementu handia da eta garapen-dinamika berriak txertatzeko funtsezko lotura-elementua.

AP-1 autobidea kostaldeko korridorearen korridore alternatiboa da (hura beteago baitago), eta korridore atlantikoan iparretik hegorako lekualdatzeen distantziak murrizten ditu, bai



penintsulatik datorren zirkulaziorako, bai eta Magrebetik Europa iparralderanzko mugimenduetarako. Autobide-sareak ipar-hego eta ekialde-mendebalde loturak egiten ditu, eta azpiegiturak (Bilboko portua eta Forondako aireportua, kasu) eta espazio logistikoak lotzen ditu. Eta, horrez gain, Europako hego-ekialdeko salgaien fluxuak, airekoak zein itsasokoak, antolatzeko nodo zentrala finkatzeko baldintzak ezartzen ditu.

Euskal Hiria oso eremu garrantzitsua da eta, kontinenteko eskalan duen eragin-eremua aintzat hartuta, Europako diagonalarekin eta iparraldeko espazioekin erlazionatzeko gai da. Euskal Hiria, errotula-lurralde moduan, LAGen berrikusketako lurralde-ereduan kontuan hartu beharreko funtsezko elementua da.

## II HELBURUAK

Kanpo- eta barne-erlazioaren arloan, honako helburu hauek proposatzen dira lurralde-ereduaren berrikusketan:

1. EAEk Europako errotula moduan duen ahalmena garatzea.
2. Euskadiren eta Akitaniaren arteko harremana garatzea, euroeskualdearen baitan.
3. Lankidetza eta lurralde-erlazioa handitzea Nafarroarekin, bereziki, eta Errioxarekin, Kantabriarekin eta Gaztela eta Leonekin.
4. Barneko lurralde-erlazioa handitzea.

## III LURRALDE-ORIENTABIDEAK

Lurralde-orientabideak eskualde-integrazioaren testuinguruan egiten dira, eta Euskal Hiriak inguruneke hiriak polarizatzeko duen ahalmena kontuan hartuta.

### ***Frantziaren hegoaldearekin egituratzea.***

Baiona-Donostia Euskal Hiria Iberiar penintsularen eta Europako erdialdearen eta mendebaldearen arteko komunikazio-bideen sarbide naturala da. Mugaz haraindiko lankidetza-proiektu horrek hiru helburu estrategiko handi ditu:

1. Intermodalitateko, komunikazioko eta informazioko plataforma atlantiarra eratzea, gaur egungo korridorea —pasabidekoa— garapeneko eurokorridore bihurtuz. Hartan kokatuko dira espazio horretan kokatzearen abantailak baliatzeko gai diren jarduera ekonomiko berriak.
2. Sareko metropoli lineal polizentrikoa egituratzea. Horretarako, maila europarreko metropolien eskakizunei erantzuteko moduko espazio-kudeaketa, azpiegiturak eta zerbitzu- eta ekipamendu-eskaintza egingo da.
3. Natura-ondarea babestu eta balioan jartzea, “metropoli berdea” kontzeptuari aplikatutako ingurumen-bikaintasunaren bidez.



LAGen ikuspegitik, EAE Europako errotula moduan egituratzeko funtsezko proiektua da, bai eta Donostiako eremu funtzionalaren hiri- eta ekonomia-garapenerako ere, eta erkidegoko lurralde osoan eragingo du. Horren haritik, ekimen estrategiko hauek planteatzen dira: abiadura handiko trenaren euskal sarea TGVarekin lotzea; aldirietako trenbide-sistemak integratzea; natura-intereseko espazioen arteko lankidetza eta kudeaketa integratua; Irungo maniobretarako kaiak berritzeko eragiketa, hiri-eraldaketako eta -dinamizaziorako eremu berri bihurtzeko; eta Pasaia badiaren hiri-berrikuntzako ekimenak egitea, portu-jarduera espezializatuak, etxebizitzak, zerbitzu aurreratuak, ekonomia-jarduera berriak eta aisia modu bateragarrian garatzeko aukera ematen duen eremu bat eratzeke.

### ***Nafarroarekin egituratzea.***

- Nafarroa EAEko trenbide-sistemaren garapenean txertatzea.
- Bidasoa aranak Euroeskualdeko dinamiketan gehiago txerta dadin sustatzea.
- Agurainen eta Tolosan dotazio gehiago jartzea, Nafarroa mendebaldeko eskualdeei hiri-zerbitzuak emateko nodoak izateko.
- A-1 errepidean, Vitoria-Gasteiz eta Altsasu artean, jarduera- eta logistika-espazioak garatzea.
- Bi lurraldeen mugetan dauden natura-intereseko guneen arteko lankidetza eta kudeaketa integratua. los espacios de interés natural que marcan el límite entre los dos territorios.

### ***Kantabriarekin egituratzea.***

- Kantabriarekin hobeto egituratzea Bilboren eta Santanderren arteko trenbide-konexioa garatuz, errazago iristeko Bilboko aireportura eta Bizkaiko hiriburuko maila altuko metropoli-zerbitzuetara.
- Itsasadarraren iparraldeko metro- eta trenbide-geltokietan intermodalitaterako elementuak jartzea, eta Kantabriatik datozen bidaiariak Bilboko eremuko garraio kolektiboko sistemak eskuragarriago izateko.
- Bilboko metropoliaren eta Kantabriako ekialdeko kostaldeko udalerrien arteko trenbide arrunten bidezko konexioak garatzea.

### ***Burgosekin egituratzea.***

- Burgosen inguruan garatzen ari diren espazio logistikoak funtzionalki integratzea eta trenbide bidez lotzea Bilboko portuarekin eta Vitoria-Gasteizko aireportuarekin.
- Enkarterrien hegoaldeko, Aiarako eta Gaubeako hiriguneen konexioak hobetu eta hirigune horiek sustatzea, Burgosen iparraldeko haranei tokiko zerbitzuak emateko gune moduan, eta landa-turismoko jarduerako erreferentzia-gune moduan.
- Mugaren alde bietako naturaguneen arteko lankidetza-tresnak garatzea, eta, bereziki, Ordunte BGLaren eta Salbada mendilerroko Hegaztientzako BBEaren eta Burgosko Mena haraneko basoen arteko jarraitutasuna bermatzeko.



---

### **Errioxarekin egituratzea.**

- LAGetan aurreikusitako bidea, Vitoria-Gasteiz eta Logroño zuzenean lotzen dituen Laguardiatik, garatzea.
- LAguardiako zentralitatea sendotzea, paisaia eta hiriguneen izaera babestea, eskualdegarapeneko oinarritzko elementuak direlako, eta Oion-Laguardia eremuko jarduera ekonomikoak sustatzea (Logroñotik gertu dago).
- Ebroren ertzen kudeaketa integrala egiteko ekimenak sustatzea, ingurumen- eta turismo-korridore handi moduan.
- Ardoaren kulturarekin eta turismoarekin lotutako Arabako Errioxako tokiko eta eskualdeko garapen-proiektuak bultzatzea.

5

Paisaia







## 5 PAISAIA

***Paisaiak erreferentzia izan behar du lurralde-antolamenduan, eta modu integralean hartu behar da kontuan, paisaia bikainei zein egunerokoei erreparatuta. Hauskorrenak babesteko eta andeatuak lehengoratzeko neurriez.<sup>14</sup>***



## I EGOERA

EAEko paisaia oso aberatsa eta askotarikoa da, eta ingurumenaren, kulturaren, gizartearen, historiaren eta ekonomiaren ikuspegitik begiratuta, guztion intereseko ondare eta baliabidetzat hartzen da.

Giza esku-hartzeak asko baldintzatzen du paisaia; izan ere, giza jardueren bitartez edertasun paregabeko paisaiak ez ezik, paisaia narriatuak ere sor baitaitezke. Paisaia bizi-kalitate eta ongizate indibidual eta kolektiborako funtsezko elementua da, eta aldi berean, lurraldearen nortasuna eratzen ere laguntzen du. EAEn indarrean dauden Lurraldearen Antolamenduaren Gidalerroetan, lurraldea antolatze bitartekoen irizpideak eta helburuak finkatu zirenean paisaia-balioak kontserbatu behar zirela zehaztu zen. Hori horrela izanik, paisaiaren aldetik tratamendu berezia izan behar duten ikuspen-eremuak katalogatzeko beharra eta paisaiak une horretan duen moldea hausten duen edozein obra edo jardun egin ahal izateko paisaiaren azterlana aurkezteko betebeharra jasotzen da. Halaber, hirigintza- eta lurralde-plangintzan espazio marjinalen tratamendua, jabari publikoa, mugaketak eta zortasunak aztertuko direla ere zehazten da.

### BIBLIOGRAFIA

- Paisaiaren Europako Hitzarmena. Europako Kontseilua. Florentzia 2000.10.20
- 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa.
- Siting and Designing windfarms in the landscape. Scottish Natural Heritage. Diciembre 2009.
- Buenas prácticas de paisaje. Líneas guía. Kataluniako Generalitatea. Departament de Política Territorial i Obres Públiques. Direcció General d'Arquitectura i Paisatge..



Paisaiaren Europako Hitzarmenak ezarri zuen lurralde- eta hirigintza-plangintzan paisaiaren aldagaia sartu beharra, kontuan harturik gainera pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko osagai subjektibo gisa paisaiaz dugun pertzepzioa, paisaia-mota guztiak -andeatuak, kalitatezkoak, egunerokoak eta abar- jaso beharrearekin batera.

#### **a) Paisaiaren Europako Hitzarmena.**

Paisaiaren Europako Hitzarmena Florentzian sinatu zen, 2000ko urriaren 20an. Hitzarmen horretan azpimarratzen da paisaiak betetzen duen eginkizuna interes orokorrekoa dela kultur, ekologi, ingurumen eta gizarte ikuspegitik, baina baita ekonomikotik ere, zeren eta haren babes, kudeaketa eta antolamendutik enplegua sortzeko aukerak etor baitaitezke.

Hitzarmenak, paisaia definitzeko unean, honako hau dio: "Lurraldearen edozein zati, biztanleriak hautematen duen moduan, zeinaren izaera natura- eta/edo giza faktoreen eraginaren eta elkarreraginaren emaitza den." Nabarmentzen da, halaber, paisaia pertsonen bizi-kalitateko elementu funtsezko bat dela, direla hiriguneak edo landaguneak, direla eremu andeatuak edo kalitate handienekoak.

Hitzarmenaren helburua paisaien babes, kudeaketa eta antolaketa sustatzea da, eta horretarako neurri orokor batzuk ezartzen ditu: paisaien aintzatespen juridikoa; paisaia politikak definitzea; partaidetzarako prozedurak ezartzea; eta paisaia lurralde- eta hirigintza-antolamenduko politiketan txertatzea. Paisaia babesteko, kudeatzeko eta antolatzeko ekimen sorta bat proposatzen da, honela definituz horiek:

- Paisaia babesteko jardunak dira paisaia baten alderdi esanguratsuak edo bereizgarriak kontserbatu eta mantentzeko egiten direnak, paisaiaren konfigurazio naturalaren eta/edo gizakiaren ekintzen ondorioz duen ondare-balioagatik eginak.
- Paisaia kudeatzeko jarduerak dira garapen jasangarriaren ikuspegitik paisaia egokiro mantentzea xede duten ekintzak, prozesu sozial eta ekonomikoek eta ingurumen-prozesuek eragindako transformazioak gidatu eta egokitzekoak.
- Paisaia antolatzeko jarduerak dira paisaiak lehengoratzeko, hobetzeko edo sortzeko egiten direnak, nabarmenki etorkizunari begirakoak.

#### **b) 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, EAEko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa.**

Euskal Autonomia Erkidegoa, Jaurlaritzaren 2009ko uztailaren 21eko erabakia medio, formalki atxiki zitzaion Paisaiari buruzko Europako Hitzarmenari. Ondorioz, hitzarmen horri atxikitzeak dakartzan konpromisoak hartu zituen bere gain, eta horien artean dago paisaia juridikoki aintzat hartzea giza ingurunearen funtsezko osagai gisa, alegia, kultura- eta natura-ondare erkidearen adierazpide gisa, bai eta giza ingurunearen identitatearen oinarri gisa ere.

Dekretuaren xedea, beraz, arauzko aurreikuspenak betetzeko eta paisaia lurralde-antolamenduan txertatzeko helburua lortzeko mekanismo normalizatuak finkatzea da. Horretarako, lurralde-antolamenduaren esparruan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeko bitartekoak identifikatzen ditu dekretuak, hala nola paisaiaren katalogoak, paisaiaren zehaztapenak, paisaiaren ekintza-planak eta paisaia-integratioko azterlanak, trebakuntza, sensibilizazioa eta laguntza jorratzeko neurriekin batera.



- Paisaiaren katalogoak: Deskripzio eta prospekzio izaerako dokumentuak dira, eta LAGek definitzen duten eremu funtzional bakoitzeko paisaia osoa hartzen dute bere eremuaren barnean. Katalogoen edukiak honakoak jasoko ditu: ikuspen-arroen eta paisaia-egituren mugak eta balorazioa, eta duten berezitasun, andeatze, ikusgarritasun edo izaeragatik edo estetikaren edo pertzepzioaren ikuspegitik ezaugarri nabarmenak edukitzeagatik paisaia aldetiko interes berezikoak diren eremuen identifikazioa; paisaiaren itxuraketan eragiten duten prozesuen identifikazioa; ibilbideen eta paisaia behatzeko lekuen kokapena; paisaia-unitateen mugak; paisaia-kalitateko helburuen definizioa, biztanleriaren beharrak kontuan hartuta; helburuak lortzeko neurrietarako proposamena; adierazle proposamena.
- Paisaiaren zehaztapenak: Paisaiaren katalogoetatik ateratako irizpideak dira, eta paisaia-kalitateko helburuak garatzen dituzte, helburu horiek lortzeko neurriak identifikatuta. Kasuan kasuko eremu funtzionaleko LPPei erantsiko zaizkie.
- Paisaiarako Ekintza Planak gauzatzea. Paisaiaren katalogoek identifikatu eta paisaiaren zehaztapenetan jasotako paisaia aldetiko interes bereziko eremuetan esku hartzeko tresnak dira. Diagnostiko bat jasoko dute, lortu nahi dituzten paisaia-kalitateko helburuekin batera.
- Paisaia Integrazioa azterlanak: Proiektuak eta obrak egiteak paisaian izan ditzakeen ondorioak aztertzeko zein obra horiek paisaian txertatzeko neurriak finkatzeko dokumentuak dira. Azterlan horiek paisaiaren deskripzioa, proiektuaren ezaugarriak eta paisaiako integrazio irizpideak jasoko dituzte.
- Sentsibilizatu, trebatu, ikertu eta laguntzeko neurriak: Paisaia egokitasunez babestu, kudeatu eta antolatzeak duen garrantziaren inguruko jardun aproposak sustatuko dituzte EAEko herri-administrazioak eta EAEko sektore publikoko entitateek, lurralde-antolamendu orekatu eta jasangarri baten barruan.

## II HELBURUAK

Lurralde-eredua berrikustearen helburuak –paisaiari dagokionez– honako hauek dira:

1. Lurralde- eta hirigintza-plangintzako bitartekoak landu eta garatzeko prozesuetan paisaia txertatzea.
2. Paisaia ikuspegi integraletik begiratuta balioestea, landa- eta hiri-paisaiak aintzat hartuta, baita kalitate handikoak nahiz narriatuak ere.
3. Paisaia balioesteko prozesuan herritarren parte-hartzea sustatzea, norberaren pertzepzioari dagokion gaia baita eta pertsonen bizi-kalitaterako eta osasunerako garrantzi handia baitu.
4. Paisaia-inpaktuak saihestea eta lurraldean garatzen diren elementu eta jarduerak bisualki integratzea, batik bat azpiegiturak eta jarduera ekonomikoko eremuak.



5. Paisaiari balioa ematea, kalitatezko faktore den aldetik, gizartearen, kulturaren, ekonomiaren eta ongizatearen ikuspegitik begiratuta.

### III LURRALDE-ORIENTABIDEAK

#### **Orientabide orokorrak**

1. Paisaia irizpide baldintzatzailatzat hartuta jardutea antolamenduaren maila guztietan. Ildo horretatik:
  - a) Lurraldean garatzen den jarduera orotan paisaian integratzera begirako oinarritzko baldintza batzuk betetzea, betiere lurraldeko ikusizko egiturako elementu garrantzitsuenak errespetatuta. Hiri-hazkundeak aurreikusten dituzten planek eta azpiegitura-plan eta -proiektuek paisaiaren gaineko jardueraren eraginari buruzko azterlan bat edukiko dute.
2. Natura-, kultura-, landa- eta hiri-paisaiak berreskuratzeko, hobetzeko eta zaintzeko jardunak eta kudeaketa-sistemak proposatzea. Ildo horretatik:
  - a) Paisaia arruntak eta andeatuak kontuan hartzea, paisaia aparteko edo nabarmenak bezalaxe.
  - b) Paisaiak faktore ekonomiko eta kulturaltzat duen balioa kontuan hartzea, paisaiak turismo eta kultur aldetiko erakargune gisa duen potentzialtasuna kontuan harturik, eta ondare historiko eta artistikoko elementuak integratuta, jarduera ekonomikoak garatzeko potentzial gisa.
3. Elementu eta azpiegiturak, hiri-hazkundeak, erauzketa-ustiategiak eta zabortegeiak paisaian integratzeko oinarritzko baldintza jakin batzuk betetzea. Ildo horretatik:
  - a) Ikusizko inpaktuak saihestea azpiegitura berriak diseinatzean eta kokatzean, batez ere komunikazio azpiegituren, tentsio-lineen, parke eolikoen eta zentral fotovoltaikeen kasuan; kontuan hartzea luraren profila, paisaiaren eskala, azpiegitura osagarrien paisaiako integrazioa eta instalazioaren ikusgarritasuna. Itxuraren sinpletasuna baloratzea eta paisaiaren ezaugarriak eta sentsibiltatea analizatzea, aldatzeko egokitzeko duen gaitasunarekin batera. Arreta berezia jartzea azpiegitura berriak lurraldean diren beste mugarri-elementu batzuekiko lehian sar ez daitezen.
  - b) Erauzketa-ustiategi edo ikusizko inpaktu handiko beste elementu batzuk, zabortegeiak esaterako, instalatzea saihestea, inguruko paisaiaren kalitatea aldatzen duten kokaguneetan, biztanleriarentzat hain ikusgarriak ez diren zonetan kokatzeko ahalegina eginez.
  - c) Egun diren ustiategien kasuan, ustiategi abandonatuak paisaian integratzeko potentzialtasuna aztertzea, eta paisaia lehengoratzera eta dituen aldatzeko egokitzera jotzea, ikus-hesiak sortuz eta landareztatze programak garatuz horretarako.



4. Lurraldearen gaineko jardunak topografiaren arabera egokitzea, paisaia tradizionalaren landarediari eta zuhaitzei eutsita. Horretaz gain, elementu gailenetan edo mendi-gailurretan eraiki dadin saihestea. Ildo horretatik:
  - a) Lursailen berezko malda aldatzea saihestea, mazelak eta erliebeko irtenguneak mantenduz, eta saihestuz ibilguak estaltzea eta murrak, zuhaitz-ilarak, bide tradizionalak eta abar kentzea, kasu puntualetan izan ezik eta beharrezko integrazio eta lehengoratze ekintzez betiere. Eraikinak, partzelak, bide-sareak eta azpiegiturak lurren topografiara egokitzea, ahalegina eginez mugarrak, dauden topografiako goraguneak eta paisaiako elementu bereziak babesteko, eta horiek ikusgarri mantenduz, elementu berriak ez daitezen lehendik daudenekiko lehian sar.
  - b) Lehendik dauden landaretza eta zuhaitzak mantentzen ahalegintzea, lurraldearen kalitatea islatzen duen neurriko zuhaitzak izatea bultzatuz eta bokazio espezifikorik gabeko lurrak bertako zuhaitz espezieak landatzera bideratzea indartuz. Era berean, EAEko landa-inguruetako nekazaritzako ohiko paisaiak (landazabalak, mahastiak, baratzeak, baso-orbanak, etab.) mantentzeko aukerak aztertzea, paisaiaren aniztasunari egiten dioten ekarpenagatik, arreta berezia jarritz egitura-nahasketan eta EAEko lurraldeko eremu horiek berezi egiten dituen erabileren mosaikoak eratzen duen geometria berezian.
  - c) Lehendik zegoen landaretza desagertzen den kasuetan, lursailen egitura eta duten baso-masa kontserbatzea ahalbidetzen duten konpentsazio neurriak ezartzea. Gainera, paisaia tradizionala eta landare-estaldura mantentzea, bertako espezieak indartzearekin batera.
  - d) Elementu nagusien edo mendi gailurren gainean, amildegi-ertzetan eta lurreko zona gorenetan eraikitzea galaraztea, ezinbestean horrelako tokietan kokatu behar diren onura publikoko azpiegituren kasuan izan ezik.

### ***Gidalerroeko Lurralde orientabideak***

5. Itsasertzeko paisaia eta hondartzen ingurunea babestea; horretarako, urbanizazioa eta azpiegiturak saihestu behar dira, eta portuen irudia hobetu. Ildo horretatik:
  - a) Lurmutur eta tontorrak gozamen eszenografikorako espaziotzat eta kostaldeko paisaiako erreferentziazko mugarritzat babestea, EAEko kostaldeko paisaiako elementu berezi eta baliotsuak baitira. Era berean, paisaiaren babesa eta hobekuntza sustatzea, bai hondartza inguruetan bai beste elementu berezi batzuetan, amildegietan esaterako, erabilerak eta jarduerak antolatuz, eta inguru horretan berezkoak ez diren eta ikusizko inpaktu negatiboa duten elementuak saihestuz, urbanizazioa eta azpiegiturak bereziki.
  - b) Portuak hiri-bilbean txertatzea, ertzen eta portu/hiri trantsizioaren tratamendu egoki batez, ertzeko espazio libreei arreta espezifikoa eskainita.
6. Ibai-paisaiak leheneratu eta kontserba daitezen sustatzea, eraikuntza narriatzaileak desagerrarazita, eta ur-bazterreko landaredia zaintzea, oinezkoentzako eta txirrindularientzako bide-sarea indartuta.



## **Lurralde plangintzarako orientabideak**

7. Paisaia aztertu eta balioestea Paisaiaren Katalogoen eta Zehaztapenen bitartez; bitarteko horietan paisaia-kalitatearen helburuak zehaztuko dira, baita helburu horiek betetzeko egin behar diren ekintza zehatzak ere. Ildo horretatik:
  - a) Paisaia-motak eta -unitateak eta ikuspen-arroak identifikatzea, eremu funtzionaleko paisaia aldetiko interes bereziko eremuak bezalaxe.
  - b) Paisaiaren egitura, bisten zabaltasunak eta horizontearekiko distantziek definitua, aztertzea; ikusizko eragin handiko zonak identifikatzea, eta baita elementu linealen eta erabilera desberdinak mugatzen dituzten poligonoen geometriak, lerrokadurak eta elementu naturalek edo artifizialek definitutako ereduak, eta luraren morfologia eta erliebearen ezaugarriak ere.
  - c) Paisaiaren egitura kontuan hartzea, hori definitzen dutenak honakoak baitira: luraren erabilerak eta horien banaketa, elementuen koloreak eta formak eta egiturazko elementuekiko duten kokapena, erabileren dentsitateak, eta biztanleguneen eta eraikuntza isolatuen ezaugarri morfologiko eta tipologikoak.
  - d) Elementu bereziak identifikatzea, hala nola landaretza-formazio nabarmenak, landaketa-eremuak eta nekazaritzako espazio bereziak, monumentuak, mugarri topografiko nagusiak eta, oro har, paisaiari izaera berezi eta berezia ematen dion elementu oro. Era berean, paisaia aldetiko inpaktu bereziki txarrak eragiten dituzten elementu andeatuak edo paisaiaren gaineko pertzepzioan eragin handia dutenak identifikatzea.
  - e) Paisaia-motak definitu ondoren, balorazio-prozesua garatzea, partaidetza publikorako tekniken bidez, Paisaiaren Europako Hitzarmenean paisaiari buruz ematen den definizioarekin bat, honakoa baitio: "Lurraldearen edozein zati, biztanleriak hautematen duen moduan".
  - f) Dagozkion kalitate helburuak ezartzea paisaia-unitate identifikatu, karakterizatu eta baloratu bakoitzerako. Helburuak honakoak izan daitezke: dagoen paisaia kontserbatzea eta mantentzea, beti elementu dinamikotzat hartuta; paisaia aurretiko baldintzetara lehengoratzeta; paisaia hobetzea, bai elementu berriak sartuz eta daudenak kudeatuz, bai paisaia berria sortuz edo aurrekoen konbinazio batez.
  - g) Kalitate-helburuak lortzeko beharrezko neurriak eta jarduerak garatzea, kontuan harturik hasierako egoeraren eta helburuek definituaren artean dagoen aldea.
  - h) Jarduera horietan sartzea, gutxienez, paisaia aldetiko balio handiko edo oso handiko paisaien katalogazioa, paisaia integratzeko arauak ezartzea, eta paisaiaren antolaketa egoki baterako gidak, paisaiaren arloko jarduera-programa bat definitzearekin batera.
  - i) Paisaien babesa zehaztea, Paisaiaren Katalogoetako balorazioarekin bat eta hainbat elementu harturik kontuan, hala nola paisaien berezitasuna, andeatze egoera, biztanleriaren aldetiko ikusgarritasuna, eremu funtzionalaren identitatea, edota pertzepzio eta estetika aldetik dituen ezaugarri nabariak babestu beharra.





Lurraldearen irudia hobetzeko jarduerak jasotzeko aukerak identifikatzea, arreta berezia jarritz eremu andeatuak lehengoratzeko aukeretan.

- j) Paisaiaren ekintza-planak garatzeko lehentasunezko esparruak identifikatzea, andeatze-maila handiko eremuetan edo lurraldearen pertzepzioaren gainean eragin handia dutenetan. Era berean, plan horietarako oinarritzko jarduera-irizpideak ezartzea, toki-mailatik edo metropoli-mailatik gara daitezzen.
8. Kultura-bideei balioa ematea eta ibilbideen, bideen eta begiratokiak –kostaldeko ibilbideak ere barnean hartuta– sarea sortzea, herritarrek paisaiarako sarbidea izan dezaten. Ildo horretatik
- a) Ibilbideetan ondasunak eta ondare-intereseko puntuak sartzeko, instalazio eta azpiegitura historikoekin batera, ibilbide tematikoak eratzeak aukeraz betiere. Begiratokiak sustatzea bista aldetiko potentzial handiko lekuetan.
  - b) Kostaldeko ibilbideak integratzea, oinezkoek eta txirrindulariek erabiltzera begira egokitu eta seinaleztatuta, kostaldeko paisaiaren pertzepziorako oinarritzko elementutzat.

### ***Hiri plangintzarako orientabideak***

9. Landa- eta hiri-paisaia babestea, herriguneen hazkundera trinkoa izan dadin ahalbidetuta, eta baserriak birgaitzeko politika bat finkatzea. Ildo horretatik:
- a) Udal-plangintzatik babestea landako eta hiriko paisaia, horretarako aintzat harturik identitate-balioak, berezitasunak, andeatze-mailak edo biztanleriarentzako ikusgarritasuna.
  - b) Hiriguneen hazkunde trinkoa bultzatzea, dagoeneko urbanizatuta dauden eremuen kolmatazio eta optimizazioari lehentasuna emanez lurzoru berriak okupatzearen gainetik; era berean, jarduera ekonomikoak jada baden bilbearen segidan ezartzea bultzatzea.
  - c) Baserrien eraikuntza aldetiko birgaitze politika bat bultzatzea, eraikinaren aprobetxamendu hobearekin batera, egun dauden baserrietako nekazaritza- eta abelazkuntza-erabilera galtzen denean eta etxebizitza edo ekipamenduetarako eraikin berriak altxatzeko aukeraren aurrean, are aukera emanez baserri batean hainbat bizitza bereizteko, betiere haren morfologia, jatorrizko eraikinaren izaera eta bolumetria eta biztanlegunearen ingurua aldatzeke.
10. Herriguneak inguruko ingurune fisikoan integratzea, ertzak, espazio libreak eta sarbideak zehaztuta landa-hiria trantsizioa behar bezala antolatzeke. Ildo horretatik:
- a) Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak funtsezko elementu batzuk eskaintzen ditu landaguneen izaera eta irudia babesteko, bai lurraldearen erakarmen orokorra babestera begira bai duen garapenerako potentzialaren faktore erabakigarritzat.
  - b) Biztanlegune txikiak garapena modu estuago batean lotzea duten irudi tradizionala babestearekin eta nekazaritzako ustiatzearekin ezean inguruko paisaiak



kontserbatzearekin. Estetikaren eta tipologiaren zein dentsitateen ikuspegitik gune bakoitzaren ezaugarri morfologikoetan integratzen diren eraikuntza-baldintzak definitzea, eta eraikinak ezartzeko moduak arautzea, kasu bakoitzean nagusi den izaera isolatura edo mehelin artekora egokituta.

- c) Biztanleguneak inguratzen dituen ingurune fisikoan paisaia aldetik integratzera begira egokia izango den hiri-egitura bat diseinatzea, kanpo-ertzen eta siluetaren definizio kualifikatu bat ezarriz guneen irudi tradizionala babestearren, integratuz, gainera, lehendik dauden elementuak, batez ere kontserbatzea merezi duten eta landagune gisako mugaketa justifikatzen dutenak. Gainera, udalez gaindiko komunikazio-azpiegiturekiko lotura-puntuak egoki definitzea.
  - d) Hiri-ingurunearen jarraitutasun espaziala ahalbidetzea, horrela bultzatuz sarbideak oinezkoentzako eta espazio libreen sarearekin lotzea, landa/hiri trantsizioa egokiro antolatzearen.
  - e) Hiri-multzo historiko, ohiko edo tradizionalak eskaintzen dituzten perspektibak mantentzen ahalegintzea, izaera pintoreskoko errepide- eta bide-ingurunearekin batera, itxiturak, eraikinak edo beste elementu batzuk eraikitzea onartzeke, horien kokapenak edo neurriek ikusizko eremua mugatzen edo aipatu perspektibak nabarmen desitxuratzen dituztenean.
  - f) Ingurune naturaleko edo landa-inguruneeko espazio irekien eta hiri-paisaien arteko trantsizioa ahalbidetzen duten hiriguneetarako sarbideak diseinatzea, zonako natur eta kultur aberastasuna balioetsiz.
  - g) Lurralderako sargunetzat identifikatutako asentamenduen potentzialtasunak garatzea, naturaguneei lotutako jarduerak eta zerbitzuak kudeatzeko zentro gisa jardunez.
11. Industrialde finkatuen irudia hobetzea eta hiri-berrikuntzako programak garatzeko eremuak zehaztea. Ildo horretatik:
- a) Industriako poligono finkatuen irudia hobetzeko politika sistematiko bat garatzea, horretan jasoz ibilguen integrazioa hobetzea, espazio publikoak eta lorategiak mantentzea eta kontserbatzea, eta eraikinen irudia eta kontserbazio-egoera zaintzea.
  - b) Jarduera ekonomikoetarako esparru berrietan paisaia aldetiko integrazioa ahalbidetzea, kontuan harturik topografiarako egokitzapena eta eraikinak diseinatzeko irizpideak, esate baterako mimetizazio-estrategiak garatuz materialei, kromatismoari, itxiturei eta abarri erreparatuta.
  - c) Udal-planetan hiri-berrikuntzarako programak eta zona andeatuen lehengoratzeko zein paisaia aldetiko hobekuntzarako paisaiarako ekintza planak garatzeko esparruak identifikatzea, oinarrizko jarduera-irizpideak finkatuz, zona urbanizatueta funtsezko espazioen kalitatea eta erakarmena hobetzeko esparruekin batera.





- 
12. Ahal dela, multzo hiritar historikoek eskaintzen dituzten ikuspegiei eustea, betiere elementu bereziek izan dezaketen garrantzi bisuala galdu gabe. Ildo horretatik:
- a) Eraikuntza-baldintzak ezartzea, estetikaren eta tipologiaren ikuspegitik erabat integratuak, betiere, guneko edo hiriko zona bakoitzaren ezaugarri morfologikoetan.
  - b) Espazio publikoen eta, oso bereziki, bideen beharrezko erregulazioa definitzea, hiri-espazioko paisaia aldetiko perspektibak zaintzearen, funtsezko faktoretzat hartuz espaloiak neurrietara, lorategietara eta bideen sekzio-motetara begira, fatxadak eratzen dituen eraikuntzarekiko erlaziora begira bezalaxe.
  - c) Arreta berezia jartzea ingurunearen elementu baliozkoak (mazelak eta mendiak, itsas inguruak, etab.) hiri-eszenan sartzeko zein elementu horiek espazio eraikietatik ikusi ahal izateko aukerak babesteko.



# 6

## Ingurune Fisikoa eta Azpiegitura Berdea





## 6 INGURUNE FISIKOA ETA AZPIEGITURA BERDEA

EAEko inguruneak eta ekosistema naturalek nabarmen egin dute hobera azken urteotan. LAGek ezarritako babesek lagundu dute, ezbairik gabe, horretan, beste hainbat alderdirekin batera: lurraldeko eta sektoreko ekintzak, garapen-eredu jasangarriago baten eskakizunak, eta biztanleek, enpresek eta erakundeek lurraldeko ingurumen-kalitatea zaindu eta hobetzeari buruzko kontzientzia handiagoa.

Horretan laguntzen dute asentamenduen ohiko trinkotasunak eta lurzoru urbanizaezinean eraikuntza kontrolatzeko neurriak (LAGek ezarri eta hirigintza-legediak garatutakoek). Horrek guztiak asko mugatu ditu gure lurraldean urbanizazio-prozesu barreiatuak.

1997. urtean onartutako EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek arreta berezia ematen diete ingurumen fisikoaren arazoei eta aukerei. Gidalerroetan, antolamenduko zazpi kategoria daude ezarrita, eta gainjarritako lau baldintza, erabilerak arautzeko dagokien matrizearekin, eta horiek oinarria izan dira lurralde osorako erabilera-araubide homogeneoa izateko eta zenbait espazio osatzeko. Gero lurralde-plan partzialek zehaztu egin dituzte dagozkien arloetan, eta natura- eta landa-intereseko eremuak babesteko sare sendoa eratu da horrela, eta balio handieneko elementuak benetan babestea bermatu da sektoreko legediari jarraikiz.

Lurralde-plan partzialek ingurune fisikoari buruzko jarraibideak gauzatzen egindako lan garrantzitsuaz gain, ekarpen handia egin dute ingurumen-balio handiko zenbait arlo eta prozesu antolatzeke lurralde-plan sektorialek batzuek ere (ibaiak eta errekek, itsasertza, hezeguneak, landa-ingurunea). Lurralde-plangintzako bloke hori oso esperientzia baliotsua da ingurumen-ikuspegiak eta -xedapenak, isolatuta babestu ohi direnak, integratzeko.

Geroagoko lan batzuen bidez, korridore ekologikoaren kontzeptuak beste mugarri bat erantsi dio espazio babestuen multzo ikuskerari, haien arteko jarraitutasun espaziala sartzen baitu, lurraldea ez zatitzeko, multzoari koherentzia emateko eta jada babestuta dagoena sendotzeko. Horrez gain, Florentziako Gutunean jasotako paisaia kontzeptuak lurraldeari bikaintasun-balioa eta ikuspegi integratuaren balioa ematen dio.

Orain, plangintzan heldutasuna lortuta dugula, une egokia da jauzi kualitatibo bat egin eta jarraitutasun hori eskualde-eremuan zabaldu ez ezik eskala guztietan ere zabaltzeko (tokian-tokian, eremu funtzionalean, eskualdean). Horrekin guztiarekin zera lortu nahi da: natura-ondarearen kontserbazioaren eta kudeaketaren arteko ohiko dikotomia gainditu eta eredu integral berri bat proposatzea “azpiegitura berdea” deritzona, naturak eta haren ekosistemek ematen dizkigun zerbitzuak sendotzeko. Aurrekin bateragarri, lurralde-antolamenduan paisaia kontzeptua txertatzeak asko lagunduko du dagokion kalitatea emateko osotasunean, haren tratamendu humanistaren eta holistikoaren bidez.

---

### “INGURUNE FISIKOA ETA AZPIEGITURA BERDEA” KAPITULUAREN OINARRIZKO ITURRIAK:

- EUROPA KOMISIOA, 2013: “Comunicación de la Comisión al Parlamento Europeo, al consejo, al comité económico y social europeo y al comité de las regiones: Infraestructura Verde: mejora del capital natural de Europa”.
- EUROPA BATASUNA, 2010: “Una Infraestructura Verde”.
- EUSKO JAURLARITZA, 2005: “Euskal Autonomia Erkidegoko korridore ekologikoen sarea”.
- VITORIA-GASTEIZKO UDALA, 2014: “La Infraestructura Verde Urbana de Vitoria-Gasteiz. Documento de propuesta”.
- MILLENIUM ECOSYSTEM ASSESSMENT.



## 6.1. INGURUNE FISIKOAREN ANTOLAMENDUA

***LAGek egiten duten ingurune fisikoaren antolamendua, ezarritako kategoriekin eta haiei lotutako erabileren arautzearekin, baliozkotzat jotzen da, baina doikuntza txikiren bat proposatzen da, “Erabilera-bokaziorik gabea” kategoria kentzea, adibidez.***



### I EGOERA

LAGek ingurune fisikoaren antolamenduari eta lurzoru urbanizaezinaren antolamenduari dagokionez ezarritako xedapenek asko lagundu dute lurraldearen ingurumen-kalitatea hobetzen. Horrez gain, azpimarratu behar da LAGek jasangarritasunaren ildoan egindako lana, ibaiak eta errekek antolatzeke, itsas ertza antolatzeke, hezeguneak antolatzeke eta nekazaritza eta basozaintza antolatzeke lurralde-plan sektorialak onartzean.

Antolamendu-kategoriak eta haien arautzea erreferentzia dira, gaur egun, EAEko hirigintza- eta lurralde-tresna guztiek lurzoru urbanizaezinaren antolamendua egiteko, LAGetako xedapenak eremu bakoitzeko egoeretara egokituz. Lurralde-plan partzial gehienak onartzeak aukera eman du babestutako lurzoru urbanizaezinak finkatuz joan eta hirigintza-plangintzan txertatzeko. Horrez gain, lehen adierazitako lurralde-plan partzialek beren eskumeneko antolamendu-kategoriak ezarri dituzte.

LAGetan multzo handi moduan definitutako kategoriak, lurralde- edo hirigintza-plangintzak xehatzeko aukera izanda, baliozkoak direla erakutsi du praktikak. Aipatu behar da “erabilera-bokaziorik gabea” kategoriaren interpretazio okerra egin dela maiz, eta ingurumen-baliorik gabeko espazio baztergarritzat jo izan dela. Horregatik, erabaki da kategoria hori kendu eta gainerakoak bere horretan uztea; hau da:

- Babes berezia.
- Ingurumen-hobekuntza.
- Basoa.
- Nekazaritza, abeltzaintza eta landazabala.
- Mendiko larreak.
- Azaleko uren babesa.



Kategoria horiez gain, LAGen Ingurune Fisikoaren kapituluak gainjarritako lau baldintzak aipatzen ditu, lurraldean zenbait jarduera egiteko modua mugatu egiten dutenak. Honako hauek dira: akuiferoak kutsatzeko arriskua duten areak; area higagarriak edo higadura-arriskua dutenak; urpean gera daitezkeen areak eta naturagune babestuak eta Urdaibaiko Biosferaren Erreserba. Gainjarritako baldintzak zehazteko teknika asko garatu da lurralde- eta hirigintza-plangintzan, sektoreko zenbait alderdi adierazteko erabili dira eta (legeak, e.a.).

Erabileraren arautzeari dagokionez, esan behar da LAGen baitako xedapenen artean eragin handiena izan duenetako bat nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapenari lotuta ez dagoen familia bakarreko edo bi familiako etxebizitza debekatzea izan dela. LAGak onartu zirenetik hogeitazero igaro diren honetan, esan dezakegu xedapen hori giltzarria izan dela landa-inguruneari arrotza zaion bizitegi-mota estentsibo bat eragozteko. Izan ere, baliabide asko behar ditu eta arriskuan jartzen du kokatuta dagoen lurzoruaren berezko erabilera.

Azkenik, indarrean dauden LAGek ezartzen dute udal-plangintzak mugatu egin behar dituela erauzketa-jarduerak egiten diren eremuak, baita horretarako erabil daitezkeenak ere. Xedapen horrek asko lagundu du berez oso konplexua den gai bat arautzen, baina zehaztu egin behar da, lurpeko erauzketa-jarduerari dagokionez. Hori dela eta, beharrezkoa den neurria da, eta are gehiago kontuan izanda plangintzan zorrotzago arautu beharko liratekeela. Izan ere, erauzi beharreko materialak erakutsi egiten du zein den haren kokapena.

## II HELBURUAK

1. Espazio bakoitzerako lurralde-xede bat zehaztea, erabilera egokienak arautzeko.
2. Lurraldearen erabilera jasangarria bermatzea, datozen belaunaldiek ere baliabideak eskuragarri izateko eta desberdintasunak desagerrarazten laguntzeko.
3. Erabileren eta sortutako inpaktuen konplexutasunari jarraipena egitea, metodologia homogeneoak erabiliz.

## III LURRALDE-ORIENTABIDEAK

### ***Orientabide orokorrak***

1. “Lurzoru urbanizaezina” sailkapena duen espazio oro LAGen kategoriaren batean sartzea. Erabilerek bateragarriak izan behar dute Gidalerroen erabilera-matrizearekin.
2. Lurzoru urbanizaezinean etxebizitzarako eraikin berriak egitea debekatzea, salbu eta nekazaritza –eta abeltzaintza-baliabideak ustiatzeari zuzenen lotuta dagoela frogatzen bada argi eta garbi, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006ko Legean ezarritakoan jarraiki.
3. Lurzoruaren erabilera eta plangintza-agiriekin proposatutako lurralde-xedea benetan bat datozela egiaztatzeko jarraipena eta kontrola egitea.
4. “Erabilera-bokaziorik gabea” kategoria kentzea LAGetatik.



## ***Lurralde plangintzarako orientabideak***

5. LPP eta LPSetan ingurune fisikoa mugatzea, agiri honetako kategoriekin bat, nahiz eta gehiago zehaztu daitekeen. Plan horietan, baso-lurzoruen eta, nekazaritzako, abeltzaintzako eta landazabaleko lurzoruen, eta mendi-larreen irizpideak eta ezaugarriak zehaztea. Horretarako, honako neurri hauek hartuko dira:
  - Lurralde-plan partzialetan eta sektorialetan ingurune fisikorako zonakatzearen izena agiri honetako antolamendu-kategorietara egokitzea.
  - Eremu babestuen beren zonakatzeta egiten duten lurralde-plan partzialak eta antolamenduko eta plangintzako tresnak beren irismenaren eremuan hartzea aintzat.
  - Babes berezi eta Azaleko uren babesa kategorietan sartzeko eremuak hobetzeko eta kudeatzeko programak garatzea, espazio horien kontserbazioa bermatzeko eta lurraldearen jasangarritasun orokorreko estrategian laguntzeko. Programa horiek basogintzako ekintzak garatzera bideratzea, baso-habitatak hobetzeko eta zabaltzeko, natura-ingurunearen biodibertsitatea handitzeko, ibaien ertzetako galeria-basoak berreskuratzeko eta naturaguneen eta inguruneko eremuen landaredia naturala hobetzeko, lurraldearen paisaia-erakargarritasuna handitzeko, giro-motak dibertsifikatzeko eta garapen-aukera berriak sortzeko euskarri izateko eta biztanleriaren bizi-kalitatea hobetzeko.

## ***Hiri plangintzarako orientabideak***

6. Udal-planetan, LAGetako erabilera-kategoriak sartzeta, baita dagozkien LPP eta LPSetako irizpideak ere, eta erabilerak arautzea.
7. Udal-plangintzan, erauzte-jarduerak eragindako guneak edo horietarako erabil daitezkeenak mugatzea. Lurpeko erauzketa-jarduerei dagokienez, mugaketak aire zabalean daudenei dagokien eremua jasoko du.





## 6.2. AZPIEGITURA BERDEA

### 6.2.1. AZPIEGITURA BERDE INTEGRATUA ETA EKOSISTEMEN ZERBITZUAK

*Azpiegitura berdea kontzeptua aurrerapauso bat da, diziplina moduan, espazio babestuarekiko eta korridore ekologikoarekiko. Jauzi kualitatiboa da eskala guztiei eragiten dielako eta hainbat aukera ematen dituelako ingurumenari, osasunari, ekonomiari eta aisiari dagokionez, bestek beste. Bestalde, ekosistema-zerbitzuen ebaluazioa oinarri metodologiko bat da, ekosistemek gizarteari egiten dioten ekarpena nolakoa den jakiteko.*



## I EGOERA

### a) Jatorria, Kontzeptua eta osatzen duten elementuak

Azken hamarkadetan, eremu urbanizatuak hedatu egin dira lurraldean eta, horrekin batera, eremu horiei zerbitzu emateko azpiegitura “grisak” eraiki dira. Dinamika hori geldiarazteko mugak jarri diren arren, 2005. eta 2013. urteen artean 2.601,32 hektarea lurzoru artifizialdu dira. Haietatik, 815,28 hektarea ekonomia-jardueretarako ziren; 535,82 hektarea, bizitegi-lurzorua; 602 hektarea, bide-azpiegiturarako; eta 305,55 hektarea abiadura handiko trenerako. Dinamika horrek lurraldea zatitzea eragin du, argi eta garbi, eta EAEren ezaugarriek ageriagoa egin dute zatiketa hori, dentsitate handia baitu eta baldintzatzaile asko eta asko, kokapenaren eta morfologiaren eraginez.

Europar eta EAEn izandako zatiketa horrek biodibertsitatea eta natura-ondarea galtzea ekarri du. Europako animalia-espezieen ia %25 galtzeko arriskuan daude, eta aztertutako habitaten eta espezieen %17k soilik dute kontserbazio-egoera ona. Europako ekosistema gahienak hondatuta daudela jotzen da, eta 27 herrialdeko EBren lurraldearen ia %30 oso zatituta edo nahikoa zatituta dagoela jotzen da. Zatiketa horrek EAEn eragiten dio, EAE funtsezko gunea baita Kantauriar mendikatea Pirinioekin lotzeko, Europar Ekialde-Mendebalde korridore-ekologiko handiaren barruan.



Horrez gain, ingurumen-arriskuen aurrean azpiegitura “grisak” eraiki izan dira konponbide naturalak eman beharrean, eta ez da aintzat hartu zer ondorio izan ditzaketen ekosistemak hornitzen dituzten zerbitzuetan. Horrenbestez, EAEn eta Europa osoan oro har, natura-ondarea hondatzen jarraitzen dugu, sistemaren epe luzerako jasangarritasuna arriskuan jartzen eta ingurumen-presioei egokitzeko dugun ahalmena murrizten.

### ***Azpiegitura berdea kontzeptua.***

Azkeneko hamarkadetan “azpiegitura” moduan “azpiegitura grisa” soilik ulertzen zen; hau da, gizakiak egindako baliabide teknikoak, zerbitzuak eta instalazioak, gizakiaren jarduera egiteko beharrezkoak zirenak. Azpiegitura berdea kontzeptua XX. mendeko 90eko hamarkadatik aurrera hasi zen ohikoagoa egiten. Natura-ondarearen bi elementutan du jatorria: batetik, natura-espazio babestuak, eta, bestetik, loturako korridoreak. 2013ko maiatzean, Europako Batzordeak “Azpiegitura berdea: Europako natura-ondarea hobetzea” lana argitaratu zuen. Lan horretan, kontzeptua zehazteaz gain, eskualdeetan ezartzeko oinarriak ere adierazi ziren, eta “Azpiegitura berdeari buruzko EBren estrategia” jarri zen abian. Lan horrek honela definitzen du kontzeptua:

*«Gune naturalen eta erdinaturalen eta beste ingurumen-elementu batzuen sarea, modu estrategikoan planifikatutakoa eta hainbat ekosistema-zerbitzu emateko diseinatu eta kudeatutakoa. Hartan sartzen dira espazio berdeak (edo urdinak ekosistema urtarrak badira) eta lurreko (kostaldea barne) eta itsasoko beste elementu fisiko batzuk. Lurreko espazioetan, azpiegitura berdea landa- eta hiri-inguruneetan dago.»*

Agiri berak azpiegitura berdearen balioa aitortzen du; esate baterako, klima-aldaketari aurre egiteko eta hondamendi-arriskuen kudeaketarako duen balioa eta natura-ondarean duen eragin ona. Azpiegitura berdeak asko lagundu dezakeenez Europar Batasunaren funtsezko helburu nagusi asko lortzen, Europako Batzordeak estatu kideak bultzatu egiten ditu eskura dituzten aukerak balia ditzaten, azpiegitura berdea aplikatu eta garapen jasangarriko dituen onurak ustiatzeko.

Aurrekoarekin lotuta, EBren funtsezko zenbait agirik (adibidez, Biodibertsitateari buruzko Europako Estrategia 2020 izenekoak) helburu nagusi moduan planteatzen du European azpiegitura berdea finkatzea, oso zatikatuta dagoela irizten duen lurralde batean.

EAEn, azpiegitura berdea lurralde-antolamenduko tresna bakoitzaren bidez garatu da. Tokian-tokian, berriz, zenbait ekintza gauzatu dira, ikuspegi integratua erabiliz, natura-ondarea babesteko eta biztanleek erabiltzeko eta gozatzeko espazio berdeak eskaintzeko.

### ***Elementuak: parke naturaletik hiriko palaxura.***

Sare orok bezala, azpiegiturak nodoak eta loturak ditu; eskala, kokapena eta morfologia kontuan hartuta, nodoak natura-parkea zein hiri-baratzea izan daitezke; eta konexioak, berriz, korridore ekologikoak zein oinezkoen kale arboladunak. Honela irudika genezake, gutxi gorabehera:



| Eskala                   | Nodoak                                                                                                                                     | Lotura                                                                                 |
|--------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>EAE</b>               | Parke naturala<br>Eremu babestua<br>...                                                                                                    | Korridore ekologikoa<br>Kostaldea<br>...                                               |
| <b>Eremu funtzionala</b> | Hirien inguruko parkea<br>Nekazaritza- eta<br>abeltzaintzako lurra<br>Aisiagune metropolitarrak<br>Lurraldean sartzeko<br>espazioak<br>... | Bide berdea<br>Lurralde-ibilbideak<br>Bioingeniaritzako lanak<br>Ekoduktuak<br>...     |
| <b>Tokikoa</b>           | Eratzun berdea<br>Hiri-parkea<br>Lorategia, euri-urezko<br>lorategia<br>Hiri-baratzea<br>Estalkiak, fatxadak eta<br>terrazak<br>...        | Etorbidea<br>Bulebarra, ekobulevarra<br>Zumardia<br>Ibai-aurrealdea<br>Palaxuak<br>... |

Saillapen hori, jakina, ez da zehatza, gune den espazio batek lotura-funtzioak ere badituelako, bai eta alderantziz ere. Saillapen irekia ere bada, azken finean azpiegitura berdearen helburu berak dituen elementu oro haren parte baita. Baina kontrakoa ere gertatzen da: goiko taulan adierazitako guztiak ez du zertan azpiegitura berdea izan.

Azkenik, ez dugu ahaztu behar azpiegitura berdeari bi muga ezarri izan ohi zaizkiola, elementua den horren eta ez den horren arteko "trantsizioko" zerrenda bat ezarritz. Elementuaren ertzak zehatzak ez direlako gertatzen da hori (trantsizio-eremu horri lotura bat baino gehiago egin dakioke), eta, edonola ere, ertzak oso kontu handiz tratatu beharra adierazten du.

## b) Ekosistemen zerbitzuak

Honako hauei esaten zaie ekosistema-zerbitzuak: pertsonok zuzenean edo zeharka ekosistemetatik jasotzen ditugun zerbitzuak.

Lau taldetan sailkatu izan ohi dira zerbitzu horiek, eta eragin zuzena dute, gehiago edo gutxiago, bizi-kalitatearen funtsezko elementuetan:



Iturria: [www.ingurumena.eus](http://www.ingurumena.eus), Millenium Ecosystem Assessment-etik, 2013



Europar Batasunak Biodibertsitateari buruzko 2020ra arteko Estrategian ekosistema-zerbitzuak berriro nabarmentzea planteatzen du. Biodibertsitatearen galera geldiarazteaz gain, estrategiak agerian jartzen du, lehenbiziko aldiz, ekosistema-zerbitzuen balio izugarria eta haiek kontserbatzeko eta leheneratzeko premiazko beharra, bai naturaren bai gizartearen onerako.

EAerako lurralde-antolamendutik, ekosistema-zerbitzuen metodologia aukera moduan ikusten da erabakiak hartzean orain arte sektore moduan eta zatika eta beste interes batzuekiko modu desberdinean aintzat hartu diren alderdi batzuk txertatzeko (euskarrikoak, hornidurakoak, arautzekoak, kulturalak). Uste dugu metodologia, besteak beste, hau egin dezakeela:

- Zehatz identifikatu lurralde multifuntzionalak ekosistemek ematen dituzten zerbitzuei dagokionez (elikagaiak hornitzea, biodibertsitatea eta klima-aldaketa arintzen egin dezakeen ekarpena, adibidez), aitortutako metodologia batean oinarrituta.
- Etorkizuneko agertokiak identifikatu, ereduaren alternatibei dagokionez, eta haren bilakaera aldian-aldian ebaluatu.
- Azpiegitura berdearekin lotutako ekintzei koherentzia eman eta egituratu, bere egiten dituelako aurrez zehaztutako eta aitortutako balioen aurrean.
- Proposatzen diren ekintzen arteko sinergiak hauteman, eta bitarteko berak erabiliz, lortu nahi diren helburuak askoz irismen handiagoarekin lortu.
- Erabaki batek lurraldean izan ditzakeen inpaktuak aurretik jakin.

Metodologia berriak duen potentzial guztia erabili ahal izateko, zerbitzuak mapatu egin beharko lirateke, eskala egokian.

### **c) Aukera**

EAEk bere lurraldearentzat bere egiten du Europako azpiegitura berdea sortzeko estrategia, Europako Batzordea egiten ari dena, Europar Batzordearen ingurumenaren arloko beste estrategia batzuen baitan. Azpiegitura berde batean eskualdeko natura-ondarea modu integratuan eta koherentean aintzat hartzea aukera paregabea da Euskadik Europako beste eskualde batzuekin batera dituen zenbait erronkari —bereziki ingurumenekoei— irtenbidea emateko.

Azpiegitura berde baten plangintzak aukera ematen du ingurumena babestea eta garapena uztartzen dituen lurralde-eredua eratzeke, eta ikuspegi berri bat emateko jada Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legean ezarrita zeuden xedeei; hots, eskualdeen garapen sozioekonomikoari eta bizi-kalitatea hobetzeari.

Natura-ondarearen azterketako ikuspegi metodologiko berriek lurraldearen zati bakoitzak ematen dituen ekosistema-zerbitzuen berri izateko eta balioesteko aukera ematen dute. Horregatik, orain erabakiak hartzeko prozesuetan sar daitezke, eta zerbitzu horiek modu garrantzitsuan ematen dituen ekosistema bat desagerrarazi edo eraldatzen denerako neurri zuzentzaileak ezarri.



Azkenik, EAEko plangintzak, mailaz mailakoak, eta arautze- eta kontrol-mekanismoak dituenak, lortu duen heldutasunak eta fidagarritasunak aukera ematen du EAEko lurralde- eta hirigintza-plangintzan azpiegitura berdea kontzeptua barneratzeko.

#### **d) Oinarriak**

Azpiegitura berdea printzipio honetan oinarritzen da: natura eta prozesu naturalak babestea eta balioestea eta gizarteak naturatik lortzen dituen onura ugariak modu kontzientean txertatzen direla lurraldearen plangintzan eta haren garapenean. Azpiegitura berdeak onura eta aukera handiak ditu azpiegitura grisaren, helburu bakarrekoaren, aldean.

Bestalde, EAEko azpiegitura berde integratu batek eskualde osorako helburuekin bat datozen beste ondorio batzuk lortzeko aukera emango luke. Esate baterako: klima-aldaketaren aurkako borroka; hondamendi-arriskuen kudeaketa; ondorio onak, natura-ondarean eta pertsonen osasunean eta ongizatean; nekazaritza- eta basogintza-jarduerari eustea; eta landa-ingurunean lan egiten duten eta bizi diren pertsonak gizarte-, paisaia- eta ingurumen-errealitateko elementu dinamikotzat jotzea.

EAEko azpiegitura berdea estrategikoa eta konpartitua da: irekia eta malgua da, eta jendearen atxikipena lortu nahi du, uste osoa baitago eraginak biztanleria osoak hautemango dituela. Plangintzaren arloko kontzeptu bat da; hau da, ez ditu azpiegitura berdearen helburu berarekin orain artean gauzatutako ekimenak ordeztu nahi, eta administrazioek, partikularrek eta enpresek abian jar ditzaketen ekimenak arriskuan jarri. Kontzeptu horrek ekimen guztiak biltzeko esparrua izan nahi du, eta haiek guztiak lotzeko baldintza egokiak jarri nahi ditu, eraginak askoz handiagoak izan daitezen baliabide berak erabiliz.

#### **e) Eskala anitzeko esku-hartzea**

Hau da azpiegitura berdea EAEen zehaztearen ezaugarri nagusietako bat: eskala bidez hurbiltzen zaio, eta horrek lurralde- eta hirigintza-plangintzarekin batera ezartzeko aukera ematen du. Eskala bakoitzak bere eginkizuna eta zehaztasun-maila ditu, eta agiri honek koherentzia orokorra eman behar dio estrategiari. Hiru eskala hauek ditu azpiegitura berdeak:


- Eskualde-sarea: EAEko natura-ondarearen ardatza da eta naturagune babestuek, haiek lotzen dituzten korridoreek eta ibai-ibilguez osatzen dute, funtsean. Haren eginkizuna da EAEko natura-ondare garrantzitsuena babestu eta sendotzea da, eta, aldi berean, Ekialdea-Mendebaldea korridore europarrari jarraipena emateko eskualdeaz gaindiko eskakizuna betetzea: EAEen eta inguruaren jarraitutasun ekologikoa bermatu nahi du, eta biodibertsitatearen galera geldiarazi.
- Eremu funtzionaleko sarea: tarteko eskala horrek garatu eta mugatu egiten du eskualdeko natura-sarea, eta haren euskarria da, eta, aldi berean, tokiko eskalarekin lotzen du. Jarraitutasun ekologikoarekin bateragarriak diren erabilerak eta baliatzeak dituen natura-sare bat definitu nahi da.
- Tokiko eskala: eskala txikiena da eta natura-ingurunea biztanleriaren gehiengoari hurbiltzen diote, eta funtsezkoa da haien bizi-kalitatean ohikoa baita. Xehetasun handiagoa du eta hiri-ehunduran txertatzen da. Biztanleentzat oso ohikoa denez, ematen dituen kultura-zerbitzuak ezin estimatuzkoak dira. Lehen adierazitakoaz gain, sare horren atal dira, besteak beste, hiri-hazkundeko perimetroen inguruko gerriko



berdeak eta beste zenbait elementu garrantzitsu, dimentsioa dela-eta eskualdeko azpiegitura berdean sartuta ez daudenak: baso naturalak eta erdinaturalak, natura-balio handiko nekazaritza-lurrak (landazabal atlantikoa, larre naturalak...), uholdeak har ditzakeen eremuak eta abar.

Azpiegitura berdearen funtzionamendua hobetzeko eta hark dakartzan onurak ahalik handienak izan daitezen, eskala desberdinean egindako lanek elkarrekin lotuta egon behar dute eta elkarren mendekoak izan, onurak askoz handiagoak baitira eskalen arteko gutxieneko koherentzia lortzen denean. Oro har, lurralde-antolamenduaren funtsezko eginkizuna da, eta, bereziki, agiri honena, koherentzia-maila egoki hori lortzeko xedapenak adieraztea.

#### EAE-KO ESKUALDEKO AZPIEGITURA BERDEA.



Sare berdea

Sare urdina

Iturria: guk eginikoa.



## II HELBURUAK

Azpiegitura berdearen helburuak hauek dira:

1. EAEn azpiegitura berde planifikatua egitea, lurraldearen lotura ekologikoa bermatzeko, biodibertsitatearen galera geldiarazteko eta giza asentamenduek eta azpiegitura “grisek” sortutako lurralde-zatiketaren ondorioak arintzeko. Horretarako, honako neurri hauek hartuko dira:
  - Eskualdeko azpiegitura berdea definitzea, parke naturalek, Biosferaren Erreserbak, Natura 2000 sareak, korridore ekologikoen sareak, ibai-ibilguek eta ur-masa guztiek osatutakoa.
  - Datu koherente eta fidagarriak edukitzea: ekosistemen irismenari eta egoerari, haiek ematen dituzten zerbitzuei eta zerbitzu horien balioari buruzko informazioa lortzea.
  - Ekosistema-zerbitzuen metodologia orokortzea, EAEko lurraldeari egiten zaizkion inpaktuak neurtzeko modu gisa.
  - Tokiko azpiegitura berdearen plangintza egitea eta hiri-azpiegitura berde konektatu eta orekatuari laguntzea.
  - Eragileen arteko topaguneak eta aliantzak sor daitezen sustatzea, azpiegitura berdea sortzeko.
2. EAEko natura-ondareari eutsi eta hura aberastea eta ekosistemek ematen dituzten zerbitzuak babestea.
3. Ekosistema-zerbitzuen benetako balioa agerian jartzea, hazkunde zuhur, jasangarri eta integratzaile baten baitan. Gure natura-ondarearen babes ezari dimentsio osoan heltzea, bai eta ekosistemen zerbitzuen balioespen egokiaren ezari ere, Europar Batasunak 2020an Europarako adierazitakoarekin bat.
4. Ekosistemek EAEn ematen dituzten zerbitzuen galera murriztea eta zerbitzuak sustatzea, eta, bereziki, honako hauek:

### a) Biodibertsitatea:

Azpiegitura berdearen erronketako bat biodibertsitatearen galera geldiaraztea da, hartan oinarritzen baita ekosistema osasuntsuaren osasuna eta egonkortasuna. Biodibertsitatearen galera eragozteko, espazio babestuetan esku hartu ez ezik, gainerako eremuetan ere esku hartu behar da. Epe luzerako iraupena bermatzeko, baso-faunak eta -florak aukera izan behar dute lekualdatzeko, migratzeko, sakabanatzeko edo eremu babestuen arteko populazioak trukatzeko.

### b) Erregulazioa:

Klima-aldaketak eta azpiegitura “grisak” garatzeak hondamendi naturalak izateko joera duten eremuak are ahulagoak bihurtzen ditu; naturak ematen dizkigun erregulazio-zerbitzuak sendotzen dituen azpiegitura berdea izateak lurralde



erresilientea sortzen lagunduko du, egoera horiei aurre egiteko gai den lurraldea, alegia.

**c) Nekazaritza eta abeltzaintza:**

Azpiegitura berdeak beste erronka bati ere egiten dio aurre: nekazaritza eta abeltzaintza ekologikorako espazioak aurkitzearen erronkari. Azpiegitura horren oinarri handi bat nekazaritza- eta abeltzaintza-lurrak dira, eta horrez gain, hiri-eremuetan ere gero eta garrantzia handiagoa dute hiri-baratzeek. Biodibertsitatea babesten laguntzen dutenez nekazaritza ekologikoa eta gertuko ekoizpen-bideak sustatu behar dira.

**d) Osasuna eta ongizatea:**

Azpiegitura berde integratua eskura jartzeak berak badu erronka bat: biztanleak dituzten inguruneetan berdeguneak orekatuta egotea. Oso agerikoa da azpiegitura berdeek osasunean duten eragin ona. Esate baterako, biztanleen osasunean laguntzen dute airearen kutsadurarekiko eta zaratarekiko esposizioa murrizten dutelako, beroarekin lotutako gaixotasunak arintzen dituzte, jarduera fisikoa egitea laguntzen dute, buru-osasuna hobetzen dute estresa gutxitzen dutelako eta pertsonen arteko kohesio soziala handitzen dutelako azpiegitura horietan denbora pasatzen dutelako familiekin, lagunekin eta auzokoekin, bai eta ezezagunekin ere.

Ez dakigu zehatz-mehatz zer mekanismoren bidez eragiten duten azpiegitura berdeek osasunean, baina eraginak bere horretan dirau nahasketa eragin dezaketen faktoreak kontrolatu ondoren ere. Neska-mutilek ariketa fisiko gehiago egiten dute parkeetatik eta aisia-guneetatik gertu bizi badira. Helduak urte gehiago bizi dira ibiltzeko lekuak badituzte etxetik gertu, parkeak eta arboladun kaleak badituzte, adibidez. Diabetesa, minbizia, migraina/buruko min handia eta depresioa urriagoak dira kilometro bateko erradioan berdeguneak dauden inguruneetan bizi direnen artean, eta buru-osasuna hobetu egiten da gertu espazio berdea badago.

**e) Elikadura:**

Nekazaritzari eta abeltzaintzari buruz esandakoarekin bat, azpiegitura berdeak elikadura-ziklo laburrak laguntzen ditu, eta elikagaiari buruzko ezagutza, haren segurtasuna eta harekiko konfiantza handitzen da. Elikadura-ohitura osasungarria izateko aukera ematen du, eta aukera zabaltzen die elikadura osasungarriarekin eta ikerketa eta garapenarekin lotutako jarduera berriei.

**f) Ekonomia, ekoizpen berdea, ekonomia zirkularra eta lankidetzako ekonomia:**

Gidalerro hauen helburua ez da kontzeptu horren harira sortzen diren ekonomia-arloko aukera guztiak garatzea, kontzeptu estrategikoa eta irekia baita. Dena den, jarraian adierazten dira, modu orokorrean, arlo horretan azpimarratu nahi diren zenbait puntu.

- Azpiegitura berdeko inbertsioek eskualde- eta hiri-garapena sendotzeko potentzial handia dute, lanpostuak gal ez daitezen lagunduz edo lanpostuak sortuz, hain zuzen ere.





- Oro har, azpiegitura berdean egindako inbertsioen errendimendua handia da, eta leheneratze-proiektuen baterako ebaluazioak kostua-etekina erlazioa 3tik 75era artekoa dela adierazten du.
- EAEn integratutako azpiegitura berdeak ingurumenari eta ekosistema-zerbitzuei lotutako zerbitzuak eta jarduera ekonomikoak sortzea eragin dezake: nekazaritza ekologikoko eta partaidetzako nekazaritzako esku-hartzeak, ingurumena kontrolatu eta kudeatzeko garapen teknologiko berriak, ekoizlearen eta kontsumitzailearen arteko banaketa- eta harreman-mota berriak, eta abar.
- Enpresa batek azpiegitura berde batekin bat egiten badu, haren irudia hobetu egin daiteke horrelako ekimenen alde egiteagatik, herritarrenak ere badiren helburu batzuekin lotzen delako.

**g) Mugikortasuna:**

EAEn integratutako azpiegitura berdearen erronketako bat errepideko zirkulazioaren alternatiboa den ibilbide “bigunak” sustatzea da, ohiko ibilbideetan modu funtzionalean bizikletaz eta oinez ibiltzea errazteko.

**h) Turismoa:**

Azpiegitura berdearen kontzeptu berriak agerian jartzen ditu EAEn ezaugarri erakargarrietako asko, eta aukera ematen du zirkuituak, ibilbideak, turismo-paketeak eta abar sortzeko. Azpiegitura berdeak erakargarri turistikoak ez galtzea bermatuko du: landa-ingurunea, kostaldea eta abar.

**i) Kultura:**

EAEko azpiegitura berdeak zenbait espazio babesten lagunduko du, elementu berezi jakinak babesteaz harago, “testuinguruak” edo “izaerak” gordetzen lagunduko du.

**j) Paisaia:**

Paisaiaren arloan, azpiegitura berdearen erronketako bat da EAEko paisaia-elementu bereziak babesten laguntzea. Horrez gain, ingurune bereziki kalteberen paisaia-tratamenduari lagunduko dio, aldiri edo hondatutako eremuenari, adibidez.

**k) Lurralde-antolamendua:**

Azpiegitura berdeak lurzoruaren erabileraren ikuspegi integratuagoa izateko aukera ematen du, konektibitate globala handitzen da eta azpiegitura “grisek” eragindako zatiketaren eraginak murrizten, eta lurraldearen iragazkortasuna handitzen. Horrez gain, eremu multifuntzionalak identifikatzeko aukera ematen du, bateragarriak diren lurzoru-erabilerak erraztu eta ekosistema osasuntsu eta askotarikoari laguntzeko. Lurzoruaren erabileraren ikuspegi integratu horrek onura handiagoak ditu ekintza isolatuek izan ditzaketene baino, helburu beraz egindakoak izanda ere.



## **I) Parte-hartzea:**

EAEEn azpiegitura berdea jartzeko, ezinbestekoa da gizarte zibilaren parte-hartzea, parte-hartze goiztiarra eta aktiboa. Horrenbestez, behar-beharrezkoa da behetik gorako ikuspegia. Azpiegitura berdea estrategikoa izatearen erronketako bat da benetan izatea partaidetzazko topalekua, azpiegituraren helburuak bere egiten dituzten eragile guztiek egindakoa, izan publikoak izan pribatuak, izan kolektiboak izan norbanakoak, izan bertako herritarrak izan noizbehinkako bisitariak, hiritarrak zein landatarrak.

Irekia eta malgua izateak aukera ematen du aliantzak, lankidetzak eta loturak sortzeko azpiegitura berdearen esku-hartzeen inguruan. Gaur egun EAEEn abian dira horrelako jarduerak, baina uste dugu ibilbide luzea dagoela aurretik, beste lurralde batzuetan gauzatutako esperientziak ikusita. Azpiegitura berdearen elementuak hiri-eremuetan aplikatzeak komunitate-sentimendua sendotzen du, lotura handitzen du gizarte zibilaren borondatezko ekintzekin, gizarte-bazterkeriaren eta isolamenduaren aurka egiten laguntzen du, eta pertsonen eta komunitateen onura fisikoak, psikologikoak, emozionalak eta sozioekonomikoak dakartzkio (pertsonek ongizatea eta osasuna hobetzen duten elementuak dira guztiak).

## **III LURRALDE-ORIENTABIDEAK**

### **Orientabide orokorrak**

1. Azpiegitura berdea agiri honek proposatutako lurralde-ereduaren atal jotzea, eta EAEk Europako azpiegitura berdea sortzen egiten duen ekarpentzat jotzea. Horretarako, eskualdeko azpiegitura berdea definitzen da, parke naturalek, Biosferaren Erreserbak, Natura 2000 sareak, korridore ekologikoen sareak, ibai-ibilguek eta azaleko ur-masa guztiek osatutakoa. Ildo horretan:
  - Eskualdeko azpiegitura berdearen funtsezko helburua izatea EAEko balio handieneko ekosistemen jarraitutasun ekologikoa zaindu eta bermatzea. Azpiegitura EAEko natura-ondarea babesteko eta aberasteko oinarritzko atal modutzat hartzea, bai eta ekosistemek eskaintzen dituzten zerbitzuak babesteko ere.
  - EAEEn azpiegitura berde planifikatua egin dadin sustatzea, lurraldearen lotura ekologikoa bermatzeko, biodibertsitatearen galera geldiarazteko eta giza asentamenduek eta haiek dakartzaten azpiegitura “grisek” sortutako lurralde-zatiketa onorioak arintzeko.
  - EAEko azpiegitura berde inklusiboa, malgua eta estrategikoa sustatzea: hura sendotzen laguntzen duen ekintza oro erraztea, eragiketa pilotuak kasu.
  - Administrazioei eskatzea aplikazioak sor ditzaten lurraldean proposatzen diren ekintzek hartan duten inpaktua neurtzeko, ekosistema-zerbitzuak ebaluatzen metodologia oinarri hartuta. Aplikazioak publikoak izango dira eta oinarri izan behar dute bai partaidetzarako, bai eta lurralde- eta hiri-plangintzak erabiltzeko ere, erabakiak hartzerakoan.



- Azpiegitura berde izan daitezkeen espazioak finantzatzeko, zaintzeko eta erabiltzeko aukerak aztertzea. Azpiegitura berdean parte hartzen duten kideen, eragileen eta erabiltzaileen plataformak sor daitezen sustatzea. Helburu eta konpromiso komunak izateko kontzientzia kolektiboa sustatzea.
- Azpiegitura “grisek” eta eremu urbanizatuek sortutako hesiak murrizten laguntzen duten neurriak eta ekintzak erraztea, eta, batez ere, kapitulu honetako mapan eta lurralde-antolamenduan adierazitakoak.
- Eskualdeko azpiegitura berdean sartutako espazioak haien babes-figuren arabera arautzea. Korridore ekologikoak badira, erabilera-erregimen bat zehaztea, LAGen erabilera-matrizearekin bat. Dena den, lurralde-plan partzialek dagokien eremu funtzionalean eragiten dutenak arautu ahal izango dituzte.

### **Lurralde plangintzarako orientabideak**

2. Azpiegitura berdeen zenbait eskalatako espazioak elkarri lotzeko baldintzak zehaztea. Horretarako, honako neurri hauek hartuko dira:
  - Lurralde-plan partzialetan mugatzea agiri honetan azpiegitura berdeko eskualde-sare moduan jasotako korridoreak eta naturaguneak, eta lurraldeko azpiegitura-berdea ere mugatzea.
  - Kontuan edukitzea lurralde-plan partzialetan, sare hori egitean beste bi eskalak lotzeko beharra: eskualdekoa eta udalekoa. Udal-plangintzarako xedapenetako bat azpiegitura berdeari jarraipena emateko baldintzak izango dira.
  - Lurralde-sareko azpiegitura berdearen zatitzat hartzea hiri-hazkundeko perimetroen inguruko gerriko berdeak, bai aisiarakoak direnak, bai baso-habitata babestekoak, bai eta oro har ekosistema-zerbitzuak kontserbatzeko direnak ere. Azpiegitura horretako bateragarriak diren erabilerak (hiri-parkeak edo parke naturalak, aisiaguneak, eta aire zabalean kirola egitekoak, nekazaritza-eremuak eta abar) bere gain hartzea, eskualde-sarearekin lotzea eta hirigunean sartzen den azpiegitura berdeari jarraipena ematea.
  - Lurralde-plan partzialetan irizpideak eta ekintzak zehaztea, neurriak adieraztea eta eremu funtzional bakoitzerako proposatutako azpiegitura berdearen elementuen definizioa garatzea. Ahal den guztietan, adierazleek ekosistema-zerbitzuen ebaluazio-metodologiatik abiatu beharko dute.
  - Lurralde-plan partzialetan definitzea azpiegitura berdeak azpiegitura grisekin dituen elkarreragin-puntuak (batez ere, agiri honetako eranskinean jasotakoak), eta elkarreragin horiek tratatzeko modua ezartzea (ekoduktuak, tunelak eta abar egitea).
3. Datu koherenteak eta fidagarriak edukitzea, ekosistemen hedadurari eta egoerari buruz, eta ematen dituzten zerbitzuei eta zerbitzu horien balioari buruz. Eta ekosistema-zerbitzuen metodologia EAEko lurraldeari eragiten zaizkion inpaktuak neurtzeko erabiltzea.



## **Hiri plangintzarako orientabideak**

4. Tokiko azpiegitura berdearen plangintza egitea eta hiri-azpiegitura berde konektatua eta orekatua izaten laguntzea. Horretarako, honako neurri hauek hartuko dira:
  - Grafikoki zehaztea eta arau espezifikoak ezartzea hirigintza-plangintzan azpiegitura berdea tokian garatzeko.
  - Azpiegitura berdearen ataltzat hartzea plangintzak espazio libreen eta berdeguneen sistema orokor eta tokiko sistema moduan kalifikatzen dituen espazioak. Horietarako, beharrezkoa izango da kontuan hartzea kapitulu honetan adierazitako printzipio guztiak, eta, bereziki, ekosistema-zerbitzuei jarraipena emateko eta haiek zaindu eta indartzekoak direnak.
  - Orobat, garapen-planetan eta -proiektuetan azpiegitura hori errespetatu eta sustatu dadin zaintzea, konponbide ekologikoak ematen saiatuz, landare-elementuei jarraitutasuna emanez, azpiegiturarekin bateragarriak diren zerbitzuak emanez eta abar.
  - Hiri-birgaitzea, -eraberritzea eta -leheneratzea erraztea, lehentasuna emanda eraikitako ondareari eraikin berrien aldean. Garapen berriak badira, diseinuan, ahal den neurrian, bermatzea hiri-eremuak ingurunearekin jarraitutasun ekologikoa duela, eta eskala txikiko konponbideak eta energia-inpaktu txikia eta baliabide-kontsumo txikia dutenak planteatzea. Hirigintza bioklimatikoa erraztea, inguruneke baldintzak kontuan hartzen dituen, ahalik eta autojasangarrienak diren konponbideak eskaintzeko.
  - "Azpiegitura grisetan" lehentasuna ematea jarraitutasun ekologikoarekin bateragarriak diren konponbideak inpaktu handiko konponbide teknikoen aurretik. Eta edonola ere, zeharkako konektibitate ekologikoa bermatzea, zenbait baliabideren bidez (ekoduktuak, tunelak, bioingenieritzako lanak eta abar). Orientabide hori gaian eskumena duen edozein administrazioari zaio aplikagarri.
  - Eraikin berrietan, estalkietan, barneko patio pribatuetan eta abarretan landare-zorua erabil dadin erraztea. Fatxadetan, ahalik baliabide gutxien kontsumitzen duten landaredia erabil dadin erraztea: landare igokariak eta landareak.
5. Nekazaritza-lurzorua babestea, ingurune fisikoa kudeatzeko tresna moduan, nukleo txikien egiturari eusteko.

## **6.2.2. NATURAGUNE BABESTUAK**

### **I EGOERA**

LAGek 4/1990 Legearen 6.3 artikulua bete zuten. Hark ezartzen du, ezinbestekoa dela babes berezia behar duten eremuak edo zonak zehatz mugatu eta definitzea, haien balioak zaintzeko. Horrenbestez, dokumentuan espazio horiek zehazten dituen zerrenda jasotzen da: Urdaibaiko Biosferaren Erreserba; Urkiola, Valderejo, Aralar, Gorbea eta Aiako Harria parke naturalak; Leizaran ibaia biotopo babestua; Carralogoño, Carravalseca eta Prao de la Paul urmaelak



biotopo babestua; eta Itxinako mendimultzoa biotopo babestua. Une honetan, atal honen helburuetako bat da 4/1990 Legearen 6.3 artikulua aipatzen duen zerrenda eguneratzea.

LAGetan ezarritako babesek, lurralde- eta sektore-jarduerekin batera, nabarmen lagundu dute Euskadiko ingurumenaren eta ekosistema naturalen egoera hobetzen. Espazio babestuak biodibertsitatea berreskuratzeko funtsezko elementu moduan eta lurraldearen jasangarritasun orokorraren oinarri moduan finkatzeak ezinbestean eskatzen du haien arteko konexio handiagoa. Horretarako, espazio babestuen arteko lurralde-zatikatzea eragiten duten elementuen inpaktua gutxitu behar da, eta haiei jarraitutasuna ematen dieten erlazio-eremuak sortu.

EAEko Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuak honela sailkatzen ditu naturaguneak: parke naturala, biotopo babestua, zuhaitz apartekoa, Europako Natura 2000 Sarean sartutako eremu edo lekua (Batasunaren garrantzizko lekuak –BGL–, kontserbazio bereziko eremuak –KBE– eta hegaztientzako babes bereziko eremuak –HBBE–), aurreko kategoriekin eremuz, osoki edo partzialki, batera suertatzen bada ere (arau horren 13. artikulua).

**EAEko Naturagune babestuen sarea hau biltzen du:**

**NATURAGUNE BABESTUEN EAE-KO SAREA**

|                              | Leku-<br>kopurua | Azalera<br>(Ha) | EAEren<br>azaleraren<br>% |
|------------------------------|------------------|-----------------|---------------------------|
| <b>Naturagune babestuak</b>  | 41               | 81.753,20       | % 11,30                   |
| Zuhaitz apartekoak           | 25               | 0,00            | % 0,00                    |
| Biotopo babestuak            | 7                | 5.892,23        | % 0,82                    |
| Parke naturalak              | 9                | 76.559,27       | % 10,60                   |
| <b>RAMSAR hezeguneak</b>     | 6                | 1.685,20        | % 0,23                    |
| <b>Babes-plan bereziak</b>   | 1                | 160,80          | % 0,02                    |
| <b>Hezeguneen LPSak</b>      | 1.237            | 5.247,40        | % 0,70                    |
| I. multzoa                   | 369              | 738,2           | % 0,10                    |
| II. multzoa                  | 19               | 1.771,80        | % 0,30                    |
| III. multzoa                 | 849              | 2.847,00        | % 0,40                    |
| <b>Natura 2000 Sarea</b>     | 58               | 162.828,60      | % 22,50                   |
| BGL                          | 20               | 101.021,15      | % 13,99                   |
| KBE                          | 32               | 22.511,49       | % 3,12                    |
| Hegaztientzako BBE           | 6                | 39.296,07       | % 5,44                    |
| <b>Biosferaren erreserba</b> | 1                | 22.042,20       | % 3,05                    |
| <b>EAE GUZTIRA</b>           | 1.344            |                 |                           |

Iturria: [www.ingurumena.eus](http://www.ingurumena.eus)




Aurreko legeak adierazten duenez, babes-figura horietako batzuek espazio fisiko berbera hartzen dute. Horregatik, guztirakoak ez dira ezinbestean azalera edo ehuneko “desberdinei” buruzkoak, ingurumen-babeseko figuraren bat duten hektareei buruzkoak (berdinak izan ala ez). Dena den, azpimarratu behar da etorkizunerako joera dela, espazio bereko babes-figurak koordinatzea baino gehiago, figura bakarrean sartzea.

Edozein kasutan, gaur egun, lurraldearen %23 gutxi gorabehera natura babesteko figuraren batean jasota dago, eta 1997. urtean %9,7 besterik ez zen. Espazio horiek guztiak EAEko ekosistema eta ingurumen-intereseko areen lagin bat dira. Figura horiek eta EAEko natura babesteko legedian baliabideak eta espezieak babesteko ezarritako babesak naturaren esparru nahiko zabala eta osoa ematen dute.

Ikus daitekeenez, 1997tik 2015era bitartean, asko aurreratu da naturaguneen babesari dagokionez: beste lau parke natural onartu dira, bai eta lau biotopo babestu ere. Horrez gain, zuhaitz apartekoen babesa aitortu da (25, EAErako), hezeguneak (6 Ramsar hezegune, eta 1.237, hezeguneen lurralde-plan sektorialaren hiru multzoen artean), eta Natura 2000 Sareak dakarren babes-bloke osoa, eta, guztira, EAEaren lurralde osoaren % 22,5 hartzen dute.

#### EAE-KO NATURAGUNE BABESTUEN SAREA.



|                       |       |  |
|-----------------------|-------|--|
| Naturagune babestuak  | 41    |  |
| RAMSAR hezeguneak     | 6     |  |
| Babes-plan bereziak   | 1     |  |
| Hezeguneen LPSak      | 1.237 |  |
| Natura 2000 Sarea     | 58    |  |
| Biosferaren erreserba | 1     |  |

Iturria: guk eginikoa



Eskualde-mailako garrantzia duten naturagune gehien-gehienak babestuta daudela, babes horien guztien esparru integratua emateko garaia da. Hori egiten ari da jada espazio bakoitzeko babes-figurak agiri bakarrean bateratzeari dagokionez (gure agiriaren irismenetik at dagoen alderdia da); baina lurralde-antolamenduaren aldetik ikuspegi integratzailea eta globala eman behar da, kontzeptualki (eta fisikoki) bateratzeko lurraldeetan eta eskaletan, metodologia homogeneoak erabiliz.

## II HELBURUAK

1. Ingurumenaren aldetik EAEn garrantzitsuenak diren espazioek ematen dituzten zerbitzuak finkatzea.
2. Espazio babestu bakoitza ingurumen-babeseko figura bakarrean sartzeko lana amaitzea.
3. Naturagune babestuen EAEko sarea eremu funtzionaleko eta tokiko eremuko garrantziko naturaguneetan txertatzea, azpiegitura berde integratu batean (bai EAEn integratua, bai eta mugakide dituen eskualdeetan integratua).

## III LURRALDE-ORIENTABIDEAK

### ***Orientabide orokorrak***

1. Natura babesteko figurak bateratzen saiatzea, espazio bakoitzak arloko babes-tresna bakarra izan dezan.
2. Lurralde horien xedea babestea, haien bilakaera aztertuz, adierazleak ezarriz eta hartan eragiten duen edozein plan, programa edo proiekturen inpaktua neurtuz. Azterketa hori aurrez ezarritako metodologia bat erabiliz egingo da, ekosistema-zerbitzuen ebaluazioa erabiliz, lehentasunez. Naturagune babestuak EAEko natura-ondarearen muintzat hartzea, EAEn eskualde-mailan integratutako azpiegitura berdearen atal moduan, helburua izanik gizarteari ematen dizkioten zerbitzu baliotsu-baliotsuak ematea. Horretarako, honako neurri hauek hartuko dira:
  - LAGetan EAEko naturagune babestuen sarea zehaztea. Horiek eta korridore ekologikoak (ibai-ibilguak barne) eskualdeko azpiegitura berdearen atal dira. Dena dela ere, etorkizunean zerrenda hori zabaldu edo aldatzeko aukera egongo da.
  - Lurralde-plan partzialetan jasotzea EAEko naturagune babestuen sarea, agiri honetan adierazitakoa, eskualdeko azpiegitura berdearen atal moduan.
  - Udal-plangintzan adieraztea naturagune babestu bakoitzaren muga zehatzak, eta dagokion ingurumen-babeseko tresnarekin bat datorren arautzea izatea.

### ***Lurralde plangintzarako orientabideak***

3. EAEko naturagune babestuen arteko jarraitutasun ekologikoa bermatzea. Jarraitutasun horrek EAetik kanpoko lurraldeekiko ere izan behar du eraginkorra. Horretarako, honako neurri hauek hartuko dira:





- Lurralde-plan partzialetan adieraztea naturagune babestuen arteko benetako jarraitutasun ekologikoa lortzeko irizpideak, neurriak eta ekintzak.
- Horrez gain, Lurralde-plan partzialetan adieraztea naturagune babestuen arteko eta azpiegitura berdearen lurraldeko eta tokiko sareko beste naturagune batzuen arteko lotura bermatzeko irizpideak, neurriak eta ekintzak.

### 6.2.3. KORRIDORE EKOLOGIKOAK

#### I EGOERA

Espazio babestuak biodibertsitatea berreskuratzeko funtsezko elementu moduan eta lurraldearen jasangarritasun orokorraren oinarri moduan finkatzeak ezinbestean eskatzen du haien arteko konexio handiagoa. Horretarako, biotopoen arteko lurralde-zatikatzea eragiten duten elementuen inpaktua gutxitu behar da, eta haiei jarraitutasuna ematen dieten erlazio-eremuak sortu.

Korridore ekologikoen bidez lortu nahi da hori EAEn, eskualde mailan elkarri lotutako sare berde bat osatuz. Horren emaitza ingurumen- eta paisaia-intereseko espazioen etenik gabeko sistema bat izango da. Korridore ekologikoen sarea eskualdeko azpiegitura berdearen funtsezko atala da. Azken urte hauetan, horri buruzko hainbat lan egin dira, baina, oraindik ere, ez dute korridore moduan onartzen dituen lege-aitorpenik. Agiri honetan, berariaz jasotzen da espazio horiek jarraitutasun ekologikoa bermatzeko eta ingurune urbanizatuak dakarten lurralde-zatikatzea txikitzeko eta eragozteko duten garrantzia.


Euskal Autonomia Erkidegoko korridore ekologikoen sarea garatzeko proiektuak, 2005. urtean Eusko Jaurlaritzak abian jarritakoak, premia bati erantzun nahi zion: populazio murrizta zuten espezie basatiak zituzten naturaguneen arteko lotura funtzionala babestu eta leheneratzea, espezie horiek isolatzeko arriskua dago eta. Proiektu horren helburu nagusiak ziren, batetik, korridore ekologikoen eskualdeko sarea mugatzea, habitataren zatikatzeak kaltetzen duen faunaren mugikortasuna ahalbidetzeko eskualde-mailan, eta, bestetik, korridoreen sarea osatzen duten elementuen erabilera arautzeko araubidea eta kudeaketa-neurriak proposatzea, lurraldearen iragazkortasuna zaintzeko eta leheneratzeko.

Azterketak, besteak beste, honako hau lortu nahi zuen: arazo hori zuten espezieak eta biotopoak identifikatzea, baita lotura bidez konpon daitekeen zatiketa duten habitatak ere; korridore ekologikoen sarea eta bide-azpiegituren sareak zein puntutan ebakitzen zuten elkar jakitea, puntu kritikoak identifikatu eta hesiak iragazkor egiteko neurriak proposatzeko; eta, azkenik, korridore ekologikoen sarea eta hiri-lurzoru eta luzorur urbanizagarria elkarri eragiten ari diren eremu kritikoak hautematea. Lurralde Antolamenduaren arloan oso baliagarri dira azken bi puntuetan egin diren azterlanak; hori dela eta, egin den lana aprobetxatu da.





## EAE-KO KORRIDORE EKOLOGIKOEN SAREA



**Gune espazioak**

**Lotura-korridoreak:**

**Leku gatazkatsuak (ikusi erantsitako mapa)**

Iturria: geuk egina, Eusko Jaurlaritzak egindako azterketan oinarrituta

Lanak EAerako korridore ekologikoen sarearen diseinua egiteaz gain, eremu kritikoak identifikatzen ditu, loturen funtzionalitatea oso arriskuan duten lekuak, alegia. Eta, hain zuzen ere, adierazten da non eragiten dioten elkarri korridore ekologikoen sareak, batetik, eta ahalmen handiko errepideak, hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarriak eta 2001. urtean abiadura handiko trenerako aurreikusitako bideak, bestetik. Eremu horiek agiri honen eranskinean jasotzen dira, eta kontuan hartu beharko dira lurralde-plan partzialak garatzeko. Orobat, identifikatu eta eguneratu egin beharko dira, eta dagozkien neurriak proposatu, zatikatzean sortzen dituzten eraginak txikitzeko.

Haranek eta banalerroek eratutako korridore-multzoak naturaguneei jarraipena emango dien azpiegitura berde bat eratzen lagunduko dute, eta lurraldearen aniztasun eta aberastasun ekologikoa handituko dute, bai eta haren erakargarritasuna eta paisaia-aberastasuna ere.



Edonola ere, haietan erabilerak ezartzeko, erabilera horiek ezin izango dute espazio horien funtsezko ingurumen-funtzioetan eragin, eta LAGek ezarritako erabilera-araubidea errespetatu beharko dute.

## II HELBURUAK

1. EAEEn zatiketa ekologikoa eragozteia eta biodibertsitatearen galerari aurre egitea.
2. Korridore ekologikoen sarea eskualdeko azpiegitura berdean txertatzea.

## III LURRALDE-ORIENTABIDEAK

### **Orientabide orokorrak**

1. Azpiegitura “gris” bat egoteak ingurumen-balio handiko espazioen arteko jarraitutasun ekologikoa arriskuan jartzen dituen lekuak identifikatzea.
2. Espazioen arteko jarraitutasuna finkatzeko irizpideak, neurriak eta ekintzak proposatzea. Ildo horretan:
  - Korridore horien funtzio nagusia biotopoen arteko lotura bermatzea dela jotzea, eta, bereziki, natura-interes handienekoen artekoa. Lurralde-zatikatzea eragiten duten elementuen inpaktua murriztuko dute, eta erlazio-eremuak sortuko dituzte biotopoei jarraitutasuna emateko, eta lurraldearen aniztasun eta aberastasun biologikoa handituko dute, bai eta haren erakargarritasuna eta paisaia-aniztasuna ere.
  - Korridore ekologikoen sarea aintzat hartzea. Hauek osatzen dute: LAGek adierazitako ibai-sistemak, “EAEko korridore ekologikoen sarea” azterketan identifikatutako gailurren banalerroek eta elementu berde linealek (azterketa hori Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak egin zuen 2005. urtean). Agiri honetako “Korridore ekologikoen sarea” eranskinean sarea osatzen duten korridoreen zerrenda eta sailkapena dago.
  - LAGetan adieraztea korridore ekologikoen sarea (ibai-ibilguak barne). Naturaguneekin batera EAEko eskualdeko azpiegitura berdearen atal dira. Dena dela ere, etorkizunean zerrenda hori zabaldu edo aldatzeko aukera egongo da.
  - Lurralde-plan partzialetan jasotzea agiri honetan adierazten diren loturako korridoreak, eskualdeko azpiegitura berdearen sareko atal moduan.
  - Lurralde-plan partzialetan adieraztea korridore horien bidezko benetako jarraitutasun ekologikoa lortzeko irizpideak, neurriak eta ekintzak.
  - Lurralde-plan partzialetan sartzea korridore ekologikoak ingurumenaren eta paisaiaren aldetik egokitzeko eta hobetzeko ekintzak. Horien artean egongo dira landaredia eta ekosistema leheneratzekoak, bide bigunak egokitzekoak eta nekazaritza-erabilera tradizionalei eustekoak. Korridoreen tarteetan erabilera-mailak zehaztea, kontuan hartuta bateragarria den biodibertsitatea babestearekin, eta tarte bakoitzeko fluxu ekologikoei eta ingurumen-balioei eustearekin.



- 
- Hirigintza-plangintzan jasotzea haren lurraldeari eragiten dion korridore ekologiko guztien muga zehatzak, eta nola arautzen den dagokion LPPari edo plangintza sektorialari jarraituz.
3. Sare horretan sartutako espazioetan egiten den edozein erabilera edo jarduerak lehen adierazitako eginkizun nagusia betetzearen mende egon beharko du. Erabilera horiek aurrezarritako baldintza moduan arautuko dira.



7

Landa-ingurunea





## 7 LANDA-INGURUNEA

***Euskadiko landa-espazioaren arazoa, gehien-gehienetan, ez da despoblazioa, landa-eremu batzuen hauskortasun sozioekonomikoa baizik, egitura sozioekonomiko urbanoak egiten dion erakartze-indarraren eta eraginaren ondorioz: berrurbanizazio-prozesuak, hiper-mugikortasuna, lurzoruairen prezioaren inflazioa eta abar. Hori guztia dela eta, enplegua sustatzea oso garrantzitsua da landa-eremuak garatzeko.***



### I EGOERA

#### **a) EAE n landa-ingurunearen egoera. Ikuspegi-kontua.**

EAE, oro har, hiri-lurraldetzat jotzen da, eta biztanleriaren % 8 soilik bizi da dentsitatea 150 biz/km<sup>2</sup> baino txikiagoa duten udalerrietan. Dena den, Euskadiren geografia-kokapena ikusita, lurraldeen arteko alde handiak ikusten dira. Kostaldea (Bizkaia eta Gipuzkoa) urbanoa da, nabarmen, eta Araba, isurialde mediterraneoan zati handiengan, askoz ere landatarragoa da, eta dentsitateak adierazitakoak baino askoz ere txikiagoak dira.

Ezaugarri hori kontuan izanda, aurreikus daiteke erkidegoko landa-eremuan aniztasun handiko eskualdeak daudela, bai maila sozioekonomikoari dagokionez, bai giza ezaugarriei dagokienez ere. Eta haien arteko desberdintasunak handiak dira hainbat alderditan; besteak beste, zerbitzuen estalduran, komunikazio-sareetan, garraio publikoan, lan-aukeretan eta banda zabalerako aukeran.

Bestalde, hainbat faktore elkartu direnez (erliebe menditsua izatea baina sarbide errazekoa, ez baitago goi-mendiko eremurik; Bizkaiko itsasoko kostaldea eta Pirinioak lotzen dituen ardatzaren alde baxuena zeharkatuz, Frantzia eta Iberiar Penintsula lotzea, biztanleriaren

---

#### **- 2015-2020 aldirako Landa Garapeneko Programa**

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetza.

- Jesús María Erquicia 2003 - **El Planeamiento Urbanístico y la Ordenación del Territorio**

- **Mujeres Rurales**, Ministerio de Agricultura, Alimentación y Medio Ambiente

- Nuria Caño Suñen - **Paisaje y Desarrollo Rural Sostenible en Euskadi: La importancia de su ordenación y gestión**



dentsitate handia izatea, etab.), EAEren lurraldeak landa-eremuren eta hiri-eremuaren arteko teilakatze gogorreko espazioa osatzen du. Hiri-sare horren barnean ez dago ia distantziarik (EAEen ez dago eremu isolaturik), eta landa-eremua eta hiri-eremua elkarrekin nahasten dira. Horregatik, EAEen landa-ingurune hibridoa dugu, eta horrek mehatxuak eta aukerak dakartza: landa-ingurunea asko erabiltzea atsegin hartzeko, mota askotako nekazaritza- eta basogintza-erabilerak egotea eta lanaldi-maila desberdinak izatea (lanaldi partzialeko nekazaritza) industria- eta zerbitzu-jarduerekin batera, etab.

### **b) EAEko landa-eremuen egoera sozioekonomikoa**

EAEko landa-eremuetan, garrantzi handia du nekazaritza-sektoreak, eta nekazaritzako elikagaien sektoreak gero eta indar handiagoa du, baina industria- eta zerbitzu-sektoreek ere badute presentzia. Landa-enpleguaren egitura konplexua da. Eztabaida dago enpleguak landa-eremuetan populazioa finkatzen laguntzen duen ala ez, eta eztabaida irekia da, gainera: batetik, zenbaitek diote azken urteetan landa-eremuan izan den biztanle igoera hiri-eremutik datozen eta hartan lan egiten duten pertsonak bizitzera joan direlako gertatu dela; bestetik, zenbait azterketak adierazten dute oso lotuta dagoela landa-enplegua eta Euskadiko landa-udalerrien berezko bizimoduari eustea.

Enplegua da, hain zuzen ere, bizitzeko eta lan egiteko leku den landa-eremua eta bizitzeko soilik den landa-eremua bereizten dituen aldagai nagusietako bat. Ohikoa da landa-ingurune biziaren artean ere lekualdatzeko beharra normalizat jotzea, nahiz eta landa-guneetan lan egitea positibotzat jotzen den, dela lehen sektoreko jardueretan dela hortik kanpokoetan.

Euskadiko landa-espazioaren arazoa, gehien-gehienetan, ez da despopulazioa, landa-eremu batzuen hauskortasun sozioekonomikoa baizik, egitura sozioekonomiko urbanoak egiten dion erakartze-indarraren eta eraginaren ondorioz: berrurbanizazio-prozesuak, hiper-mugikortasuna, lurzorua prezioaren inflazioa, eta abar. Eta, horrenbestez, ondorioztatzen da enplegua sustatzea giltzarria dela landa-eremuak garatzeko.

Abenduaren 23ko 17/2008 Legeak, eta, bereziki, II. tituluak, Nekazaritza eta Basogintza antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana nekazaritza-lurra arautzeko esparrua dela adierazten du, eta titulu horren artikuluetan nekazaritza-luraren erabilera sustatzeko beharrezkotzat jotzen diren neurriak ezartzen dira, lur hori nekazaritza-jarduerarako erabil dadin, modu jarraitu eta egokian. Eta horrek, lehen aipatutako lurak bertan behera uztea eragozteaz gain, erabilera sustatuko du.

Landa-eremuetan gero eta indar handiagoa duen jardueretako bat turismoa da, nekazaritza-turismoa, hain zuzen. Horri dagokionez, EAEen turismoak bilakaera positiboa izan du, eta 2008. eta 2011. urteen artean, % 10 egin zuen gora, bai establezimendu-kopuruak, bai eta eskainitako plaza-kopuruak ere. Landa-eremuko ekonomia-hazkunderako, faktore garrantzitsua da sektore horretako enplegu-kopurua.

### **c) EAEko landa-eremuaren plangintza:**

Landa-ingurunearen azterketan bi arlo bereizi dira: batetik, landa-eremuaren garapen ekonomikorako politikak, eta, bestetik, landa-espazioaren eta espazio naturalaren antolamendu-politikak.





Landa-eremuaren garapen ekonomikorako politikei dagokienez, nekazaritzako elikagaien industria funtsezkotzat jotzen da orain ere. EAEko Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legeak nekazaritza-jardueraren gizarte-funtzioa eta multifuntzionaltasuna aitortzen zuen, elikagaiak ekoizten dituelako eta lurraldearen kudeaketa orekatua eta ingurumenaren kontserbazioa bermatzen baitu. Gizarte-funtzio hori paisaiari ere badagokio, nortasun-elementua ez ezik, garrantzi handia baitu ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren aldetik. Horrez gain, lur-landaketak eta larreak izateak animalia- eta landare-biodibertsitateari eusten laguntzen du, bai eta landare-gainazalari eusten ere.

2007-2013 aldian, LEADER ikuspegia garatu zen. Europako proiektua da, eta funtsak ematen ditu landa-eremua despopolatu ez dadin, prestakuntzarako proiektuak lagunduz eta enpresa txikiei laguntzak emanez. Euskadin MENDINET toki-ekintzako taldearen bidez kudeatu da. Talde horrek hemezortzi landa-garapeneko elkarte eta Itsasmendikoi sozietate publikoa hartu zituen. Haren programan, zenbait neurri kudeatu zituen Euskal Autonomia Erkidegorako, eta 1.065 landa-erakundetara eta 148.558 biztanlerengana iritsi zen. Programaren helburu nagusia izan da Euskal Autonomia Erkidegoko LEADER guneetako garapen sozioekonomikoan laguntzea, landan bizi diren herritarren iraupena sustatzeko, herritarren eta lurraldearen ekintza oinarria zabaldua: enplegu-aukerak sorrarazi eta ekipamenduak eta zerbitzuak indartu eta, hala, bizi-kalitatea hobetuta. Hori guztia garapen jasangarri integratuko eta kalitatezko estrategia berritzaile baten bitartez.

Beste alde batetik, landa-ingurunearen garapen jasangarriari buruzko 45/2007 Legeak honako helburu hau du: landa-eremuetako biztanleen egoera sozioekonomikoa hobetzea eta zerbitzu publiko nahiko eta kalitatezkoak eskuragarri izatea. Eta hori hainbat sektoretako neurrien eta ekintzen bidez egingo du. Lege horrek arreta berezia ematen die emakumeei eta gazteei, haien mende baitago, neurri handi batean, landa-ingurunearen etorkizuna.

Landa- eta natura-ingurunearen antolamendu fisikorako politikei dagokienez, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek hasitako lanaren garapen moduan, ingurune horren antolamendua egiteko plangintzako agiriak gauzatu dira. Landa-ingurunearen antolaketa lurralde-plangintzaren erronka handienetako bat izan da, eta izaten jarraitzen du.

Lehendabizi, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek eginkizun garrantzitsu-garrantzitsu bati ekin zioten: lur urbanizaezinaren tratamendua homogeneizatzea, udal-plangintzek bete behar dituzten antolamendu-kategoriak sartuz. Horrez gain, kategoria horietako bakoitzerako erabilera-erregimen bat ezarri zuten, eta bereziki landu zituzten hirigintzako erabilerak, hiri-ingurunearen presioaren eraginez landa-eremuan ezartzen direnena.

Dena den, lurralde-plangintzaren erronka nagusia harago joatea da, nekazaritzako, ingurumeneko eta naturaren kontserbaziorako politikak lurraldean txertatuz eta koordinatuz, eta gainerako sektore-politikekin ere koordinatuz. Horren guztiaren helburua da egungo ingurune fisikoak berez duen balioa agerian jartzea. Neurri horretan, lurralde-plangintza sektorialak izan behar du oinarria, tokiko administrazioek beren politika gauzatzeko oinarria. Horrenbestez, gaur egun, landa-ingurunea antolatzen duten zenbait agiri ditugu; besteak beste hauek antolatzen dituzten lurralde-plan sektorialak: ibaiak eta erreka ertzak, itsasertza, hezeguneak, eta nekazaritza eta basozaintza.



- **Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak** eta haren aldaketak, behin betiko onartuak, modu eraginkorrean harmonizatzen dituzte gure ibilguetan ezinbestean elkartzen diren hiru alderdi: ingurumenaren alderdia, alderdi hidraulikoa eta hirigintza-alderdia. Ertzen lurralde-antolaketa egokia, hiru alderdi horiek uztartuz gauzatutakoa, da, hain zuzen ere, lurralde-antolamenduaren arloko erronka nagusietako bat. Zenbait alderdik (ibai-ibilguez duten ingurumen-balioa, bizitza-korridoreak diren neurrian; aldian aldiko uholdeak eta haranen egitura geografikoa eta lurraren eskasia) guztia bateratzeko ahalegina eskatzen dute, eta hori lortu egin da planarekin.
- Bestalde, **Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planak**, behin betiko onartutakoak, hezeguneek (kostaldekoek zein barnekoek) izan duten andeatze larria geldiaraztea lortu du. Kostaldean, hezegunearen andeatzea oso larria izan da, hiriguneen garapenak, arrantza-portuek eta kirol-portuek, jarduera turistikoak, kirol-jarduerak eta industriak ezartzeak eragindako presio handiaren eraginez. Eta zenbaitetan, padurak desagertzea ere ekarri du.

Barrualdeko hezeguneak, hezegune naturalek nahiz artifizialek osatutakoak, asko andeatu dira nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueren, eta, zenbaitetan, jarduera turistiko batzuen presioaren eraginez. Ezinbestekoa zen jarduera horiek antolatzea, hezeguneen andeatzea atzeraezina izan ez zedin, eta horregatik egin da lurralde-plan sektorial hori.

- Orobat, **Itsasertza Babestu eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak** antolamendu-eremu moduan Kostaldearen Legeak definitutako eragin-eremua zehazten du. Eremu hori 500 metroko zerrenda bat da, itsasertzaren barneko mugatik neurtuta, eta ibaien ertzetara ere hedatzen da, mareek eragiten duten lekuraino (Euskal Autonomia Erkidegoan, itsas mailaren gainetik 5 metroan ezarrita dago). Definizio horren ondorioz, itsas ertza zein mareak izaten diren errioen ertza antolatzen da. Autonomia-erkidegoko 62 udalerriri eragiten die agiri honek.

Beste alde batetik, ingurune fisikoaren arloan eta aurreko kapituluan adierazi bezala, ia osorik garatu da Ingurune Fisikoan Babestutako Espazio Naturalen sistema. Sistema horretan, gaur egun, eremu eta kategoria ugari barneratzen dira (parke naturalak, KBEak, Hegaztientzako BBEak, biotopo babestuak, Natura Interes Berezikiko Eremuak, eta abar).

#### **d) Nekazaritzaren eta Basogintzaren Lurraldearen Arlo Plana**

Plan hori Eusko Jaurlaritzako orduko Nekazaritza eta Arrantza Sailak prestatu zuen 2001. urtean, eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak eta Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak amaitu zuen haren tramitazioa. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako Ingurune Fisikoaren Antolaketa Kategorien garapen moduan, planak honako kategoria hauek ezartzen ditu: Nekazaritza nahiz Abeltzaintzakoa eta Landazabalekoa, Balio Estrategiko Handia; Nekazaritza nahiz Abeltzaintzakoa eta Landazabalekoa, Trantsizioko Landa Paisaia; Basoa - Mendi Barbana; Basoak; Mendi Larreak; Mendi Larreak - Harkaitzak; Ingurumenaren Hobekuntza; eta Gainazaleko Uren Babesa. Planak, halaber, LAGetako Ingurune Fisikoaren Antolaketarako Matricea ere zehazten du, erabilerak egokiak, onargarriak edo debekatuak diren kontuan hartuta zenbait kategoriaren arabera arautuz.



Arabako Erdialdeko eta Laguardiako eremu funtzionalak EAEko gainerako eremuaren desberdinak direnez, bi lurralde horiek lurraldearen gainerakoa ez bezala arautzea erabaki zen, balio estrategiko handiko lur asko baitago eremu funtzional horietan.

Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako 2008ko abenduaren 23ko 17/2008 Legeak nekazaritza-balio handiko lurraren babes berezia xedatzen du, kasuan kasuko lurralde-plan sektorialak (LPS) dioenaren arabera. Horri dagokionez, plan honek Nekazaritza eta Abeltzaintza nahiz Landazabala - Balio Estrategiko Handia kategoriaren mugaketa eta arauketaren lotura ezartzen du udal-plangintzarentzat, bai eta Onura Publikoko Mendiak eta Mendi Babesleak gainjarritako baldintza ere.

### **e) Landa Garapeneko Programa**

2015-2020 aldirako Landa Garapenerako Programa 2015eko maiatzaren 26an onartu zen. Euskadiko erakundeek EAEko landa-ingurunean egin nahi diren politikak bultzatzeko eta laguntzeko duten funtsezko tresna bat da.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetzak partaidetza-prozesu baten emailta moduan egin du 2015-2020 aldirako Landa Garapenerako Programa. Erakundeetako eta sektoreko ordezkariak hartu dute parte (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak, erakunde profesionalak, emakumeen kolektiboen ordezkariak, nekazaritza-kooperatibak, sektoreko elkarteak, landa-garapeneko elkarteak, ingurumen-elkarteak, eta abar). Azpimarratu behar da, Euskal Autonomia Erkidegoak horrelako beste bi programa izan dituela aurretik: 2000-2006 LGP eta 2007-2013 LGP.

2015-2020ko Landa Garapenerako Programa aldi horretan Euskadiko landa-ingurunean bultzatuko diren jarduera eta neurrietarako Nekazaritza Politika Bateratuaren finantza-laguntza egituratzen duen programa da. Beraz, landa-ingurunea osatzen duten eragileei (nekazariak, baso-langileak, kooperatibak, nekazaritzako industriak, udalak, eta abar) laguntzeko finantza-tresna bat da, batera finantzatzen dute Bruselak (Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtza - LGENF - 2014-2020) eta Euskadiko erakundeek (Eusko Jaurlaritza eta foru-aldundiak), eta Euskadiko erakundeek Euskadiko landa-ingurunean egin nahi diren politikak sustatzeko eta laguntzeko tresna nagusia dira.

Plana honako hauetatik sortutako lehentasunezko beharren inguruan egituratuko da: gure landa-ingurunea osatzen duten arloen egoera-diagnostikotik, aurre egin beharreko helburu eta ildo estrategikoetatik, eta, azkenik, ezarri beharreko neurri eta jardueretatik –dagokien diru-esleipenarekin–.

Landa-eremuaren barruan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak gazteak lehen sektorean sar daitezen sustatzeko abian jarritako tresnetako bat GazteNEK Nekazari Gazteen Plana da. Plan horren helburua gazteak Euskadiko nekazaritza-sektorean sartzea eta jarraitzea da, batetik; eta hartan jarduten duten gazteek jarduera ez uztea, bestetik; betiere gizartearen gainerako biztanleen bizi-kalitate eta lan-baldintza homologagarriak bermatzearen ikuspegitik.



## II HELBURUAK

Landa-ingurunean lurralde-eredua berrikusteko proposatu diren helburuak EAEko Landa Garapeneko Programak (2015-2020) ezarritakoen ildo beretik doaz, eta honako hauek dira:

1. Landa-nukleoen izaera eta irudia zaintzea, lurraldearen funtsezko elementuak dira eta.
2. Ezagutzaren transferentzia eta berrikuntza sustatzea nekazaritza- eta basogintza-sektoreetan eta landa-eremuetan, eta ahalegin berezia egitea jakintza-multzoaren garapena, berrikuntza eta lankidetzat sustatzeko.
3. Nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduera eta arrantza-jarduera sustatzea, oinarritzakoak baitira elikagaiak hornitzeko eta lurralde baten elikagai-subiranotasunerako, hark biztanleei bizi-kalitate egokia eta osasuntsua eman diezaien.
4. Landa-lurzorua babestea, ingurune fisikoa kudeatzeko tresna gisa, nukleo txikien egitura eta haien paisaia-eremuak kontserbatu eta sustatzeko.
5. Nekazaritza-ustategien bideragarritasuna eta lehiakortasuna sustatzea, eta pertsona gazte eta prestatuek lana lor dezaten erraztea.
6. Nekazaritzarekin eta basogintzarekin lotutako ekosistemak leheneratu, babestu eta hobetzea, biodibertsitatea, natura-balio handiko nekazaritza-sistemak eta paisaia leheneratuz, babestuz eta hobetuz.
7. Baliabideen efizientzia sustatzea, bai eta karbono gutxiko eta klima-aldaketara egokitzeko gai den ekonomia sustatzea ere, nekazaritza-, elikadura- eta basogintza-sektoreetan. Ura eta energia efizientzia handiagoz erabil dadin ahaleginduko da. Horretarako, energia-iturri berriztagarriak erabiltzea erraztu eta bioekonomia gara dadin sustatuko da.
8. Landa-eremuetan gizarteratzea sustatzea, pobrezia murriztea eta garapen ekonomikoa sustatzea, dibertsifikazioa erraztuz, enpresa txikiak sortzea eta garatzea eta enplegua sustatzea erraztuz, landa-eremuetan tokiko garapena sustatuz, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien eskuragarritasuna eta erabilera eta kalitatea hobetuz.

## III LURRALDE-ORIENTABIDEAK

Honako lurralde-orientabide hauek proposatzen dira landa-eremuan, lurralde-eredua berrikusteko:

1. Xehetasunez aztertzea landa-nukleoak babesteko lurralde-ikuspegia. Alde horretatik:
  - a) Landa-guneak babestu behar dira, funtsezkoak baitira lurraldearen izaera, irudi eta erakargarritasun globalari eusteko, kontuan izanda EAEren geografian zehar modu uniformearen kokatutako guneen ondare aberatsa.
  - b) Legearen aginduari jarraituz, landa-guneen inbentarioa egiten amaitzea foru-aldundiek, lege horrek ezarritako ezaugarriak dituzten guneak soilik hartuta landa-gune moduan.



- c) Zenbait neurri ezarrita dituzten Lurraldera Sartzeko Guneak identifikatzea (esate baterako, alde zaharren zaharberritzea, bigarren etxebizitza sustatzea, dotazio bereziak, hirugarren sektorea sustatzeko mekanismoak, eta abar), haien erakargarritasuna handitzeko, tokiko oinarri ekonomikoa dibertsifikatzeko eta bideragarritasuna bermatzeko.
2. Landa-inguruneari ekipamendu eta komunikazio egokiak ematea, hiri-inguruneak duen maila bera izan dezan alderdi horretan.
3. Elektronikaren, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien eskuragarritasuna eta erabilera sustatzea, landa-eremuetan bizi diren bizi-kalitatea eta lan-kalitatea hobetzeko.
  - a) Landa-eremuak funtsezko aktiboa dira herrialde orotan, baina landa-eremuak azken urteetan izan duen despopulazioak eta isolamenduak arriskuan jar dezake gizarte horren artikulazioa, biztanleek abandonatuta daudela senti dezakete eta. Haien eskura Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia berriak jartzen badira, landa-eremuetako biztanleen bizi-kalitatea eta lan-kalitatea hobetuko da, eta landa-ekonomia sendotuko da, bai sektore tradizionaletan, bai sektore berrietan, eta eremu horiek aukera izango dute ezagutzen oinarritutako ekonomia europar batean guztiz integratu eta parte hartzeko.
  - b) Landa-eremuetan teknologia berrien zerbitzu aurreratuak sustatzea, funtsezko elementua baitira lurralde-kohesioa lortzeko eta ekonomia eta gizartearen egituratuta egoteko. Tresna horiek eskuragarri izateak eskubidea izan behar du biztanleentzat, eta, aldi berean, erronka bat erakundeentzat.
  - c) Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak, Europako LEADER ekimena honetara bideratu du: IKTetan oinarrituta, landa-lurraldeetako produktuen eta zerbitzuen lehiakortasuna sustatzen duten proiektuak finantzatzera. Ekimenaren helburua da landa-eremuetako bertako biztanleek beraiek sortzea, erakundeen laguntza ekonomikoarekin, beren premiak asetzen dituzten zerbitzuak eta edukiak.
4. Gaur egungo landa-lurzoruari eustea, eta gutxiegi erabiltzen diren lurrak aktibatzea, nekazaritza-elikagaien industria sustatzeko, lurraldearen kudeaketa orekatua bermatzen du eta.
5. Paisaia bere horretan eduki eta zaintzea, nortasuna babesteko gizarte-baliabidea baita, bai eta baliabide ekonomikoa eta ingurumen-baliabidea ere. Horri dagokionez, landa-nukleoak eta haien ingurunearen irudia zainduko da, bereziki.
  - a) Landa-lurraren eta landa-guneen garapena irudi tradizionala babesteari eta paisaia kontserbatzeari lotzea.
  - b) Gune txikietako eraikinak birgaitzeko eta hobeto aprobetxatzeko lehentasunezko politika sustatzea, eta eraikin horietan egiten diren jarduerak zaintzea, lehendik dauden asentamenduei morfologiari, bolumenei eta materialei egokitzen zaizkiela, inguruko lurraldeko lurzoruen kalitateari eta paisaiari eusteko helburuz.



6. Landa-gizarteari eustea, hark gordetzen baititu gure kultura-ondarea, ondare artistikoa, historikoa eta etnografikoa, eta gure errituak eta ohiturak; hau da, gure idiosinkrasiaren atal diren balioak eta bizimoduak.

a) Landa-gizarteak gure kultura-ondarearen zati handi baten kontserbazioan lagundu du. Kultura-aztarna asko landa-inguruneari esker gorde dira, gure idiosinkrasiarekin oso lotuta dauden balioei eta bizimoduei eutsi diete eta. Horixe gertatu da, hain zuzen, gure ondareetako batekin, euskararekin: landa-ingurunean erabiltzen jarraitu denez, gure hizkuntzak bizirik irautea lortu da. Erakundeentzat lehentasuna izan behar du euskararen erabilera sustatzea, erabilera-maila egokia lortu ez den eremuetan, batez ere.

b) Kontuan izatea baserrian islatzen dela kide izatearen eta lurrarekiko loturaren funtsezko kontzeptua: etxebizitza bat baino gehiago, lurralde eta paisaia bati lotutako bizimodua da baserria. Baserria ez galtzeko irizpideak ezarri behar dituzte lurralde-antolamenduko agiriekin eta udal-plangintzek beraiek, eta dagozkien administrazioek kudeatu behar dituzte.

c) Emakumeek landa eremuan duten funtsezko eginkizuna aitortzea, landa-eremuetako populazioaren % 48,9 direlako, batetik, eta lurraldean landa-gizarteari eusteko funtsezkoak direlako eginkizunak egiten dituztelako, bestetik. Emakumeak ingurune horretan bizitzeak, eta, batez ere, emakume gazteak, erronka izan behar du gizarte osoarentzat.

Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa (MAGRAMA), eta, bereziki, Ustiapenak modernizatzeko zuzendariordetza jabetu da landa eremuko emakumeek funtsezko eginkizuna dutela Landa-ingurunearen Garapen Jasangarriari buruzko 45/2007 Legeak ezarritako helburuak lortzeko, eta landa-ingurunekeko genero-berdintasunarekin lotutako zenbait jarduera-ildo jarri dituzte abian, beste ministerio-departamentu batzuekin eta estatuko zein beste autonomia-erkidego batzuetako administrazio publiko batzuekin elkarlanean.

8

Hirigunea







## 8 Hirigunea

Azken hamarkadetan, herrialde garatueta hiri eta hiriguneetan espazio urbanizatuak areagotu egin dira. Ingurumen-alderdien artetik, lurzorua artifizializatzeko prozesuari bereziki erreparatu behar diogu EAEko lurralde-garapenaren prozesuaren barruan. Demografia-dentsitate handiko eta bere konfigurazio orografikoaren ondorioz lurraldearen zati handi batean erabilera-murrizketa handiko lurralde txiki batek garapen berrietarako egokiak diren espazioak agortzeko eta oinarritzko ingurumen zerbitzuak emateko funtsezko espazio libreak aldatu edo desagertzeko arriskua planteatzen du. UDALPLAN-2011ko datuen arabera, EAEko lurzoru artifizializatua 48.887 Ha ingurukoa da, hau da, EAEren azalera osoaren % 6,83. Kopuru horretan sartzen dira hiri-lurzoruak eta lurzoru urbanizagarriak, bizitegitarakoak nahiz ekonomia-jardueretarakoak, eta baita ekipamenduek eta azpiegiturek okupatutako sistema orokorrak ere, baina ez espazio libreei dagozkienak.

Gidalerroetan gai hori ez da esanbidez landu. Bere garaian, planteamendu nagusia lurraldea berronkatzea zen eta, horretarako, hiri-hazkundera pilaketa handirik gabeko eremuetan egiten zen, dentsitate handiko espazioetan presioa arintzearen. Gidalerroetan, udalerri bakoitzeko etxebizitza kopurua kuantifikatzeko sistema bat ezarri da, honako helburu hauekin: garapen-prozesuetarako lurzoru nahikoa egongo dela bermatzea; lurralde-ereduaren arabera hazkundera handienak izan behar dituzten udalerriei lehentasuna ematea; eta bestalde, lurzoruaren neurrigabeko kalifikazioak saihestea, etxebizitza-eskariari dagokionez.

Horrek lurzoruaren ondasun urritzat administratzeko kultura sortu du udal-plangintza idazteko prozesuan eta, horren ondorioz, hirigintza-plangintzaren ahalmena oso murriztua geratu da, beste autonomia-erkidego batzuetan gertatu denarekin alde handia izanik. Baieztapen horiek argitzearen, EInetik eta Sustapen Ministeriotik ateratako estatistikaren hainbat datu aipatuko ditugu:

- EAEko biztanleko etxebizitza kopuruaren indizea, 2006an, autonomia-erkidego guztien arteko txikiena zen.
- 2006an, halaber, biztanleria aintzat hartuta, hasitako etxebizitza askeen kopurua 4,57koa zen; autonomia-erkidego guztietan txikiena, eta, Espainiako batez bestekoaren (14,71) oso azpitik. Esaterako, Gaztela-Mantxakoa 27,60 zen, Valentziakoa 19,04, Kataluniakoa 14,11 eta Madrilgoa 8,48.
- Hasitako etxebizitzaren urteko bilakaerak gutxieneko balioan egonkor dirau EAEN, beste autonomia-erkidego batzuetan 2001-2006 urteetan izandako balio handietatik oso urrun.
- Sustapen Ministerioaren etxebizitza berrien stockari buruzko 2010eko txostenak erakusten duenez, 2010eko abenduaren 31n, saldu gabeko 687.523 etxebizitza berri zeuden Espainian. Hala ere, kopuru horretatik 12.516 etxebizitza baino ez daude EAEN, stockaren % 1,82, alegia. Hau da, EAEko etxebizitzaren % 1,22.

Datu horietan argi ikusten da "hirigintzako garapenkeria" egon den arren, EAEN ez dela horrelakorik gertatu, EAEN eraikuntzaren bilakaera ez baita izan beste autonomia-erkidegoetako bilakaeraren parekoa, baina bai Europako beste herrialde batzuetako balioen antzekoa.



Hazkundera nabarmendu beharrean, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen berrikuspenean zera proposatu da, kokalekuen dentsitatea berreskuratzea, eraikitako eremuak hedatzeko prozesuak mugatzea eta eraikitako espazioak berritzeko eta berrerabiltzeko ekimenak etorkizuneko jardueren erdigune bihurtzea. Ikuspegi hori funtsezkoa da jasangarritasunerako; izan ere, landaretzarako euskarri diren lurzoruak hondatzea ekiditen du, hondakinen eta ura bezalako baliabide estrategikoen kudeaketa hobetzea ahalbidetzen du, joan-etorri motorizatuen beharrizana murrizten du, eta garraio kolektiboko sistemen erabilera lehenesten du. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek, gainera, hiri-berrikuntzako estrategiak planteatzen dituzte, lurraldea birziklatzeko eta birkokatzekeo prozesu garrantzitsua ahalbidetzen duen ekimen gisa, jadanik hirigintzak okupatuta dauzkan espazioetan erabilera berriak gauzatuz. EAEn, ekimen horiek modu ez oso sistematikoan garatu izan dira, eta botere publikoek esku-hartze handiagoa egitea beharrezkoa izango da.

Prozesu horiek guztiak herrialde garatu guztietako azkenaldiko hiri-garapenaren bereizgarri dira. Prozesu horien arrazoiak askotarikoak dira, baina eredu berrien sorrerarekin lotuta daude guztiak ere; eredu berri horien ezaugarriak dira egitura ekonomikoan gertatutako aldaketak, hirietako erdiguneen eraldaketa, merkataritza-arloko eta aisialdiko eskari berriak, industria-espazioen lekualdaketa, azpiegituren hedapena eta, batik bat, bizitegi-eredu berriak, dentsitate txikia nagusi dela. Bizitegi-eredu berri horien ondorioz, metropolialdeak landa-eremuen gainean zabaltzen ari dira, nahiz eta erdigune tradizionaletatik gero eta urrunago egon. Hedapenari eusteko politika orotan, aukera nagusia eraikitako lurzoruak birziklatu eta berrerabiltzea izaten da, baita zaharkituta geratu diren edo jada erabiltzen ez diren espazioak berritzeko lanak egitea ere. Beste ekimen batzuk ere behar-beharrezkoak dira: plangintzak malguagoa izan behar du garapen berrien erabilerak, tipologia eta dentsitateak nahasteari dagokionez; eta hirigintza-hazkundera garraio kolektiboko sistemekin lotu behar dira.

Europako eta Ipar Amerikako zenbait hiri-eskualdetan, azken urteotan askotariko esperientziak gauzatu dituzte, kokalekuetarako gehieneko hazkunde-perimetroak finkatuta. Ikuspegi horretatik begiratuta, hiri-hedapenaren mugei buruzko erabakiak har daitezke; horretarako, lurzoru libreak eraldatzeko prozesuak murrizteaz gain, hirigintzak jada okupatuta dituen eremuak hobeto aprobetxatzera bideratutako dentsifikazioko eta berrikuntzako ekintzak sustatzen dira. Joera horiei emandako lehen erantzuna Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea izan zen; lege horretan, lurzoruaren intentsitate handiagoko erabilera xede duten gutxieneko eraikigarritasunak finkatu ziren. Espazio berritzaile eta jasangarrien gakoetako bat hiri-garapenaren dentsitatea da. Dentsitateak paisaia babesten du eta baliabide naturalen kudeaketa eraginkorrago bihurtzen du; garraio-arloko sistema, zerbitzu eta zuzkiduren funtzionaltasuna hobetzen du; eguneroko joan-etorrien premiak murrizten ditu, eta elkarren arteko harremanak egiteko, gizarte-sareak sortzeko eta desberdinak elkartzeko aukerak areagotzen ditu.

Azkenik, dagoen industria-lurzorua lurralde-arloko aktibo garrantzitsua dela esan behar dugu, eta halakotzat tratatu behar dela. UDALPLAN 2015eko datuen arabera, bizitegitarako hiri-lurzoruak 15.854,41 Ha ditu; eta, ekonomia-jardueretarako hiri-lurzoruak, aldiz, 10.454,11 Ha-ko azalera du. Dinamika espekulatiboen eraginez bizitegi-erabilerarako birkalifikatzearen aldeko jarreraren aurrean horiei eustea, edo gutxiegi erabiltzeagatik edo jardueraz husteagatik kargan jartzea nahi badugu, jardun aktiboak gauzatu behar dira.

Hiri-garapen jasangarriaren testuinguru horretan, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozesuan honako gai hauen balioespen berria egin beharko litzateke:



- 
1. Hiri-birgaitzea eta -berroneratzea.
  2. Jarduera ekonomikoak eta merkataritza-ekipamenduak.
  3. Hiri-hazkundearen perimetroa.
  4. Metropolialdeak eta Eraldaketa-ardatzak.
  5. Bizitegi-kuantifikazioa.
  6. Bigarren etxebizitza eta baliabide turistikoak.
  7. Plangintzen bateragarritasuna.

## 8.1. HIRI BIRGAITZEA ETA BERRONERATZEA

*La rehabilitación y regeneración urbana se debe orientar a conseguir unas ciudades en las que a las condiciones de superación de los desequilibrios económicos y sociales mediante la generación de espacios libres y equipamientos, se unan las nuevas condiciones de mejora de accesibilidad y reducción de las emisiones de dióxido de carbono, a través del suministro de energías renovables limpias, del uso de tecnologías de control que permitan el ahorro de energía y de la mejora de la gestión de los recursos locales energéticos.*



### I EGOERA

#### a) Hirigintza hazkundera eta bere ondoriak.

EAEn urbanizazio-prozesua oso azkar garatu da, batik bat, XX. mendearen bigarren erdialdean; prozesu horren ondorioz, bizitegi-eremu askotan eraikin-dentsitate oso handiak sortu ziren, hirigintza-kalitatearen maila txikia da eta zuzkidura nahiz azpiegiturretan gabeziak daude.



Hiriaren eta industriaren hazkundeak ingurumenaren narriadura eragin zuen, kutsadura-arazo garrantzitsuak ekarri zituen, eta paisaia eta baliabide naturalak suntsitu. Eraikitako eremuetan, abandonatutako industrien hondakinek okupatzen zituzten espazio zabalak agertu ziren. Lurralde osoa eta, bereziki, biztanleen gehiengoa metatzen zen eremuak narriadura-maila handiko hiri-espazio bihurtu ziren, irudi negatiboa zutela. Hiri-hazkundearen prozesuen artean ez zegoen inolako koherentziarik; gainera, azpiegiturak ere eskasak izaki, gatazka funtzional larriak sortu ziren. Hirigintzaren bultzatzaile nagusia industria zenez, krisialdia iritsi zelarik, hazkunde handiena izan zuten espazioetan gertatu ziren atzeraldi garrantzitsuenak.

Eraikin-garapen bizkorren ondorioz sortutako gabezia garrantzitsu horiei erantzutearren, hirigintza-arloko legee eta plangintzei esker, denboraren poderioz, gabezia horien eraginpeko hiri-eremuak berriro egin dira hainbat tresna erabilita: Barne Eraberritzeko Plan Berezia, Eremu Degradatuetako Planak edo hirigune historikoetako hiri-birgaitzeko eremuetan garatutakoak. Eraikin-parkea pixkanaka zahartu egin da, eta eraikuntzak nahiz hiri-ingurunea egokitu egin behar dira gaur egun sortzen diren ingurumen-arloko eta jasangarritasuneko erronka berrietara; hortaz, hiri-berroneratzeko edo -berrikuntzako eragiketarak egin behar diren jardun-eremuetan eskala aldatzea proposatu da. Hartara, jarduketa-unitate mugatu batean eskala txikiko tokiko esku-hartze bat egin nahi bada, zenbait kasutan, auzo osoa edo hirigune zabalak eta hiri inguruko ingurunea hartu behar dira eraginpean.

Horrela, bada, hiri-berrikuntzako ekimenak proposatzeko garaian, lurraldea –orokorrean hartuta– berrerabiltzeko eta birziklatzeko aukera emango duen estrategia bat pentsatu behar da, jadanik hirigintzak okupatuta dauzkan espazioetan erabilera berriak garatu ahal izateko eta hazkunde-premiak betetzean hiri-bilbean txertatu gabeko lurzoru berriak okupatu behar izan gabe. Hala, hiri-birgaitzeak eta -berroneratzeak protagonismo handiagoa izan behar dutela proposatu da, eta datozen urteotako eraikuntza-jardueraren oinarri garrantzitsuena izango dira. Horrela, bada, hedapenari eusteko politika orotan, aukera nagusia eraikitako lurzoruak birziklatu eta berrerabiltzea izaten da, baita zaharkituta geratu diren edo jada erabiltzen ez diren espazioak berritzeko lanak egitea ere. Horrekin batera, beste ekimen batzuk ere behar-beharrezkoak dira: plangintzak malguagoa izan behar du garapen berrien erabilerak, tipologia eta dentsitateak nahasteari dagokionez; eta hirigintza-hazkundeak garraio kolektiboko sistemekin lotu behar dira.

### **b) Egungo etxebizitza-parkea birgaitzeko premia.**

EUSTATen 2011. urteko datuen arabera, EAEn dagoen etxebizitza-parkeak gutxi gorabehera batez beste 40 urteko antzintasuna du; parke horren % 46,4k, ordea, 40 urtetik gorako antzintasuna du (1970. urtea baino lehenagoko etxebizitzak dira). Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak egindako Etxebizitzaren beharren eta eskariaren inkestaren (EBEI) arabera, eraikitako parkearen zati handi batek zaharkitze-maila handia du irisgarritasun- eta bizigarritasun-baldintzei, segurtasunari, instalazioei edo inguratzaileen ezaugarri teknikoei dagokienez. Horretaz gain, 2013ko datuen arabera, azken urteotan birgaitzeko esku-hartzeren baten premia duten etxebizitzaren ehunekoa % 20 inguru handitu da; eta horrelako esku-hartzea behar duten etxebizitzaren kopurua guztizkoaren % 10 baino gehiago dela kalkulatzen da.

Eusko Jaurlaritzaren 2013-2016ko Etxebizitza Plan Zuzendarian, era berean, lehendik dagoen bizitegi-parkea eta urbanizatutako parkea birgaitzea sustatzeko jardun-ildoak finkatu dira,



birgaitze-eredu jasangarri, sozial, ekonomiko berri baten bitartez eta Europako indarreko jarraibideei jarraiki.

Horri dagokionez, jardun nagusiak etxebizitzak birgaitzeari eta hiri berroneratzeko jardunei bultzada ematearekin lotuta daude, hala nola, eraikinen energia-eraginkortasuna hobetzea eta mugikortasun urriko pertsonen erabiltzeko moldatzea; halaber, eraikinen inguruko hiri-ingurunearen eta eraikinen beren irisgarritasun-baldintzak ere egokitu behar dira, IRISGARritasun UNIBERTSALAREN testuinguruan.

Jardun horiekin, honako xede hauek lortzeko programak bultzatu dira:

- Birgaitze Integratuko Areetan edo Bizitegi Area Degradatuetan ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzea.
- Hutsik dauden etxebizitzak birgaitzea, alokairurako izan daitezen.
- Hiri berroneratzea lehendik dauden eraikinen eta eraikinetako hiri-ingurunearen irisgarritasuneko, bizigarritasuneko eta energia-eraginkortasuneko baldintzak hobetzeko.

Horren guztiaren ondorioz, lehendik dagoen bizitegi-ondarean egin beharreko birgaitze-jardunak sustatzea ahalbidetuko duten baliabideak zehaztu behar dira, lurralde-eredua – hirigintza- eta lurralde-plangintzaren oinarria izango den eredua– finkatzeko garaian aintzat hartu beharreko funtsezko alderdietako bat den aldetik.

### **c) Hiri-ingurunea birgaitzeko premiak.**

Horretaz gain, alde batetik, hiri-bilbe batzuk gainezka daude, eraikin-dentsitate handiarekin eta ekipamendu eta zerbitzu publikoen zuzkidura nahikoa dutela; eta, bestetik, zuzkiduren aldetik edo espazio libreen aldetik gabezia nabarmenak dituzten beste eremu batzuk ere badira, nahiz eta hutsik eta eskaerarik ez duten lurzoruen poltsak izan badiren; edo bestela, gerta daiteke garai batean eraikin bat jarduera ekonomikoetara bideratuta egon izana, baina gaur egun zaharkituta, jarduerarik gabe eta abandonatutako espazioz inguratuta egotea. EAEko zenbait eremutan adierazle soziodemografikoen gainbehera gertatu da, eta horrek agerian uzten du hiriguneak berroneratzeko jardun zehatzak adostu eta abiarazi behar direla, eremu horietako gizartearen eta hirigintzaren arloetako desorekak gainditzearren.

Halaber, egokitzen jotzen da eskualdekako hausnarketa estrategikoa egitea, betiere berroneratzeko esku-hartzeak udalaz gaindiko ikuspegi batetik begiratuta bidera daitezen eta, hartara, tokiko edo sektoreko ikuspuntuan soilik oinarritzen diren ikuspegiak gaindituko dira.

Lurralde mailako hausnarketa estrategiko baten premia are nabarmenagoa da eremu hondatuak leheneratzea erabakitasunez sustatuko duen, enplegua eta ekonomia-jarduera sortuko dituen eta gizarte-beharrizanei (osasun-baldintzak barne) erantzungo dien proiektu eragilerik ez dagoela egiaztatu denean. Eremu jakin batzuetan eskualdekako hausnarketa estrategikoa egin beharko da, betiere leheneratzeko esku-hartzeak udalaz gaindiko ikuspegi batetik begiratuta bidera daitezen, eta, hartara, tokiko edo sektoreko ikuspuntuan soilik oinarritzen diren ikuspegiak gaindituko dira.





Finkatutako hiri-bilbean txertatuta dauden baina eskala txikiagokoak diren beste zenbait eremutan, berroneratzeko esku-hartzeen bitartez irisgarritasun-baldintzak eta eremuaren barruko mugikortasunarekin lotutako baldintzak hobetu beharko lirateke; espazio libre, parke eta lorategi berriak sortu; zuzkidura eta ekipamenduak hobetu, aparkaleku gutxi dagoen tokian aparkatzeko leku gehiago sortu eta abar.

Era berean, lehengo mendeko berrogeita hamarreko hamarkadatik hirurogeita hamarreko hamarkadara bitarte eraikitako bizitegi-eraikinak birgaitzeko esku-hartze orokorra egitea behar-beharrezkoa da, irisgarritasun-baldintzei eta energia-eraginkortasunari dagokienez. Zuzkidura-aldeetik gabezia handirik ez duten eremu finkatuetan esku hartzea oso zaila da, eta are gehiago finantzaketa publiko garrantzitsurik ezean; horren guztiaren ondorioz, inbertsio ekonomiko pribatua ezinbestekoa da eta inbertsio hori konpentsatzeko tresnak aplikatu behar dira. Bestalde, finkatutako bilbeetan esku hartu beharko da ingurumena hobetzeko eragiketen bitartez, batik bat, finkatutako hiria iragazkortzeko eragiketetan, dela etxadietako patioetan jardunak eginez, dela bide publikoan jardunak eginez.

## II HELBURUAK

Hiri-birgaitzearen eta -berroneratzearen eremuan, lurralde-eredua berrikusteko helburu hauek proposatzen dira:

1. Hiri-berroneratzea eta urbanizatutako espazioaren aprobetxamendu onena sustatzea.
2. Hiri adimendunak sustatzea, garapen teknologikoaren euskarri izan daitezen, zerbitzu eta komunikazioen prestazio aurreratua eskaintzen dutela, eta jasangarritasunaren eredu izango direla.
3. Udalerrietan mugikortasuna eta garraio jasangarria sustatzea.
4. Bizikidetzarako, gizarteratzeko, merkataritzako eta kulturako jardueretarako eta hirigintzako, arkitekturako eta kultura-arloko ondareaz goatzeko espazio publikoak sustatzea.
5. Birgaitzea eta irisgarritasuna, bizigarritasuna, energia-eraginkortasuna eta kalitate-baldintzak sustatzea etxebizitzetan, eraikinetan oro har, eta hiri-ingurunean.

## III LURRALDE-ORIENTABIDEAK

Hiri-birgaitzearen eta -berroneratzearen eremuan, lurralde-eredua berrikusteko honako lurralde-orientabide hauek proposatzen dira:

### a) Orientabide orokorrak

1. Urbanizatutako espazioen dentsifikazioari eta zaharkitutako edo narriatutako espazioak birziklatzeari lehentasuna ematea hazkunde berrien aurrean.
2. Lurralde-plan Partzialei dagokienez, hiri-birgaitzeko eta -berroneratzeko lehentasunezko eremuak zehaztea lurralde-ereduan, betiere eremu horietan



dentsifikazioko eta espazio libreak edo zuzkidurako espazioak sortzeko esku-hartzeak egitea aurreikusten bada.

3. Hiri-berroneratzeari eta lehendik urbanizatutako edo integratutako espazioa erabiltzeari lehentasuna ematea lurzoru berrien urbanizazioaren aurrean, etxebizitza-premiak edo jarduera ekonomikoen premiak betetzeko.
4. Dentsitate handiagoko hiri-espazioak sortzea, hirigintza-intentsitate handiagoa dutela, eta erabileren aniztasuna eta nahasketa bereizgarri dituztela, honako hauen bitartez: gutxiegi erabilitako hiri-espazioak aprobetxatuta eta dauden hiri-hutsuneak beteta; eraikin-intentsitate txikiko eremuetan dentsitatea areagotuta; eta espazioak berrerabilita hiri-berroneratzeko eta berreraikitzeke ekintzen bitartez.
5. Espazio libreei eta ekipamendu publikoei lehentasuna ematea, baldin eta defizitarioak badira, eraikinik gabeko hiri-hutsuneetan edo eraitsi egin nahi diren zaharkitutako eraikinak dituzten eremuetan.

#### **b) Mugikortasun eta irisgarritasun unibertsalaren arloko orientabideak.**

Mugikortasuna eta garraio jasangarria sustatzea. Ildo horretatik:

- Berritzeko eragiketak mugikortasunarekin lotutako estrategiekin koordinatzea, garraibideen arteko intermodalitatea bermatzeko helburuari bereziki erreparatuta.
- Berroneratzea bultzatzea hiri-egitura trinko eta konpaktuak sortzeko, joan-etorriak egiteko premiak murriztearren eta, batik bat, garraio kolektiboko sistemei lehentasuna ematearren, erabiltzeko pizgarriak emanez.
- Herriguneak zeharkatzen dituzten komunikazio-ardatzak hiri-bilbean txertatzeari lehentasuna ematea, berroneratzeko eragiketetan bulebar hiritar bihur daitezen bultzatuta eta, horien bitartez, garraio kolektiboa eta oinezkoen eta txirrindularien sareekiko konektibitatea uztartu ahal izango dira.
- Lehendik dauden komunikazio-azpiegituren erabilera optimizatzea, garraio kolektiboko sareekin ongi konektatuta dauden eta, aldi berean, eraikuntza-dentsitate txikia duten eremuen dentsitatea areagotzeari bultzada emanez, bereziki.
- Oinezkoen komunikazio-sareak berreskuratzea eta txirrindularientzako sareak sortzea bide- edo tren-azpiegituren ibilbideak sare horien jarraitutasuna eragozten duten eremuetan.
- Batik bat, mugikortasun-sareko esku-hartzei dagokienez, hiri-ingurunean eragiten duten ingurumen-inpaktua, akustikoa eta segurtasun-inpaktua minimizatzeari garrantzia ematea.
- Bide publikoan ibilgailu elektriko publikoak eta pribatuak kargatzeko azpiegituretarako gordetako guneak aurreikustea berrikuntza-eragiketetan.
- Bide-sistema berrantolatzeke garaian, garraio publikora bideratutako bideei lehentasuna ematea, ibilgailu elektriko bidezko garraioa eta salgaien banaketa garbia, bereziki, ahalbidetuta





### **c) Ingurumenaren eta energia-eraginkortasunaren arloko orientabideak**

Energia-eraginkortasuna areagotzea xede duten hiria birgaitzeko eta berritzeko ekintzei lehentasuna ematea, egungoen antzeko ongizate-mailak eta produkzio-mailak lor daitezen baina sortutako energia-kostuak nabarmen murriztuta. Helburu horrekin proposatu dira honako orientabide hauek:

- Finkatutako hiria iragazkortzeko jardunak sustatzea, horretarako, etxadietan eta bideetan berdeguneak sortuz.
- Hiri-ingurunearen ingurumen-kalitatearekin lotutako inpaktu negatiboak murriztea: kutsadura atmosferikoa, akustikoa, urena eta lurzorua.
- Energia-kontsumoaren premiak murrizteko eta eraginkortasuna areagotzeko ekintza espezifikoak ezartzea, baita kutsatzen ez duten energia-iturri eta -sistemen erabilera areagotzeko ere.
- Eraikin eta espazio publikoen planifikazioaren, proiektuaren eta egikaritzearen faseetan irizpide bioklimatikoak erabil daitezen eskatzea, batik bat, orientazioari, diseinuari eta materialei dagokionez, eta energia-kontsumoa minimizatzen duten sistema pasibo eta aktiboen erabilerari dagokionez.
- Energiaraz autohornitzeko sistemak txertatzeko aukera aztertzea, eguzkia, haizea, biomasa, eta abar aprobetxatzen dituzten sistemen bitartez; sistema horien instalazioak aurreikusita egon beharko du eraikuntza-araubidean eta erabilerak, aldiz, plangintzan arautua.
- Zaharkituta dauden eta eraginkortasun txikia duten azpiegiturak berritu daitezen bultzatzea, hiri-azpiegiturretako sareetan energia berriztagarrien ekarpena areagotzea ahalbidetuta.
- Hiri-hondakinak biltzeko sareak hobe daitezen sustatzea; horretarako, eraikinetan nahiz hiri-ingurunean sare horietako instalazioetarako guneak gordetzea aurreikusi behar da.
- Eraikin eta espazio publikoetan landaredia erabiltzea isolatzeko elementutzat eta konfort klimatikoa urtaro batetik bestera erregulatze faktore moduan. Ildo beretik, hiria berritzeko esku-hartzeetan landareztatze eta zuhaitzak landatzeko ekintzak hartu beharko dira kontuan, eta parke eta berdeguneetarako azalera handiagoa bideratu.

### **d) Eraikinak birgaitzearen arloko orientabideak**

Hirigintza-plangintzan honako hauek lortzeko jardunak sustatzea:

- Etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak hobetzea.
- Eraikinen segurtasuneko, estankotasuneko eta osasungarritasuneko baldintzak indarreko araudiaren arabera egokitzea.
- Eraikinen inguratzaila hobetzea, energia-eraginkortasuna optimizatzearen.



- Energia berriztagarrien ekarpena areagotzea eta berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea.
- Lehendik dauden instalazioen energia-eraginkortasuna areagotzea.
- Eraikinen eta hiri-ingurunearen irisgarritasun-baldintzak hobetzea.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak instalatzea plataforma eta sistema adimendunen bitartez, eraikinetako energia-kontsumoak monitorizatzeko, kudeatzeko eta kontrolatzeko aukera ematen dutenak.
- Garraio jasangarriarekin lotutako guneak txertatzea eraikuntza-programan: bizikletentzako guneak, bizikleta nahiz ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneak, eta abar.
- Energia berriztagarrien instalazioetarako gune berriak gordetzea.
- Irisgarritasuna eta energia-eraginkortasuna hobetzeko jardunak diseinatzea, eraikigarritasun konpentsagarriaren hazkunde puntualekin lotuta.
- Eraikinen Ikuskapen Teknikoa sustatzea, bizitegi-parkearen ezaugarriak finkatzeko funtsezko tresnatzat.

Hirigintza-araudia honako alderdi hauetan moldatzeko aukera aintzat hartzea:

- Eraikuntza-parametroak (eraikigarritasuna, okupatutako azalera, erlaitzaren altuerak, fatxadaren lerrokadura, eta abar) eta horiek aplikatzeko irizpideak arautzea, betiere goiko puntuan aipatutako esku-hartzeak xede dituzten esku-hartzeak bideragarri izan daitezen.
- Eraikingintza-ordenantzak (etxebizitzaren barneko baldintzak, azalera erabilgarriak, altuera libreak, aireztapen-baldintzak, argiztapena; espazio komunen diseinua, eta abar) arautzea, betiere aipatutako birgaitzeko esku-hartzeak sustatzeko aukera emateko moduan.



## 8.2. LURRALDEAREN JASANGARRITASUNA JARDUERA EKONOMIKOEN ERABILERAN

***Gure lehiakortasunaren eta gure ekonomiaren oinarrietako bat EAEko industria-jarduera da, kalitatezko industriaguneak izatearekin batera. Industria-lurzoruetan esku-hartzea ezinbestekoa da, berritzeko, erreformatzeko, birgaitzeko, birdentsifikatzeko edo, azken batean, balioa emateko, ekonomia-jarduerarekin lotuta erabiltzearen.***



### I EGOERA

Euskal Autonomia Erkidegoak eraldaketarekin, lehiakortasunarekin eta hazkunde ekonomikoarekin lotutako erronkak izango ditu datozen urteotan; erronka horiek gainditzeko, prestakuntza-maila handiko herritarrek eta maila hori sustatzeko erakunde-egitura egokia lortu beharko ditu. Informazioa, jakintza eta berrikuntza-ahalmena dira ekonomia berriaren oinarritzko osagaiak.

***a) Industria-aria tradizionalei dagokienez. Berritzeko, birgaitzeko, erreformatzeko eta balioa emateko estrategiak.***

Autonomia Erkidegoko 2011. urteko estatistika-informazioaren arabera, sektoreen dedikazioa honako hau da, BPGari dagokionez: Nekazaritza (% 0,8), Zerbitzuak (% 66,90), Industria (% 24,5) eta Eraikuntza (% 7,80). Industria-sektorearen indarrari esker, azken urteotako krisialdi ekonomikoari erantzun hobea eman ahal izan zaio; krisialdiak eragin txikiagoa izan du eraikuntzaren sektorean. Ildo beretik, eta bestela esateko, EAEko industria-jarduera gure ekonomiaren zutabeetako bat dela ondoriozta dezakegu, eta kalitatezko industriaguneak izatea gure lehiakortasunaren oinarrietako bat.



Sektorearen arabera dedikazio ekonomikoari buruzko banaketa estatistiko hori lurralde-eremura ekarri gero, UDALPLAN 2014 dokumentuan jasotako informazioaren arabera, gure lurraldearen hiri-azalera 48.738,40 hektarea da; hortik, 19.057,08 hektarea bizitegi-lurzoruari dagokio, 13.935,24 hektarea jarduera ekonomikoetarako lurzoruari, 10.467,46 hektarea azpiegituretarako azalerari, eta 5.278,62 hektarea ekipamenduetarako azalerari. Datu horietan ongi ikusten da jarduera ekonomikorako lurzoruen garrantzia handia dela; beraz, tratamendu egokia eman behar zaio.

Azterketa historiko txiki bat egingo bagenu, lehengo mendearen hasieran meatzaritza-sektoreak garapen garrantzitsua izan zuen burdinaren ustiapenarekin lotuta; aurrerago, siderurgiaren eta ontzigintzaren sektoreak garatu ziren, eta geroago sektore gehiagotara zabaldu zen, hala nola makina-erreminta, automozioa, eta abar; azkenik, hirugarren sektorea nagusitu da. Alegia, gure autonomia-erkidegoan industriak tradizio handia du, eta industria-lurzoruen tratamenduak hainbat etapa izan ditu, joan eta etorri etengabe izan diren krisialdi ekonomikoekin lotuta.

Laurogeiko hamarkadan, aurreko hamarkadako industria-krisiak gehienbat herriguneetan kokatutako enpresa garrantzitsuetan eragin zuen. Enpresa horiek itxi egin ziren, eta hirigintzaren aldetik erdigunean kokatutako lurzoru-azalera handiak agertu ziren; lurzoru horiek birkalifikatzeari esker, gure herrietan guna libreak eta ekipamenduak sortu ahal izan dira. Laurogeita hamarreko hamarkadan, aurreko egoeran geratu ziren industria-lurzoruen berronertzeko prozesuak aurrera jarraitu zuen, eta lurzoru horiek bizitegi-erabilerrarako birkalifikatu ziren arian-arian; herrigunetik gertu zeudenez, industria-lurzoru horiei bizitegitarako kalifikazioa eman zitzaizkien, azken batean, hiri-lurzoru bihurtu ziren. Gaur egun, aldi hori amaitu da, eta industria-lurzoruetan esku-hartzea ezinbestekoa da, berritzeko, erreformatzeko, birgaitzeko, birkalifikatzeko edo, azken batean, balioa emateko, ekonomia-jarduerarekin lotuta erabiltzeko.

### ***b) Goi-mailako teknologiekin lotura duten edo potentzial berritzailea duten lurzoruei dagokienez***

Aldi berean, Euskal Autonomia Erkidegoan parke teknologikoen sare bat ere badago, dela hiru hiriburu-eremutako bakoitzaren ingurunean, dela beste lurralde-eremu batzuetan (Debagoiena, Debabarrena...). Arkitektura bereziko espazioak dira, eta teknologia berritzaileekin eta produktu nahiz zerbitzu aurreratuak egiten jarduten duten enpresak, batik bat, biltzen dira horietan. Alabaina, zenbait kasutan, hiri inguruko inguruneetan eraiki dira eta, horren ondorioz, isolatuta geratu dira; hortaz, parke horien erakargarritasuna eta potentzial berritzailea areagotu egin behar dira, hiriekin eta ingurunea ezagutzeko espazioekin lotuta. Hiri askotan, hirigune historikoak, hiri-espazio tradizionalak eta arkitektura bereziak dituzten espazioak erakargarri bihurtzen ari dira artearekin, sormenarekin eta diseinuarekin lotutako pertsona eta jarduerentzat.

Sormena eta berrikuntza nortasun propioa duten tokietan, bereziki, sortzen dira. EAEn, 69 hirigune historiko ditugu, hirigintza- eta arkitektura-balio handiko hiri-espazioak (Bilboko eta Donostiako zabalgunak, esaterako), baita kostaldeko eta landa-eremuko nukleo ugari eta eremu erakargarri eta bereziak ere; horiek guztiek egiteko garrantzitsua izan dezakete etapa ekonomiko berrian. Nortasuna duten espazioek eskalako ezaugarri bereziak izaten dituzte, hiri-erakargarritasuna, arkitektura, izaera, lokalizazioa eta zerbitzu eta ekipamenduekiko berehalako sarbidea izateko eta elkarrengatik aukera, hiri-inguruko garapen berriek ez bezala; eta kalitatezko bizitegi-aukera izaten dira, bizilagun berriak erakartzeko eta kohesionatutako



komunitateak eratzeko gaitasun handia dutela, ongizatea eta garapena bermatuta. Bikaintasun-eremuak dira ekonomia berriarentzat eta gizarte berriarentzat, eta azken belaunaldiko azpiegitura digitalarekin bateragarriak dira. Beraz, artea eta teknologia berriak uztartzeak aukera-esparru ezin hobe eskaintzen du.

Beraz, artea eta teknologia berriak uztartzeak aukera-esparru ezin hobe eskaintzen du. Hausnarketa global hori eginda, kokaleku horien etorkizuna jarduera horietara bideratzeko aukera ikusten da, baina horretarako, hiria berritzeko programak egin beharko dira, nortasun-ezaugarriak berreskuratu, izaera hori errespetatuko duen hiria diseinatu, gune horietan azpiegitura telematiko egokia ezarri, eta artea, diseinua eta teknologia berriak uztartzen dituzten profesionalak erakartzeko programa eta proiektuak bultzatu.

### **c) Merkataritza-ekipamenduei dagokienez**

Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana tresna oso baliagarria izan da merkataritzako eta ekonomiako xedeetarako erabiltzen den lurzorua jasangarritasun-irizpideen arabera antolatzeko, baina azkenaldian, Auzitegi Gorenak irizpide ekonomikoen ondoriozko mugak baliogabetzeko epaiak eman dituenek, Lurralde-plan Sektoriala egoera berri horietara egokitu beharko da, baita azkenaldiko joeretara ere, hala nola, hiri-lurzoru industrialetan merkataritza-azalera txikiak jartzeko joerara, irizpide egokiei jarraiki.

## **II HELBURUAK**

Jarduera ekonomikoen eta merkataritza-ekipamenduen eremuan, eredia berrikusteko helburu hauek proposatzen dira:

1. Lehendik dagoen lurzoru industrialari balioa ematea, hutsik dauden industria-pabilioiak birgaitu eta berreraikitzea, eta lankidetzako publiko-pribatuko estrategiak diseinatzea lurzoru industrialek urbanizazioaren kontserbazioa sustatzearren.
2. Lurzoru industrialak dentsifikatzea eta erabilera mistoak sustatzea, jarduera ekonomikoak eta hiri-bizimodua uztartzearen; horrekin batera, lurzoru industrialek dentsifikazioaren alde ere egitea.
3. Goi-mailako teknologiekin eta hiri-berrikuntzako eta -berronertzeko eragiketekin lotutako espazio berriak lotzea, landa-ingurunean sakabanatuta gera daitezkeen sailak, eta jarduera berritzaileen parkeak sortzea, kanpoko konektibitate-nodoekin edo unibertsitate-zentroekin lotuta.
4. Jarduera ekonomikoetarako lurzoru berrien bereizgarritzat hartuta, hiri-paisaia eta paisaia naturala uztartzea defendatzea, garraio publikoaren bidezko konektibitate handia eskaintzea eta mugikortasun-sistema jasangarriak txertatzea.
5. Gure herritarren hiri-bizimodua sustatzea, hiriko merkataritza eta aldirietako merkataritza orekatuta.



### III LURRALDE-ORIENTABIDEAK

#### **a) Industria-areak tradizioalei dagokienez. Berritzeko, birgaitzeko, erreformatzeko eta balioa emateko estrategiak**

1. Gutxiegi erabilitako jarduera ekonomikoetarako lurzoruen aprobetxamenduari lehentasuna ematea landa-lurralde berrien kolonizazioaren aurrean. Horri dagokionez:
  - EAEn dagoen industria-lurzorua lurralde-arloko aktibo garrantzitsua da, eta halakotzat tratatu behar da. Horrek esan nahi du balioa emateko tresna espezifikoak abiarazi behar direla, eskakizun ekonomiko berriei begira behar bezala erabili ahal izateko. Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzen Lurralde Plan Sektoriala 2005. urtean onartu zen, eta Plan horretan finkatutako ildoak nabarmendu behar dugu; izan ere, bizitegi-erabilera izatearren deskalifikatutako ekonomia-jardueretarako lurzorua konpentsatzeko jarraibideak ematen ditu, joera hori sortu baitzen urte haietako presio handiaren eraginez, higiezin-arloko erantzuna hobe zelako lurzoruak etxebizitzarako erabiltzen zirenean.
  - Lurralde-jasangarritasunaren gaineko hausnarketa eginez gero, gutxiegi erabilitako ekonomia-jardueretarako lurzorua kargan jarri behar dela ondorioztatu daiteke, landa-eremuko lurralde berri gutxiago kolonizatu behar izateko. Azken urteotako krisialdi ekonomikoaren eraginez, industria-pabilioietako azalera handiak itxi egin dira eta, horiek berrerabiltzea nahi badugu, birgaitu eta merkatuko baldintzetan jarri behar dira.
  - Orain arte industria-arloko lurzoru izan direnen mantentze-lanak eta kontserbazioa egiteko, administrazio- eta zerga-arloetako tresnak ezinbestekoak dira, eta industria-jabeen eta udalen artean lankidetzarako ildoak diseinatu behar dira.
2. Hiria erabileren arabera segmenta dadin sailhestea, baita bizitegi-erabilerarekin bateragarriak diren jarduera ekonomikoak kanpoaldeko poligonoetara kanpora daitezen ere.
3. Hainbat solairutako eraikinak egiteko aukera ematen duten jarduera ekonomikoetarako lurzoruak sustatzea.

#### **b) Goi-mailako teknologiekin lotura duten edo potentzial berritzaileak duten lurzoruei dagokienez..**

1. Teknologia-parkeetarako espazio berriak hirien barnealdean edo mugaren inguruan kokatutako eremuekin lotzea, proposamen berriak hiri-berrikuntzako eragiketen ondorio direla. Ildo horretatik, Ibaizabalaren itsasadarren inguruan berrikuntzarako gune berriak proposatu dira, Pasaia Badia leheneratzea, Irungo trenbide-zabaltzan esku hartzea, eta Gasteizko Berrikuntzaren Ardatza, besteak beste.
2. Berrikuntzaren espazio berriak sustatzea dagoeneko ez da derrigorrean aurreko etapako teknologia-parkeekin lotu behar; izan ere, gero eta gehiago hirigune historikoak, kostaldeko nukleoak, aspaldiko industrializazio-eremua, landa-eremuko eta nekazaritzako paisaiak, arkitektura bereziko hiriguneak eta abar hartzen ditu barnean.





3. Lurraldearen bikaintasun-osagaiekin eta kanpoko konektibitate-nodo handiekin lotutako eremuak espazio kritikotzat hartzea, jarduera berritzaileak eta talentu eta sormen handiko pertsonak hartzeko potentziala duten aldetik.
4. EAEko unibertsitateko campusekin lotutako "Parke Zientifikoak" sor daitezen sustatzea, hezkuntza-arloa eta enpresa-arloa uztartzeko, eta gune multifuntzional moduan eratuta egon daitezela, irudiaren, arkitekturaren kalitatearen, gune publiko eta berdeguneen ikuspegitik begiratuta oso zainduta, eta aldi berean, irisgarritasun-baldintza egokiak, garraio kolektiboko sistemak eta telekomunikazioetako azpiegitura sendoa ere izanik.

**c) *Ekonomia-jardueretarako lurzoru berriekin lotutako beste elementu batzuei dagokienez***

1. Kokaleku berezi edo bereizietan kokatuta dago, lurraldearen bikaintasuneko hainbat osagai uztartzen direla.
2. Inguruko paisaia hiritar eta naturalean txertatzea izango dute xede, eta balioa handitzeaz gain, hobetzeko lagungarri ere izango dira.
3. Konektibitate handia izango dute, errepide bidezko eta garraio kolektiboko konexio onak izanik, hirigune garrantzitsuenekin eta kanpoko konexio-azpiegiturekin -hala nola, aireportuekin eta abiadura handiko geltokiekin- azkar eta modu eraginkorrean lotuko dituztela.
4. Mugikortasun-sistema jasangarri eta erakargarriak izango dituzte: pasealekuak eta oinezkoentzako guneak, bizikletentzako bidegorrien sarea, ekobusak eta kutsatzen ez duten soft car-ak, eta abar.
5. Punta-puntako telekomunikazio-zerbitzuak eta azpiegitura digitalak izango dituzte, wi-fi eraikin eta kaleak, domotika, azpiegitura eta zerbitzuen kudeaketa adimenduna, eta abar.
6. Ingurumen-arloko bikaintasuna lortzeko diseinatuko dira; horretarako, hirigintza eta arkitektura bioklimatikoaren irizpideak txertatu behar dira, energia berriztagarriak erabili, energia-eraginkortasuneko sistemak ezarri, zero emisio kutsatzaile sortu, eta ura nahiz hondakinak modu eraginkor eta integralean kudeatu.
7. Gune publikoen eta harremanetarako guneen kalitatea, elkartzeko eta elkarreragiteko giro erakargarriak sortuta: kaleak, plazak, pasealekuak eta bulebarrak, aisialdirako eta kirolerako guneak, eta abar.

**d) *Merkataritza-ekipamenduei dagokienez***

Hiriko merkataritzaren eta azalera handiekin lotutako aldirietako merkataritzaren arteko oreka bilatzea.

### 8.3. HIRI HAZKUNDEAREN PERIMETROA

*Ingurumenaren kalitatean eta baliabide naturalen kudeaketan eragin erabakigarria duten faktore kritikoak dira hiriko dentsitatea areagotzea eta hiria berritzea –garapen berrien aldean lehentasuna duten jardunak izanik–, eta azkenik, area urbanizatuen hedadura mugatuko duten perimetro eraginkorrak ezartzea; era berean, banaketa-sareen hedadura murrizten da eta areagotu, aldiz, energia-sistemen, ur-horniketaren eta arazketaren nahiz hondakin-kudeaketaren eraginkortasuna. Baina, batez ere, lurzorua babesten da horrela, EAEko baliabide urri eta baliotsuenetako bat baita.*



## I EGOERA

Indarreko Gidalerroetan finkatutako bizitegi-kuantifikazioari edo Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean zehaztutako dimentsionamendu-irizpideei esker, herrietako hiri-hazkundearen dimentsionamendu-prozesua arrazionalizatu ahal izan da. Alabaina, lurzoruaren dimentsionamenduaren kuantifikazioa egokitu zenez geroztik, prozesua ebatzi gabe dago eta hiri-hazkundearen perimetroaren kontzeptua txertatu behar da. Garapen berrietarako finkatutako muga izan dadin sortu da, eta muga hori zehazteko, udal-garapen egokirako aintzat hartu beharreko zirkunstantzia guzti-guztiak izan behar dira kontuan. Hiri-hedapeneko prozesuak ahalik eta gehien mugatzea da asmoa, muga fisikoak ezarrita eta lehendik urbanizatuta dauden eremuen birdentsifikazioa eta berrikuntza bultzatuta. Hiri-eskualde dinamikoetan gero eta onarpen-maila handiagoa duen ikuspegia da hori; hala nola, Munichen, Portlanden edo Helsinkin.

Perimetro horrek garapen berrietarako muga zehatza izan nahi du. Plangintzan zehaztutako lurralde-ereduak baldintzatuko du haren muga, dela xede-aldiko premiei dagokienez, dela lurraldeak dituen harrera-ahalmenari eta mugei dagokienez. Hiri-hedapeneko prozesuak





geldiaraztea da asmoa, muga fisikoak ezarrita eta lehendik urbanizatuta dauden eremuak birdsifikatzeko eta berritzeko ekimenei lehentasuna emanda.

Horretarako, udalerri bakoitzak, dagozkion Lurralde-plan Partzialen esparruan, lehendik dauden urbanizatutako guneei dagozkien kokalekuak identifikatu behar ditu. Hala, horietako bakoitza inguratzen duen perimetroa ezartzea proposatzen da Ingurune Fisikoaren Antolamenduaren Kategorien arabera, gune bakoitzeko eremu urbanizatuaren etorkizuneko gehieneko hedadura zehaztuz. Soilik perimetro horren barruan gauzatuko lirateke hiri-bilbea osatzeko eta trinkotzeko programak.

Ingurumenaren kalitatean eta baliabide naturalen kudeaketan eragin erabakigarria duten faktore kritikoak dira hiriko dentsitatea areagotzea eta hiria berritzea –garapen berrien aldean lehentasuna duten jardunak izanik–, eta azkenik, area urbanizatuaren hedadura mugatuko duten perimetro eraginkorrak ezartzea. Era berean, banaketa-sareen hedadura murrizten da eta areagotu, aldiz, energia-sistemen, ur-horniketaren eta arazketaren nahiz hondakin-kudeaketaren eraginkortasuna. Baina, batez ere, lurzorua babesten da horrela, EAEko baliabide urri eta baliotsuenetako bat baita.

## II LURRALDE-HELBURUAK

Hiri-hazkundearen eremuan, lurralde-eredua berrikusteko honako helburu hauek proposatzen dira:

1. Hiri-hazkundeari mugak jartzea Eremu Funtzionalaren Hiri Hazkundearen Perimetroa (HHP) ezarrita, Lurralde-plan Partzialaren indarraldirako aurreikusitako edo lehendik dagoen hiri-orbana hartu behar duen lurralde-eskalaren zehaztapentzat hartuta.
2. Hiri Hazkundearen Perimetroa epe ertaineko zehaztapentzat finkatzea, hiri-berrikuntzako eta dentsifikazioko estrategietan eragitearren.
3. Hiri Hazkundearen Perimetroa udal-plangintzan zehaztu eta mugatzea.

## III LURRALDE-ORIENTABIDEAK

Hiri-hazkundearen eremuan, lurralde-eredua berrikusteko honako lurralde-orientabide hauek proposatzen dira:

### a) *Orientabideak Lurralde Plan Plartzialentzat.*

1. Udalerri bakoitzeko guneak identifikatzea Lurralde-plan Partzialetan; horretarako, ezartzen den Hiri Hazkunderako Perimetroa udal-plangintzen bitartez aldatu ahal izango da, eta udal guztien bizitegitarako, jarduera ekonomikorako eta zuzkiduretarako eskariak aintzat hartu beharko dira, baita inplikaturako udal-plangintzek orokorrean egin beharreko lurzoru-eskaintza ere.
2. Hiri Hazkunderako Perimetroa zehaztea egungo hiri-orbanaren morfologia, inguruko lursailen ezaugarri fisikoak eta ekologikoak, eta gunearen hazkunde-itxaropenak aintzat hartuta. Horri dagokionez:



- Hiri Hazkundeko Perimetroa definitzeak hiri-integrazioa ahalbidetuko du asentamendu bakartuekin. Lehendik dauden edo aurreikusita dauden garraio kolektiboko sistemekin bat datozen hazkunde-prozesuak bideratzeko aukera ere emango du.
  - Proposatutako Eraldaketa Ardatzetako baten batean sartutako udalerrietan Hiri Hazkundeko Perimetroaren mugapena aipaturiko ardatz horiek eratzen eta finkatzen bideratuko da.
  - LPPetan, elkarrekin kontuan hartu beharko dira udalerri guztietako bizitegi-eskaerak, ekonomia-jarduerenak eta zuzkidurenak, eta baita inplikaturako udal-planek orokorrean egin beharreko lurzoru-eskaintza ere. Xede horietarako, LPPek hazkundearen banaketarako estrategia ezarriko dute, euren eraginpeko eremurako proposatzen duten lurralde-ereduaren eta udalerri bakoitzaren potentzialtasunen arabera.
  - Hiri-garapeneko prozesuak udalerri bakoitzerako mugatutako Hiri Hazkundeko Perimetroaren barruan soilik onartu ahal izango dira. Perimetro hori izango da eremu urbanizatu edo urbanizagarrien hazkunde-muga maximoa. Landa-nukleo gisa sailkatutako asentamenduak ezingo dira sartu kasu bakar batean ere hazi daitezkeen eremu gisa, salbuespen izanik hiriguneekin kontaktuan dauden eta Hazkundeko Perimetroaren barruan geratzen direnak.
3. Hiri Hazkundeko Perimetroan ezingo dira sartu LAGen Ingurune Fisikoaren Gidalerroan xedatutakoaren arabera edo lurralde-plan sektorialek edo indarreko legeriak xeda dezaketenaren arabera hirigintza-aldaketa debekatuta duten lursailak.
4. Hiri Hazkundeko Perimetroa hiri-lurra duten eremuen inguruan soilik ezarri ahal izango da, eta ez dira onartuko lehendik dauden hiri-lurretatik banandutako garapen berriak, LPPak berak salbuespen gisa eta behar den bezala justifikatuta hala xedatzen ez badu behintzat.

#### **b) Udal-plangintzarako orientabideak**

1. Orientar dentro del Perímetro de Crecimiento Urbano las nuevas iniciativas urbanísticas a integrar los nuevos desarrollos en la trama urbana preexistente, completándola, densificando las áreas con escasa intensidad de uso del suelo, y reutilizando los espacios desocupados o susceptibles de acoger nuevos usos mediante acciones de renovación urbana.
2. Garraio intermodaleko sistemetara heltzeko puntuen inguruan kokatutako dentsifikazioko, berrikuntzako edo hazkundeko jardueri lehentasuna ematea, betiere metroaren, aldiriko trenen eta hiriarteko tranbien geltokietatik oinez joateko moduko guñeak izanik eskaera-maila handia duten zuzkidura eta ekipamenduak kokatzeko lehentasunezko eremu. Halaber:
  - Udal-planen bizitegi-ahalmena kalkulatzeko berrikuspen honetan zehaztutako sistemaren arabera, eta jardura ekonomikoetarako lurzoruaren ahalmena Euskal Autonomia Erkidegoko Jardura Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzen Lurralde Plan Sektorialean eta Lurralde Plan Partzialean xedatutakora egokitzea.



- 
- Bizitegi-lurzoruak edo jarduera ekonomikoetarako lurzoruak Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean xedatutako gutxieneko eta gehieneko eraikigarritasunen arabera egokitzea.



## 8.4. METROPOLIALDEAK ETA ERALDAKETA ARDATZAK

### I METROPOLIALDEAK

***EAEko hiru hiriburuetakoko –Vitoria-Gasteiz, Bilbo eta Donostia– metropoli-eremuetan, oro har, biztanleriaren, etxebizitza kopuruaren eta enpleguaren % 70 metatzen da. Azken bi hamarkadetan, hiriak hedatzeko, ekipamenduez hornitzeko eta indartzeko prozesua gertatu da; beraz, lurraldea mugatzeko, birdentsifikazioko eta periferiak birkualifikatzeko jarduerak egin behar dira orain, eta batik bat, nortasunari eustekoak.***



Hiru hiriburuetan eta haien metropoli-inguruneetan EAE osoko biztanleriaren % 72 bizi da. Garrantzi demografiko handia dutenez eta eginkizun garrantzitsuak betetzen dituztenez, hiri-sistemaren elementu erabakigarriak dira. Zerbitzu aurreratuen zentroak dira, garraio-sistemen kanpo-konexioko eta zentraltasuneko nodo dagozkien eremuetan, eta enpleguaren, berrikuntza-zentroetan eta enpresa-jardueren gehiengoa metatzen dute. Hiru hirigune horietan biltzen da Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren % 71 eta enpleguaren % 72. Ildo horri jarraiki, metropoli-espazio horiek izan duten eraldaketa azken hamarkadetakoko lurralde-fenomeno garrantzitsuenetako bat izan da. Eraldaketa horren ondorioz, espazio nagusien eginkizunak aldatu egin dira, metropolialdeen azalera handitu egin da eta zentraltasun berriak agertu dira.

Bilboko metropoliaren susperraldi integralarena eta hiri-irudiaren aldaketarena da, seguruenik, ekimenik ezagunena. Donostia erakargarritasun handiko hiria izan da betidanik eta hiriaren edertasuna da eskualde-hiriaren esparruan funtzio berriak bere gain hartzeko bere ezaugarri garrantzitsu eta erabakigarrienetako bat. Hiri-eremu oso dinamikoa da, bere eremu funtzionaletik kanpo dauden espazioak metropoli bihurtzeko prozesuan dagoena. Horrek ez du galarazi bere metropoli-ingurunean hiri-narriadurako gune garrantzitsuak sortzea. Horien artean adibide esanguratsuenak, agian, Pasaia Badiarena izan liteke. Vitoria-Gasteizen hazkundea



berriagoa izan da eta hiriaren garapena enblematikoa izan da hiri-garapen berrien kalitateari dagokionez eta gure hirietako zentro historikoen integrazioari eta bizitasunari dagokionez.

Hiru hiri horietan, espazio nagusiak berritzeko eta birkualifikatzeko prozesuak eragin erabakigarria izan du hiri-profilen indartzean eta irudiaren hobekuntzan, eta horri esker, eginkizun berriak eta goi-mailako jarduerak hartzeko potentzialaren zati handi bat garatu ahal izan da, azken urteotan EAEko ekonomia indartzeko funtsezko izanik. Berrikuntza-prozesu horiekin, erdiguneetan ez da hirugarren sektorea gailendu; aitzitik, lurzorua eta espazio erakargarriak sortzeko aukerak eragin dituzte, eta aukera horiei esker, batik bat Bilbon, erdiguneen dinamismo demografikoa berreskuratzeaz gain, hirigune biziagoa eta askotarikoa eratu ahal izan da irudiari eta eginkizunei dagokienez.

EAEko hiriburuetako erdiguneen egiteko berri horrekin batera, metropolialdeak asko zabaltu dira, lurraldea okupatzeko eta aldiriak berrantolatzeke modu berriak sortu baitira.

Deszentralizatzeko eta aldiriak berregituratzeko prozesua hiri-garapenaren eragile nagusia izan da. Metropolialdeetan bizi diren EAEko herritarren ehunekoa ez da askorik aldatu azken hamarkadan. Deszentralizazio-prozesu hori bat dator Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan lurraldea berrerekatzeke proposamenekin; horrela, bada, aldiri berriak zabaltu egin dira eta lehen baino konplexuagoak dira: metropoli-espazioen mugak gainditu eta eragin zuzenetik kanpo zeuden eremu funtzionalak eta orain artean landa-eremuak izan direnak ere hartu ditu. Metropoli-inguruneetan bizitegi-hazkunde berriak agertu dira, industria-garapenak, ekipamendu bereziak, enpresa-parkeak eta hirugarren sektoreko konplexuak, merkataritzako eta aisialdiko azalera handiak eta abar. Hori horrela izanik, lurraldea askoz ere zabalagoa eta sortzaileagoa da, lurralde-arloko zentraltasun eta dinamika berriak dituela.

Hiru hiriburuetan hobekuntza garrantzitsuak gertatu dira zuzkiduren aldetik eta funtzionalki; horren ondorioz, lurralde historikoaren barruan zentraltasun handiagoa dute eta metropoli-espazio bakoitzaren hiri-profila indartu da.

## **I.1. BILBOKO METROPOLIA**

### ***I. Egoera***

Bilboko metropoliaren eraldaketa prozesu aski ezaguna da eta funtsezko egitura-elementuak gehitu ditu; hala nola, kanpo-portu berria eta metroa, jarduera adierazgarriak, esaterako, Guggenheim eta Euskalduna jauregia, eta hiri-berrikuntzako eragiketa estrategikoak, adibidez Zazpikaleetakoak, Barakaldokoak edo Zorrozaurre penintsulan proiektatutakoak.

Krisi- eta berritze-prozesuen ostean sortutako industria-ondoko metropoli-eremu funtzional berriak aldaketa handiak erakusten ditu aurreko hiri industrialarekin alderatuta. Alderdi demografikoan, metropoli-eremuak ia 60.000 biztanle galdu zituen 1980 eta 2000 artean, eta mende berria hasi zenetik nolabaiteko susperraldia izan du. Galera demografiko horiek ezkerrealdeko herri industrialetan eta hiriburuan pilatu ziren ia guztiak.

Metropoli-eremuko beste espazio batzuek, aitzitik, etengabeko hazkundera izan dute azken urte hauetan. Eskuinaldean daude gehienak, kostaldean eta Txorierrin zehar. Barne-aldaketako prozesu horiek metropoli-eremutik kanpora ere zabaltu eta hedatzen den prozesuaren adierazle dira. Azken 15 urteetan, ia 20.000 pertsonak lekualdatu dute beren etxebizitza Bilboko



metropolitik EAE barruko inguruko eremuetara. Mungiako Eremu Funtzionala da etxebizitza-aldaketa horien destino nagusia; Durango, Igorre, Enkarterriak, Laudioko zenbait eremu eta Gernika-Lumoko kostaldea ere izan dira aldaketen xede. EAetik kanpo, Kantabriako kostaldeko ekialdeko eremuek Bilboko metropoliarekiko lotura funtzional eta demografikoak dituzte. Bilboko biztanle izandakoek hara joaten jarraitzen dute lan-jardueretarako eta, horrek, Laredo eta Castro Urdiales udalerrien hazkundera ekarri du.

Krisi- eta uzkurdua-etapatik dinamismo eta hazkundeko beste fase batera igaro da metropoli-eremuaren testuingurua, eta azkenik, egun bizi dugun krisialdiaren etapara. Joera horiek guztiek aldaketa funtzional garrantzitsuak eragin dituzte. Horrela, industria-jarduerak lekualdatu egin dira. Ezkerraldeko leku tradizionaletatik ia desagertu eta itsasadarraren kanpo-eremuetan pilatu dira, portu-eremu berrien inguruan, eta Txorierrin, aireportutik gertu egoteagatik etxebizitzatarako hain egokiak ez ziren eremuetako lurzoru-erabilgarritasuna aprobetxatuz. Gainera, instalazio handiekiko lotura askoz ere txikiagoa duen industria da eta establezimendu txiki eta ertainek garrantzi handiagoa dute bertan; era berean, metropoli-eremuko erdiguneetan industria-eremu handiak ikus daitezke oraindik abandonu-egoeran.

Bilbok, eta batez ere itsasadarraren inguruko eremu nagusiek, hau da, zabalgunek eta Zazpikaleek, hirugarren sektorearen profila indartu dute. Horretarako, finantza- eta korporazio-jarduerak, zerbitzu profesionalak eta enpresentzakoak, merkataritza espezializatua, kultura- eta turismo-jarduerak, goi-mailako hezkuntzako jarduerak, eta abar pilatu dituzte. Espazio nagusi horiek, gainera, gero eta garrantzitsuagoak diren biztanle-aldaketak ari dira jasaten. Azken hamarkadan metropoli-eremuko erdigunean izandako ia hazkunde guztia atzeritik etorritako biztanleei esker gertatu da.

Aldi berean, zentraltasun-eremu berriak sortu dira metropolian goi-mailako ekipamenduei (kanpo-portua, aireportua, BEC, unibertsitatea, parke teknologikoa, etab.) eta, batik bat, metropoli-eremuko merkataritza- eta aisia-eskaerak gero eta gehiago hartzen dituzten azalera handiei lotuta. Zentraltasun-eremu berri horien garapena oraindik hasiberria da, metropoli-aldaketen prozesuen berritasuna dela-eta. Metropoliaren iparraldeko eremuetan oso urria da, izan ere, dentsitate baxuek eta hiri-garapenean jarraitutasunik ez izateak agertzeko erraztasunak murrizten dituzte, baina beharrezkoak ere egiten dituzte. Metropoli-garapenaren jarraibide berrien antzeko moldaketen erronkei garraio-sareak, garraio kolektiboko sistemak edo ekipamendu publikoen kokalekua aurrez aurre ipintzen zaizkie.

## **II. Lurralde-orientabideak**

- a) Bilboko metropoliko LPPak xedatutakoaren ildoari jarraikiz, hiri-garapeneko ekintza nagusiak hiri-trinkotze eta -berrikuntzako ekimenetan zentratuko dira. Zentzu horretan, honako hauek jotzen dira lehentasunezkoak:
  - Bilbotik kanpoko Abrarantz itsasadarrean zehar garatutako berritze-prozesuei jarraipena ematea.
  - Metropoli-eremuan dauden abandonatutako lurzoru industrialen eremu handietan lan egitea, erabilera nahasiko espazio berriak hartzeko xedez.
  - Hiri-berrikuntzako ekimenak garatzea ezkerraldeko udalerrietan, espazio publikoen eta hiri-irudiaren erakargarritasuna eta etxebizitza-parkearen






kalitatea hobetuz. Aldi berean, bizitegi-eremuekin bateragarriak diren hirugarren sektoreko eta industriako ekonomia-jarduera berrien kokapena sustatuko da.

- Garapen berrienak finkatzera zuzendutako trinkotze-ekintzak garatzea, bereziki metropoli-eremuaren iparraldean, eta integrazio funtzionala eta paisaia-integrazioa hobetuko dira eta bizitegi- eta zuzkidura-eremu berriak sortzea bideratuko da udalburuen eta irisgarritasun handieneko hiri-garapenen inguruan garraio kolektiboko sistemen bitartez.
- b) Nerbioi itsasadarrek egituratutako erdiguneko eta nortasun handiko espazioen inguruan (Bilbo Zaharra, Zazpikaleak, zabalgunea, Deustua) garatutako ekintzek Bilbo ekonomia berriko jarduerak erakartzeko gune berezi gisa finkatzen jarraitzeko aukera sortzen dute.
- c) Ekimena hiri-berrikuntzako programen bitartez garatuko da, nortasun-ezaugarriak berreskuratuz, eremu horien izaera errespetatzen duen hiri-diseinuarekin, azpiegitura telematiko bikaina garatuz eta artea, diseinua eta teknologia berriak konbinatzen dituzten profesionalak eta ekimenak erakartzeko programak eta proiektuak sustatuz.
- d) Alde zaharrak eta itsasadarrean zehar kokatutako guneek aukera baliotsuak eskaintzen dituzte, kokapenagatik eta euren hiri- eta arkitektura-ezaugarriengatik. Hiri-berrikuntzako jarduerak bikaintasun-irizpideak eta erabilera-nahasketak kontuan hartuta bultzatzeko eta jarraitzeko eremua da, ekonomia berriko jarduerak eta hiriko turismo-garapen sofistikatuagoa hartzera zuzendutako erdiguneko Berrikuntza Nodo gisa finkatu behar dena.
- e) Txorierriko haranak leku garrantzitsua du Bilboko metropoliaren konfigurazio berrian. Artxandako tunelek Bilboko hirigunearekiko lotura zuzena eskaintzen dute, eta autopista berriak azken bi hamarkadetan metropoli-hazkundera kontzentratu duten eremuekin lotu eta artikulatzen du.
- f) Aireportua, Euskal Herriko Unibertsitatearen campusa eta Zamudioko Teknologia Parkea hartuko dituen gunean jarduera berritzaileak hartzera bideratutako ardatza garatzea proposatzen da. Gune horiek garraio kolektiboko sistemen bitartez ingurune elementuekin integratzea, ingurumena eta paisaia hobetzea, eta ezagutzaren ekonomiari lotutako jarduera, bizileku eta zuzkidurako guneak kokatzeko ekimenak garatzea dira eremuaren abantailak aprobetxatzeko funtsezko gakoak.
- g) Txorierriko Berrikuntza Ardatz hau Eraldaketa Ardatz gisa antolatuko da puntu honetan xedatutako irizpideen arabera.
- h) Bilboko metropolian lehendik dauden eta aurreikusita dauden goi-mailako ekipamendu handiak funtsezko elementuak dira Euskal Autonomia Erkidegoaren kanpo-proiektzioan eta balio handiko jarduerak eta funtzioak erakartzeko duen ahalmenean. Gune berezi horiek sustatu eta hiri-berrikuntzako programak garatuko dira, haiek finkatzera eta haien ingurunean ekipamendu berezi horiek sortzen dituzten aukerak aprobetxatzeko ahalmena duten espazioak eta funtzioak kokatzera zuzendutakoak. Haietarako irisgarritasuna erraztuko da garraio kolektiboko sistemen bitartez, bereziki aireportutik eta abiadura handiko geltokitik.



- i) Abiadura handiko geltokiaren inguruko sektoreko ekimenak Bilbo Euskal Hiria eta bere inguruneke lurraldeak kanpoaldearekin lotzeko gune handi gisa finkatzera bideratuko dira. Horretarako, hurrengo puntuetan xehatutako irizpideak erabiliko dira geltokien kokapenerako eta diseinurako:
- Abiadura handiko geltokiaren eta aireportuaren arteko ahalik eta intermodalitate handiena bilatzea, abiadura handiko trenbidea aireportutik igaroarazita edo aireportua eta geltokia lotzeko sistema bat ezarrita.
  - Abiadura handiko geltokia metropoliko garraio-sistemekiko eta eskualde-hiri osoarekiko ahalik eta intermodalitate handienaz hornitzea, aldiriko trenbide-sistemarako, metrorako, tranbiarako eta hiriko eta hiri arteko autobusetarako sarbide-puntuak jarrita.
  - Abiadura handiko geltokiaren ezarpena Abandon hiri-berrikuntzako eragiketa zabal baten esparruan garatzea. Horrek aukera emango du tren-eremu berria behar den bezala integratzeko eta bere ingurunean goi-mailako jarduerak eta ekipamenduak garatzeko, azpiegitura berriaren lehiarako abantaila aprobetxatzeko gai izango direnak.
- j) Metropol-eremuko garraio kolektiboko sistemek integrazio fisikoa eta funtzionala eta eremu funtzional mugakideekiko eta Kantabriako ekialdean aritzen direnekiko konexio intermodalen garapena izango dituzte xede.
- k) Trenbidearen garapena sustatuko da metropoli-garraioko funtsezko elementu gisa, merkantzia-garraioko hegoaldeko saihasbidea martxan jartzeak eragingo duen lineak libre uztea aprobetxatuta. Trenbide-sistema desberdinen (ADIFen aldiriko trena, Euskotren, FEVE, metroa eta tranbien) arteko interkonexioa eta funtzionamendu integratua, eta haien eta garraio kolektiboko gainerako sistemen arteko ahalik eta intermodalitate handiena ahalbidetuko dira.










## TXORIERRIKO ERALDAKUNTZA-ARDATZA



### LEGENDA

Harreman-sistema  
Errepide arruntak  
Autobideak eta autobiak  
Trenbide-sarea  
Tren-geltokia  
AHTaren trazadura  
Merkataritza-portua  
Kirol- eta arrantza-portua  
Loiuko aireportua

Hiri- eta landa-birkualifikazioa  
Ekobulebarra  
Herrigune historikoa  
Hirigunea  
Parke Logistikoa  
Zamudioko Teknologia Parkea  
Unibertsitatea  
Hiri-berrikuntza  
Ekipamenduak

Iturria: guk eginikoa



#### Mugikortasun iraunkorra

Donejakue bidea  
Oinezkoentzako ibilbideak  
Bizikleta-ibilbideak

#### Azpiegitura Berdea

Naturagune Babestuen Sarea  
Korridore ekologikoak  
Ibaiak





## I.2. DONOSTIAKO EREMU FUNTZIONALA

### I. Egoera

Donostiako Eremu Funtzionala biztanleria-dentsitate handiko eremua da (1.000 biz/km<sup>2</sup> baino gehiago); ezohiko baldintza geografikoak ditu, eta paisaiari dagokionez hiru badia (Txingudi, Pasaia eta Kontxa) eta lau ibai-ibilgu (Bidasoa, Oiartzun, Urumea eta Oria) ditu; topografia ere berezia da, alde batetik, itsas frontea mugatzen duten mendien eta, bestetik, barnealdeko mendi eta muinoen artean taxutua.

Eremu Funtzionala estrategikoki kokatuta dago Europarekiko komunikazio-ardatz handiei dagokienez; gainera, Gipuzkoako beste lurralde batzuekin alderatuta, topografian hainbeste muga ere ez dituela aintzat hartuta, hiri-garapenak komunikazio-ardatz horietan zehar hedatu dira, metropoli-eremu handi bat osatuta; metropoli-eremu horretan hamahiru herri biltzen dira eta elkarrekiko mendetasun handia dute.

Eremu Funtzional honek krisiarekiko ahulak ziren industria-jardueretikiko mendekotasun txikiagoa du, baina zenbait udalerriren artean aldea dagoela nabarmendu behar da: alde batetik, hirugarren sektoreko jarduerak garrantzi handiena duten herriak daude (Donostia eta Hondarribia) eta, bestetik, industriarako bokazio handiagoa dutenak (Andoain, Hernani, Lezo, Pasaia, Usurbil edo Urnieta). Horretaz gain, Pasaia Badiaren inguruneak izan duen bilakaera bereziki aipatu nahi genuke; izan ere, hazkunde izugarria izan zuen 70eko hamarkadaren erdialdera arte, eta harrezkero, etengabeko gainbehera sartuta dago. Eremu trinkoa da, eta berritze-ekimen gutxi edo ez nahikoak izan ditu orain arte.

Hiri-hedapeneko prozesua eremu periferiko berrietara bideratu da, prezio-baldintza hobeak dituzten etxebizitza- eta hiri-tipologia erakargarriagoen eta ingurumen-eremu zainduagoen bila. Gutxi gorabehera metropoliko biztanleriaren % 46 hiriaren erdigunean bizi da. Portzentajeak egonkor jarraitzen du 80ko hamarkadaren erdialdetik hasita. Biztanle-galerarik handienak Pasaia Badiako udalerrietan izan dira. Galera horiek metropoli-prozesuan pixkanaka sartzen joan diren beste eremu dinamiko batzuen hazkundeak konpentsatu ditu. Hazkunde demografiko garrantzitsuenak Behe Bidasoan gertatu dira, Urumearen arroko udalerrien inguruan eta Oiartzun eta Usurbil bezalako udalerrietan.

Metropoliko hedapen-eremua beste eremu funtzional batzuetako guneetara zabaldu da, batez ere Zarautz-Orio eremuko kostaldeko zonetara. Zarautz-Orio eremuan biztanle kopuruak gora egin du, hirigintza-garapen berriak gauzatu dira eta bigarren etxebizitzak lehen etxebizitza bihurtu dira. Industriaguneak ere eremu periferikoetara lekualdatu dira, batez ere, Usurbil eta Urumea Garaira eta Irun-Oiartzun-Pasaia Portua hirukira; erdialderago dauden beste eremu batzuetan, berriz, industriaguneak pixkanaka-pixkanaka hirugarren sektoreko jarduerak, bulegoak, aisialdiko eta merkataritzako jarduerak hartzen dituzten eremu bihurtu dira azalera handi eta merkataritzako guneen inguruan jarrita.

Donostia udalerriaren tamainak, batetik, eta egiturazko aldaketa-prozesua Bilbon bezain handia ez izateak, bestetik, eremu honen erdiguneko funtzioak indartzeko aukera eman dute bizitegi-erabilerak galdu gabe. Dena den, kalitate bereziko zenbait eremu aisiako kultura-funtziotan eta hirugarren sektore aurreratuko funtziotan gero eta gehiago espezializatzen ari dira. Halaber, nolabaiteko tamainako gune tradizionalen inguruan, Irun eta Hernani inguruan, besteak beste, metropoliko azpiguneak garatu dira. Beste batzuk, berriz, metropoliarekiko irisgarritasun



handiko eremuetan kokatutako merkataritza-eremu handiei lotuta hazi dira, esaterako, Oiartzun eta Usurbil. Era berean, biztanleria Eremu Funtzionalaren hiriburuko kanpoaldeko auzoetara ez ezik, hiriburuaren mugakide diren udalerrietara ere joan da bizitzera.

## **II. Lurralde Orientabideak**

- a) Eremu funtzionaleko garapen-prozesuak eta hiri-berrikuntzako prozesuak asentamenduen gaur egungo zentro anitzeko sistema gordetzera bideratuko dira, ezaugarri nagusitzat oreka duen sistemara alegia. Horretarako, hiriburuaren eta eremuko udalerri nagusien lurralde-zentraltasuna indartuko da.
- b) Nolanahi ere, lurzoru berrien kolonizazioa eragiten duten garapenen alternatiba moduan, gutxiegi erabilitako hiriko eta hiri inguruko sareak trinkotzeko ekintzak lehenetsiko dira, gune libreen eta bestelako zuzkiduren arloan dauden gabeziak konponduko direla bermatuta, eta berritze-eragiketak bultzatuta eremu narriatuetan edo erabilera zaharkituak edo bateraezinak dituztenetan. Ekimen horiek garraibide publikoen inguruko eremuetan garatuko dira bereziki.
- c) Abiadura handiko sare berriaren geltokiak Donostian eta Irunen egongo dira, eta geltoki horietan, hiriko eta metropoliko tren eta autobusen garraio-sistemekiko ahalik eta intermodalitate handiena bilatu beharko da.
- d) Garraio publikoa modu zehatz batean garatuko da: tren bidezko garraioari lehentasuna emango zaio, eta Euskotrenen linea Donostiako erdigunean barrena sartuko da.
- e) Donostiako metropoli-eremuan, egungo AP-1/AP-8 errepidea metropoliko trafikoa banatzeko ahalmen handiko bide bihurtuko da, eta Urumeako korridorea martxan jarriko da GI-131 errepidearen bitartez; horrela, bada, lehen errepide-sare nagusikoak ziren zenbait tarte hiri barruko bide bihurtzeko aukera egongo da. Horixe gertatzen da N-1 errepidea zenarekin, Donostiako herrigunerako sarbidean eta herriguneko ibilbidean, edo GI-21 errepidearekin, Lasarte-Añorga-Donostia tartean. Bide horiek metropoliko ekobulebar handiak izango lirateke, eta garraio kolektiboko euskarri aproposa eskainiko lukete hiria taxutzeko eta eraldatzeko proiektu estrategiko garrantzitsuenak horien inguruan garatzeko.
  - Hiri-ardatz berri horietan hainbat zuzkidura txertatuz gero -hala nola, Chillida-Leku, hiriaren mendebaldeko unibertsitate-eremuak, hondartzak, zabalgunean dauden ekipamenduak edo Pasaiaiko Herrerako eremuraino doan hiri-ardatzaren luzapenean koka daitezkeen ekipamendu berriak-, jarduera berritzaileak hartzeko ahalmen handiko espazio bihurtuko lirateke hiri-ardatz horiek. Batez ere, Pasaiaiko Badiaren hiri-berritzeari lotutako ekimenek berrikuntza-nodo garrantzitsua sortzeko aukera planteatzeko modua ematen dute.
  - Garraio kolektiboko mugikortasunaren ikuspegitik, ekobulebar handi horrek konektatuta egon behar du aldiriko tren-zerbitzuaren bitartez eta oinezkoentzako eta bizikletentzako bide jarraituaren bitartez. Horiek lotu beharko lituzkete hiriko hainbat elementu eta gune, eta metropoli-eremuko gako-puntuak, esaterako, hondartzak, hirigune historikoa eta abiadura handiko trenaren eta aldiriko trenaren geltokia izango dena.






- f) Pasaiaiko Badia ingurune natural bikainean dago eta EAEko eraldaketaren sinbolo berrietako bat sortzeko aukera eskaintzen duen eremua da. Gaur egun eremu narriatua da eta balio erantsi gutxiko jarduerak ditu, baina berritutako Portuaren inguruan eratutako espazio erakargarri eta berezia izan daiteke. Horretarako, ezinbestekoa da Pasaiaiko Badian hiria eraldatzeko eta berroneratzeko prozesua Portua berritzeko eta modernizatzeko prozesuarekin uztartzea. Herrera eremuan aurreikusitako jarduketak hasierako fase gisa planteatu behar dira eta portuko guneak eta industriaguneak berrantolatzeke ekimenek jarraituko diote. Izan ere, Badia berroneratzeko bi esku-hartzek osasunaren gainean duten eraginari buruzko ebaluazioa egin da: arrain lonja berria eta Herrera iparralde/mendebaldearen berrantolaketa.
- g) Jaizkibelgo Korridorea Lezotik Irunera doa, eta bokazio teknoindustrialeko eta paisaian integratutako ardatz handi gisa eratzen ari da; korridorean industria-jarduerak, logistikarekin edo teknologiarekin lotutako jarduerak gara daitezke, baita askotariko zuzkidurak ere, Baiona - Donostia Eurohiriaren testuinguruan.
- Pasaiaiko Badia ingurune natural bikainean dago eta EAEko eraldaketaren sinbolo berrietako bat sortzeko aukera eskaintzen duen eremua da. Gaur egun eremu narriatua da eta balio erantsi gutxiko jarduerak ditu, baina berritutako Portuaren inguruan eratutako espazio erakargarri eta berezia izan daiteke. Horretarako, ezinbestekoa da Pasaiaiko Badian hiria eraldatzeko eta berroneratzeko prozesua Portua berritzeko eta modernizatzeko prozesuarekin uztartzea. Herrera eremuan aurreikusitako jarduketak hasierako fase gisa planteatu behar dira eta portuko guneak eta industriaguneak berrantolatzeke ekimenek jarraituko diote. Izan ere, Badia berroneratzeko bi esku-hartzek osasunaren gainean duten eraginari buruzko ebaluazioa egin da: arrain lonja berria eta Herrera iparralde/mendebaldearen berrantolaketa.
  - Jaizkibelgo Korridorea Lezotik Irunera doa, eta bokazio teknoindustrialeko eta paisaian integratutako ardatz handi gisa eratzen ari da; korridorean industria-jarduerak, logistikarekin edo teknologiarekin lotutako jarduerak gara daitezke, baita askotariko zuzkidurak ere, Baiona - Donostia Eurohiriaren testuinguruan.
  - Donostiaren, Behe Bidasoako espazio dinamikoen eta Baionaren artean kokatutako eremu garrantzitsu horrek aireportua eta Irungo trenbide-zabaltza handiak hartzen ditu, eta azpiegitura-ingurune garrantzitsu batean txertatua dago, AP-8, AP-1, ibilbide luzeko eta laburreko egungo trenbideak, eta etorkizunean abiadura handiko trenbide-sarea hartuko duen ingurunean.
  - Ardatz teknoindustrial horretan errepideko nahiz treneko komunikazio-azpiegitura ugari daude. Gainera, kokapen pribilegiatua du Europako ipar-hegoa ardatzeko garraio-fluxu nagusiekiko eta ekoizpen- eta kontsumo-zentro garrantzitsuenekiko. Hori dela-eta, interes bereziko eremua da bertan logistika-jarduerak ezartzeko.
  - Zentzu horretan, Lezo-Gaintxurizketa eremua lehentasunezko eremutat jotzen da logistika-jardueren kokapenerako, bereziki, Pasaiaiko Portuarekin lotutako jarduerari dagokienez; baita hainbat tren motaren, errepide-garraioaren eta itsas garraioaren interkonexiorako ere.



- Jaizkibel-Aiako Harria Korridore Ekologikoa aintzat hartu behar da, bereziki, eta horren jarraitutasuna bermatu behar da.
  - Irunen, trenbide-zabaltza berritzeko ekintzak erabilera-aniztasuneko irizpideak kontuan hartuta planteatu behar dira, balio erantsi handiko jarduera berritzaileak erakartzera zuzendutako eremu erakargarri eta askotarikoa sortzeko helburuarekin hain zuzen ere, Urdanibia-Zubietako Teknologia Parkearen etorkizuneko garapenean oinarrituz horretarako.
- h) Donostiako Eremu Funtzionalean lehendik dauden eta aurreikusita dauden goi-mailako ekipamendu handiak funtsezko elementuak dira Euskal Autonomia Erkidegoaren kanpo-proiektzioan eta balio handiko jarduerak eta funtzioak erakartzeko duen ahalmenean. Gune berezi horiek sustatu eta hiri-berrikuntzako programak garatuko dira, haiek finkatzera eta haien ingurunean ekipamendu berezi horiek sortzen dituzten aukerak aprobetxatzeko ahalmena duten espazioak eta funtzioak kokatzera zuzendutakoak. Haietarako irisgarritasuna erraztuko da garraio kolektiboko sistemen bitartez, bereziki aireportutik eta abiadura handiko geltokitik.
- i) Baiona - Donostia Eurohiria egituratzea helburu estrategikoa da eremu horretarako eta EAE osorako. Zentzu horretan, funtsezkoak dira metropoliko garraio-sistemak integratzeko ekimenak, ekipamendu handien, jarduera-espazioen eta espazio eta baliabide naturalen kudeaketaren arloko ekimen bateratuen garapena edo kanpoaldearekin lotzeko azpiegitura handien erabilera integratua. Irungo trenbide-eremua eraldatzeak garrantzi berezia izango du Eurohiriaren antolamenduan.



## DONOSTIA-IRUNGO ERALDAKUNTZA-ARDATZA







### **I.3. VITORIA-GASTEIZKO HIRI-EREMUA**

#### **I. Egoera**

Vitoria-Gasteiz hiriaren kasuan, hiri-garapeneko prozesu gehienak hirigunean pilatu dira, batez ere. Hiriburuaren udal-barrutiak duen zabaltasunak eta haren lurzoru-eskaintzak, gero eta hazkunde-kontzentrazio handiagoa eragin dute hiri-espazio horretan. EAEko beste hiriak 80ko hamarkadako birmoldaketa-prozesuetan murgilduta zeuden bitartean, Vitoria-Gasteiz Eusko Jaurlaritzaren egoitza bihurtu zen eta bere lurzoruaren erabilgarritasuna eta kokapena aprobetxatu zituen sektore dinamikoetara eta logistika-jarduera emergenteen garapen ikaragarria zuzenduriko industria-espazio berrietan oinarritutako garapena sustatzeko.

90eko hamarkadatik aurrera hasi zen atzematen hiriburuaren inguruko landaguneen hazkunde esanguratsua. Horiek, ordea, termino erlatibotan atzeman daitezkeen baina termino absolututan garrantzi handirik ez duten garapenak dira. Azken 15 urte hauetan Alegría-Dulantzikoko biztanle kopurua % 95 hazi da, Iruña Okakoa % 60 eta Burgelukoa 2,8 aldiz biderkatu da. Baina hazkunde handi horien atzean udalerri horietako 2.800 biztanle berri besterik ez dago.

Zigoitia, Zuia, Legutio eta A-1 errepidearen ardatzean zehar kokatutako beste hainbat herrik bezala, Vitoria-Gasteiztik etorritako dentsitate txikiko bizitegi-eskaerak hartzen dituzten eremuak dira, baina hiriburuak egiten duen eskaintzarekin alderatuta prozesu mugatua da. Beraz, ezin da esan metropoli-eremua denik, bere eragina inguruko eremuetara hedatzen duen erdigune makrozefalikoa baizik. Industria-lurzoruaren esparruan ere, Lantaron, Iruña Oka, Erriberabeitia edo Legutio bezalako udalerrietan gauzatutako garapenak garrantzitsuak izan arren, Vitoria-Gasteizen nagusitasuna erabat menderatzailea da: Vitoria-Gasteizko udalerrian dago EAEko ekonomia-jardueretarako lurzoruaren % 20, eta bere eremu funtzional zabalean dagoenaren ia % 60.

Hortaz, ekonomia-jarduerak, hirugarren sektorekoak eta logistikakoak hiriaren mendebaldean garatu ziren (Araba Erdialdeko LPPan "Berrikuntza Arkua" esaten zaionaren barruan), eta ekialdea eta hirigunetik hurbileneko eremuak bizitegitara eta ingurumenara begira espezializatu ziren. Hartara, hiria errotula bihurtu da hainbat mailatan: industriaren-logistikaren-hirugarren sektorearen ikuspegitik begiratuta, funtsezko pieza da Miranda de Ebrotik etorrita Araban sartu eta AP-1 errepidetik Deba Garairaino iristen den ardatzean; ingurumenaren-bizitegiaren ikuspegitik begiratuta, ardatz hori ekialderantz luzatzen da, N-1 errepideak eta trenbideak lagunduta, baina baita ibai-ibilguez eta hainbat ibilbide "bigunek" ere. Horretaz gain, ez dugu ahaztu behar udalerrian finkatuta dagoen Eraztun Berdeak eta hiriko eta lurraldeko Azpiegitura Berdeak funtsezko pieza osatzen dutela kokatzen den espazioaren jarraitasun ekologikoan.


#### **II. Lurralde-orientabideak**

- a) Vitoria-Gasteizen garatutako hiri-bikaintasuneko ekimenak –esaterako, Eraztun Berdea eta Hiri Azpiegitura Berdea, hirigune historikoa berreskuratzea eta garapen berriak– beste jarduketa batzuekin osatu behar dira etorkizunean, esaterako, hiriko erdigunean kokatutako industriaguneen eta lehengo mendearen bigarren erdialdeko bizitegi-eremuen hiri-birgaitze, -berrikuntza eta -berroneratzearekin. Hiri-orbana mugatzea, trinkotzea, erabileren nahasketa, espazio publikoen hobekuntza eta etxebizitzak birgaitzea izan behar dute une honetako helburuak, garapen berrien eremuetako hiri-intentsitatea handitzearekin batera.



- b) Hirigunea gauzatzen ari den hedapen-prozesuetan Arabako Lautadako asentamenduen eredua gorde behar da, elementu oso baliotsuak baititu, esaterako, nukleoaren eta paisaiaren arteko lotura, nukleoaren banaketa erregularra eta hiri-mugaren definizioa.
- c) Espazio hori da Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoru-erreserba nagusia eta espazio horretako hazkunde berrietarako lehentasunezko zatia jotzen da Langraiz Okatik Aguraineraino Arabako Lautada zeharkatzen duen trenbidean zeharreko ardatz lineala egituratzea, espazio trinko eta jasangarria sortzea eta aldiriko tren-zerbitzuak eskaintzeko gai den eta Arabako Lautadako ohiko paisaiak mantentzeko aukera emango duen ingurunean integratzea, lurzoru-kontsumoa eta urbanizazio sakabanatu eta dentsitate txikiko prozesuak minimizatuz. Espazio horretan, "lurralde-hutsune" esaten zaien horiei eustea ere garrantzitsua da.
- d) Vitoria-Gasteizen dinamismo demografiko eta industrialak, bere hiriburutza politikoari loturiko aukerak, bere konektagarritasun handia, bere hirigune historikoaren bikaintasuna eta hiriaren eta ingurunearen ingurumen-kalitatea gakoak dira Euskal Hiriaren testuinguruan ekonomia sortzailearen nodo gisa hiriak behar duen bultzadarako.
- e) Hiriko bikaintasun-espazioak egituratzeko aukera handia dago aireportuak, autobus-geltokiak eta hiriaren erdiguneak osatutako ardatzaren bitartez. Jarduera berritzaileak erakarririko litzkeen eremu gisa eratuko litzateke, aldaketa-prozesuan dauden Vitoria-Gasteizko iparraldeko industriaguneekin batera. Eremuaren hegoalderantz, hirigune historikoa eta Dato kalea geratuko lirateke, azken hori unibertsitateraino.
- f) Oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbideak eta garraio kolektiboko sistemak garatuko dira ardatz osoan zehar. Horrela, hiriko bikaintasun-osagaiak eta loturako, hiri-erlaketako eta ekonomia sortzailerako aukerako puntu kritikoak lotuko dira elkarren artean. Ardatza fusioko hirigintza-esperientzia moduan planteatuko da, bizitzeko, lan egiteko, ondo pasatzeko eta ikasteko espazioak, hau da, ideiak trukatzeko eta ekonomia sortzailea bideratzeko leku aproposak sortzeko aukera eskainiko duena.
- g) Hiriak finkatutako bilbearen gainean hazi behar du, kalitatezko espazio konplexuak eskainita, erdiko espazioa "sinplifikatzea" eta erabilerak kanporatzea saihestuta. Hiri berroneratzeko, berritzeko eta birgaitzeko ahaleginak XX. mendearen hirugarren laurdeneko auzoetan metatuko dira: Koroatzea, Zaramaga, Pilar, eta abar. Era berean, Lakua, Zabalgana eta Salburuako garapenak erabilera intentsiboagoa onartzen dute, eta erabilera-nahasketa handiagoa gerta daiteke haietan; zehazki, jarduera ekonomikoak ezartzea auzo horietako ingurumen-kalitate handiarekin bateragarriak izanik.
- h) Aireportua eta trena merkantzia-zerbitzuetarako elkarrekin lotzea azpiegitura horren eta Arabako Erdialdeko Eremu Funtzionalaren profil logistikoa indartzeko eragiketa garrantzitsu gisa ikusten da.
- i) Udalerrriak ingurumen-bikaintasunaren bokazioa indartu behar du, natura-eremu garrantzitsuenen arteko konektagarritasun ekologikoa bermatuta; ildo beretik, Hiri Azpiegitura Berdea finkatu behar da, baita lurraldekoa ere. Ildo horretan, Azpiegitura Berdeak eta abiapuntuko egoera pribilegiatuak eskaintzen dituzten aukerak baliatu behar ditu hiriak, osasunean, ekonomian, ingurumen-arloko ikerketan, elikaduran, eta abarretan eragin ditzakeen efektu guztietan sakontzeko.

## VITORIA-GASTEIZKO HIRI-EREMUA



### LEGENDA

#### Harreman-sistema

- Errepide arruntak
- Autobideak eta autobiak
- Trenbide-sarea
- Tren-geltokia/AHT
- AHTaren trazadura
- Merkataritza-portua
- Kirol- eta arrantza-portua
- Forondako aireportua

#### Mugikortasun jasagarria

- Donejakue bidea
- Oinezkoentzako ibilbideak
- Bizikleta-ibilbideak

#### Hiri- eta landa-birkualifikazioa

- Ekobulebarra
- Herrigune historikoa
- Hirigunea
- Parke Logistikoa: Jundiz
- Miñaoko Teknologia Parkea
- Unibertsitatea
- Hiri-berrikuntza
- Ekipamenduak
- Berrikuntzaren Arkua

#### Azpiegitura Berdea

- Naturagune Babestuen Sarea
- Korridore ekologikoak. Eratzun Berdea
- Ibaiak. Salburuko hezegunea



Guk geuk egina





## II ERALDAKETA-ARDATZAK

***Hiri ertainek funtsezko eginkizuna betetzen dute EAEko hiri-sisteman, lurraldeari dagokionez. Eraldaketa Ardatzak hiri-espazioak egituratzeko, berritzeko eta garatzeko oinarritzko elementu dira, baita espazio libreak babesteko eta hobetzeko ere.***



### ***a) Hiri ertainen protagonismoa***

Bestalde, eremu funtzionaltako hiri garrantzitsuenek, bigarren garrantzitsuenek eta 5.000 biztanletik gorako nukleoak hiri ertainen multzoa osatzen dute, eta EAEko lurraldean elementu biziki garrantzitsua dira. Hiri horietatik gehienak isurialde atlantikoan kokatzen dira, eta lurralde-antolamenduan funtsezko eginkizuna betetzeaz gain, kokalekuen askotariko eskaintza erakargarria osatzen dute. Udalerri horietan, EAEko biztanleriaren ia % 25 bizi da. Haien dimentsioa, hiri-eginkizunak eta produkzio-espezializazioak direla-eta, lurraldearen orekan eta dinamismoan funtsezko faktore dira.

Hiri horien hazkundea tokiko eremutik aurrera egin zuten industria-ekimenen garapenarekin lotuta dago, eta biztanle asko erakarri zituen garapen-dinamika bat eragin zuen. Hiri-garapenerako lurzoru egoki nahikorik ez dagoen testuinguruan, batik bat, Gipuzkoako haranetan, hiri horiek haran-hondoak okupatzen hasi ziren, hiri-dentsitate handiko hazkundera. Haranetako baldintza fisikoek ahalbidetu izan dutenean, hiri-sareek jarraitu egin dute, udal-mugak gaindituta. Baina haranetako gune estuenak ez direnez oso egokiak hirigintzarako, kokalekuen hazkunde linealaren muga izan dira. Hartara, isurialde atlantikoko haranetan eremu koherenteak eratu dira naturaren, paisaiaren eta eginkizunen ikuspegitik begiratuta, baina hirigintza-presio handiaren eraginpean daude. Horrela, bada, eremu askotan haran-hondoak gainezka egiteko gero eta arrisku handiagoa dago, eraikitako jarraitutasunak direla-eta.



Hiri horietan, industria-jarduerak garrantzi handia izan zuen, baina lehengo mendeko 70eko eta 80ko hamarkadetan krisialdia eta birmoldaketa-prozesua iritsi zirelarik, garrantzi hori ahulezia handia izan zen. Hiri horietan guztietan gainbehera-prozesuak izan ziren industria-krisiarekin lotuta, eta biztanleria ere murrizten hasi zen; 90eko hamarkadaren amaierara bitarte iraun zuen joera horrek.

Ekonomia lokalaren sarea dinamizatzen zuten enpresa handi batzuen presentziari lotutako tokiko zirkunstantziek, edo biztanleak birkokatzeko eta ekoizpen-jarduerak erakartzeko prozesuak bultzatu dituzten metropoli-eremuen hurbiltasunak fase atzerakorra gainditzeko aukera eman dute. Prozesu hori, oro har, industria-oinarriak nolabaiteko garrantzia galtzeari eta hirugarren sektoreko jarduerak garrantzia handitzeari lotuta dago. Espazialki, herri nagusi irisgarrietan pilatzen da batik bat; metropoli-eremuetatik urrunago dauden hiri nagusiek eta bigarren mailakoek, bestalde, eutsi egin diote euren industria-pisuari eta dinamika negatiboak dituzte.

Azken bi hamarkadetan hiri ertain garrantzitsuenek zuzkiduren kalitatearen eta aniztasunaren, zerbitzu publiko eta pribatuen eskaintzaren eta hiri-irudiaren hobekuntza-prozesu garrantzitsua izan dute. Baina hiriburuen egiteko berriak merkataritza-, kultura- eta aisia-arloko eta zerbitzu pertsonal eta enpresentzakoen eskaintza askoz ere askotariko, zabal, erakargarri eta espezializatuagoa eragingo du. Hiri ertainen eskaintza konbentzional eta mugatuagoek nekez lehia egin diezaioketen erakarpen-elementua da. Errepideen hobekuntzak eta automobilaren hedapenak eragin dute lehen hiri ertainetan eta eskualde-buruetan egiten ziren hirugarren sektoreko eskaeretatik gero eta gehiago hiriburuetara lekualdatzea. Nukleo horiek izan ohi zuten zentraltasuna galtzeko arriskua izan da emaitza.

Hiri ertainen protagonismoa berreskuratzea funtsezkoa da. Haien eskalak, lurralde-banaketak eta dinamika ekonomikoek nortasun handiko guneen hiri-eskaintza askotarikoa eskaintzen dute, eta hiri horiek indartuz gero, biztanleria zentro handi gutxi batzuetan metatzearekin lotutako arriskueta asko saihesta daitezke, horrek dakartzan kostu funtzional, sozial eta ekonomikoak aintzat hartuta. Hiri horiek gako-elementuak dira lurralde-oreka lortzeko, askotariko hiri-eskaintzari eusteko eta hiri-garapeneko prozesuak jasangarriak izateko. Hiriburuen Gune Anitzeko Sistemako hirien arteko funtsezko konexio-elementuak dira, eta hiru probintzietako hiriburuen arteko antolamendurako ere oso lagungarriak dira, zentraltasun-eremu berriak sortzeko aukera eskaintzen dutela. EAEko hiri ertainak lurralde-erreferente dira eta haien inguruan antolatzen dira bizitegi-hazkundeak eta jarduera-espazioak.

## **b) Eraldaketa Ardatzak**

Hiri ertainak eta euren lurralde-ingurunea indartzeko, antolatzeko eta garapen jasangarria izateko helburu horiek betetze aldera, Eraldaketa Ardatzak proposatu dira. Eraldaketa-ardatzak lurralde-ardatzak dira, garraio kolektiboaren euskarria dutela, eta hiri ertainen garapen-prozesuak antolatuko dituzte, haien protagonismoa areagotuta jasangarritasun-irizpideei jarraiki eta hiriek gainezka egiteko prozesuak saihestuta haran-hondoetako eremu berezietan.

Eraldaketa Ardatzei esker, hiri-garapeneko prozesuak bidera daitezke egitura linealak eratuta, garraio kolektiboaren erabilera ahalbidetzearen, lehendik eraikitako espazioak dentsifikatuta eta eremu berrietan hiri-okupazioa saihestuta. Hiri-pieza guztiei koherentzia eman eta errematatzeak aukera ematen dute, baita hirigintza lausoa mugatzeko, ingurumenaren eta paisaiaren kalitatea hobetzeko, eta dentsitatea, hiri-berrikuntza eta berrikuntza-espazioak



sortzea ahalbidetzeko aukera ere. Ereku funtzionalak eta eremu naturalak elkarri lotzeko elementuak dira, eta hiri ertainek metropolialdeen garapen-dinamiketan parte hartzeko duten gaitasuna hobetzen dute.

Ardatz linealak dira egokienak garraio kolektiboko sistemak antolatzeko. Hiri-egitura linealak dira eraginkorrenak eta jasangarrienak, eta hiri-garapeneko prozesuak korridore ekologikoekin, komunikazio-ardatzekin eta garraio kolektiboko sistema oso irisgarriekin bat eginda antolatzeko aukera ematen dute.

Eraldaketa Ardatz horiek funtsezkoak dira Euskal Autonomia Erkidegoko Sarean eratutako Zentro anitzeko Eskualde Hiria egituratzeko, hiri-garapeneko prozesu jasangarriak eratzeko, lurraldearen konpartimentazioa saihesteko, eta gure jardura ekonomikoen dinamizazio eta berrikuntzako prozesuetarako lurralde-euskarri egokia eskaintzeko.

Eraldaketa Ardatzak ez dira azpiegitura-ardatzak, errepide- eta trenbide-konexioko elementuak ere jasotzen dituzten arren. Hiri-espazioak egituratu, berritu eta garatzeko eta espazio libreak hobetzeko proiektuak dira; izan ere, ibaiertzak aktiboki berreskuratzea sustatzen dute, korridore ekologikotzat jotzen dute eta azpiegitura berdea zeharkako korridoreekin uztartzen dute. Euren garapenerako espazio-erreferentziatzat LAGen Erlazio Sistemak xedatutako korridoreak hartzen dituzte. Sistema horrek finkatzen ditu lehentasunezko komunikazio-ardatzak eremu funtzionalen interkonektiorako, eremu funtzionalak Hiriburuen Nukleo anitzeko Sistemarekin komunikatzeko eta EAEren kanpoaldearekiko harreman nagusietarako.

### **c) Eraldaketa-ardatzaren garapena**

Eraldaketa Ardatzek, ondo diseinatu badaude, aukera ematen dute gure lurraldea berritzeko eta lurraldeari balioa emateko interesgarriak diren hainbat eta hainbat helburu lortzeko, herritarren bizi-kalitatea eta lurraldearen oreka hobetzeko, mugikortasun jasangarriko sistemari eraginkortasuna emateko eta gure hiri eta paisaien erakargarritasuna handitzeko.

Eraldaketa Ardatzak lurralde-proiektu integralak dira; eremu naturalak, hiri-espazioak eta azpiegitura-elementuak modu koherentean lantzeko aukera ematen duten proiektu integralak. Ereku libreez osatuta daude; eremu libre horiek eraikitako espazioen mugak finkatzen dituzte eta hirigintzatik babestutako ingurumen-korridore handi moduan eratu dira. Ereku libreez gain, lehendik eraikitako eremuetan eremu urbanizatuak ere badira, eta eremu urbanizatu horietan berrikuntzako eta dentsifikazioeko ekimenak garatu behar dira. Bestalde, mugikortasun-korridoreak ere hortxe daude, garraio kolektiboko sistemen eta inpaktu txikieneko joan-etorrietarako (bidegorriak eta oinezkoentzako bideak) sistemen euskarri dira, betiere lehendik dauden azpiegiturak erabilita.

Bakoitzaren ezaugarrien arabera, Eraldaketa Ardatzetan honako gai hauek garatzen dira:

- a) Ardatz Berdeak
- b) Ekobulebarrak
- c) Hiria egituratzeko ardatzak
- d) Garraio kolektiboaren ardatzak



- e) Oinezkoentzako eta txirrindularientzako espazioak
- f) Errepidea zeharkatzeko aukera
- g) Hiri-intentsitatea eta erabilera-nahasketa
- h) Sormen-ardatzak
- i) Hiri-berrikuntzaren ardatzak
- j) Arkitektura eta hirigintza bioklimatikoak

#### **d) Helburuak**

Metropolialdeen eta eraldaketa-ardatzen eremuan, lurralde-eredua berrikusteko honako helburu hauek proposatzen dira:

1. Eraldaketa Ardatzen bitartez hiri-garapeneko prozesuak egituratzea, betiere egitura linealtzat hartuta, garraio kolektiboaren erabilera ahalbidetzearen, lehendik eraikitako espazioak dentsifikatuta eta eremu berrietan hiri-okupazioa saihestuta.
2. Hirigintza lausoa mugatzea, ingurumenaren eta paisaiaren kalitatea hobetzea, eta dentsitatea, hiri-berrikuntza eta berrikuntza-espazioak sortzeko aukera ahalbidetzea lurralde-elementuen arteko antolaketa ahalbidetuko duten Eraldaketa Ardatzen bitartez.
3. Eraldaketa Ardatz horien bitartez hiri-garapenerako egitura jasangarriak eratzea, lurraldearen konpartimentazioa saihestuta eta gure jarduera ekonomikoen dinamizazioko eta berrikuntzako prozesuetarako lurralde-euskarri egokia eskainita.
4. Hiri-intentsitate geroz eta handiagoko espazioak sortzeko aukera ematea, dela bizitegi-dentsitateari dagokionez, dela zerbitzu, erabilera eta jardueren dentsitateari dagokionez.

#### **e) Eraldaketa Ardatzei buruzko Lurralde Orientabideak**

Metropolialdeen eta eraldaketa-ardatzen eremuan, lurralde-eredua berrikusteko honako lurralde-orientabide hauek proposatzen dira:

1. Eraldaketa Ardatzak eratzeke beharrezkoak diren ekintzak eta antolamendu-irizpideak txertatzea Lurralde-plan Partzialetan, betiere Eraldaketa Ardatzak egitura linealtzat hartuta, garraio kolektiboaren euskarria dutela, espazio libreak zainduta eta hiri-berrikuntzako prozesuak modu eraginkorrean antolatuta.
2. Eraldaketa Ardatzetan honako hauek biltzea: hirigintza-erabilerarik gabe izan behar diren espazio libreak, lehendik eraikitako espazioetan dauden hiri-berrikuntzako eremuak, eta garraio kolektiboko sistemetak euskarri diren elementu linealak.
3. Saihesbideak edo edukiera handiko errepide berriak eraiki direlako edo, hala badagokio, eginkizun berdina bete dezaketen bestelako errepide edo trenbide bidezko azpiegiturak eraiki direlako funtzionaltasuna galdu duten errepide-tarteak berriz diseinatzea; horretarako, tarte horiek ekobulebar bihurtzeko, Eraldaketa Ardatzen hiri-eremuetako bide-euskarri izateko. Hori lortzeko, honako proposamen hauek egin





dira: oztopoak ezabatzea, trafikoaren inpaktua murriztea, errepidea zeharkatzeko aukerak areagotzea, eta tarte horien inguruko espazio libreetan eta eraikitako espazioetan ingurumena eta paisaia hobetzea.

4. Eraldaketa Ardatzetako hiri-tarteei lehentasuna ematea hiri-garapen berrietan, betiere garapen horiek eraikitako espazioen berrikuntzan eta dentsifikazioan oinarritzen badira, baita hiri inguruko eremuetan sakabanatutako sareen antolaketan ere; hartara, nukleo tradizionalen hiri-irudia hobetu eta nortasun-ezaugarriak indartuko dira, hazkunde berrien aurrean –urbanizatutako espazioak areagotzea eragingo bailukete—. Alde horretatik, Eraldaketa Ardatzetako hiri-eremuetako jardunek gero eta hiri-intentsitate handiagoko guneak azaltzen lagunduko dute, bai bizitegi-dentsitateari dagokionez eta bai zerbitzu-, erabilera- eta jarduera-dentsitateari dagokionez.
5. Eraldaketa Ardatzetan txertatzen diren ibai-ibilguak eta urbazterreko espazioak korridore ekologiko bihurtzea.
6. Soilik garraio kolektiboko sistemetarako izango diren plataformak txertatzea Eraldaketa Ardatzetan. Ildo horretatik::
  - Ardatzetako hiriguneak finkatzea, hiri-dentsitatearen, bizitegi-erabileren eta ekonomia-jardueren gorakada sustatuz lortutakoa, mugikortasun jasangarria ahalbidetuko duen garraio-sistemak egotean oinarrituko da gehien bat.
  - Geltokiak gako-elementuak dira estrategia horretan eta hiri-zentraltasuneko nodo gisa ulertu behar dira. Inguruan izan behar dituzte etxebizitzak, lantokiak, merkataritzaguneak eta eskaera handiko zerbitzua. Erabiltzaileentzako aparkalekuak eta trena/autobusa trukaketa-sistemak prestatzea eta oinezkoentzako eta bizikletentzako ardatz nagusiekin konektatzea iradokitzen da.
7. Oinezkoentzako eta txirrindularientzako bide bereziak txertatzea Ardatzetan, haien joan-etorriak ahalbidetzearen, eta hiriaz eta paisaiatzat gozatzeko eta mugikortasuneko elementu eroso eta erakargarriak izan daitezen; hartara, gure hiri-espazioetako interesgune bihurtuko dira, baita erakartzeko eta kalitatezko elementu ere gure lurralderako.
8. Hirigintzako eta arkitekturako diseinu bioklimatikoaren printzipioak sustatzea, Eraldaketa Ardatzen ingurumen-jasangarritasuneko elementutzat hartuta.

#### **f) Eraldaketa Ardatzak eta eremu funtzionalak**

Eremu funtzionalak mugatzea LAGen proposamenaren elementu garrantzitsuenetako bat da, proposamen horretatik dagozkien LPPen esparruak, eta baita bizitegi-lurzoru, ekonomia-jardueretarako lurzoru, aisiagune eta abarri buruzko zehaztapen ugari ere ondorioztatzen diren heinean.

Eraldaketa Ardatzak eremu funtzionalen gune nagusiak berritzeko, artikulatzeko eta indartzeko jarduketa egituratzaile moduan planteatzen dira. Horrek aukera ematen du LAGen Erlazio Sistemaren azpiegitura-elementuen bitartez sendoago eta estuago lotutako nodoak dituen Sarean eratutako zentro anitzeko Lurraldea eratzeko.



Eraldaketa Ardatzak garatuko dituzten kantauriar haranetan kokatzen dira 5.000 biztanle baino gehiagoko metropoliak ez diren 36 hirietatik 32, eta eremu funtzionalen 18 hiri nagusi eta bigarren mailakoetatik 14. Euren hiri-dentsitatea eta morfologia lineala kontuan hartuta, Eraldaketa Ardatzen egitura argien definitzen duten eremuak dira.

Beste eremu batzuetan, esaterako, Arabako Lautadan edo Mungiako Eremu Funtzionalean, ez dituzte hiri-garapenerako baldintza topografiko hain murriztaileak eta, ondorioz, ez dira ageri egitura lineal zehaztuak. Horrek hiri-sakabanaketako prozesuak errazten ditu presio urbanizatzailerako handiko espazioetan. Horregatik, bide-ardatz egituratzaileen gaineko garraio kolektiboko sistemetan bermatutako Eraldaketa Ardatzen mugapena proposatzen da dokumentu honetan. Eremuak behar bezala garatzeko artikulazio-estrategiak egiteko aukera ematen dute horiek.

Azkenik, euren landa-izaera eta asentamenduen jarrera kontuan hartuta hiri-egitura horiek garatzeko egokiak ez diren eremuak ageri dira. Horregatik, Arabako Errioxan eta Gernika-Markina eremuan espazio horientzako orientazio espezifikoak planteatu dira.

## **LURRALDE-ORIENTABIDEAK. ERALDAKETA-ARDATZAK ETA EREMU FUNTZIONALAK.**

### **a) Eibarko Eremu Funtzionala. Debarrenen Eraldaketa Ardatza**

a.1. Debarrenen eremu nagusia Ermua, Eibar, Elgoibar eta Soraluez nukleoen inguruan osatuta dago, eta hiri-dentsitate eta industria-espezializazio handiko eremua izan da, baina azken hamarkadetan etengabeko gainbehera demografikoa izan du.

a.2. Vitoria-Gasteiztik Eibarrera doan AP-1 autobidea martxan jarri delarik, Bilbo eta Donostia arteko AP-8 autobidearekin lotu da, eta horrek, lurraldearen erdigunean jarriko du Eibar, EAEko hiru hiriburuetatik ia distantzia berera. Aukera erabakigarria da kokapen estrategiko hori aprobetxatzeko oinarriak —hala nola, biztanle kopurua, enpresa-dimentsioa eta unibertsitate-zentroak— bere baitan hartzen dituen hiri-nodoarentzat.

a.3. Debarrenen Eraldaketa Ardatza, udalerri horien garapena artikulatzeko ekimen gisa proposatzen da, erakargarritasun eta maila altuagoko hirigunea egituratzeko asmoz. Hirigune horren inguruan, hiri berritzeko eta eremuan dauden eskualde-mailako hornidura eta ekipamenduak hobetzeko jarduerak garatu beharko lirateke.

a.4. Ardatzean txertatutako hiri-asentamenduetako bizitegi-izaerako eta jarduera ekonomikoetako jarduketak hiriguneak arindu eta berronartzean oinarrituko dira, baita herrigune historikoen birgaitze integratuan ere; horretarako, perimetro urbanizatuan jada sartuta dauden okupatu gabeko lurzorua berrerrabiltzeari emango zaio lehentasuna, lurzoru berriak ez okupatzeko.

a.5. Eraldaketa Ardatza Ermua eta Deba arteko N-634 errepidea eta Maltzagatik Bergara doan GI-627 errepidea Debagoieneko mugaraino ekobulebar bihurtzean oinarritzen da. Bi bide-ardatz horiek “ekobulebar” bihurtzeko zailtasunak egongo dira, Deba-Eibar-Ermua (AP-8) eta Maltzaga-Bergara (AP-1) zatietan eraldaketa hori ahalbidetuko lukeen beste bidea bidesaria



ordaindu beharrekoa den bitartean. Lurralde-plan partzialak xedatuko ditu dokumentu honetako helburuak lortzeko behar diren zehaztapenak.


a.6. Euskotrenen lineak garraio kolektiboko euskarri garrantzitsua eskaintzen du hiri arteko mugikortasunerako eta eremu funtzional mugakideekin, nahiz Bilbo eta Donostiarekin lotzeko.

a.7. Egitura lineal horretan, Deba ibaia, zeharkatzen dituen hiriguneak hobetzeko korridore ekologiko gisa egituratu behar da. Aisialdiguneak hartuko lituzke eta bertatik inguruneke natura-eremuetara iristeko modua egongo litzateke.

a.8. Hori horrela izanik, Deba haranean barrena kokatutako hiri-garapenen, alde batetik, eta landa-eremuen, hiri-inguruko parkeen eta ingurunean kokatutako aisialdiguneen, bestetik, arteko egituraketa eta integrazio egokia bermatu beharko du Eraldaketa Ardatzak; horretarako, eremu horiek konektatzea ahalbidetuko duen oinezkoentzako eta txirrindularientzako ibilbideen sarea finkatu eta hobetu behar da.

a.9. Hirigune nagusien kokapen zentralak aukera ematen du Ardatz honetako eremu handiak eraiki gabeko eremu gisa finkatzeko, batik bat, Mendaro-Deba eremuan.

**DEBABARRENEKO ERALDAKUNTZA-ARDATZA. Ermua-Eibar-Elgoibar tartea**



**LEGENDA**

**Harreman-sistema**

Errepide arruntak

Autobideak eta autobiak

Trenbide-sarea

Tren-geltokia

AHTaren trazadura

Merkataritza-portua

Kirol- eta arrantza-portua

**Mugikortasun jasangarria**

Donejakue bidea

Oinezkoentzako ibilbideak

Bizikleta-ibilbideak

**Hiri- eta landa-birkualifikazioa**

Ekobulebarra

Herrigunea

Parke Logistikoa

Teknologia-parkea

Unibertsitatea

Hiri-berrikuntza

Ekipamenduak

**Azpiegitura Berdea**

Naturagune Babestuen Sarea

Korridore ekologikoak.

Ibaiak



Guk geuk egina



**b) Arrasate-Bergarako Eremu Funtzionala. Debagoieneko Eraldaketa Ardatza**

b.1. EAEko biztanleen ia % 3 bizi da Debagoienan. Eremu funtzionala EAEko lurraldearen erdigunean dago eta honako hauek dira bere ezaugarri nagusiak: hiri-sendotasuna, unibertsitate-zentroak, berrikuntzaguneen sorrera –esaterako, Garaia Berrikuntza Gunearena–, eta lurralde horretan bereziki garatutako gizarte- eta ekonomia-antolamendurako formula sortzaileak.

b.2. AP-1 autobidea martxan jartzeak aldaketa erabakigarria eragin du eremu horren lurralde-aukeretan. Debabarrenarekin eta EAEko iparraldeko hiri ertain eta metropoli-eremuekin lotzeko ahalmen handiko elementua izateaz gain, autobide berriak Vitoria-Gasteizera berehala iristeko aukera eskaintzen du. Horrek esan nahi du aireportura, etorkizuneko abiadura handiko trenera, Arabako Lautadan kokatutako hornidura, hiri-zerbitzu eta logistika-plataformetara oso denbora laburrean hel daitekeela.

b.3. Eskualde-zentraltasuna indartzeko eta eremu funtzionalaren berritze- eta garapen-prozesuak artikulatzeko Debagoieneko Eraldaketa Ardatza proposatzen da. Ardatzak Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Bergara udalerriak lotzen ditu, Oñatirekiko lotura barne, eta horrela, zentro anitzeko hirigunea eratu da haranean.


b.4. Ardatzaren oinarria zera da, GI-627 errepidea ekobulebar bihurtzea; izan ere, ibilbide luzeko trafikotik libre geratu da errepide hori, AP-1 autobidea martxan jarri delarik. Dena den, errepide hori ekobulebar bihurtzeko zailtasunak egongo dira, eraldaketa hori ahalbidetuko lukeen beste bidea bidesaria ordaindu beharrekoa den bitartean. Lurralde-plan partzialak xedatuko ditu dokumentu honetako helburuak lortzeko behar diren zehaztapenak.

b.5. Ardatz hau eremu honetako korridore ekologikoa den Deba ibaiaren eta garraio kolektiboa egituratzen duen ardatzaren inguruan egituratuta dago; ardatz egituratzaile hori ibilbide osoan barrena joango da, hiriarteko artikulazio-elementu gisa. Eremu berrietan hirigintza-garapen berriak galaraztea gakoa da haranean kolmatazio-prozesuak saihesteko; nolana ere, alderdi hori Eremu Funtzionalaren Lurralde-plan partzialean aztertu beharko da, betiere lurralde-ereduari jarraikiz.

b.6. Ardatzean txertatutako hiri-asentamenduetako bizitegi-izaerako eta jarduera ekonomikoetako jarduketak hiriguneak arindu eta berroneratzean oinarrituko dira, baita herrigune historikoen birgaitze integratuan ere; horretarako, perimetro urbanizatuan jada sartuta dauden okupatu gabeko lurzoruak berrerabiltzeari emango zaio lehentasuna, lurzoru berriak ez okupatzeko.

b.7. Deba haranean barrena kokatutako hiri-garapenen, alde batetik, eta landa-eremuen, hiri-inguruko parkeen eta ingurunean kokatutako aisialdiguneen, bestetik, arteko egituraketa eta integrazio egokia bermatu beharko du Eraldaketa Ardatzak; horretarako, eremu horiek konektatzea ahalbidetuko duen oinezkoentzako eta txirrindularientzako ibilbideen sarea finkatu eta hobetu behar da.

**DEBAGOIENENKO ERALDAKUNTZA-ARDATZA. Bergara-Arrasate-Oñati tartea**



**LEGENDA**

**Harreman-sistema**  
Errepide arruntak  
Autobideak eta autobiak  
Trenbide-sarea  
Tren-geltokia  
AHTaren trazadura  
Merkataritza-portua  
Kirol- eta arrantza-portua  
Aireportua

**Hiri- eta landa-birkualifikazioa**  
Ekobulebarra  
Herrigune historikoa  
Hirigunea  
Parke Logistikoa  
Teknologia-parkea  
Unibertsitatea  
Hiri-berrikuntza  
Ekipamendua  
*Guk geuk egina*



**Mugikortasun iraunkorra**  
Donejakue bidea  
Oinezkoentzako ibilbideak  
Bizikleta-ibilbideak

**Azpiegitura Berdea**  
Naturagune Babestuen Sarea  
Korridore Ekologikoak  
Ibaiak





### **c) Zarautz-Azpeitiko Eremu Funtzionala. Urolako Eraldaketa Ardatza**

c.1. Zarautz-Azpeitiko Eremu Funtzionalan 20 km pasatxoko kostaldea –Urola eta Oria ibaiak itsasoratzen dira– eta 1.000 metrotik gorako altuerako topografia –Izarraitz, Hernio eta Gazume mendiguneak– biltzen dituen natura-ingurunea uztartzen dira. Konfigurazio horren ondorioz, eremua bi ardatzetan barrena egituratzen da: kostaldekoak Zumaia, Getaria, Zarautz eta Orio herriak zeharkatzen ditu; eta bestea Urola ibaiaren haranak zehazten du, Zumaia kostaldean Aizarnazabal, Zestoa, Azpeitia eta Azkoitiarekin lotuta.

c.2. Proposatutako Eraldaketa Ardatza, hortaz, lehen zehaztu ditugun bi ardatzetan egituratzen da, eta helburu nagusia lurralde jasangarria sortzea izango da, bertan dauden kultura-nortasunaren adierazgarriak (Loiolako santutegia, Ekain eta Altxerriko arkeologia-ondarea, eta abar), lurraldeko natura-balioak (Izarraitz, Pagoeta, Hernio, Zumaia flysch-a, Urolaren eta Oriaren itsasadarra, eta abar) eta landa-ingurunearen aniztasuna (Beizama, Aia, eta abar) zaintzea lurraldearen garapen sozio-ekonomikoarekin uztartuta.


c.3. Loiolatik abiatuta eraldaketa-ardatz osoa zeharkatzen duten guneei balioa emateko garaian, paisaiari bereziki erreparatu beharko zaio, eremua zeharkatzen duten ibai-ibilguen natura-balioak berreskuratuta, eremu degradatuak berroneratuta eta kostaldea afekzio berrietatik zainduta.

c.4. Ardatzean garatuko diren hirigintza-jarduketak hiriguneak arindu eta berroneratzean oinarrituko dira, baita herrigune historikoen birgaitze integratua ere; horretarako, perimetro urbanizatua jada sartuta dauden okupatu gabeko lurzoruak berrerabiltzeari emango zaio lehentasuna, lurzoru berriak ez okupatzeko.

c.5. Tren-arloari dagokionez, Urolako trenaren Zumaia eta Urretxu arteko baztertutako trazatua berreskuratzeko aukera aztertzea proposatzen da, tren arin edo zabalera metrikoko baten bitartez; Lurralde-plangintzan zehaztu behar dira baldintzak. Eremu horren konektagarritasuna osatzeko, N-614 (Zumaia, Zarautz eta Orion) eta GI-631 (Azpeitia eta Azkoitia) errepideetatik saihasbide moduan kanpoaldeko trazatuera eraman daitezkeen zatiak "ekobulebar" gisa hiri-bilbean txertatu behar dira, eta horretaz gain, Errezilen barrena egingo den Azpeitia eta Tolosa arteko errepide-lotura hobetu; hobekuntza aurreikusita dago bai LAGetan, bai LPPan. Ardatzaren gainerako zatia espazio libre gisa uzteak, bere ibilbideko herrigune txikiagoen inguruko zaharberritze-jarduketa selektiboak eginda, aukera emango du eremuaren ingurumen-kalitate handiari eusteko.



**UROLAKO ERALDAKUNTZA-ARDATZA. Azkoitia-Azpeitia tartea**



**d) Beasain-Zumarragako Eremu Funtzionala. Oriako Eraldaketa Ardatza**

d.1. Beasain-Zumarragako Eremu Funtzionala bi ardatz nagusiren inguruan egituratzen da, eta ardatz horietan metatzen da biztanleriaren gehiengoa. Lehenengo ardatza iparraldetik hegoaldera doa Oriaren haranean barrena, eta N-I errepidean oinarritzen den lurralde-eskala handiagoko korridore batean sartzen da. Korridore hori iparralderantz luzatzen da hiri-jarraitu batean, Tolosaldeko eta Donostialdeko eremuekin komunikatuta. Bigarrena ekialdetik mendebaldera doa, eta Beasain-Ordizia-Lazkao nodoak osatzen duen errotulan bat egiten du lehenengoarekin; eremu funtzional osoa zeharkatzen du, bigarren hirigune garrantzitsuenara (Zumarraga-Urretxu) iritsi arte eta, hortik aurrera, Durangorantz luzatzen da.

d.2. Proposatutako Eraldaketa Ardatza goian aipatu ditugun bi ardatz horiek zehaztutako hiri-egitura finkatzean oinarritzen da. Garapenak ardatza egituratzen duten bideetan barrena finkatu eta metatzea proposatu da, hiri-dentsitate handieneko guneeetan, hiri-dentsitate hori Ori ibaiaren ibilgua eta arro isurlea berreskuratzearekin bateragarri eginda, korridore ekologiko eta paisajistiko bihurtuta eta, aldi berean, lurraldearen gainerakoan dauden natura-balioen babesa eta kontserbazioa bermatuta. Eraldaketa Ardatzak Beasain-Ordizia-Lazkao nodoaren (Olaberria eta Idiazabal bertan txertatutako lirateke funtzionalki) garapenak eta Zumarraga-Urretxuri (Legazpiraino iritsita) dagozkionak artikulatzeko aukera ematen du, eta hirigune sendoa eratuko du hiri-eremu integratuagoan eta maila altuagokoan.

d.3. Ekobulebarra gaur egun hainbat udalerrri lotzen dituzten hiriarteko bideen gainean garatuko litzateke, funtsean, Zumarragatik Ormaiztegira doan GI-623, Ormaiztegitik Beasainera doan GI-2623 eta Ordiziatik Tolosako eremu funtzionalera doan GI-2131 errepideak oinarri hartuta; N-I eta GI-632 errepideak, aldiz, ibilbide luzeko bide gisa erabiltzen dira eta Donostiarekin, Vitoria-Gasteizekin eta Iruñearekin lotzen dute eremua. GI-632 errepidea Zumarragatik Bergararaino luzatzeak Debako Ardatzarekiko eta AP-1 autopistarekiko lotura garrantzitsua eragingo luke eta, iparralderantzko Zumarraga-Azkoitia lotura hobetzearekin batera, LAGek jasota duten interkonexiorako osagai oso garrantzitsua sortuko du.

d.4. Horrela, ardatzaren gunek hiri- eta paisaia-izaerako bide gisa artikulatzen dituzten errepideak Donostiarainoko aldirietako zerbitzuak dituen egungo trenbidearekin egituratzeko aukera sortzen da.


d.5. Hirigintza-garapenak zehaztutako Eraldaketa Ardatzean metatzea lagungarri izango da eremuan dauden naturagune babestu garrantzitsuak zaintzeko eta indartzeko, batik bat, Aizkorri-Aratzeko eta Aralarreko parke naturalak.

d.6. Eraiki gabeko zatiak okupazio berrietatik babestu behar dira eta Ardatzeko zati horietan dauden nukleo eta asentamenduak finkatzen eta egituratzen lan egin, Lurralde-plan partzialean xedatutako lurralde-ereduari jarraikiz.





**UROLAKO ERALDAKUNTZA-ARDATZA. Zumarraga-Legazpi tartea**



**LEGENDA**

Harreman-sistema  
Errepide arruntak  
Autobideak eta autobiak  
Trenbide-sarea  
Tren-geltokia/AHT  
AHTaren trazadura  
Merkataritza-portua  
Kirol- eta arrantza-portua  
Aireportua  
Hiri- eta landa-birkualifikazioa  
Ekobulebarra  
Herrigune historikoa  
Hirigunea  
Parke Logistikoa  
Teknologia-parkea  
Unibertsitatea  
Hiri-berrikuntza  
Ekipamenduak



**Mugikortasun iraunkorra**

Donejakue bidea  
Oinezkoentzako ibilbideak  
Bizikleta-ibilbideak



**Azpiegitura Berdea**


Naturagune Babestuen Sarea  
Korridore Ekologikoak  
Ibaiak



*Iturria: guk eginikoa*



**ORIAKO ERALDAKUNTZA-ARDATZA. Itsasondo-Beasain-Ordizia-Idiazabal tartea**



**LEGENDA**

**Harreman-sistema**  
 Errepide arruntak  
 Autobideak eta autobiak  
 Trenbide-sarea  
 Tren-geltokia  
 AHTaren trazadura  
 Merkataritza-portua  
 Kirol- eta arrantza-portua  
 Aireportua  
 Hiri- eta landa-birkualifikazioa  
 Ekobulebarra  
 Herrigune historikoa  
 Hirigunea  
 Parke Logistikoa  
 Teknologia-parkea  
 Unibertsitatea  
 Hiri-berrikuntza  
 Ekipamendua



**Mugikortasun iraunkorra**

Donejakue bidea  
 Oinezkoentzako ibilbideak  
 Bizikleta-ibilbideak



**Azpiegitura Berdea**

Naturagune Babestuen Sarea  
 Korridore ekologikoak  
 Ibaiak



*Iturria: guk eginikoa*





### **e) Tolosako Eremu Funtzionala. Oriako Eraldaketa Ardatza**

e.1. Eremu Funtzionaleko biztanleriaren % 80 baino gehiago Oria ibaiaren haranean kokatutako bederatzi udalerrietan metatzen da, N-I errepidearen ondoan; errepide horrek eremua egituratzen du eta iparralderantz Donostialdearekin lotzen du eremua, eta hegoalderantz Goierriarekin. Ardatz hori egituratzailea da, eta Eremu Funtzionala ez ezik, Gipuzkoa oso ere egituratzen du; halaber, eremuak Donostiarekin dituen harreman funtzionalak eta, batik bat, bi eremu horien arteko biztanleria-fluxuak nabarmen baldintzatzen ditu.

e.2. Oriako Eraldaketa Ardatzak Tolosa eta Ibarraren inguruan artikulatu du hirigunearen gune nagusia eta, pixkanaka-pixkanaka, eremuko garapen linealak integratzen ari da, Villabonaraingo iparraldetik, eta Ikaztegietaraino hegoaldeko.


e.3. Ardatz horretan, Oria ibaiaren haranean barrena –Ikaztegietatik Villabonaraingo– hainbat udalerririk lotzen dituzten hiriarteko bideen gainean ekobulebar bat garatuko litzateke, N-I errepide zaharraren ibilbideari jarraikiz. Garapen hori, gaur egun, baldintzatuta dago, ez baitago eraldaketa hori ahalbidetzen duen beste biderik ardatzaren zenbait zatitan (esaterako, Alegia-Tolosa iparraldeko konexioa). Ekobulebarrek aukera emango luke hiri-izaerako bide-ardatz bat eratzeke, oinezkoentzako eta txirrindularientzako sarea bertan txertatuta; eta Donostiarekin lotzeko aldiriko tren-zerbitzuarekin ere lotura izango luke.

e.4. Oriako Eraldaketa Ardatza, batetik, ibilgua korridore ekologiko eta paisaia-korridore gisa berreskuratzean oinarrituko litzateke, eta bestetik, hirigune lineal baten garapenean, ardatza egituratzen duten bideetan zehar garapen berriak kontzentratuz.

e.5. Ibilbide osoan asko okupatutako Ardatza da. Horregatik, ardatzean garatuko diren hirigintza-jarduketak hiriguneak arindu eta berronertzean oinarrituko dira; horretarako, perimetro urbanizatuan jada sartuta dauden okupatu gabeko lurzorua berrerrabiltzeari emango zaio lehentasuna, lurzoru berriak ez okupatzeko.



### ORIAKO ERALDAKUNTZA-ARDATZA. Irura-Anoeta-Tolosa tartea



#### LEGENDA

Harreman-sistema  
Errepide arruntak  
Autobideak eta autobiak  
Trenbide-sarea  
Tren-geltokia  
AHTaren trazadura  
Merkataritza-portua  
Kirol- eta arrantza-portua  
Aireportua  
Hiri- eta landa-birkualifikazioa  
Ekobulebarra  
Herrigune historikoa  
Hirigunea  
Parke Logistikoa  
Teknologia-parkea  
Unibertsitatea  
Hiri-berrikuntza  
Ekipamenduak

Mugikortasun iraunkorra  
Donejakue bidea  
Oinezkoentzako ibilbideak  
Bizikleta-ibilbideak

Azpiegitura Berdea  
Naturagune Babestuen Sarea  
Korridore ekologikoak  
Ibaiek





## **f) *Balmaseda-Zallako Eremu Funtzionala. Kadaguako Eraldaketa Ardatza***

f.1. Cadaguako Eraldaketa Ardatza, Balmasedatik Alonsotegira, Cadagua haranari jarraitzen dion eta eratzen ari den hiri-korridorearen gainean planteatzen da, Zalla eta Gueñeseko hirigune nagusiak barne hartzen dituela. Kadaguako autobia martxan jarrita – igarobideko trafikoa xurgatzen du –, hiriguneak elkarrekin lotzen dituzten foru-aldundiaren hainbat errepideren gainean garatuko da ardatza. Errepide horiek, gainera, eremua Bilborekin lotzen duen FEVEren linearekiko paraleloan doaz eta eremu horretako garraio kolektiboko sistementzako euskarri nagusia eratzen dute.

f.2. Kadaguako autobidean zehar hutsik dauden edo abandonatutako industriaguneek okupatzen dituzten espazioei balioa ematea aukera egokitzen jotzen da datozen urteetan eremua dinamizatzeko. Gainera, 'Supersur' saihezbide berriak kanpoaldearekiko konektagarritasun handia eman dio eremuari.

f.3. Hiri arteko bide zaharrak ekobulebar bihurtzea eta hiri-eragiketa egituratzaileak garatzea funtsezkoa da dentsitate txikiko eta, batzuetan, egiturarik gabeko garapenak nagusi diren espazioaren eboluziorako.

f.4. Balmaseda-Zalla-Gueñes ardatzean integratuagoa dagoen hirigunea artikulatzeak aukera emango du zerbitzu-potentzial handiagoko eta eremu osoa erakartzeko eta dinamizatzeko gaitasun handiagoko hiri-oinarria izateko.

f.5. Cadagua ibaiak korridore ekologiko gisa jokatu du, eremuko uholde-arriskuak kontuan hartuta ingurumen-interesa duten inguruko eremuekiko lotura-espazioak eta berdeguneak barne hartuta. Trenbideak artikulatu du hiri lineal osoa eta Bilboko erdigunearekin lotuko du.


f.6. Hiri-zentraltasun eta -nortasun puntuak sortzen dituzten garapen trinkoagoak, ekipamenduak eta ekoizpenguneak, garraio kolektiboa, ingurumen-ardatzak eta espazio publikoak sortzea Eraldaketa Ardatz honi lotutako aukerak dira funtzio-aniztasun handiagoko eta espazio askotarikoagoak eta jasangarriagoak lortzeko.

f.7. Urbanizaziotik babestuko dira eraikuntza-erabileraren okupaziorik ez duten esparruak.





**KADAGUAKO ERALDAKUNTZA-ARDATZA. Balmaseda-Zalla-Gueñes tartea**



|                                |                                                                                     |                                   |                                                                                     |                                         |                                                                                       |                                   |                                                                                       |
|--------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>Harreman-sistema</b>        |                                                                                     | <b>Kirol- eta arrantza-portua</b> |  | <b>Hiri- eta landa-birkualifikazioa</b> |                                                                                       | <b>Hiri-berrikuntza</b>           | <b>RU</b>                                                                             |
| <b>Errepide arruntak</b>       |  | <b>Aireportua</b>                 |  | <b>Ekobulebarra</b>                     |  | <b>Ekipamendua:</b>               |  |
| <b>Autobideak eta autobiak</b> |  |                                   |                                                                                     | <b>Herrigune historikoa</b>             |  |                                   |                                                                                       |
| <b>Trenbide-sarea</b>          |  | <b>Mugikortasun jasangarria</b>   |                                                                                     | <b>Hirigunea</b>                        |  | <b>Azpiegitura Berdea</b>         |                                                                                       |
| <b>Aldiriko geltokia</b>       |  | <b>Donejakue bidea</b>            |  | <b>Parke Logistikoa</b>                 |  | <b>Naturagune Babestuen Sarea</b> |  |
| <b>AHTaren trazadura</b>       |  | <b>Oinezkoentzako ibilbideak</b>  |  | <b>Teknologia-parkea</b>                |  | <b>Korridore ekologikoak</b>      |  |
| <b>Merkataritza-portua</b>     |  | <b>Bizikleta-ibilbideak</b>       |  | <b>Unibertsitatea</b>                   |  | <b>Ibaiak</b>                     |  |

*Iturria: guk eginikoa.*





### **g) *Laudioko Eremu Funtzionala. Nerbioi Garaiko Eraldaketa Ardatza***

g.1. Eraldaketa Ardatz hau Nerbioi Garaian zeharreko korridorean dago garatuta, Laudio, Aiara (Luiaondo), Amurrio eta Urduña udalerrietan. Bilboko metropolitik hurbil eta mugan egotea eta tamaina demografiko eta funtzional txikiko hirigunea izatea ditu elementu bereziak. Hazkunde-potentzial handia du oraindik, batez ere Amurrio eta Urduñan.

g.2. Laudio eta Urduñaren artean kokatutako Nerbioi Garaiko haranak Bilbon sortutako aldaketa-prozesuen hedapenerako berezko ardatz naturala eratzen du. Ardatzak Nerbioi ibaia hartzen du oinarritzat natura-argumentu gisa, LPParen proposamenaren arabera ardatz osoa ingurumen-ikuspegitik artikulatzen duen parke lineal handi bat eratuz. Azpiegitura-oinarri sendo batean ere oinarritzen da, ekobulebar gisa eratutako A-625 errepidean eta Bilbo-Urduña aldiriko trenbidean bermatuta.

Jada garatzen ari den Nerbioi ibaiaren Parke Lineala aukera handiak sortzen ari da, eta baliatu egin beharko lirateke. Lurralde-mailako azpiegitura berdearen adibide pilotua da, hiri-inguruko parke bat; konektagarritasun ekologikoko eta ingurumena berreskuratzeko funtzioak betetzen ditu, eta herritarrak ibaira eta inguruko guneetara hurbiltzeaz gain, herriguneak elkarren artean ere hurbiltzen ditu, modu jasangarrian, aukerak biderkatuta.

g.3. Garapen-fase berri batean lehiatzeko gai izango den gune berri bat eratzeko ezinbestekotzat jotzen dira metropoliaren berrrokatzea eta hedapena. Hiri-korridore hau ardatz teknopolitano gisa artikulatzea proposatzen da. Gune bakoitzak bere ezaugarri espezifikoaren arabera berezitasun-elementuak jarriko lituzke.

g.4. Lehentasunezkoak dira Laudioko hiri-berrikuntzako ekintzak, bere irudiaren kalitatea hobetu eta bere zuzkidura-eskaintza eta hirugarren sektoreko jardueren eskaintza indartuko dutenak. Amurrio, bestalde, hazkunde berriak hartzeko ahalmena duen eremua da eta birgaitzeko eta garapen jasangarriko potentzial handia du bere hiri-bilbea trinkotu eta antolatuko duten eta Urduñako hiri- eta ingurumen-erakargarritasunak aprobetxatuko dituzten ekimenen bitartez. Horrela, bizitzeko, aisia- eta turismo-jardueretarako eta ekonomia berriko enpresentzako oso erakargarria izango den hiri ekologikoa eratuko da.


g.5. g.5.- Urbanizaziotik babestuko dira eraikuntza-erabilerarik gabeko esparruak.

g.6. g.6.- Eremu Funtzionalaren turismo-potentzialtasunak garatuko dira.





## NERBIOI GARAIKO ERALDAKUNTZA-ARDATZA



### LEGENDA

#### Harreman-sistema

- Errepide arruntak
- Autobideak eta autobiak
- Trenbide-sarea
- Tren-geltokia
- AHTaren trazadura
- Merkataritza-portua
- Kirol- eta arrantza-portua
- Aireportua

#### Mugikortasun iraunkorra

- Donejakue bidea
- Oinezkoentzako ibilbideak
- Bizikleta-ibilbideak

#### Hiri- eta landa-birkualifikazioa

- Ekobulebarra
- Herrigune historikoa
- Hirigunea
- Parke Logistikoa
- Teknologia-parkea
- Unibertsitatea
- Hiri-berrikuntza
- Ekipamenduak

#### Azpiegitura Berdea

- Naturagune Babestuen Sarea
- Korridore ekologikoak
- Ibaiak

Nerbioiko Parke Lineala



Iturria: guk eginikoa



## ***h) Igorreko Eremu Funtzionala. Arratiako Eraldaketa Ardatza***

h.1. Igorreko Eremu Funtzionala Arratiako haranaren sakonean egituratzen da, argi eta garbi, eta natura-aberastasun handia du: bi parte naturalek –Urkiola eta Gorbeia– zehazten dute eremuaren ingurune fisikoa, eta haien berezitasunari eutsi eta indartu ere egin behar da, beste eremu funtzional batzuen aldean. Dena dela, berezitasun horiek ez dute beste potentzialtasun batzuekin talka egiten, baina horiek abiarazteko garaian arreta handiz jokatu behar da, eremu funtzionalaren funtsezko ezaugarriak ez aldarazteko.


h.2. Igorreko eremua Bilboko metropolitik etorritako hazkunde berriak hartzeko gunea da. Horregatik, Eraldaketa Ardatza datozen urteetan eremuaren garapen jasangarria antolatzeke erreferentziazko egitura gisa planteatzen da kasu honetan.

h.3. Arratia ibaiaren ibilgua eta bere ingurunea babestuko dira eremua ingurumen-ikuspegitik egituratzen duen, uholde-arrisku handieneko eremuak babesten dituen eta paisaia-ardatza eta naturarekiko harreman-ardatza eskaintzen dituen korridore ekologiko gisa.

h.4. Lehenetasuna emango zaio udalburuetako zentraltasun-elementuak indartzeari. N-240 errepidea ekobulebar moduan eratuko da pixkanaka-pixkanaka, balio handiko espazio batean etorkizuneko garapenak artikulatzeko funtsezkoak diren garraio kolektiboko sistemen euskarri izateko.

h.5. Urbanizaziotik babestuko dira eraikuntza-erabilerarik gabeko esparruak.







### ***i) Durangoko Eremu Funtzionala. Ibaizabalgo Eraldaketa Ardatza***

i.1. Zornotza-Durango-Zaldibar ardatzean zehar eratzen ari den hiri-eremuak eratzen du Bilbo eta Donostia artean dagoen hiri-korridore nagusia. Gako-eremua da bi hiriburuen artean gero eta harreman handiagoa izateko. Erlazio-irisgarritasunaren azterketek adierazten dute AP-8 errepidearen inguruan antolatutako eremu horretako hiriguneak EAE osoko gainerako lurraldeekin ongien lotuta dauden eremuak direla.

i.2. Eraldaketa Ardatzak eremu honetan ageri diren gutxi egituratutako garapenak artikulatzeko elementu bat emango du, eta biztanleak eta eskualde- eta metropoli-mailako funtzio berriak erakartzeko aukera eskainiko du.


i.3. N-634 errepidea Zornotzatik Zaldibarreraino ekobulebar bihurtzeak udalerri horietako garapenak egituratzeko eta Durango-Zornotza udalburua eratzeke elementua emango du, maila garrantzitsukoa. Antzeko ezaugarriak ditu Durango-Elorrio bide-ardatzak ere.

i.4. Ibaizabal ibaiaren ibilguak hirigune horren korridore ekologiko moduan jokatu behar du eta uholde-arriskua duten eremuak hiri-garapenetik babestu behar ditu. Halaber, Urdaibai eta Urkiola arteko konektagarritasun ekologikoa bermatu behar da.

i.5. Eibarko eremu funtzionala eta Gernika-Lumo - Bermeo ardatza Bilborekin lotzen dituen Euskotren lineari dagokionez, hiri-garapeneko prozesuak bideratzeko eta trinkotzeko eta Durango eta Zornotzako geltokien inguruan lurralde-zentratutasuneko guneak sortzeko garrantzi ikaragarria duen garraio kolektiboko euskarria eskaintzen du.

i.6. N-634 errepidearen inguruko erdiko korridoreak hirigintza-okupazio altua duenez, eremu horren iragazkortasuna mantentzeko funtsezkoa da oraindik eraiki gabe dauden eremuak hirigintza-jarduketa berrietatik babestea.







## **j) Gernika-Markinako Eremu Funtzionala**

j.1. Gune hau bere ingurumen- eta paisaia-bikaintasunagatik nabarmentzen da, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren presentziarekin eta itsasertzeko paisaia eta landa-paisaia baliotsuekin.

j.2. Ingurumeneko aktibo horiek babestea da eremu funtzionalaren norabide estrategiko nagusia, lurraldearen kalitate-mailaren eta erakargarritasun-mailaren elementu bereizlea den heinean.

j.3. Proposatutako estrategia honako hauetan oinarritzen da: bere interkonexioak hobetzea, hiri nagusiak eta bigarren mailakoak indartzea inguruneke eremuen eskaerak asetzeko ahalmena duten zerbitzu-zentro gisa, eta paisaiaren eta ingurumenaren kudeaketa aktiboa egitea, garapenerako gako-elementu gisa.

j.4. Bermeo-Gernika-Zornotza trenbidea da eremu horretako garraio-sistemaren ardatz nagusia. Bermeo eta Gernikako geltokiak eskualdeko intermodalitate- eta zentraltasun-elementu gisa egituratzea eremuaren konektagarritasuna, eremu mugakideekiko harremanak eta bi hirien zentraltasuna indartzeko aukera gisa ulertu behar da.


j.5. Iparraldean, Bermeo eta Bilboren arteko lotura sendotu behar da, Mungian zehar, kostaldea eta A-8 errepidearen arteko espazioak artikulatzen dituen Plentzia-Tolosa ardatzaren barruan. Hegoaldean, Gernika-Lumo eta Durangoko eremu funtzionalaren artekoa eta Markina Durangorekin eta Debarrenarekin lotzen dituen dira funtsezko konexioak. Bermeoko ingurabide-saihesbide berriak udalerri horretako hiri-espazioa hobetu behar du, egun dagoen igarobideko trafiko guztia horra bideratzen baita.

j.6. Itsasertzean, Bermeo eta Lekeitio hirigune oso garrantzitsuak dira garapen jasangarriko estrategia bat sustatzeko. Haien portuguneak eta hirigune historikoak ekonomia berriko jardueretarako oso garrantzitsuak diren erakarpenak dituzten eremuak dira, eta hirugarren sektoreko zerbitzu-eskaintza sendotzeak kostaldeko bigarren etxebizitza asko etxebizitza nagusi bihurtzen lagunduko du.

j.7. Funtsezkoa da udalerri horietan izaten diren hazkundeak gaur egungo hiriguneen morfologia- eta egitura-ezaugarriekin eta inguruneke paisaiarekin bat eginda gauzatzea. Horretarako, hirigintza- eta arkitektura-tipologia egokiak erabili behar dira eta dagoen arkitektura tradizionalako eraikitako ondare ugariaren birgaitze-prozesuetan ahalegin berezia egingo da.



BERMEO-AMOREBIETA-MARKINA ERALDAKUNTZA-ARDATZA



LEGENDA

Harreman-sistema  
Errepide arruntak  
Autobideak eta autobiak  
Trenbide-sarea  
Tren-geltokia  
AHTaren trazadura  
Merkataritza-portua  
Kirol- eta arrantza-portua  
Aireportua  
  
Hiri- eta landa-birkualifikazioa  
Ekobulebarra  
Herrigune historikoa  
Hirigunea  
Parke Logistiko  
Teknologia-parkea  
Unibertsitatea  
Hiri-berrikuntza  
Ekipamendua



Mugikortasun iraunkorra

Donejakue bidea  
Oinezkoentzako ibilbideak  
Bizikleta-ibilbideak

Azpiegitura Berdea

Naturagune Babestuen Sarea  
Korridore ekologikoak  
Ibaiak



Iturria: guk eginikoa



### **k) Mungiako Eremu Funtzionala. Mungia-Derio Eraldaketa Ardatza**

k.1. Mungiako eremu funtzionalak izan du azken hamarkadako dinamismo handienetarikoa. Hala ere, eremuaren hazkunde-ereduaren ezaugarri nagusia, eraikitako guneen dentsitate txikia izan da, batetik, eta gunen tradizioaletan gutxi integratutako urbanizazioak ugaritzea, bestetik.

k.2. Eremu horretan ezinbestekoa da hiri-garapenetan jasagarritasun-estrategia ezartzea, batez ere, lurzoruaren erabilgarritasun handia kontuan hartuta; izan ere, lurzoru kontu handiz erabili beharreko aktibo oso baliotsua baita. Horretarako, honako hauek izango dira hirigintza-jarduketan xedeak:

k.2.1. Finkatuta dauden eremuak indartzea, hazkunde ahalbidetuz, erabilera-aniztasuna, garraio kolektiboaren nagusitasuna eta hirigunearen kalitatea irizpide direla, dagoen hiri-bilbea berregituratuz eta, berritze- eta trinkotze-eragiketen bidez, hazkunde berriak jada okupatuta dauden gunetara bideratuz.

k.2.2. Gune tradizioaletan zentraltasun-eremu berriak garatzea, eremu zentralen gaineko presioa murriztu eta herritar guztientzat bizitegi-, enplegu-, kultura-, ekipamendu-, aisia- eta kirol-aukeren eskaintza-aniztasuna areagotuko duten eremuak hain zuzen ere. Gune horiek erakargarritasun handiko elementuak dituzte eta nortasun- eta kontzentrazio-enklabeak dira urbanizazio lausoa nagusi den eremuan. Horietako batzuek hainbat arazo dituzte, esaterako, morfologia- eta egitura-arazoak edo bateragarritasun txikiko erabilera-nahasketa. Berritze-programak garatzea, nortasun-ezaugarriak sendotzea eta hiri-irudia hobetzea iradokitzen da.


k.2.3. Hazkunde berriak erdigune tradizioaletara bideratuko dira, Mungia inguruko gaur egungo garapena osatuz.

k.3. Garapen-eremu nagusi gisa, Derio-Mungia errepidea ekobulebar bihurtzea proposatzen da. Horren inguruan artikulatuko lirateke hazkunde nagusiak eta etorkizuneko Txorierriko Berrikuntza Nodoarekin lotuko duen Eraldaketa Ardatza sortuko litzateke.

k.4. Ekobulebar horretan barrena garraio kolektiboko ardatz egituratzaille bat garatzea garrantzitsutzat jotzen da, eta etorkizunean baldintza egokiak betez gero, aldiriko tren-zerbitzuak txerta daitezke bertan. Mungiako garraio kolektiboko sistemetakoko sarbide-puntua aldageltoki modaltzat eta zentraltasun-areatzat hartu behar da eremu funtzional osorako. Epe luzeagoan, horren antzeko estrategia gara liteke Mungia-Sopela ardatzean ere.



## MUNGIA-DERIO ERALDAKUNTZA-ARDATZA



### LEGENDA

Harreman-sistema  
Errepide arruntak  
Autobideak eta autobiak  
Trenbide-sarea  
Tren-geltokia  
AHTaren trazadura  
Merkataritza-portua  
Kirol- eta arrantza-portua  
Aireportua  
Hiri- eta landa-birkualifikazioa  
Ekobulebarra  
Herrigune historikoa  
Hirigunea  
Parke Logistikoa  
Zamudioko Teknologia Parkea  
Unibertsitatea  
Hiri-berrikuntza  
Ekipamenduak



Mugikortasun iraunkorra  
Donejakue bidea  
Oinezkoentzako ibilbideak  
Bizikleta-ibilbideak

Azpiegitura Berdea  
Naturagune Babestuen Sarea  
Korridore ekologikoak  
Ibaiak



Iturria: guk eginikoa





## ***l) Araba Erdialdeko Eremu Funtzionala. Arabako Lautadako Eraldaketa Ardatza***

I.1. Arabako Lautadak Araba Erdialdeko eremu funtzionalaren zatirik handiena hartzen du. Eremu horretan, Vitoria-Gasteiz da elementu nagusia.

Arabako Lautadako bizitegi-, industria- eta logistika-erabileretarako hazkunde-aukerak lurralde horretako paisaiaren eta asentamendu-sistema tradizionalaren ezaugarriak kontuan hartuta aprobe txatu behar dira. Ikusmenarekin zerikusia duten zenbait balio funtsezkoak dira eremu horretan, esaterako, ikuspegi-zabaltasuna, nekazaritza-paisaiak, asentamenduen nukleo anitzeko sistema eta nukleo bakoitzaren nortasuna, horien hiri-ertz zehaztuak, eta nukleoaren eta paisaiaren arteko harremana babestea.

I.2. Nukleo tradizional horien garapen oso integratuarekin batera, ardatz linealen garapena proposatzen da Vitoria-Gasteiztik ekialdera eta mendebaldera, LPPak eta Vitoria-Gasteizko hazkundeak berak proposatutako Berrikuntza Arkuaren luzapen gisa.

I.3. Lautadako Eraldaketa Ardatza Langraiz-Iruña Okaraino garatuko litzateke mendebaldetik eta Aguraineraino ekialdetik, trenbidearen ardatzari jarraituz eta hainbat herri barne hartuta, esaterako, Burgelu eta Alegría-Dulantzi. Azken bi hamarkadetan eremu horretan hazkunderik handienak izan dituzten herrien artean daude bi horiek. Aurreko guztiaz gain, ardatz honen eragin-eremua Armiñóndik Araiaraino luzatzeko aukera aztertu beharko litzateke, batik bat, mugikortasunari eta ibilbide bigunei dagokienez.

I.4. Garraio kolektiboko sistema baten inguruan korridore garrantzitsu bat artikulatzean datza, aldiriko, ibilbide luzeko eta salgaietarako zerbitzuei oinarri emango liekeena. Gainera, hainbat herriren maila indartu, paisaiaren hobekuntzarako eta espazio libreak egokitzeko elementuak txertatu eta eremu horretan agertzen diren urbanizazio lausoko arriskuak mugatuko lituzke. Eraikuntza-jarduketak lehendik dauden asentamenduetan pilatu behar dira, eta jada hiri-lurzorua den lurzorua okupazio puntualak baino ez lituzkete eragin behar, kalifikatutako lurzorua hedadura handiagoak saihestuta.

I.5. Ardatza Arabako Lautadaren erdigunean dago eta paisaian txertatutako bizitegi-eremuak, ekipamenduak, ekoizpeneak eta eskualde-bokazioko gune logistikoak (Jundizko Geltoki Intermodala, kasu) kokatzeko aukera eskaintzeaz gain, EAEko hirigune handietan, Ebroko ardatzean, nahiz penintsulako iparraldeko eta Frantziako hego-mendebaldeko zonetan proiektu daiteke.

I.6. Eraldaketa Ardatz horrek modu espezifikoan diseinatuko du, Berrikuntza Nodo gisa, Unibertsitatearen aldamenean sortzen den Vitoria-Gasteizko erdigunea. Horren antzera, hiriaren azpiegitura berdeari bereziki erreparatu behar zaio, baita eremuaren natura-ondarearekiko harremanari ere.


I.7. Ardatz horren bitartez, Lautada inguratzen duten espazio naturalen arteko konektagarritasun ekologikoa ere bermatuko da, eta barnealdeko espazio natural garrantzitsuekin (Salburua, irla-hariztiak, ibai-ibilguak, eta abar) ere bai. Testuinguruan, Vitoria-Gasteizen Eratzun Berdeak (tokiko azpiegitura berdean sartzen da) eta horren luzapenean garrantzi berezia hartzen dute, eremuko espazio urbanizatuenean jarraitutasun ekologiko hori bermatzeko "errotula" diren aldetik.





I.8. Eraldaketa Ardatz honi esker, garraio publikoaren bitartez Arabako Mendiak eta Haranak uztartzen dituzten hainbat ibilbide konekta daitezke, zuzenean, edo beste ibilbide bigun batzuen bidez; Araba Erdialdeko LPPan proposatu ziren horietako asko.

## ARABAKO LAUTADAKO ERALDAKUNTZA-ARDATZA



|                              |                                 |                                         |                            |
|------------------------------|---------------------------------|-----------------------------------------|----------------------------|
| <b>Harreman-sistema</b>      | Kirol- eta arrantza-portua      | <b>Hiri- eta landa-birkualifikazioa</b> | Hiri-berrikuntza           |
| Errepide arruntak            | Forondako aireportua            | Ekobulebarra                            | Ekipamendua:               |
| Autobideak eta autobiak      |                                 | Herrigune historikoa                    | Berrikuntzaren Arkua       |
| Trenbide-sarea               | <b>Mugikortasun jasangarria</b> | Hirigunea                               | <b>Azpiegitura Berdea</b>  |
| Aldiriko geltokia / AHT      | Donejakue bidea                 | Jundizko Parke Logistikoa               | Naturagune Babestuen Sarea |
| AHTaren trazadura            | Oinezkoentzako ibilbideak       | Miñaoko Teknologia Parkea               | Korridore ekologikoak      |
| Merkataritza-portua          | Bizikleta-ibilbideak            | Unibertsitatea                          | Ibaiak                     |
| <b>Iturria: guk eginikoa</b> |                                 |                                         |                            |





### **m) Laguardiako Eremu Funtzionala**

m.1. LPPak proposatutako estrategia, Laguardiaren zentraltasuna indartzean, paisaia eta nukleoak izaera eskualdearen garapenerako oinarritzeko elementu gisa babestean eta Logroñotik hurbil dagoen Oion eremuan ekonomia-jarduerak sustatzean oinarritzen da. Eremuaren dinamismo berriari eusteko funtsezko orientabideak dira horiek guztiak.

m.2. Laguardian barrena, Vitoria-Gasteiz eta Logroño arteko lotura zuzena, LAGek proposatutakoa, konexio garrantzitsua da eremuarentzat.


m.3. Eremuko ekonomia-jarduera tradizionalak, lurraldearen berezitasuna eta potentziala adierazten dutenak, ardoaren inguruan bikaintasun-eragiketak sortzeko aprobetxatu behar dira eta, aldi berean, industria berrelikatu behar da eta balio erantsia sortu behar zaio produktuari. Dibertsifikazio hori enologia-ikerketako jardueretara, ardoaren kultura sustatzeko jardueretara eta hain paisaia bereziak eta hain egitura erakargarriak eskaintzen dituen aisia jasangarriko aukeren garapenera bideratu behar da. Modu horretan, ekintzak osatzen dira eta lurraldeko arkitektura-, hiri-, natura-, arkeologia- eta etnografia-arloko erakarpinak aprobetxatzen dira, kalitatea eta paisaiarekiko errespetua kontuan hartuta. Horri dagokionez, LPPak proposatutako Ekialde-Mendebalde ardatza nukleoaren arteko lotura-ibilbidetzat hartu behar da, bai eta eremuaren paisaia-bikaintasuna agerian uzten duten eta indartzen duten beste ibilbide bigun batzuekin konektatzeko ibilbidetzat ere.

m.4. Arabako Errioxa Paisaia Kulturala izendatu zuten 2014an, eta izendapen horrek eremuaren kalitate gorena eta berezitasuna nabarmenarazi ditu.

m.5. Ardoaren kulturarekin lotuta, upategiak funtsezko elementu dira lurraldean, dimentsio bikoitzean: paisaiaren oinarri den ekonomikoan elementu ikusgai dira, eta aldi berean, paisaian inpaktua eragiten dute; eta hori tratatu egin behar da. Horregatik, upategiak ezartzean elementu horien garrantziarekin bat datorren sentsibilitatea izan behar da, eta ingurunearekin integratu behar dira bolumenari, testurari, koloreari, eta abarri dagokienez.



## ARABAKO ERRIOKA



|                                |                                   |                                         |                                   |  |
|--------------------------------|-----------------------------------|-----------------------------------------|-----------------------------------|--|
| <b>Harreman-sistema</b>        | <b>Kirol- eta arrantza-portua</b> | <b>Hiri- eta landa-birkualifikazioa</b> | <b>Hiri-berrikuntza</b>           |  |
| <b>Errepide arruntak</b>       | <b>Aireportua</b>                 | <b>Ekobulebarra</b>                     | <b>Ekipamenduak</b>               |  |
| <b>Autobideak eta autobiak</b> | <b>Mugikortasun jasangarria</b>   | <b>Herrigune historikoa</b>             | <b>Azpiegitura Berdea</b>         |  |
| <b>Trenbide-sarea</b>          | <b>Donejakue bidea</b>            | <b>Hirigunea</b>                        | <b>Naturagune Babestuen Sarea</b> |  |
| <b>Tren-geltokia</b>           | <b>Oinezkoentzako ibilbideak</b>  | <b>Parke Logistikoa</b>                 | <b>Korridore ekologikoak</b>      |  |
| <b>AHTaren trazadura</b>       | <b>Bizikleta-ibilbideak</b>       | <b>Teknologia-parkea</b>                | <b>Ibaiak</b>                     |  |
| <b>Merkataritza-portua</b>     |                                   | <b>Unibertsitatea</b>                   |                                   |  |

*Iturria: guk eginikoa*



## 8.5. BIZITEGI KOPURUA

***LAGetan bizilekuen kuantifikazioa egiteko irizpideen ekarpena positiboa izan dela abiapuntu hartuta, doikuntzaren ildoan aurrera egin beharra dago eta, horretarako, harrotzeak murriztu behar dira, hiri-ingurunearen bizitegi-ahalmenaren tratamendua garapen berrietatik bereizi behar da, eta etxebizitza hutsak kargan sarrarazi behar dira.***



## I EGOERA

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan udalerrietako plangintzaren bizitegi-kuantifikazioari buruzko irizpideak eskaintzen dira, eta dagozkien eremu funtzioaletan aplikatu beharreko Lurralde-plan Partzialetarako erreferentzia-esparru izan daitezke. Lurralde-plan Partzialen bidez garatu beharreko eta udal-plangintzan zehaztu beharreko bizitegi-kuantifikazioari buruzko irizpideak finkatuta egotearen ondorioz, urte hauetan guztietan onartu diren hirigintza-plangintzetan bizitegietarako lurzoruen ahalmena egokia izan da. Alabaina, bizitegi-kuantifikazio hori aldatzeko garaia iritsi da, gaur egungo egoerara egokitzearren. Gorabeherak izan dira demografian, familien tamaina aldatu egin da, etxebizitza-parkea eta etxebizitzaren erabilera ere aldatu egin dira, eta lurzoruen artifizializazioa ere gertatu da; faktore horien guztien ondorioz jazotako aldaketak direla-eta, Gidalerroak egoera berrira egokitu behar dira bizitegi-kuantifikazioari dagokionez.

Horretaz gain, lurralde-jasangarritasunaren egungo egoeran, eraikitako hirian egindako jarduna gero eta garrantzitsuagoa da birgaitzeko, berroneratzeko, berrikuntzako edo birdentsifikatzeko eragiketei esker; horrela, bada, hutsik dauden etxebizitzak ere aintzat hartu behar dira bizitegi-kuantifikazioan, kargan jartzearen eta hirigintza-plangintzan balioestearren. Aldi berean, indarrean dauden Lurralde Antolamendurako Gidalerroetan proposatutako harrotze-koefizienteak –etxebizitza-premia lurzoruen eskaintza bihurtzen zuten koefizienteak– gutxitu egin behar dira. Ildo beretik, gai horretan erantzun eguneratua emateko irizpideak xedatzea premiazkoa izaki, berrikuspenarekin batera Gidalerroen aldaketa puntual bat izapidetu da, gai



zehatz horri buruz. Nolanahi ere, Lurralde Antolamendurako Gidalerroak berrikusteko prozesu honetan ere aztertuko dugu.

## II HELBURUAK

Bizitegi-kuantifikazioaren eremuan, lurralde-eredua berrikusteko honako helburu hauek proposatzen dira:

1. Lurzoruaren artifizializazioa mugatzea bizitegi-erabilerarako baldin bada, zentzuz erabiltzeko eta jasangarritasuneko irizpideei jarraiki.
2. Hirigintza-plangintza berrikustean bizitegi-ahalmena eta bizitegi-premiak kalkulatzeko aukera ematea udalerriei.

## III LURRALDE-ORIENTABIDEAK

Zehazkiago, indarreko LAGetan bizitegi-kuantifikazioari esleitzen zaion edukia haztatutzat hartzen dela esan behar dugu; izan ere, horren ondorioz, bizitegi-ahalmen egokituko proposamena duen plangintza onartu baita, eta azken urteotako hirigintza-egoerari zuzen erantzun dio. Ildo beretik, bizitegi-kuantifikazioari buruzko Gidalerroen Aldaketak gaiari eman dion tratamenduari ere egoki deritzogu.

Bizitegi-kuantifikazioaren eremuan, lurralde-eredua berrikusteko honako lurralde-orientabide hauek proposatzen dira:

1. Udalerrriaren bizitegi-ahalmena finkatzea lehendik dagoen etxebizitza-premiaren osagaiak batuta, eta emaitzari harrotzeko edo maiorazioko koefizientea aplikatuta.
2. Plangintzak bete behar dituen etxebizitza-premiak zehaztea honako hauek aintzat hartuta: bilakaera demografiko gorakorra, familia-tasaren bilakaera edo bigarren etxebizitza; eta premia horiei maiorazio edo harrotze bat aplikatzea.
3. Bizitegi-kuantifikazioari udalerrian hutsik dauden etxebizitzak gehitzea, plangintzak sustatu beharreko bizitegi-ahalmenerako funtsezko faktore diren aldetik.
4. Gehieneko eta gutxieneko bizitegi-ahalmenaren tarte ezartzea, udal-plangintzak aurreikuspena egin ahal izateko.
5. Finkatutako hiriari edo garapen berriei tratamendu desberdina ematea bizitegi-kuantifikazioari dagokionez; hau da, hiri-lurzorua birgaitzeko, berroneratzeko edo birdentsifikatzeko eragiketak onartzea kuantifikazio-irizpideen ondoriozko bizitegi-ahalmena gaitututa.





## **IV LURRALDE-ORIENTABIDEAK LURRALDE- ETA HIRIGINTZA-PLANGINTZARAKO.**

### **a) Bizitegiak kuantifikatzeko prozedura**

1. Plangintzaren bizitegi-kuantifikazioa ezartzeko prozedura 3. eranskinean jasota dago (jarraian aurkeztuko dugu).
2. Eranskin horretan deskribatutako metodologia aplikatu beharko da Lurralde-plan partzialak egokitzean, baita udaletako hirigintza-plangintzak berrikusi eta aldatzean ere, eta eranskinean bildutako balioak argigarriak baino ez dira.
3. Bizitegi-kuantifikazioa kalkulatzeko, Plangintza-berrikuspenaren aurrerapena azaltzeko akordioaren aurreko urteko datuetan eta estatistika ofizialean oinarritu behar da.

### **b) Bizitegi-premiak**

Bizitegi-premiak kuantifikatzeko, honako magnitude hauen batuketa behar da:

1. Etxebizitza nagusiaren premiak, bizi den biztanleria edo familiaren tamaina aldatzeagatik.
2. Bigarren etxebizitzaren eskaera.
3. Etxebizitza hutsen aurreikuspena okupatutako etxebizitzak aldatzeagatik.
4. Lurralde-ereduaren zuzenketak, Lurralde-plan partzialean ezarritakoak.

### **c) Harrotze-faktorea**

1. Harrotze-faktorea zera da, premien zifra plangintzan kalifikatutako lurzoruaren gehieneko bizitegi-ahalmen bihurtzen duen indizea, betiere premia horiek beteko direla bermatzearen.
2. Harrotze-faktorea 2,2tik 3,0ra bitarte izango da, eta udalerriak biztanle kopuruaren arabera sailkatzen diren bost mailen arabera (eranskinean zehaztuta daude) aplikatuko da.

### **d) Hutsik dauden etxebizitzak**

1. Bizitegi-kuantifikazioari dagokionez, bizitegitarako parkean dauden etxebizitzaren guztizkoaren % 2, gutxienez, izango da hutsik dauden etxebizitzaren balioa.
2. Hutsik dauden etxebizitza guztien % 50 bizitegi-kuantifikazioan sartzea gomendatzen da, betiere etxebizitza mota horren ehuneko teknika -eranskinean zehaztutakoa- kendu ostean.

### **e) Bizitegi-kuantifikazioa hirigintza-plangintzan**

1. Plangintza orokorrean aurreikusitako hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizagarriaren bizitegi-ahalmena irizpide horiek aplikatzearen ondorioz sortzen den balio-tartearen barruan egongo da. Bizitegi-ahalmenaren gehieneko balioa, oro har, ateratzeko,



bizitegi-premiak kalkulatu behar dira, harrotze-faktorea aplikatu eta hutsik dauden etxebizitzaren kontzeptupean ehuneko jakin bat kendu ondoren; gutxieneko balioa, aldiz, gehieneko balioari % 50 aplikatuta ezartzen da.

2. Aurreko puntuan aipatu dugun arau orokorrak baditu bi salbuespen, bizitegi-ahalmenaren gehieneko balioa ezartzeari dagokionez:
  - Udalerrri guztien kasuan, bizitegi-ahalmenak ezin izango du gainditu hirigintza-plangintza onartzen denean dagoen etxebizitza-parkearen % 50.
  - Edozein udalerrri hasierako etxebizitza-parkearen % 10eko bizitegi-ahalmena proposatu ahal izango du. Era berean, gutxienez 20 etxebizitzako gutxieneko ahalmena finkatu da, baina dagokion Lurralde-plan partzialaren bitartez zifra hori aldatu ahal izango da.
3. Honako hauek ez dira zenbatuko bizitegi-ahalmenaren gehikuntza moduan:
  - Etxebizitza kopuruaren gehikuntza eta/edo hornidura-jardunetako hirigintza-erakigarritasunaren gehikuntza, eraiki gabeko lursailetan edo "antolamenduz kanpoko" izendatutako eraikinak dituzten lursailetan egiten direnak izan ezik.
  - Lurzoru urbanizaezinean kokatutako etxebizitzak zatitzea.
  - Aurreikusita dauden eta oraindik eraiki gabe dauden eraikinak, lizentzia badutenak.
  - Birgaitze-eragiketetatik edo merkataritza-lokalen erabilera aldatzeagatik sortzen diren etxebizitzak.
4. Aukeran, landaguneen ahalmena sartu ahal izango da bizitegi-kuantifikazioan.
5. Etxebizitza kopurua eraikigarritasun bihurtzeko prozesua Dekretu honetako eranskinean xedatzen denari jarraiki burutuko da.

**f) Bizitegi-kuantifikazioa udaletako hirigintza-plangintzan**

1. Lurralde-plan partzialetan, eremu funtzionalean sartzen diren udalerrietako bakoitzari dagokion bizitegitarako lurzoruaren eskaintza kuantifikatu beharko da eta, zehazki, lurralde-ereduaren osagaia.
2. Behin betiko onartutako Lurralde-plan partzialek gehienez ere sei urteko epea izango dute bizitegi-kuantifikazio horren arabera egokitzeko.

**g) Bizitegi-kuantifikazioa udaletako hirigintza-plangintzan**

1. Lurralde-plan partzialak bizitegi-kuantifikazio honen arabera egokitu arte, udal-plangintzan honako hau hartuko da gehieneko bizitegi-ahalmentzat: indarrean dagoen lurralde-plan partzialaren ondorioz eta aldaketa hau aplikatzearen ondorioz ateratzen diren gehieneko bi balioen arteko txikiena. Gutxieneko bizitegi-ahalmena, aldiz, aplikatu beharreko gehieneko bizitegi-ahalmenaren urkilari dagokiona izango da.



2. Onartutako plangintza egokitu arte, eta udal-plangintza berrikusteko prozesuetan – baldin eta indarreko plangintzaren bizitegi-ahalmena handiagoa bada aldaketa honetako irizpideak aplikatzearen ondoriozkoa baino–:
  - Ahalmen handiagoa errespetatu ahal izango da, baldin eta hiri-lurzorua birgaitzeko, berritzeko edo trinkotzeko eragiketen ondorio bada, baina indarreko plangintzaren ahalmena gainditu gabe betiere.
  - Lurzoru urbanizagarriari dagokionez, indarreko plangintzan jada onartuta dagoena errespetatu ahal izango da, betiere behar bezala justifikatzen bada hirigintza-garapenaren edo plangintza egikaritzearen arabera; dena den, kasu horretan ez da onartuko lurzoru urbanizaezina lurzoru urbanizagarri bihurtzeko birsailkapen gehiagorik.
  - Plangintza berrikusteko prozesuak espediente honetako irizpideen arabera egokitzearen ondorioz lurzoru urbanizagarriaren desklasifikazio garrantzitsua gertatzen bada, udalerrri horietan bizitegi-ahalmen handiagoa onartu ahal izango da, justifikatuta betiere, eta gehieneko muga kalkulatzeko, udalerriko biztanleriari eutsi egiten zaion hipotesia baliatu behar da (alegia, A1 osagaia zero dela). Irizpide horri dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak esanbidez balorazioa egin beharko du.
3. Bizitegi-ahalmena plangintza behin betiko onartu zenetik emandako lizentzien gainetik handituko duen aldaketarik ezin izango da sustatu, betiere hiri-berrikuntzako edo -trinkotzeko eragiketak salbuespen izanik.

#### ***h) Herrigune anitzeko edo kontzeju-egiturako udalerriak***

1. Herrigune anitz edo kontzeju-egitura duten udalerrietan, irizpide orokorren ondoriozko bizitegi-kuantifikazioaren zifra herrigune nagusiari aplikatuko zaio, baita bizitegi-garapenak planteatzen dituzten guneei ere.
2. Kontzeju-egitura duten udalerrietako gainerako guneeetan etxebizitza gehiago egin ahal izango dira, baina hazkundeak ez du izan behar lehendik dauden etxebizitzaren kopurua baino handiagoa.
3. Aukeran, kontzeju guztien bizitegi-ahalmena sartu ahal izango da kuantifikazioaren kalkulu orokorrean.
4. Landaguneei dagokienez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean xedaturikoari jarraituko zaio.



## 8.6. BIGARREN ETXEBIZITZA ETA BALIABIDE TURISTIKOAK

***EAEEn, bigarren etxebizitzaren fenomenoak oso mugatuta eta oso lokalizatuta dago, eta azken urteotan lehen etxebizitza bihurtzen ari dira. EAEEn, aniztasuna da baliabide turistikoaren ezaugarri, aniztasuna naturari eta kulturari dagokienez, eta garapen-eredu mugatua behar dute, lurralde-jasangarritasunaren izenean.***



### I EGOERA

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan aurreikusten zenez, turismoak eta bigarren etxebizitzak gero eta garrantzi handiagoa izango zuten EAEko ekonomiaren eta lurraldearen etorkizunean. Baina hazkunde horrek badu arrisku bat: EAEEn biztanle-dentsitatea oso handia dela, eta naturaz eta landa-inguruneaz gozatzeari garrantzi handia ematen zaiola. Garapen turistiko intentsiboak ondorio negatiboak eragin ditzake lurraldean; beraz, turismoaren antolamendua aztertzeko garaian, lurralde-antolamenduari lotutako diseinu globalaren ikuspegitik begiratuta egitea komeni da.

EAEko lurralde-elementuak, paisaia naturalak eta hiri-paisaiak askotarikoak izaki, ingurune erakargarrien aukera handia dago. Gure lurraldean ingurumena eta paisaia hobetu dira, eta erakargarri naturalei eta hiri-erakargarriei balioa eman zaie; hartara, baliabide turistiko bihurtu dira. Helburua zera da, lurralde-bikaintasuna Euskal Autonomia Erkidegoaren nortasun-ezaugarrietako bat izatea, bizi-kalitatearen funtsezko faktore eta jasangarritasun-estrategiaren oinarritzko osagai, lurralde erakargarri eta askotarikoa eratzeko askotariko zerbitzuen eskaintza duela, kalitatezko ingurumen-ingurunea duela eta hiri-espazio bereziak ere badituela.

#### a) Bigarren etxebizitza

Bigarren etxebizitzari dagokionez, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan bigarren etxebizitza eta etxebizitza horrekin lotutako jardura turistikoa aztertu ziren; azterketa horretan ateratako ondorioen arabera, EAEEn bi motako eskaintza turistikoa eta bigarren etxebizitzaren eskaintza bereiz daitezke, eta lurraldearen eremu banatan kokatzen dira:

---

Turismo Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila, 2014 martxoa, Euskal Turismoaren Plan Estrategikoa 2020 eta Ikerketa Proiektua: baliabide turistikoak antolatzekeo lurralde-plan sektorialak Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-politikan betetzen duen zeregina.



- Batik bat udaldiarekin lotutako turismoa eta bigarren etxebizitza, Autonomia Erkidegoaren barruko eta kanpoko eskariaren nahasketa aldakorra duela eta kalitate-maila garrantzitsua duela, funtsean kostaldearekin lotuta.
- Autonomia Erkidegoaren barruko eskariak garrantzi handia duen turismoa eta bigarren etxebizitza, batik bat Bizkaiko kostaldean eta Arabako Errioxako hainbat udalerritan kokatuta.

Hurrengo koadroan, EAEko etxebizitzaren hamar urterako datuak (EUSTAT) biltzen dira, lurralde historikoaren eta motaren arabera, eta bigarren etxebizitzak familia-etxebizitzari dagokienez osatzen duen ehunekoa ere jasota dago.

|      | <b>Etxebizitza mota</b>        | <b>CAPV</b> | <b>ARABA</b> | <b>BIZKAIA</b> | <b>GIPUZKOA</b> |
|------|--------------------------------|-------------|--------------|----------------|-----------------|
| 1991 | Etxebizitzak                   | 773.615     | 105.647      | 423.686        | 244.282         |
|      | Etxebizitza nagusiak           | 629.054     | 81.793       | 348.252        | 199.009         |
|      | Bigarren etxebizitzak          | 39.410      | 9.608        | 19.131         | 10.671          |
|      | <b>% bigarren etxebizitzak</b> | <b>5,1</b>  | <b>9,1</b>   | <b>4,5</b>     | <b>4,3</b>      |
| 2001 | Etxebizitzak                   | 877.855     | 122.310      | 464.254        | 291.291         |
|      | Etxebizitza nagusiak           | 747.491     | 102.470      | 399.833        | 245.188         |
|      | Bigarren etxebizitzak          | 41.219      | 9.515        | 18.603         | 13.101          |
|      | <b>% bigarren etxebizitzak</b> | <b>4,7</b>  | <b>7,8</b>   | <b>4</b>       | <b>4,5</b>      |
| 2011 | Etxebizitzak                   | 1.018.794   | 156.273      | 529.686        | 332.835         |
|      | Etxebizitza nagusiak           | 860.522     | 130.170      | 453.945        | 276.407         |
|      | Bigarren etxebizitzak          | 42.115      | 8.064        | 20.131         | 13.920          |
|      | <b>% bigarren etxebizitzak</b> | <b>4,1</b>  | <b>5,2</b>   | <b>3,8</b>     | <b>4,2</b>      |

Iturria: geuk egin, EUSTATen datuetan oinarrituta

Datuen arabera, bigarren etxebizitzaren kopurua jaisten ari da hiru lurralde historikoetan eta, bereziki, Araban. Bigarren etxebizitzaren fenomeno hiri-hazkundearekin lotuta dago, eta kasu askotan, bigarren etxebizitza hori ohiko etxebizitza bihurtzen da azkenean. Hori gertatu ohi da garraio-azpiegitura hobetzen denean, edo ekipamenduen maila hobetzen denean, edo besterik gabe, eremu horretan enpleguak gora egiten duenean. Zehazki, Bilboko metropolian, bigarren etxebizitza lehenengo etxebizitza bihurtzeko prozesu hori areagotu egin da, lurzoruaren prezioa garestitu egin delako, gainezka dauden eremu nagusietan pilaketak daudelako eta herritarrek, gero eta garrantzi handiagoa ematen diotenez naturarekin kontaktuan egoteari, dentsitate txikiagoko guneak nahiago dituztelako.

Bigarren etxebizitzak askotariko ezaugarriak ditu: Bizkaiko kostaldean dentsitate txikiko urbanizazioak izaten dira, edo Arabako Errioxaren kasuan, hiri-berrikuntzako prozesu batekin lotuta dago. Kasu horietan, eraikin berriak baino gehiago, giro erakargarria duten herriguneetan kokatutako eta berriro behar diren etxebizitza zaharrak dira nagusi eskarian.

### **b) Turismo sektorearen azpiegitura**

Turismo-sektorearen azpiegiturari dagokionez, honako ostatu mota hauetan oinarritzen da: hotelak, landa-ostatuak eta kanpinak. Azkenaldiko datuen arabera, EAEn 970 turismo-ostatu daude; horrek esan nahi du % 17ko igoera izan dela 2009ko datuekin alderatuz gero. Ostatu moten arabera, % 56,3 hotelak dira, % 41,3 landa-ostatuak eta gainerako % 2,4a kanpinak. Eskaintzan biltzen diren plaza guztien % 87 hotelei dagokie, eta gainerakoa landa-ostatuei (% 13,1).



## Hotelak

Lurraldeka, Gipuzkoan dago hotel gehien (% 45,6), baina Bizkaiak biltzen du plazen gehiengoak (% 47,8). 2009-2012 aldian hiru lurralde historikoetan igo da nabarmenki hotel-eskaintza. Badira, hala ere, zenbait desberdintasun lurraldeon jokaerari dagokionez. Bizkaiak, adibidez, plaza sortu-berrien % 53,6 biltzen du, baina Gipuzkoak hotel-establezimendu berrien % 57,8. 2009-2012 aldian asko igo da hotel-establezimenduen kopurua kostaldean eta hiriburuetan (% 55,6 eta % 45,8, hurrenez hurren).

**8. taula: Hotel-establezimenduak kategoriaren eta eremuaren arabera, 2012.**

|                           | Hiru izar eta gehiago |        | Izar bat eta bi, eta pentsioak |        | guztira    |        |
|---------------------------|-----------------------|--------|--------------------------------|--------|------------|--------|
|                           | Kop.                  | %      | Kop.                           | %      | Kop.       | %      |
| Vitoria-Gasteiz           | 12                    | % 10,4 | 25                             | % 6,2  | 44         | % 8,1  |
| Arabako Errioxa           | 3                     | % 2,6  | 12                             | % 3,0  | 16         | % 2,9  |
| Arabako gainerakoa        | 3                     | % 2,6  | 20                             | % 4,9  | 23         | % 4,2  |
| Bilbo                     | 23                    | % 20,0 | 47                             | % 11,6 | 70         | % 12,8 |
| Bilboko metropolialdea    | 10                    | % 8,7  | 20                             | % 4,9  | 30         | % 5,5  |
| Bizkaiko kostaldea        | 14                    | % 12,2 | 53                             | % 13,1 | 67         | % 12,3 |
| Bizkaiko barnealdea       | 4                     | % 3,5  | 39                             | % 9,6  | 47         | % 8,6  |
| Donostia                  | 18                    | % 15,7 | 94                             | % 23,2 | 112        | % 20,5 |
| Donostiako metropolialdea | 3                     | % 2,6  | 15                             | % 3,7  | 23         | % 4,2  |
| Gipuzkoako kostaldea      | 15                    | % 13,0 | 44                             | % 10,9 | 59         | % 10,8 |
| Gipuzkoako barnealdea     | 10                    | % 8,7  | 36                             | % 8,9  | 55         | % 10,1 |
| <b>Guztira</b>            | <b>115</b>            |        | <b>405</b>                     |        | <b>546</b> |        |

Iturria: geuk egina, EUSTATen datuetan oinarrituta.

## Landa-turismoko ostatuak

EAEko landa-turismoko ostatuei dagokionez, 2012. urtean 401 dira. 2009tik, kopuru horiek % 8,4 igo dira establezimendu kopuruari dagokionez eta % 12,1 plaza kopuruari dagokionez. Lurraldeen arabera, Gipuzkoan daude establezimendu gehienak (% 44,1). Gainera, lurralde horrek izan du bilakaerarik onena 2009-2012 aldian, plaza berrien ia erdia Gipuzkoan sortu baitira.

## Kanpinak

Azkenik, kanpinei dagokionez, 2012. urtean 23 kanpin daude. Lurraldeka, Bizkaian daude kanpinen eta eskainitako plazen % 61 eta % 62, hurrenez hurren. Nabarmendu behar da onerako bilakaera arin bat gertatu dela EAEn 2009-2012 aldian establezimendu mota horretan.

## EAEko lurraldearen potentzial turistikoak

Oro har, EAEko baliabide turistikoak askotarikoak eta elkarren osagarri dira. Beste zenbait helmuga turistikok produktu bakarra eskaintzen dute, baina EAEk baliabide erakargarri ugari ditu lurralde mugatu samar batean. Bestalde, ohitura turistikoak aldatu egin dira eta eskari turistikoaren joera berriak agertu dira merkatuan; hala nola, turismo berdea eta hiri-turismoa, negozio-aukera berriak izanik.





Lurraldeari buruzko baliabide turistikoak honako sailkapen honen arabera zehatz daitezke:

- Natura-baliabideak: Parke Naturalak eta Naturagune Babestuak izan daitezke. Parke naturalek sarea osatzen dute EAEn; lurraldean modu homogeneoan banatzen da sarea, eta irisgarria da.
- Itsasertza: EAEko kostaldeak 197 km ditu, eta % 90 labarrak dira; gainerakoa hondartzak eta formazio hareatsuak. Hondartzen ingurunean udaldiko turismo tradizionala garatu da, herrigune historikoekin eta kirol-portuekin ere lotuta. Urdaibaiko Biosferaren Erreserba nabarmendu behar dugu, itsasertzeko baliabideekin lotutako naturagune bereizia den aldetik.
- Hiriburuak: hiri-turismoa gero eta indar handiagoa hartzen ari da Europako turismo-fluxuetan, azken urteotan. Hiru hiriburuak produktu erakargarria osatzen dute, eta potentzial turistiko handi bihurtu dira.
- Herrigune historikoak: EAEko alde zaharrak (69) balio handiko potentzial turistikoa dira, kultura-ondarearekin lotuta. Herrigune historikoek kultura-turismoko eskaintza propioa eta berezia egiten dute.
- Monumentu-multzoak: Multzo historiko-monumental exentuak dira; besteak beste, Azpeitiko Loiolako San Inazio Basilika, edo Oñatiko Arantzazuko Santutegia aipa ditzakegu.
- Beste potentzial turistiko batzuk hainbat osagai batuta sortzen dira, hala nola, Arabako Errioxan mahastiaren paisaia, gastronomia eta ardoa uztartzen dira.

Ilido berari jarraiki, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan zenbait herrigune txiki "Lurraldean Sartzeko Gune" izendatu dira eta, Gidalerroetako beste zenbait eremutan, hainbat neurri finkatu dira gunen horietarako; hala nola, hirigune historikoak birgaitzea, bigarren etxebizitza edo zuzkidura espezifikoak garatzea. "Lurraldean Sartzeko Guneen" bitartez, hiriko alderdiak baliabide naturalekin lotzen dira, eta lurraldean atsedeen-eremurako bokazio eta ingurumen-kalitate handiena duten eremuetatik gertu dauden gunen erakargarri txikien sarea ezarri da Gidalerroetan.

1994. urtean, Turismoa antolatzeko 6/1994 Legea onartu zen eta lege horren bitartez baliabide turistikoaren araubidea ezarri zen; baliabideen antolamenduari dagokionez, Lurralde-plan Sektorial baten bidez antolatu behar dela xedatzen da, eta Plan Sektorial hori Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legean zehaztutako lurralde-antolakuntzako tresnetan txertatuko dela. 6/1994 Legearen arabera, Baliabide Turistikoaren Lurralde-plan Sektorialean xedatuko dira, jardun eta finantzaketa publikoari dagokienez, lehentasunezkoztat joko diren lurralde edo eskualde turistikoak, eta eskualde bat turistiko izendatu ostean, eskualde horretako Baliabide Turistikoak Antolatzeko Plan Estrategikoa egin behar da.

## II HELBURUAK

Bigarren etxebizitzaren eta baliabide turistikoaren eremuan, lurralde-eredua berrikusteko honako helburu hauek proposatzen dira:



1. Bigarren etxebizitzaren garrantzia eta ezaugarriak balioestea lurralde-plangintza partzialean eta udal-plangintzan.
2. Turismoaren sektorea antolatzeko lurralde-plangintza orokorra egitea Lurralde plan-Sektorial baten bitartez, baliabide turistikoak lurralde-jasangarritasunaren ikuspegitik begiratuta baliatuko direla bermatzearen.

### III LURRALDE-ORIENTABIDEAK

1. Bigarren etxebizitzaren fenomenoak izan baduten udalerrietan plangintza eta, besteak beste, bizitegi-ahalmena egokitzea, bizitegi-kuantifikazioari buruzko zehaztapenei jarraiki.
2. Baliabide Turistikoak Antolatzeko Lurralde-plan Sektoriala egitea eta plan horretan zehaztea zer eskualde –ahal dela– turistikotan egingo den bertako Baliabide Turistikoak Antolatzeko Plan Estrategikoa.
3. Elementu berezizat hartzea honako hauek, potentzial turistikoari erreparatuta:
  - Natura-baliabideak
  - Itsasertza
  - Hiriburuak
  - Herrigune historikoak
  - Monumentu multzoak
  - Dokumentu honetan aipatu diren oinezkoentzako eta txirrindularientzako ibilbideak.
4. Naturaren eta kulturaren aldetik dagoen potentziala modu jasangarrian garatzea.
  - Garapen turistikoaren ereduak bat etorri behar du natura-eremuaren nahiz hiri-ingurunearen harrera-ahalmenarekin.
  - Baliabide turistikoaren aprobetxamendua optimizatzean natura-ingurunekeo prozesu ekologikoak errespetatu behar dira.
  - Sortutako jarduera ekonomikoak finkagarriak izatea bermatu behar du garapen turistikoaren ereduak, eta jarduera ekonomikoetako beste sektore batzuk ere indartu behar ditu.
5. Sektorekako azpiegitura baliabidearen potentzialtasunera egokitzea lurralde-jasangarritasuneko irizpideei jarraiki.



## 8.7. PLANGINTZEN BATERAGARRITASUNA

***EAEko lurraldea erabat metropolizatuta dago eta udalerrietako mugak lausotuta geratu dira; testuinguru horretan, lurraldearen-antolamenduaren bitartez udal-plangintzak bateragarriak izatea sustatu behar da, mugakide diren udalerrien arteko gatazkak konpontzeko ez ezik, lurralde-eskalako erronka berriei aurre egiteko ere.***



## I EGOERA

Hirigintza-bateragarritasuna zera da, udalerrietako plangintza orokorraren tresnak behar bezala koordinatzeko finkatu diren mekanismoen multzoa. Egiturazkoa da, eta mugakide diren udalerrietako eremuak harmonizatzeko balio du, behar izanez gero. EAEko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legean jada xedatu zen lurralde-antolakuntzako tresnak lurzoru-araubideari buruzko legedian aurreikusitako plangintza orokorraren eta plangintza bereziaren figuren bitartez garatu behar direla, eta plangintza horietan jasotako zehaztapenak bete beharko dituztela.

Bestalde, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean Plangintza Orokorreko Bateragarritze Planaren figura biltzen da egiturazko antolamenduko planei dagokienez, udalerri bat baino gehiagoren mugako inguruetan, hirigintza-garapenaren ezaugarriak eta beharrak direla-eta, beharrezkoa baldin bada tartean diren plan orokorren egituren antolamendua koordinatzea eta lan hori egingo duen lurralde-antolamenduko tresnarik



ez baldin badago, eragindako udalek bateragarritze-plan bat egiteko akordioa har dezakete. Era berean, 2/2006 Legean Plangintza Orokorreko Bateragarritze Planen gutxieneko edukia xedatzen da, baita planak izapidetzeko eta onartzeko prozedura ere.

Hala ere, Lege hori mugakide diren udalerrien artean sor daitezkeen gatazkak konpontzera bideratuta dagoela esan dezakegu; ez da plangintza lantzeko beste modu bat, eraginpeko udalerriak koordinatuta. Orain, bateragarri egite hori tresna bat edo tresna multzo bat dela ikusarazi behar dugu, lurralde-plangintzan proposatu diren udalerriaz gaindiko erronkei aurre egiteko beharrezkoa den harmonizazio hori lortzeko baliagarri administrazio-mugak alde batera utzita. Herriarrei eremu horietan bizitzea aukeratzen –ez eragozpenez– hartzen lagunduko dien faktore oro txertatu nahi da, beste udalerri bat eta bertako azpiegitura, ekipamendu edo zerbitzuak hain gertu izateak dakartzan onurak baliatu ahal izan ditzaten, administrazio-oztopoen zurruntasuna pairatu behar izan ordez.

Indarrean dauden Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan, plangintza integratua behar duten hainbat udalerri multzo identifikatu dira, baita mugakide diren edo lotuta dauden udalerrietako plangintza modu koordinatuan idatzi eta garatuko dela bermatzeko mekanismoak finkatzeko premia duten egoera guztiak ere. Aldi berean, bateragarri egiteko sistema alternatiboak eta bateragarri egin beharreko elementuak zeintzuk diren ere zehaztu da Gidalerroetan.

Balorazioa positiboa da; izan ere, plangintzak bateragarri eginda, udal-mugarteak alde batera utzi eta eremu integratu horiek batera hartuta kudeatu ahal izan dira, eta berrikuspen hau eragin duten alderdi guztiak aintzat hartuta, beste hainbat gai aztertzea ere komeni da; esate baterako:

- Bateragarri egin daitezkeen beste udalerri multzo batzuk identifikatzea
- Txertatzeko modukoak diren bateragarri egiteko sistema alternatibo berriak.

Bateragarri egin daitezkeen beste udalerri multzo batzuk identifikatzeari dagokionez, udal-plangintzak bateragarri egiteko mekanismoak Autonomia Erkidegoko zein udalerri multzotan aplikatuko diren identifikatzen da indarrean dauden Gidalerroetan. Hala ere, lurralde-berezitasun estrategikoak aintzat hartuta, eremu horiek proposatzeko tokirik egokiena Lurralde-plan Partzialak direla uste dugu.

## **II HELBURUAK**

1. Mugakide diren udalerrietako udalaz gaindiko erronkei erantzun egokia ematea.
2. Herriarrek eremu mugakide horiek aukera-eremutzat har ditzaten sustatzea, pertzepzio positiboa izan dezaten.

## **III LURRALDE-ORIENTABIDEAK**

1. Bateragarri egiteko sistema alternatibo berriak txertatzea udalaz gaindiko kudeaketa-eremuak zehaztu ahal izateko, eta hirigintza-antolamendurako zehaztapenak ere zehaztea, udalaz gaindiko egiturazko jardunak ahalbidetu eta koordinatu edo harmonizatu ahal izan daitezen, lurraldearen orekan eragina izango duen eredu jakin bat ezarri eta erabilerak zehazteko.



2. Lurralde-plangintza partzialean udalaz gairako eremu estrategikoak zehazteko aukera izatea zehaztapenak garatu ahal izateko, dela Bategarritze Plan baten bitartez – lurzoruari eta azpiegituri buruzko politikak garatu beharreko kasuetan–, dela Antolamendu Integralko Plan Bereziaren bitartez –azpiegiturak koordinatu beharreko kasuetan–.





9

Mugikortasun Jasangarria





## 9 Mugikortasun Jasangarria

LAGek barne-loturako eta kanpo-loturako erlazio- eta azpiegitura-sistema bat ezarri zuten, eta azken urteotan lurralde-plan partzialen eta sektorialen bidez eta proiektu espezifiko bidez garatu da. Horren guztiaren ondorioz, asko hobetu dira azpiegiturak eta garraio- eta komunikazio-zerbitzuak. Mugikortasun-eskaria gero eta handiagoa da, eta kanpoarekiko konektibitatea eta barneko loturen eraginkortasun handia ezinbestekoak dira lehiakortasunerako, berrikuntza-potentzial handia dela-eta, batez ere.

Urte hauetan guztietan, diziplinaren arloko funtsezko aldaketak izan dira gai honetan. Lehen garraio- eta komunikazio-sistemez jarduten zen, eta, orain, berriz, mugikortasunaz eta, zehazki, mugikortasun jasangarriaz. Izan ere, mugikortasun jasangarriak balioa ematen dio oinez ibiltzeari, bizikletaz ibiltzeari eta garraio publikoari, ibilgailu pribatuaren orde, eta sustatu egiten ditu garraio mota horiek. Horrez gain, zenbait alderdi biltzen ditu:

- Mugikortasun orokorrean garraio kolektiboko sistemen garrantzia handitzea.
- Intermodalitatea erraztea.
- Lotura estuagoa lortzea hiri-garapeneko prozesuen eta azpiegitura- eta garraio-sistemen artean.
- Pertsonen bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzea, CO<sub>2</sub>-ren emisioa murriztuz eta mugikortasun aktiboa handituz.

Eta nondik sortzen da mugikortasun jasangarria? Inpaktu txikiagoko garraio moduak errazten dituzten hiri-egiturak eta haiek posible egiten dituzten azpiegiturak eta zerbitzuak eskura izatearen elkarrekintzatik.

1. Garapen berriak hazkunde lineal moduan planteatzea, garraio kolektiboko sistemak dituzten hiri-korridoreetan zehar. Aukera hori asko laguntzen du jada EAEko hiri-espazio askok duten linealtasunak, errepideei eta haran-hondoei lotuta hazi dira eta.
2. Ekobulebarrak egitea, garraio kolektiborako eta oinezkoentzat eta bizikletentzat gordeta dauden plataformak dituztenak, hiri-piezak egituratzeko eta garapen berriak eta zentraltasun-espazio berriak kokatzeko egitura moduan.
3. Konexio intermodaleko proiektuak egitea, garraio kolektiboko sistema integratua izateko aukera ematen dutenak, eraginkortasuna eta erabiltzeko erakargarritasuna handitzeko.
4. Trenbide bidezko garraio-sistema eraginkorra eta elkarlotua garatzea, aldiriko trenen, trenbide-zabalera txikiko trenen eta tranbien zerbitzua integratzen duena, dentsitate handieneko eremuetan joan-etorriak errazteko. Bereziki garrantzitsuak dira AHT-aldiriak eta AHT-aireportua konexio intermodalen proposamenak, bai eta aldirietako geltokien egiturari buruzkoak, modu guztietakoak, lurralde-zentraltasuneko puntu bihurtzeko.
5. Garraio jasangarriko modu berriak sustatzea eremu berezietan (alde zaharretan eta espazio naturaletan, adibidez), eta landa-eremuetako biztanleria-dentsitate txikiko balditzetara egokitutako garraio-sistemei laguntzea.

Mugikortasunaren arloan, lurralde- eta sektore-ekimenetarako helburuak honela laburbil daitezke: gure lurraldearen kanpo-konektibitate handiagoa eta mugikortasun jasangarriko sistemak orokortzea, faktore kritikoak baitira, jarduera ekonomikoak lehiakorak izateko eta lurraldearen kohesioa eta oreka bermatzeko. Helburu orokor horretan, honako helburu espezifiko hauek zehazten dira:

6. EAEko kanpoko konexio-elementuak sustatzea, faktore kritikoak direlako lehiakortasunerako eta berrikuntzarako.
7. Gure lurralde osoak konexio globaleko nodoetara ahalik irisgarritasun handiena izan dezan lortzea, haiek sortzen dituzten aukerak eta eraldaketa-potentziala EAEko lurralde osoraino irits dadin benetan.
8. Mugikortasun-beharrak murriztea, bizitzeko, lanerako, aisiarako eta ekipamenduetarako espazioen arteko lotura hobea lortuta.
9. Mugikortasun jasangarriko sistema integratu bat garatzea, bideragarri eginez garraio kolektiboko sistema eraginkorra eta erakargarria, nodoak eta ardatzak elkarrekin lotzeko, eta, horrela, elkarri oso ondo lotutako hiri-sarea lortzeko. Helburu horren bidez, gainera, CO2 gutxien isurtzen duten garraio bideek garrantzia handiagoa izango dute mugikortasun-beharra asetzen.
10. Intermodalitate-estrategiak garatzea, funtsezko faktorea baitira helburu horiek lortzeko. Garraio-sistema guztiak integratzen badira, kudeaketa-sistema bateratuen bidez, instalazio komun bidez eta tarifak eta ordutegiak koordinatuz, sistema globalki eraginkorragoa izango da. Horrez gain, kostuak eta denborak murriztuko dira, eta garraio kolektiboa erakargarriagoa izango da. Intermodalitateak espazioen arteko lotura-aukerak hobetzen ditu, eta errazagoa da ekipamendu handietara iristea, bai eta lurraldean erakargarrienak diren puntuetara ere.
11. Azpiegituren iragazkortasuna handitzea. Azpiegitura berrien trazaduran, helburuen artean sartu beharko da lurraldean eragiten duen hesi-eragina ahalik gehien murriztea.
12. Oinezkoen sareak berreskuratzearen helburua mugikortasun aktiborako sareak sortzeko baliatzea (oinezkoentzat, bizikletentzat eta beste batzuentzat). Horretarako, ibilbide bigunak egingo dira lurraldeko hiriguneen artean eta azpiegitura handiek hura eragozten duten lekuetan, eta lurralde-antolamenduaren oinarritzko helburua izango da.
13. Orobat, mugikortasunari eta garraiobide batzuekiko inplikazioari dagokionez:
  - Hiriburuen sistema polinuklearraren eskualde-egituretan trenbide-garraioa sustatzea.
  - Trena salgaien garraiorako garraiobide moduan sustatzea.
  - Hiri-eremuetako mugikortasun modu nagusia oinezko eta bizikleta bidezko mugikortasuna izatea, bai eta garraio publikoa ere.
14. Energiaren eta ingurumenaren arloan, mugikortasun jasangarria sustatzen duten jardura guztiak aintzat hartzea. Honako hauei emango zaie lehentasuna, adierazitako ordenan::



- Mugikortasun-beharrak murrizteari.
- Energia-kontsumorik gabeko mugikortasuna zehazteari.
- Garraio publikoa erabiltzeari.
- Petrolioaren deribatuen alternatiba diren energiak erabiltzen dituzten garraio-sistemak bultzatzeari; esate baterako, elektrizitatea eta gas naturala erabiltzen dutenak.

Horren haritik, oinezko eta bizikleta bidezko mugikortasunaren alderdiak landuz helduko diogu kapitulu honi, eta, bereziki, bizikleta-bideen lurralde-plan sektorialetan egindako lanak aztertuz. Berrikuspen honetan, ez da asko garatzen bide-azpiegituren gaia, lurralde-plan partzialetan heltzen baitzaio, ongi heldu ere, gai horri. Trena, portuak, aireportuak eta errepide bidezko elementu berriak garatzen dira, eta estrategia logistikoa jasotzen. Horrenbestez, honako puntu hauetan egituratuta dago kapitulua:

- 9.1. Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna
- 9.2. Bide-mugikortasuna.
- 9.3. Trenbide-, portu- eta aireportu-mugikortasuna.
- 9.4. Mugikortasun kolektibo multimodala.
- 9.5. Eredu logistikoa.

## 9.1. OINEZKOEN ETA BIZIKLETEN MUGIKORTASUNA

***Motorrik gabeko mugikortasuna, oinezkoa eta bizikleta bidezkoa, da lehenengo mugikortasun modua, eta segurua, elkarlotua eta erakargarria izango da. Ezinbestekoa da EAEko lurraldea egituratuko duen eskualde-sare bat zehaztea, nukleoak elkarrekin eta inguruko lurraldeetako guneekin lotzeko.***



## I EGOERA

Oinez mugitzea pertsonen mugikortasun modu naturala da, eta, horren haritik, hiria eta lurraldea mugitzeko modu hori egoki gauzatu ahal izateko moduan egokitu behar dira, oinez segurtasunez eta modu erakargarrian ibiltzeko egokitu behar dira. Bizikleta leku eta protagonismo handiagoa lortzen ari da, beste garraio mota batzuen aldean, eta tokiko eremuan bereziki. Izan ere, garraibide biguna da, ingurumenaren aldetik jasangarria, energia efizientziaz erabiltzen du, osasuntsua da eta berdintasuna sustatzen du. Alderdi horretatik, funtsezkoa da behar bezala planifikatutako, egindako, mantendutako eta babestutako hiriarteko sare bat izatea bizikletentzat eta oinezkoentzat, EAEko biztanleria-gune nagusiak artikulatzeko.

### BIBLIOGRAFIA

- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Sareari buruzko Lurraldearen Arloko Plana Ekainaren 10eko 2/2013 Foru Araua, Gipuzkoako bizikleta-bideen lurraldearen arloko plana onartzekoa. Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako departamentua.
- Arabako Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen lurraldearen arloko plana. I. fasea. Informazioa eta diagnostikoa. 2014ko abendua. Arabako Foru Aldundia. Hirigintza eta Ingurumen Politika Saila.
- Bizikleta Plan Nagusia. Bizkaia Bizikletaz. 2003-2016. Bizkaiko Foru Aldundia. Herri Lan eta Garraio Saila
- Bizikleta-bideak diseinatzeko gidaliburua. Bizkaiko Foru Aldundia: Herri Lan eta Garraio Saila
- Bide Berdeak. Euskadi turismo. Eusko Jaurlaritza Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila
- Oinezkoen Eskubideen Europako Gutuna. Europako Parlamentuak 1988. urtean onartutakoa.
- Amsterdameko adierazpena. Bizikleta erabiltzeko eskubidea Bizikletari buruzko munduko konferentzia "Velo Mondial 2000". 2000ko ekaina.
- Gipuzkoa Urbana. Angel Martín Ramos. Gipuzkoako Foru Aldundia





### **a) Oinezkoen mugikortasuna. Bide historikoak.**

Hainbat bide historiko daude, merkataritza-bide moduan eta pertsonen lekualdatzeetarako erabiltzen zirenak. Hauek dira bide aipagarrienak historiaren eta kulturaren aldetik garrantzitsuak baitira eta EAEko lurraldea egituratzeko ahalmena baitute: Donejakue bidea, Inaziotar bidea, Bidezidor historikoa, Ardo eta Arrain bidea, eta Itsas ibilbidea.

#### **Donejakue Bidea**

Donejakue Bidea, urtarilaren 10eko 2/2012 Dekretuaren bidez, Kultur Ondasuna izendatu zen, eta bi bide ditu Euskal Autonomia Erkidegoan: bata kostaldetik, eta bestea, barnealdetik. Barnealdeko bideak bide frantsesarekin bat egin arte egiten du aurrera, eta kostaldekoak Kantauri itsasoaren ertzetik doa.

Kostaldeko bideak Gipuzkoako kostaldea zeharkatzen du Bizkaira sartu arte, eta Santiagora joateko erromes-bide zaharrenetakoa da, beste ezagunago batzuk baino zaharragoa. Bide horretan, bat egiten dute marinel-ezaugarriko eta nekazaritza-ezaugarriko bizitzak, eta hiriak eta landak. Gipuzkoako zatian gorabehera handiak daude, eta bidea lausotu egiten da Bizkaian sartzean, Markina-Xemeinen.

Barnealdeko bideak Gipuzkoa eta Araba zeharkatzen ditu, oso ezaugarri desberdineko lurretatik: direla kostaldeko paisaiak, topografia-gorabehera handikoak, direla lehorreko labore zabalak, direla oso eremu industrializatuak, direla herri landatarragoak. Bide hori, erromatarren garaitik, penintsularen iparraldeko komunikazio-ardatz nagusietako bat izan da.

#### **Ardoaren eta arrainaren ibilbidea, GR-38.**

Araba eta Bizkaia lotzen dituen bidea da, Oiondik Bermeora, Euskadi hegotik iparrera zeharkatuz. Historikoki, arrainaren eta ardoaren salerosketarako bidea izan da, bai eta beste produktu batzuen ere, garia, burdina eta artilea, besteak beste. Bidea Oionen hasten da eta Laguardiarantz joaten da Toloño mendilerroa igarota; ondoren, Arabako Lautada zeharkatu eta Ferrocarril Vasco Navarroken bidetik jarraitzen du, Urkiolarantz egin eta Durangora jaisteko. Azkenik, Urdaibaiko Biosferaren Erreserba zeharkatzen du, eta Bermeora iristen da, amaierara, alegia. Ondarroak eta Lekeitiok ere ezarri zituzten merkataritza-bideak, eta Bermeotik zetorrenarekin lotzen ziren. Ez da bide oso ezaguna, baina egituratzeko ahalmen handia du.

#### **GR-1 Bidezidor historikoa: Kataluniatik Galiziara.**

GR 1 bidea Espainiako ibilbide luzeko biderik luzeenetakoa da. Mila kilometro baino gehiago ditu markatuta, eta penintsularen iparraldeko 7 probintzia zeharkatzen ditu, Empuriestik Finisterreraino. Arabako hegoaldea zeharkatzen du aldez alde, Arabako Mendiak eta Arabako Haranak zeharkatuz. Ibilbideak garrantzi handia izan zuen Erdi Aroan: merkataritza-bidea izan zen, gatzaren merkataritzakoa eta erromesaldietarakoa. Arabako ibilbidea Kanpezun hasten da, Nafarroatik datorrela eta Gaubean amaitzen. Handik ipar-mendebalderantz jarraitzen du, Finisterreraino.

## ***Itsas ibilbidea***

Itsas ibilbidea ibilbide bigun moduan antolatu da, motorrik gabeko mugikortasunerako, kostaldeaz eta itsasoaz gozatzeko, eta Euskadiko kostalde guztia zeharkatzen du. Hendaia Euskadiko kostaldeko bidearekin lotzen du (Biarritzen hasten da), eta Muskizen Kantauriko kostaldeko bidearekin (Kantabriarantz jarraitu eta Estaca de Baresen amaitzen da, Galizian).



**Donejakue Bidea**

**Ardoaren eta arrainen ibilbidea GR 38**

## ***Inaziotar bidea***


Inaziotar bideak San Ignazio Loiolakoak Loiolatik Manresara egindako bidea berregiten du, zaldun zela egin zuen, Lurralde Santuetarako erromesaldian. Bidearen hasiera San Ignazioren familia-etxean hasten da, Arantzazutik igaro eta Arabako Lautada zeharkatzen du Laguardiaraino, eta handik Navarreteara egiten du, eta ondoren, Logroñotik igarota, Kalagorri herrirantz, handik helmugara egiteko, Manresara.

### ***b) Bizikleten mugikortasuna***

Amsterdameko Adierazpenean, 2000. urteko ekainekoan, bizikleta garraiobide moduan erabiltzeak pertsonen, gizarteari eta ingurumenari dakartzkion abantailak nabarmentzen direla. Besteak beste, adierazten du garraiobide azkarra eta eraginkorra dela; pertsonen osasuna hobetzen duela; hirietako zirkulazioa hobetzen duela; tokiko ekonomiaren garapena sustatzen duela; eta herritarren bizileku den ingurunea hobetzen duela. Adierazpen horretan bizikletaren erabilera sustatzeko zenbait baldintza unibertsal ezartzen dira: etxebizitza-dentsitate txikia ez izaten ahalegintzea eta lurraren erabilera mistoa sustatzea; bizikletari beste garraiobide batzuei ematen zaien balio bera ematea; azpiegiturak abiadura-desberdintasunak eragozpenik ez sortzeko moduan diseinatzea; bide-heziketa egokia ematea; eta haurrei bizikletaz autonomiaz ibiltzeko aukera ematea.

EAEn, lurralde historiko bakoitzak bizikleta-bideei buruzko bere foru-araua dauka. Horrek bizikleta-bidearen kontzeptuari izaera juridikoa ematen dio, eta, horrenbestez, motorrik gabeko mugikortasuna —bereziki, bizikleta bidezkoa— garatzeko bide-azpiegitura mota berri bat da, errepideei buruzko araudiak adierazitako ohiko bideaz bestelako ezaugarriak dituen. Lurralde

bakoitza bere bizikleta-bideen lurralde-plan sektoriala garatzen ari da, eta izapideetan daude, batzuk aurrerratuago eta beste batzuk atzeratuago. Gipuzkoari dagokionez, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Sareari buruzko Lurraldearen Arloko Plana onartu zen, behin betiko, 2013ko ekainaren 5ean. Arabari dagokionez, Arabako Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurraldearen Arloko Plana informazio- eta diagnostiko-fasean dago; eta Bizkaia, berriz, Bizikleta Plan Nagusia Bizkaia Bizikletaz 2003-2016 plana dauka.



**Gipuzkoako bizikleta bideen oinarritzko sarea**

**Arabako bizikleta bideen eta ibilbide berdeak**

XIX. mendean, Euskadiko lurralde osoan trenbideak egin ziren, Bizkaian hasi, meatze-trenbideekin, eta Gipuzkoan buka, jada XX. mendean: haran handi guztiek bere trenbidea izan zuten. Bide horiek utzi egin dira pixkanaka, errepide bidezko garraioa garatzearekin eta haiek sorrarazi zituzten jarduerak bertan behera uztearekin batera. Trenbideen orde, berreskuratu diren bideetan, bide berdeak egin dira. Hori gertatu da, esaterako, Ferrocarril Vasco-Navarrokekin, Araban; Montes del Hierro/Itsaslur, Arrazola eta Atxuri trenbideekin, Bizkaian; eta Urola, Bidasoa, Plazaola-Leizaran, Arditurri eta Mutiloa-Ormaiztegi trenbideekin, Gipuzkoan. Trenbide zaharrek aukera handiak ematen dituzte oinezkoentzako eta bizikletarako bide berde moduan, irisgarriak direlako, malda txikiak izanik erosoak direlako eta etenik gabeko bideak direlako. Horrenbestez, baliatu egin beharko lirateke oinezkoentzako eta bizikletarako bide berriak egiteko.



**Mapa de los Ferrocarriles en Explotación, Construcción y Proyecto. Alfredo Forcano Catalán. RENFE 1948. (extracto)**

**Carta de Correos y Postas de las provincias de Alava, Guipuzcoa y Vizcaya. Dirección General de Correos 1865**



Egokitzen da bizikleta-mugikortasuneko ardatz batzuk planteatzea, EAEko lurraldeko guneak egituratzeko, bai elkarrekin, bai eta mugakide diren lurraldeetako guneekin ere. Horren haritik, bizikleta-mugikortasunaren bi potentzialak azpimarratu behar dira: bata, aisiari eta olgetari lotutakoa, eta bestea, eguneroko garraioari edo mugikortasunari lotutakoa.

## II HELBURUAK

Oinezkoen eta bizikleten mugikortasunaren arloan, honako helburu hauek proposatzen dira lurralde-ereduaren berrikusketan:


1. EAEko lurraldea egituratzea, oinezkoentzako eta bizikletentzako azpiegituren EAEko sarea eratuz, hiriarteko eta eskualdearteko motorrik gabeko mugikortasuna garatzeko. Horrekin, barne-ibilbideak eta mugakide diren eskualdeekiko loturak finkatuko dira.
2. EAEko zatian, Donejakue bidea finkatzea, lurraldea egituratzeko duen ahalmenagatik; eta, orobat, EAE zeharkatzen duten Inaziotar bidea, Itsas ibilbidea (eta haren jarraipena Frantziatik eta Kantabriatik), Ardo eta Arrain bidea, eta Bidezidor historikoa sustatzea.
3. Bizikletaren erabilera garraibide publiko moduan sustatzea, egunero erabil daitezen laguntzea eta garraio moduen gaur egungo banaketan eragitea, sare seguru, eroso eta konektatu bat oinarri hartuta.
4. Irizpideak zehaztea bizikleta-sareak udal-plangintzekin bat igaro ditzan udalerriak.

## III LURRALDE-ORIENTABIDEAK


### ***Orientabide orokorrak***

1. Herriarren ikuspegitik seguru den sare bat sortzea; koherentea, jarraitua eta etenik gabea, eta ulertzeko erraza; zuzena, bide laburrenak bilatuz, bizikletaren erabilera sustatzeko; erakargarria eta muturreko klima-baldintzetatik babestua eta inguruneari egokitua; eskuragarria eta eroso, oinezkoak eta bizikletak elkarrekin ibiltzeko aukera ematen duena, malda handiegirik gabea eta trafiko motordunarekin nahasten ez dena.
2. Bizikleta beste garraibide batzuen aldean lehenestea, abantailak baititu, garraibide azkarra baita eta hiriak hobetzeko ahalmen handia baitu.
3. Lurralde- eta hiri-plangintzan bizikletaren erabilera kontuan hartzea —bizikleta elektrikoa barne—, aparkalekuetarako eta kargatze-puntueterako. Horren haritik, bizikletarako interesgarriak diren guneetatik —lantokiak, ekipamenduak, garraio publikoaren geltokiak— gertu bizikletentzako aparkalekuak egitea, seguruak, bai eta bizikleta elektrikoak kargatzeko guneak ere.
4. Ongi zehaztea bizikleta-bideak eta bide historikoetako ibilbideak, eta herriarren artean zabaltzen ahalegintzea.





EAEko oinezkoentzako ibilbideak



EAEko bizikletako ibilbideak



## **Lurralde-orientabideak**

5. EAE mailako bizikleta-sare bat zehaztea, hiru lurralde historikoak elkarrekin eta mugakide diren eskualdeekin lotzeko, irudian zehaztutako moduan. Ildo horretan:
  - a) Eremu funtzionalaren mailako lurralde-plan partzialetan bizikleta-bideen eta oinezkoen bideen lurralde-sare bat garatu eta zehaztea, guneen arteko lotura-sare bat osatzen dutela.
  - b) Bide-sareen plangintza, diseinua eta garapena egiten denean, bizikleta-bideetarako espazio bereziak sartzea.
6. Lurralde- eta hirigintza-plangintzan, Donejakue bidea sartzea, lurraldea egituratzeko duen ahalmenagatik, bai eta EAE zeharkatzen duten Inaziotar bidea, Itsas ibilbidea (eta haren jarraipena Frantziatik eta Kantabriatik), Ardo eta Arrain bidea, eta Bidezidor historikoa. Horren haritik, eremu funtzional bakoitzean jasotzea Donejakue bidea, Inaziotar bidea, Itsas ibilbidea, Ardoaren eta Arrainaren bidea eta Bidezidor historikoa, ziurtatzeko finkatu egingo direla, ez direla galduko eta seinaleztatuta daudela.
  - Bide horien trazadura mugatu eta zehaztea.
  - Araban Donejakue bidea garatzea, eta Burgosko bideekin txertatzea, ardatz turistiko eta kultural moduan.
  - Itsas ibilbidea, kalitatezko ibilbide erakargarria eta bide bigunekoa, Donejakue bidearekin ahalik gehien bat egiten ahalegintzea. Biarritzetik datorren Euskadiko kostaldeko bidearekin lotzen ahalegintzea, bai eta Kantauriko kostaldeko bidearekin ere. Ekintza hori gauzatzeko, gaur egun heltzea ezinezkoa den bide-zati batzuk berreskuratu eta konpondu beharko lirateke.

## **Hiri plangintzarako orientabideak**

7. Lurralde- eta hirigintza-plangintzan oinezkoen mugikortasuna egoki garatu eta egituratu dadin sustatzea, bai eremu funtzional mailan bai tokiko mailan.
  - a) Oinezkoen eta bizikleten bide-sarea herrietatik pasatzen dela bermatzea, hiriarteko sareari jarraitasuna emanez.
  - b) Bizikleta-bideak seguruagoak izateko neurriak hartzea. Zirkulazioa moteltzea, zirkulazio motordunaren abiadura eta intentsitatea oinezkoen eta bizikleten erabilerarekin bateragarria den mailara arte. Esate baterako, trazaduraren, sekzioaren edo zoruaren eraldaketa fisikoa egitea.
  - c) Oinezkoen eta bizikleten bideetan, erabiltzaileek lurraldeaz eta paisaiaz gozatzeko aukera emango duten altzariak jartzea (eserlekuak, begiratokiak, etab.).
  - d) Garapen berrietara —izan industrialak izan bizitegirakoak— iristeko aukera bermatzea, gunearikiko zein eskualdeko sarearekiko lotura bermatuko duen tokiko sare baten bidez.



## 9.2. BIDE-MUGIKORTASUNA

***LAGek arlo honetaz duten ikuskera oso egokia izan da, ongi definitu baitu errepideetan eskumena duten administrazioek garatu beharreko eredua, bai trazadurari eta funtzionaltasunari dagokionez, bai eta egiteko denbora-epeei dagokienez ere. Pentsatzen has gintezke trazadura batzuk egokitu beharra, beste batzuk hobetu beharra, herri baten saihesbideren bat egin beharra eta ezinbestekoak diren mantentze-lanak gorabehera, EAEko errepide-mapa ia osorik amaituta dagoela.***



## I EGOERA

Indarrean dauden LAGekin ez zegoen errepide-plan berri bat idazteko asmorik; aitzitik, helburu zen eredua eratzeko garrantzitsuak jotzen ziren loturak iradokitzen ziren. Egiten ziren aipamenean helburua zen erreferentzia izatea EAEko Errepideen Plan Orokorren edo lurralde historikoetako foru-aldundiek idatzitako lurralde-plan sektorialen etorkizuneko berrikuspenak idazteko.

Kontzeptuzko ikuspegi batetik, ereduaren egituratzaileak ziren loturak soilik adierazten ziren, eta esaten zen ezarritako bide-tipologiak ez zuela zertan bat etorri bideen diseinuarekin. Izan ere, haien trazatua eta sekzioa dagokion Errepide Plan Orokorrek zehaztuko zuen. Honako tipologia hauek ezartzen ziren bide loturetarako:



- a) EAEko hiriburuen sistema polinuklearraren kanpoko loturak.
- b) EAEko hiriburuen sistema polinuklearraren barneko loturak.
- c) Eskualde-egituretako burutzen loturak.
- d) Paisaia-intereseko kostaldeko ibilbideak.

LAGak behin betiko onartu zirenetik, asko garatu dira arlo honetan, EAEko Errepideen Plan Orokorren, lurralde historikoetako foru-aldundiek idatzitako lurralde-plan sektorialen edo lurralde-plan partzialen bidez. Esan daiteke LAGak arlo honetaz duen ikuskera oso egokia izan dela, ongi definitu baitu errepideetan eskumena duten administrazioek garatu beharreko eredua, bai trazatuari eta funtzionaltasunari dagokionez, baita egiteko denbora-epeei dagokienez ere. Horren haritik, ontzat hartzen da indarrean dauden LAGek bide-mugikortasunaren diseinurako lurralde-eredua.

Urte hauetan guztietan zehar, jo dezakegu “Euskadiko hiriburuen sistema polinuklearraren kanpoko loturak” deritzenak finkatu eta ia osorik garatu direla (Asturiaseraino iritsi da Kantauriko korridorea, Gipuzkoa Nafarroarekin lotu da A-15 errepidearen bidez), bai eta “Euskadiko hiriburuen sistema polinuklearraren barneko loturak” ere (Gasteiz-Eibar AP-1 egin da, Durango-Bergara-Beasain lotura egiten ari da eta amaitzea falta da). “Eskualde-egituren loturak” deritzenei dagokienez, eredua ezarrita, errepideen lurralde-plan partzialek eta sektorialek ongi garatu dute gaia. Agiri honetan ez diogu helduko errepide bidezko mugikortasunaren ereduari, behar beste egiten baitute lurralde-plan partzialek.

Horretatik harago, mugikortasunaren ikuskera integratu batetik, errepideen arloko funtsezko eginkizuna da beste garraiobide batzuekin integratzea, eta, horrenbestez, zer aurrekontu-muga dauden ikusita, lehentasunak ezarri beharko dira azpiegituretako inbertsioetan, azpiegituren mugikortasun jasangarriko sistema integratu baten baitan sartuta. Errepideei dagokienez, esan dezakegu EAEko errepide-mapa ia osorik amaituta dagoela; hau da, trazadura batzuk egokitu beharra, beste batzuk hobetu beharra, herri baten saihezbideren bat egin beharra eta ezinbestekoak diren mantentze-lanak gorabehera, EAEko errepide-mapa ia osorik amaituta dagoela. Horren haritik, bide-azpiegitura garrantzitsuak egin zireneko garaia igarota, ekonomia-jasangarritasuneko une hauetan, eginda dagoen bide-sarearen mantentze-lanetan jarri behar da arreta, sare berriak egin beharrean.

## **II HELBURUAK**

1. Mugikortasun jasangarriko testuinguru integratu batean definitzea zer eginkizun espezifiko duen garraiobide bakoitzak, eta, bereziki, zer eginkizun duen bide-sistemak. Eta horren haritik, garraiobideko aurrekontu-inbertsioen banaketa jasangarritasun ekonomikoko testuinguru batean egitea.
2. EAEko errepide-mapa ia osorik amaituta dagoela jotzea, foru-aldundien lurralde-plan partzialetan edo lurralde-plan sektorialetan garatu beharreko proposamen zehatz batzuk gorabehera. Dena dela, bide-azpiegitura Europan zeharreko azpiegitura denez, mota horretako azpiegiturei dagokien kudeaketa izan beharko du.
3. Aurrekontu-aurreikuspenetan, lehentasuna ematea egun dauden azpiegituren mantentze-lanei azpiegitura berriak egitearen aurrean.



4. Salgaien distantzia luzeetarako errepide bidezko garraioaren egoera gero eta jasanezinagoa denez, horri erantzun integratua ematea.

### III LURRALDE-ORIENTABIDEAK

1. Bide-mugikortasunari dagokionez, proposatzen den lurralde-orientabidea indarrean dauden LAGek ezarritako bide-sistemaren antolamendua berrestea da. Honela egituratzen dira bide-loturak:
  - a) EAEko hiriburuen sistema polinuklearraren kanpoko loturak.
  - b) EAEko hiriburuen sistema polinuklearraren barneko loturak.
  - c) Eskualde-egituretako burutzen loturak.
  - d) Paisaia-intereseko kostaldeko ibilbideak.
2. Jotzea errepideen trazadura batzuk egokitu beharra, beste batzuk hobetu beharra, herri baten saihesbideren bat egin beharra eta ezinbestekoak diren mantentze-lanak gorabehera, EAEko errepide-mapa ia osorik amaituta dagoela.

### 9.3. TRENBIDE-, PORTU-, ETA AIREPORTU-MUGIKORTASUNA

***Defendatzen da gure lurraldearen kanpo-konektibitatea handiagoa izatea eta mugikortasun jasangarriko sistemak orokortzea, faktore kritikoak baitira, jarduera ekonomikoak lehiakorak izateko eta lurraldearen kohesioa eta oreka bermatzeko. Horrez gain, bideragarri egingo da garraio kolektiboko sistema eraginkorra eta erakargarria, nodoak eta ardatzak elkarrekin lotzeko, eta, horrela, elkarri oso ondo lotutako hiri-sarea lortzeko.***



## I EGOERA

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen garapen moduan, otsailaren 27ko 41/2001 Dekretuak behin betiko onartu zuen EAEko eremuan Trenbide Sarearen Lurraldearen Antolamendurako Arloko Plana. Eta otsailaren 22ko 34/2005 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Planaren barruan Bilboko metropoliko eta zenbait udalerritako trenbidearen antolamenduari buruzko aldaketa behin betiko onartu zuen.

Agiri horren helburua zen plangintza-tresna eta arautze-tresna izatea trenbide-arloko esku-hartzeetarako eta hirigintzako esku-hartzeetarako. Lurralde-plangintza horretan oinarrituta, hirigintza-plangintzan txertatu dira gerora egiten ari diren trenbide-azpiegiturei buruzko xedapenak, eta fase aurreratuetan eman behar izan zaie konponbidea sektore horren eta hirigintzaren artean sortu diren kontraesanei, abiadura handiko trenaren lineari dagokionez, batez ere.





Eta antzekoa gertatzen da metropoli-inguruetakoa trenbide-lineei dagokienez ere. LAGek Periferiako Trenen Zerbitzuko Oinarrizko Ardatzei buruz ezarritakoa asko garatu da Bilboko metropoliko metro-lineen eta Donostialdea-Bidasoa Beheko metroaren (Topoa) azpiegitura eguneratuz, bai eta ADIFek, ETSk edo zabalera metrikoak gainerako lineetan egindako hobekuntzen bidez ere.

Portuei dagokienez, indarrean dauden LAGak irizpidea izan dira Bilboko portuaren garapenerako, eta Pasaia lehen mailako merkataritza-portu moduan finkatzeko, baita gainerako portuetan (Bermeo, Ondarroa, Getaria eta Hondarribian, bereziki) arrantza-jarduera sustatzeko ere.

Aireportuei dagokienez, oraindik orain ere balioa du “EAEko Aireportu Sistema” kontzeptuak eta EAEko aireportuak osagarritasun- eta espezializazio-irizpidez antolatu beharrak, ikuspegi global batez eta inguruneke aireportuekin integratuta.

## II HELBURUAK

1. Abiadura handiko trenbide bidezko Europa barneko sarea sustatzea.
2. Trenbide-mugikortasunak sistema global integratu batean, mugikortasun jasangarrian eta EAErena bezalako dentsitate handiko hiri-egitura batean duen eginkizun nagusia finkatzea.
3. EAEko portu-sistema eta itsasoko salgaien garraioa sendotzea.
4. EAEko Aireportu Sistema sustatu eta haren ahalmenak optimizatzea.

## III LURRALDE-ORIENTABIDEAK

### a) Trenbide-mugikortasuna

#### a.1. Abiadura handiko trenbidea

1. Abiadura handiko trenbidearekin lotzea EAEko hiri nagusiak eta EAE sarean dagoen lurralde polizentriko moduan egituratzea, eta AHTaren geltokiak metropolietako eta periferietako garraio-sistemekin ongi lotzea. Horrez gain, EAE abiadura handiko trenbidez konektatzea mugakide dituen lurraldeekin, eta babes handiagoa ematea gure lurraldeko zerbitzu aurreratuei eta maila handieneko azpiegiturei, Nafarroarekin eta Ebro haranarekin eta mesetarekin dituen loturen bidez, eta Kantauri itsasoko ertzarekin eta Frantzia hegoaldearekin etorkizunean izango dituen loturen bidez.
2. Abiadura handiko trenen geltokiak gure hiriburuetakoa bikaintasun-elementu nagusiekin lotzea, eta irisgarritasun handiko metropoli- eta eskualde-eremuetan kokatu eta hiri-eraldaketako eta -berritzeko eragiketen esparruan sartzea, azpiegitura horri lotutako eginkizun zentralak har ditzan.
3. Abiadura handiko trenen geltokiak intermodalitateko nodo handi moduan egitea, abiadura handiko trenaren bidez kanpoaldearekin eta probintzia-hiriburuarekin lotzeko aukera izateaz gain, haietan biltzeko lotura-azpiegitura guztiak eta etorkizunean

garrantzia handiagoa izango duten zerbitzuak, esaterako: aparkalekuak, auto-alokairuak, turismo-informazioko zerbitzuak, hotelak, taxi-geltokiak, metroa, tranbia eta periferietako trena.

4. Hauek izatea abiadura handiko trenaren geltoki izateko lehentasuneko leku, aintzat hartuta, batetik, nola txertatzen diren lurraldean, eta, bestetik, hirian eta EAEko gainerako garraio-sistemarekin elkarreragiteko aukerak:
  - a) Bilbon, Abandoko geltokia. Konponbide bat garatzen ari da, tren metropolitarraren bideekin, Abandorekin lotzeko Alde Zaharra, Sondika, aireportuko terminala eta Metro Bilbao.
  - b) Donostialdean, Donostiako geltokia eta Irungoa (batez ere, Frantziar TGV luzatzen den arte). ADIFen aldirietako trenaren eta Euskotrenen lineen konexioak izango ditu, eta loturak autobusen geltokiekin, eta beste lotura bat Irunen eta Hondarribiko aireportuaren artean. Oso garrantzitsutzat jotzen da Donostiako geltokiak igarobide moduan duen funtzionamendua.
  - c) Vitoria-Gasteizen, etorkizuneko geltokiaren intermodalitatearen alde egingo da.
  - d) Ezkioko geltokiak Nafarroarekiko konexioa egingo du. Haren kokapena dela eta, Beasain-Zumarragako hiri-eremuari abiadura handiko trenaren zerbitzuak eskuratzeko aukera emango die. Garrantzitsua da geltoki hori eremu horretako aldirietako garraio-sistemen bidez konektatzea.

#### **a.2. Trenes de cercanías**

1. Tren-geltokiak garraibide hori erabil dadin errazteko eta sustatzeko funtsezko elementu gisa eraikitzea, bai eta lurraldean zentralitate-eremu berriak sortzeko elementu gisa ere. Lurralde-planak eta udal-planak eta ekimen sektorialak koordinatu egingo dira, instalazio horiek eremu funtzionaletan tokiko eta eskualdeko zentralitate-espazio bihurtzeko daitezkeen. Horretarako, beharrezkoa da irisgarritasun-elementuak eta aparkalekuak edukitzea erabiltzaileentzat, ahal den guztietan tren-geltokiak garraio kolektiboko beste zerbitzu batzuekin lotzea (autobusa, tranbia, taxia, eta abar), eta ingurunean eskari handiko ekipamenduak jartzea (merkataritza-guneak, osasun- eta hezkuntza-instalazioak eta abar). Hiri-garapeneko prozesuek garraio kolektiboko sistemak eta lurraren erabilera bat etortzen ahalegindu beharko lukete, eta garraio kolektibora iristeko nodoen inguruneetan dentsitate handiagoak izateko baimena eman.
2. Trenbide-sistemetan oinarritutako mugikortasun-sistema jasangarriak garatzeko baldintza egokiak sustatzea, kontuan izanda EAEn biztanleria-dentsitate handia, hiri-gune handietan eta ardatz linealetan bildua. Ekintza sektorialak garraio-sistema kolektibo sendoa bat eratzea bideratzea, aldirietako trenetan eta beste tren mota batzuetan lagunduta (tren arinak eta tranbiak).
  - a) Aldirietako trenak elementu garrantzitsua dira mugikortasun jasangarriko, eta horrez gain, hiri ertainak dinamizatzen dituzte garapen metropolitarrako dinamikak jasotzeko eremu bihurtuz, eta gure lurraldearen jasangarritasunean ere laguntzen dute. Geltokiak leku garrantzitsuak izango dira gure lurraldeak mugikortasun jasangarriko sistema oso bat izatea lortzen denean.





- b) Horrela, tranbia-sistemak garatzeko abian dauden jardueraz gain, sarea zabaltzeko honako jarduera hauek egitea:
- Eginda dauden trenbideetan, aldirietako zerbitzu berriak sortzea, Beasain-Zumarraga-Legazpi eta Iruña Oka-Gasteiz-Agurain tarteetan.
  - Plangintza sektorialean aztertzea Urolako tren zerbitzuan jartzea Zumaia eta Azpeitia artean, trenbide zaharretik, eta Urretxura arte luzatzeko aukera ere bai, aldirietako sarean txertatzeko.
  - Trenbide-azpiegiturarik ez duten eraldaketa-ardatzetako gainerako tarteetan, garraio kolektiboko ardatz-egiturak egitea, trenbide-sarearen geltokiekin lotzen duten maiztasun eta edukiera handiko autobus-zerbitzuak jarritz.
- c) Plangintza sektorialean, erabakitzea noiz dauden baldintza egokiak garraio kolektiboko ardatz-egitura horiek trenbide-korridore bihurtzeko, eta erabakitzea, halaber, nola ezarriko diren zerbitzu berriak.
- d) Euskotrenen, RENFEren eta ADIFen egungo sistemak integratu daitezen proposatzea, kudeaketari, programazioari eta zerbitzuei dagokienez, eta zerbitzu horiek transformazio-ardatzetako eremu guztietara zabaltzea.

#### **b) Portu-mugikortasuna**

1. Bilboko portua eta Pasaiaiko portua merkataritza-portu nagusi moduan sustatzea, eta nazioarteko zabalerako sarbide berrien bidezko konektibitatea sustatzea eta espazio logistiko lehiakorrekiko lotura, eta portuaren eta hiriaren arteko elkarrekintza erraztea, portu-espazioetan erabilera mistoak bateragarri egiteko irizpidea ezarriz. Ildo horretan:
  - a) Bilboko portua sustatzea Euskadiko salgaien itsas konexioko elementu handi moduan, Abra kanpoalderanzko instalazioak baliatuz.
  - b) Pasaiaiko portua sustatzea EAEko beste merkataritza-portu handi moduan. Ezinbestekoa da portua berritzea, Pasaiaiko badiaren hiri-eraldaketa eta -berroneratzea egin ahal izateko, egungo kaian bateragarri eginez portu-erabilerak eta hiri-eraberritzeko ekintzak.
2. Arrantza-jarduera sustatzea, batez ere, Ondarroa, Getaria, Hondarribia eta Bermeoko portuetan, eta azken honetan, merkataritza-jarduerak ere egitea. EAEko kostaldean dauden gainerako arrantza-portuak oso azpiegitura baliotsuak dira, hiri-espazioen erdi-erdian kokatuta daude, hiri eta herri askori beren eskaintza bereizteko aukera ematen die, eta espazio turistiko moduan, bizitegi moduan eta jarduera ekonomiko berrietarako espazio moduan duten erakargarritasuna handitzen dute. Lurralde-planek eta udal-planek, bai eta portuetako gida-planek ere, espazio horiek sustatuko dituzte, nortasunaren eta hiri-erakargarritasunaren elementu moduan. Ildo horretan:
  - a) Babes-eginkizunari eutsi eta eginkizun hori zabaltzea, bai eta tokiko ekoizpen-jardueren espazio moduan ere, eta horrez gain, aukera estrategiko moduan, hiri-zentralitateko espazioak sortzea instalazio horien inguruan eta turismoarekin eta aisiarekin lotutako jarduerak egiteko egokitzea.



- b) Kai berriak eta kirol-portu berriak egitea debekatzea egungo portu-instalazioen eremuetatik kanpo, salbu eta portuen lurralde-plan sektorialean jasotakoak badira.

### **c) Aireportu-mugikortasuna**

1. EAEko hiru aireportuetako bakoitzaren espezializazioan oinarritzen den aireportu-sistema bat sustatzea. Ildo horretan:
  - a) EAEko aireportuetako bakoitzaren espezializazioan oinarritzen den aireportu-sistema bat eratzeko estrategian aurrera egitea (halaxe adierazten zen LAGetan ere), aireportuak funtsezko azpiegitura direlako Euskadiko etorkizunerako, berrikuntza eta garapeneko Europako gune garrantzitsuekin konexio zuzena izateko aukera ematen baitiote gure lurraldeari.
2. EAEko hiru aireportuetako bakoitzaren ezaugarri positiboak optimizatzea.
  - a) Bilboko aireportua
    - Irisgarritasuna hobetuz, aireporturako erabiltzaileak eskuratzeko merkatua handitzea, nazioarteko konexio-puntu nagusia delako: zenbat eta handiagoa izan konexioen eskaintza, orduan eta handiagoa izango baita eskualdearen garapenari egingo dion ekarpena.
    - Aireportu hub intermodal handi moduan eratzea. Horretarako, beharrezkoa da aldirietako trenen sisteman txertatzea eta etorkizuneko abiadura handiko trenarekin lotzea.
    - Aireportu hub hori espazio intermodal handi moduan planteatzea, elkarreragin errazak izateko garraiobide mota guztien artean, hegazkina, autobusa, automobila, AHT eta aldiriak integratuz.
    - Epe ertaineko eta luzeko helburua da Bilboko aireportua erreferentziazko nazioarteko aireko garraio-zentroa izatea espazio handi baterako: Asturiasen erdiko eremua, Kantabria, Gaztela eta Leonen ipar-ekialdea, Errioxa, Nafarroa eta Akitaniaren hegoaldea.
  - b) Vitoria-Gasteizko aireportua
    - Zentro logistiko handiaren profila sendotzea, Arabako Erdialdeko LPPak planteatutako berrikuntza-arkuaren elementu zentral moduan jartzen da eta. Funtzio horiez gain, haren ezaugarriak direla eta, hegazkintza orokorreko edozein funtzio har dezake: bidaiarien zirkulazioa, zerbitzu aeronautikoak, eta abar.
  - c) Donostiako aireportua
    - Metropoliaren irisgarritasuna hobetzea Donostiako aireportura, garraio kolektiboko zerbitzuak emanez Baiona-Donostia Eurohiritik. Horretarako, terminala garraio metropolitarrako zerbitzuetan sartuko da.



- Aireportuaren espezializazioa handitzea hegazkintza-merkatuan hazten ari diren sektoreetan (kostu txikiko linea erregularrak, charter hegaldiak eta hegaldi pribatuak) eta haren intermodalitatea handitzea, Pasaia badiako portu-eremuetarako proposatutako funtzio berriekin.
3. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aplikatzeko eta garatzeko tresnetan, kontuan izatea hegazkintza zibilean emandako lege-xedapenak.

## 9.4. MUGIKORTASUN KOLEKTIBO MULTIMODALA

***Oraindik orain, administrazioek erronka handia dute garraio kolektibo jasangarria intermodalitate-irizpideekin ezartzeko, lurralde osoaren irisgarritasuna eta zerbitzu publikoa hobetzea helburu, konbinazio multimodalaren bidez.***



### I EGOERA

Autonomia-erkidegoko administrazioak lan handia egiten ari dira garraiobide jasangarri moduan garraio publikoaren erabilera sustatzen, eta diru asko erabiltzen dute horretarako.

Autonomia-erkidegoko administrazioek herritarren zerbitzura jartzen dituzten garraiobideen erabilera hobezina izan dadin, ezinbestekoa da lan koordinatua eta elkarlana, garraio publikoko zerbitzuak EAE osorako interoperatibitatea izan dezan, txartel bakarrarekin erabili ahal izan dadin, eta erabiltzaile guztientzat fisikoki eta ekonomikoki eskuragarria, azkarra eta segurua izan dadin.

Horrez gain, erronka moduan hartzen da klima-aldaketaren aurkako borroka, berotegi-efektuko gasen emisioa asko jaitsiko duen garraio publiko kolektiboa ezarri, garraiobide garbiak erabiliz, autobus eta bizikleta elektrikoak, esate baterako.

Horretarako, erakundeen arteko eta garraiobideen arteko koordinazioa sustatuko duten ikuspegi berritzaileak behar dira. Horren haritik, funtsezko eginkizuna dute garraioaren arloko



agintariak, Euskadiko Garraio Agintaritzak eta lurralde historiko bakoitzeko dagokion erakundeek, erakundeen arteko koordinaziorako eta lankidetzarako organoak diren heinean, bereziki.

## II HELBURUAK

1. Garraio publikoaren erabilera sustatzea.
2. Garraio publikoaren bidez irisgarritasun integrala erraztea.
3. Berotegi-efektuko gasen emisioa murrizten laguntzea, garraiobide publiko garbiak erabiliz.

## III LURRALDE-ORIENTABIDEAK

Errepide bidezko garraio publikoaren arloan, honako lurralde-eredua berrikusteko helburu hauek proposatzen dira:

1. Garraiobide publiko motak uztartu daitezen sustatzea, mugikortasunaren kudeaketa integraleko ereduak osatzeko, EAEren lurralde osoa irisgarria izan dadin.
2. Garraiobide publiko garbiak erabil daitezen sustatzea; esaterako, trena, tranbia, autobus elektrikoak eta bizikleta elektrikoak.
3. Ibilbide paraleloa duten garraiobide publikoen arteko lehiarik izan ez dadin ahalegintzea, eta garraio publikoa hobetzen duten konbinazio multimodalak bilatzea.
4. Lurralde-plangintzan eta hirigintza-plangintzan, garraiobide guztiak uztartzen dituen garraio publiko intermodaleko sistema integralak lantzea, eta arreta berezia jartzea garraiobide garbiei eta hiri-autobusen lehentasunezko zirkulazioko lineei; esaterako BRTak (Bus Rapid Transit).
5. Autobus-geltokiak intermodalitate-irizpideak kontuan hartuta egingo dira eta periferiako tren-geltokiekin eta garraio-sareko sarbide-nodo nagusiekin integratuko dira, esaterako, aireportuekin eta abiadura handiko trenen geltokiekin. Horrez gain, Eraldaketa Ardatzetako ekobulebarren diseinuan autobusak ibiltzeko erreserbatutako plataformak txertatuko dira.
6. Landa-eremuetan eta biztanle-dentsitate txikiko eremuetan eremu horietako baldintzetara egokitutako garraio kolektiboko zerbitzuak ezarriko dira.



## 9.5. EREDU LOGISTIKOA

***Erronka moduan proposatzen da Euskadi salgaien nazioarteko garraiorako nodo logistikoa bihurtzea: Bilboko portuak (Hegoaldeko trenbide-saihesbidea), Pasaia eta plataforma logistikoen sare batek osatutako lukete.***



### I EGOERA

EAEren kokapen geografikoa dela eta, azpiegituren ardatz transnazionalak ezinbestean zeharkatu behar dute. Arku Atlantikoaren barruan duen kokapena nabarmendu behar da: funtsezko gunea eta intermodalitate-gunea da ardatz atlantikoan. Halaber, Mesetatik Europarako bidean nahitaezko pasabide da eta hainbat autonomia-erkidegorentzat eta Portugalentzat Europar Batasunera iristeko sarbide ere bai.

Euskal Autonomia Erkidegoa Europar Batasunaren Garraio Sarearen barruan dago; beraz, ezinbestekoa da salgaiak garraiatzeko premia horri aurre egiteko azpiegiturak prestatuko dituzten politikak aktibatzea.

Horrez gain, ongi garatutako garraio-azpiegituren sarea du (trenbideak, bide-azpiegiturak, portu-azpiegiturak eta karga-aireportuak), eta Euskal Trenbide Sare berria erantsi behar zaio. Izan ere, azken horrek errotik aldatuko du garraio-sistema globalaren egitura. Euskal Trenbide Sare berria mistoa da, pertsonak eta salgaiak garraiatzekoa, eta salgaiak Europatik ekartzeko eta Europara eramateko ahalmen handiko azpiegitura da.





Funtsezkoa den arren, ez da Trenbide Sare Berria Euskadiko garraio-sistemari balio bereizgarria ematen dion bakarra, baizik eta eskura ditugun azpiegitura guztiak. Azaletik aipatuko ditugu: Trenbideak (zabalera arrunteko trenbide-sarea, zabalera metrikoko trenbide-sarea), bide azpiegiturak (A-1 / AP-1, A-68 eta A-8), portu-azpiegiturak (Bilboko, Pasaia eta Bermeoko portuak) eta karga-aireportuak (Gasteiz – Foronda).

Eusko Jaurlaritzako Garraio sailaren Garraio Jasangarriaren Gida Plana 2002–2012k, helburuen artean garraio integralari heldu eta hura kudeatzeko gaitasuna zuten zentro logistikoak sortzeko estrategia bat zuen.

Eusko Jaurlaritzak eskualde arteko lankidetzako Europako politikak sustatu ditu helburu hori lortzeko. Azpimarratzekoa da CFAEFFIPLAT proiektua. Proiektuak Eusko Jaurlaritza zuen buru eta arku atlantikoko erkidegoak eta eskualdeak biltzen ditu. Sare bat sortu nahi du salgaien korridore atlantiko jasangarria sustatu eta garatzeko.

## II HELBURUAK

Logistikaren arloan, lurralde-eredua berrikusteko honako helburu hauek proposatzen dira:

1. EAE salgaien nazioarteko garraiorako nodo logistikoa bihurtzeko erronkari aurre egitea, eta plataforma logistikoen sare bat osatzea.
2. Jundiz-Foronda, Arasur eta Lezo-Gaintxurizketa plataforma logistikoek Europar Batasunaren garraio-sarean duten kokapen estrategikoa agerian jartzea, multimodalitaterako aukera handiak eskaintzen dituzte eta.
3. Eginda dauden eta eskura dauden azpiegitura logistikoak optimizatzea.

## III LURRALDE-ORIENTABIDEAK

Logistikaren arloan arloan, lurralde-eredua berrikusteko honako lurralde-orientabide hauek proposatzen dira:

1. Jundiz-Forondako plataforma logistikoa sustatzea, honako honengatik
  - Euskal Trenbide Sare berriaren eta zabalera iberikoko sarearen arteko tren-aldaketa intermodala egiteko gunea baita.
  - EAEko portuen eta haien hinterlanden zirkulazioa hobetzen baitu.
  - Trenbide-garraio jasangarriarekiko bateragarritasuna bermatzen baitu.
  - Errepide bidezko garraioa trenbidera aldatzeko aukera ematen baitu.
  - Gasteiz-Forondako aireportutik hurbil baitago, eta trenbidearen, errepidearen eta aireko garraioaren arteko intermodalitaterako kokapen pribilegiatua ematen baitio.
2. Arasurreko plataforma logistikoa sustatzea kokapen estrategikoa baitu Iberiar penintsulako industria-gune garrantzitsuenetako baten bihotzean, eta honako honengatik.



- Trenbide-lotune intramodala baita, Bilbora doan trenbidearen, Irun-Paris trenbidearen eta Ebroko haraneko korridorearen artean.
  - EAEko portuen eta haien hinterlanden zirkulazioa hobetzen baitu, sarbidea baitu Pasaia zein Bilbora;.
  - Trenbide-garraio jasangarriarekiko bateragarritasuna bermatzen baitu.
  - Errepide bidezko garraioa trenbidera aldatzeko aukera ematen baitu.
3. Lezo-Gaintxurizketako etorkizuneko plataforma logistikoak eskaintzen dituen aukerak optimizatzea, honako honengatik:
- Hiru zabalerako (iberikoa, UIC eta metrikoa) tren-aldaketa intermodala egiteko gunea baita.
  - Pasaia portuko zirkulazioa hobetzen baitu;
  - Trenbide-garraio jasangarriarekiko bateragarritasuna bermatzen baitu, Pasaia badi biziberritzen laguntzen duen faktorea baita.
  - Errepide bidezko garraioa trenbidera aldatzeko aukera ematen baitu.

10  
Ura





## 10 URA


***Uholde-arriskuari dagokionez, EAEko ibaien eta erreken ertzen LPStik abiatuta, uraren erabilera arrazionala sustatzen da, baliabidea arroka kudeatuz, eta plangintza hidraulikoarekin bat datorren hirigintza-politika ere bai.***



## I EGOERA

EAEren lurraldea Kantauri-isurialdean eta isurialde mediterraneoan dago. Kantaurikoan daude, Bizkaia eta Gipuzkoa ia osorik, eta mediterraneoan, berriz, Araba. Hain zuzen, isurialdeak honako arto hauekin datoz bat:

- Kantauri-isurialdean, honako ibai hauen arroak: Bidasoa, Oiartzun, Urumea, Añorga, Oria, Inurritza, Urola, Narrondo, Deba, Saturraran, Artibai, Lea, Ea, Laga, Oka, Sollube, Amunategi, Artigas, Azega, Estepona, Butroe, Merdeka, Andrakas, Gobela, Asua, Ibaizabal, Asua, Nerbioi, Galindo, Kadagua, Mercadillo, Aguera, Karrantza eta Kalera.
- Isurialde mediterraneoan, Ebroren arroa, Zadorraren ibaiadarrak, Bayas, Omecillo, Puron, Ega, Ayuda, Inglares eta Araia.




Unitate hidrologikoak (URA)

Plangintza hidrologikoarekin bat, EAEko lurraldea hiru eremu hidrografikotan dago, erantsitako planoan ikusten den bezala: Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoan, Kantauri Mendebaldeko Demarkazio Hidrografikoan, eta Ebro Arroko Demarkazio Hidrografikoan.

#### **a) Uholdeen prebentzioa**

Uholdeen prebentziorako edo haien kalteak mugatzeko edo prebenitzeko arloan, indarrean dauden gidalerroak aitzindariak izan ziren, ibaiertzetan hiri-erabilerak eta eraikinak antolatzeko modu berri bat ezarri baitzuten, une hartan uraren legediak ezarritakoa baino askoz aurreratuagoa. Horrela bada, gidalerroen garapen moduan, azaleko uren babesa kategoriaren barruan, bi arau hauek onartu ziren: 1998an, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (Isurialde kantauriarra) behin betiko onesten duen abenduaren 22ko 415/1998 Dekretua; eta, 1999an, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (Isurialde mediterranea) behin betiko onesten duen abenduaren 28ko 455/1999 Dekretua. Bi dekretu horietan ingurumen, hidraulika eta hirigintzako alderdiak txertatzen dira ibaien eta erreken ertzen antolamenduan. Geroago, Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana aldatzeko 449/2013 Dekretua onartu zen, eta antolamendu-irizpide berriak ezarri ziren ibaiertzen urak hartzeko arriskuaren inguruan.





#### EAEko Uholde Arrisku Handiko Eremuak (UAHE). Iturria: URA

Agiri horiek onartzea ingurumenaren, lurralde-antolamenduaren eta hidraulikaren arloan eskumenak dituzten administrazioen adoste-ahaleginaren ondoriozko emaitza izan zen. Horrekin, ibaien eta erreken ertzen lurralde- eta hirigintza-antolamendua bideratutzat eman dezakegu. Lurraldearen Arloko Plan horiek idazteak aldaketa handia ekarri du hirigintza-prozesuen baitako esku-hartzeetan, ibaia errespetatu beharra ekarri baitute, eta, bereziki, 100 urteko errepika-denborako uraldiak izan ditzakeen eremuarena eta lehentasuneko fluxu-eremuarena. Horren ondorioz, asko murriztu dira uholdeek eragindako kalteak, eta kontzeptuzko errespetu bat sortu da, etorkizunean agerian jarriko dena, hiri-dentsitate handiko lurralde honetan, orain artean izandako euriteetan behin eta berriro proban jarri den lurralde honetan. Horrekin bat, une honetan egin beharreko funtsezko lana egungo hiriak berroneratzeko eta berritzeko jarduketak dira, gure ibaien drainatze-ahalmena handitzeko lanekin batera. Horrenbestez, beharrezkoak diren obra hidraulikoak egin beharko dira: bideratzeak, oztupoak kentzea, eta abar.

Nabarmentzekoa da uholde-arriskuak kudeatzeko planen esperientzia, bai eta nola txertatu diren planak Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legeak ezarritako betebeharretan.

#### **b) Ur-hornidura eta saneamendua**

Ur-hornidurari eta saneamenduari dagokienez, uraren kudeaketa modernoak baliabidea bi isurialdeetan eta haien arroetan lotuta kudeatzea eskatzen du. Urte hauetan zehar, baliabidearen kudeaketa efizienteagoa eta eraginkorragoa egin da, eta kontsumoa eta erabilera



jasangarriagoak egin dira. Kudeaketa ona egiteko, oinarritzkoa da ur-eskaria murriztea eta baliabidea berrerabiltzea araztu ondoren. Izan ere, lurralde-antolamenduaren kudeaketak eta, zehazki, hirigintza-aurreikuspenek ura egotea eskatzen dute. Horren haritik, biztanleak hornitzeko ur-hornidurari dagokionez, hirigintza-legediak eskatzen du hirigintza-jardueren onarpen-espeditentean administrazio hidraulikoaren txosten bat egotea, eskariak asetzeko nahikoa baliabide hidriko egon badagoela adierazten duena. Saneamenduari dagokionez, arro bakoitzeko udalerrietako saneamendu-sistemak, eskualde-egitura mailan ezarriko dira, lurralde plan partzialaren bidez, edo udal-mailan, udal-planeamenduaren bidez.

## II HELBURUAK

### a) Uholdeen prebentzioa

1. Ibaien eta erreken lurraldearen arloko plana aplikatzea ibaien eta erreken ertzetan egitea aurreikusten den bizitegi-lurzoru edo ekonomia-jarduera berrien antolamenduan.
2. Egungo hiria berritzeko lanarekin jarraitzea, izan badiren arazo hidraulikoak konpontzearekin batera.
3. Egungo hiria iragazkorra izan dadin sustatzea.

### b) Ur-hornidura eta saneamendua

4. Lurralde-maila egokian zehaztea uraren, ur-horniduraren eta ur-arazketaren ziklo osoa, eta isurialdeetako eta arroetako baliabide hidrikoak elkarri lotuta kudea daitezen sustatzea.
5. Uraren hiri-eskaera murriztea, bai per capita eskaera, bai eta eskaera orokorra ere.
6. Hirigintza-aurreikuspenak egiterakoan, kontuan izatea baden horretarako nahikoa ur.

## III LURRALDE-ORIENTABIDEAK

### a) Uholdeen prebentzioa

1. EAEko ibaien eta erreken lurraldearen arloko planeko xedapenei eustea, ibaien eta erreken ertzen lurralde-antolamendu gisa, eta garapen egokia sustatzea.
2. Hiria berroneratzeko prozesuetan bideratze-lanak eta oztopo hidraulikoak kentzekoak sartzeari, eta ardatz berdea kontzeptuaren barnean txerta daitezkeen uholdeen prebentzio-neurrien aldeko hautua egitea.
3. Etxadien, plazen eta espaloien iragazkortasuna sustatzea, hiriaren drainatze-ahalmena handitzeko.
4. Isurialdeetako eta arroetako baliabide hidrikoak elkarri lotuta kudea daitezen sustatzea.

### b) Ur-hornidura eta saneamendua

5. Ur-beharra asetzea eskatzen duten lurralde- eta hirigintza-plangintzako xedapenak onartu aurretik, nahikoa baliabide hidriko badagoela bermatzea.



- 
6. Ur-horniduraren hiri-sarea hobetzea, ur-ihesak eragozteko edo ahalik gehien murrizteko.
  7. Araztutako hondakin-uren berrerabilera sustatzea.



# 11

## Energia







## 11 ENERGIA

***XXI. mendeko hiriek energia-jasangarritasunaren erronka handia dute: desenergizazioarekin konprometituta daude, energia-efikazia eta efizientzia asko hobetu baita, edo deskarbonizazioarekin, energia-iturri berriztagarrien erabilera orokortzearekin eta energiaren alderdian bere burua aski izatearekin.***



### I EGOERA

Azken hamarkadetan izandako hazkunde nabarmenaren ondorioz, energia-kontsumoa modu adierazgarrian areagotu da. Ekonomia-egituran egindako aldaketak, efizientzian egindako hobekuntzak eta horren kutsatzaileak ez diren energia-iturriak erabiltzen hastea ez dira aski izan garapen-maila handiago batetik eta mugikortasuna areagotzetik eratorritako kontsumoaren hazkunde hori orekatzeko.

Testuinguru horretan, EAEko energia-eskariaren % 7 energia berriztagarriak erabiliz asetzen da, portzentajeak gora egin duelarik. Haatik, petroliotik eratorritako gaiekin asetzen da oraindik azken energia-kontsumoaren % 40, eta garraioa, zerbitzuak eta etxeko kontsumoa dira lurralde honetan energia-eskaria areagotzea dakarten sektore nagusiak. Horren guztiaren ondorioz, ia lurralde osoan airearen kalitate-baldintzak nabarmen hobetu badira ere, berotegi efektuko gasen emisioa oso handia da oraindik eta emisio hori areagotzeko joera aurreikusten da gainera. EAEko Energia Estrategiaren (2020) helburu estrategikoen artean energia berriztagarrien aprobetxamendua % 87 areagotzekoa barneratzen da, 2020. urtean azken kontsumoan energia berriztagarrien ekarpena % 14koa izan dadin.



Azken urteotan, aldaketa nabariak hauteman dira gure lurraldearen barne-kontsumoaren egituran. Horrela, petrolioaren eratorriek garrantzia galdu dute nabarmen eta, horren aurrean, gas naturala da denbora horretan protagonismo gehien baitaratu duen iturria, eta ondoren energia berriztagarria. Ekoizpenaren egituran izandako aldaketei eta energia-efizientzian izandako hobekuntzei esker (batez ere, industrian), energiari dagokionez horren intentsiboa ez den ekonomia batera bideratu gara. EAEn energia-intentsitateak beherazko joera izan du azken urteotan. Horrela, 2014an Barne Produktu Gordinari dagokionez sortutako euro bakoitzetik energia gutxiago, % 18 gutxiago, erabili zen 2000. urtearekin erabilitakoarekin alderatuta.

Energia-efizientzia eta energia berriztagarriak dira EAEko Energia Estrategiako bi ardatz nagusiak eta ezinbesteko betekizunak dira jasangarritasunerako, lehiakortasunerako eta klima-aldaketaren aurkako borrokarako. Dokumentu honetan hainbat hiri-estrategia eta mugikortasun-estrategia planteatzen dira, baliagarri izan behar direnak, funtsezko modu batean, energia-kontsumoa eta kontsumo horrekin lotutako inpaktuak murrizteko. Lehen helburuari dagokionez, energia-efizientzia areagotzera bideratutako ekintzak lehenetsi behar dira. Alderdi horretan aurrerapauso garrantzitsuak eman behar dira ongizateari nahiz ekoizpenari dagokienez egun dugun egoera mantentzeko eta, aldi berean, energia-kostuak eta ingurumenarekin lotutako eraginak nabarmenki murrizteko. Dokumentu honetan proposatzen diren ekimenen bidez espazioaren antolamendurako eta funtzionamendurako eskema jakin bat eratzen da, abantaila garrantzitsuak ekar ditzakeena aipatutako helburua lortzeko. Ildo horretatik, garraio kolektiboaren sistemai gero eta garrantzi gehiago ematea, garraio publikoko zerbitzuen garapena eta erabilera sustatzea dakarten garapen-ildo linealak indartzea eta, joan-etorriekin lotutako beharrianak murrizteko asmoz, polizentrismoan oinarritutako hiri-egitura eraginkor eta trinkoago bat finkatzea proposatzen da.

Lurralde-ekimenetan aintzat hartu behar dira energia-efizientzia areagotzeko eta erabilitako baliabideak dibertsifikatzeko aukerak. Garrantzitsua da hiri-hobekuntzarako estrategietan hainbat alderdi kontuan hartzea, esate baterako, hiri-argiteriaren eraginkortasuna, trafiko-pilaketen murrizketa, eta horren kutsatzaileak ez diren eta energia-iturri berriak erabiltzen dituzten ibilgailu publikoen erabilera. Etxebizitzaren alorrean, eraikinen isolamendurako baldintzak hobetzeak eta arkitektura bioklimatikoko teknikak erabiltzeak ondorio adierazgarriak dakartza gastuari dagokionez, izan ere, % 50era arte aurrez daiteke familia eta enpresetako energia-beharrianetan. Baterako sorkuntza instalazioak hedatzeak eraginkortasun handiagoa ekar dezake. Horrenbestez, industria-espazioak hobetu eta sakabanatutako enpresa-finkapenak murrizteko estrategia batekin establezimendu ezberdinek erabiltzeko energi-zerbitzuak zentralizatu egin daitezke eta, era berean, industrialde bereko enpresen artean energiaren hornidurarako eragiketak ahalbidetu daitezke.

EAEko Energia Estrategiaren barnean, gas naturala eta elektrizitatea baliabide erabakigarriak dira. Horien inguruan ekoizpen eta hedapenerako azpiegiturak hobetu eta areagotzeko ekimenak garatu behar dira, horniduraren kalitatea, jarraikortasuna eta lehiakortasuna ziurtatze aldera. Horrela, epe ertainera, kutsagarriak ez diren energia berriztagarrien erabilera gero eta garrantzia gehiago izan behar duen aukera modura agertzen da EAEn energia-hornidurarako egituran. Azpiegitura horiek behar bezala antolatzeke eta haien hedapenerako eragiketak erabakigarriak dira azpiegitura horiek garapen-eredu jasangarriago bateko energia-euskarri bilaka daitezen.

Halaber, adierazi behar da, maiatzaren 14ko 104/2002 Dekretuaren bidez EAEko energia eolikoaren Lurralde Plan Sektoriala onartu zela, eta haren arabera garatu dira Elgea, Badaia,



Urkillak eta Oizeko parke eolikoak. LPS hori jarduera ekonomikoaren nahiz energia berriztagarriaren eta gure gailurretako paisaia-interesaren arteko oreka-ariketa bai izan zen. Hura onartu zenetik igarotako denbora kontuan izanik, beharrezkoa da LPS hori berrikusi eta egungo energia-betekizunetara egokitzea, energia berriztagarriari dagokienez bete beharreko helburuetatik abiatuta.

Azkenik, hausnarketarako gai bat: XXI. mendeko hiriek, gizateriaren populazioaren zati handiena hartzen duten hiriek, energia-jasangarritasunaren erronka handia dute. Berrikuntza-gune bihurtu behar dute: berotegi-efektuko gasen emisiorik ez egitearekin konprometituta, desenergizazioarekin konprometituta —energia-efikazia eta efizientzia asko hobetu delako—, edo deskarbonizazioarekin, energia-iturri berriztagarrien erabilera orokortzearekin eta bere burua aski izatearekin, baina konektatuta. Azken finean, ezinbestekoa da hiri funtsezko elementu moduan eta lehentasuneko lekuan jartzea, haietan energia-efizientzia sustatzeko eta zenbait politika abian jartzeko: mugikortasuna hobetzekoak; hiri-antolamendu hobea izatekoak; eraikinak egin eta birgaitzekoak; espazio publikoak kudeatzekoak; energiaren erabilera efizientea egitekoak; eta ingurumen- eta zarata-kutsaduraren aurka egitekoak, besteak beste.

## II HELBURUAK

Honako hauek dira energiaren arloan lurralde-eredua berrikusteko, proposatzen diren helburuak:

1. Energia-betekizunak eta energia-instalazioak lurralde- eta hiri-plangintzan txertatzea, politika publikoan jasangarritasunerako jarraibideak barneratuz, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko energia-jasangarritasunari buruzko irailaren 22ko 178/2005 Dekretuan ezarritakoaren arabera.
2. Hiriak berotegi efektuko gasen zero emisiorako helburuetara bideratzea, alde batetik, energia-eraginkortasuna eta -efizientzia nabarmenki areagotuz (desenergizazioa) eta, beste alde batetik, energia berriztagarriko iturrien erabilera orokortu eta autokontsumoa (deskarbonizazioa) sustatuz.
3. Hiri-estrategietan nahiz etxebizitza eta mugikortasunarekin lotutako estrategietan energia-efizientzia areagotzea.
4. Kontsumo ia nulua eraikitzeke irtenbideetarako aurrerapausoak ematea.
5. Garraio publikoaren erabilera sustatzea, garraio kolektibo eraginkor eta garbien bidez.

## III LURRALDE-ORIENTABIDEAK

1. Lurralde-plangintzan nahiz hiri-plangintzan energia-kontsumoaren beharrianak murrizteko neurriak barneratzea. Modu horretan, energiaren eraginkortasuna eta kutsatzaileak ez diren energia-iturri eta -sistemen erabilera areagotzeko eta, era berean, beharrezkoak diren azpiegiturak finkatzeko behar diren lurzoru-erreserbak areagotzeko. Orobat:
  - Proposamenen artean lehendik zeuden eraikinen eta espazio urbanizatuen energia-efizientzia hobetzeko jarduera-programak sartzea. Hiri-berrikuntzako



ekimenetan, ezinbestean sartuko dira jarduera horiek, eraikin berriei eskatzen zaizkien energia-ziurtagirien betekizunak bete ditzaten eraikinek.

- Irizpide bioklimatikoan erabilera exijitzea eraikinen eta espazio publikoen plangintza-, proiektu- eta exekuzio-faseetan, eta bereziki, orientazioari, diseinuari eta materialei dagokionez, bai eta energia-kontsumoa ahalik eta gehien murrizten duten sistema pasiboak eta aktiboak erabiltzeari dagokionez ere.
  - Landaredia erabiltzea eraikinetan eta espazio publikoetan, isolatzeko elementu moduan, eta urteko urtarotan zehar erosotasun klimatikoa erregulatzeko faktore moduan.
2. Lurralde-plangintzaren eta hiri-plangintzaren energia-jasangarritasunaren ebaluazioari buruzko ikerketa sustatzea, kontuan izanik, gutxienez, honako alderdi hauek: energia-jasangarritasunerako eskakizunak egokitzea; eraikin eta azpiegiturretan energia berriztagarriak ezartzea; mugikortasun jasangarria.
  3. Energiari dagozkion arloko helburuak lurraldera eramatea, Lurralde-plan Partzialak egokituz.
  4. Energia Eolikoko LPS berrikustea eta egungo energia-eskakizunetara egokitzea, energia berriztagarriekin eta, zehazki, energia eolikoarekin, lotuta betetzeko arloko helburuetatik abiatuz. Orobat:
    - Paisaia-izaera arautzen duten xedapenak, energia eolikoa ezartzeari dagokionez, LPS eolikoaren beraren berrikuspenean ez ezik, lurralde-plan partzialei erantsi beharreko paisaia-azterketen bidez ezarriko dira.
    - Energia eolikoko sistemak, LPSan egon ala ez, ezartzeko ingurumen-baimenak kontuan hartuko du, bereziki, instalazio horiek eremu jakin batean pilotzeak ekar dezakeen asetasun-efektua, bai eta egokiak irizten diren gainerako ingurumen- eta paisaia-baldintzatzaileak ere.
  5. Lurralde-plan Sektorialetako paisaiaren integrazioarako ikerketetan Energia Eolikoko LPSean barneratzen diren instalazioen finkapenerako paisaia-baldintzak barneratzea, eta baita LPS horretan barneratzen ez diren 10MW baino gutxiagoko eta 100kW baino gehiagoko instalazioetan ere, hala badagokio, erabilera horri dagokionez debekaturik gera daitezkeen eremuak adierazita.
  6. Polizentrismoan oinarritutako garraio publikoa eta hiri-egitura eraginkor eta trinkotuak bultzatzen dituzten garapen-ildo linealak sustatzea, joan-etorriekin zerikusia duten beharrianak murrizte aldera.
  7. Energia alternatiboen garraiorako sistemak, esate baterako, elektrizitatea eta gas naturala erabiltzen dituztenak, sustatzea petroliotik eratorritakoen ordeztu.
  8. Energiaren autokontsumorako sistemen erabilera bultzatzea, orotariko eraikin eta instalazioetako eguzkiaren, energia eolikoaren edota biomasaren aprobetxamendurako sistemen bidez. Alde batetik, elektrizitatea sortzeko energia berriztagarriak aprobetxatzeko irtenbideak erabiltzea eta, beste alde batetik, lurzoru urbanizaezinean kokaturiko eta beren funtzionamendurako energia-hornidurako linea edo baldintza



berriak behar dituzten eraikin isolatueta energiaren autokontsumorako sistemak erabiltzea lehenetsiz.


9. Energiaren ikuspegitik efizienteak diren argiteria publikoko gailuen erabilera sustatzea. Argiteria publikoko sistemek sistema automatikoak izango dituzte, beharrezkoak direnean soilik erabiltzen direla bermatzeko, eta kontsumo txikiko argiekin erabiltzeko diseinatuko dira.
10. Linea elektrikoan antolamenduari dagokionez, udal-plangintzan nahiz arloko ekintzetan honako irizpide hauek kontuan har daitezela ziurtatzea:
  - Lineen azpiko mantentze-lanen baitako sastraka garbitzeek zuhaitzak errespetatuko dituzte. Mantentzeko inausketak gorantz egingo dira, segurtasun-distantziei eusteko. Aireko instalazio berriak eraikitzen direnean, oihanpe hezea sor dadin erraztuko da, eragindako lurrak espezie egokiekin berrituz.
  - Isolatzaileek, airean dauden etengailuek eta, oro har, ekitean txinpartak sor ditzaketen gailu guztiek suaren kontrako sistema eduki beharko dute, sua zabaltzea eragozteko landarediarekin kontaktuan jartzen direnean.
11. Babes Bereziko Antolamendu Kategorian barneratutako lurretik igarotzen diren airezko instalazio elektrikoetarako arau tekniko batzuk aplikatzea. Zehazki
  - Leku menditsuetan eta erliebe gorabeheratsukoetan, debekatuta egongo da, oro har, paisaiaren ikusizko mugak gainditzen dituzten aireko lineen euskarriak jartzea, ikusizko edozein puntutatik gainditzen dituztenak. Ezinbestean horrela egin behar bada, lineak kotarik behearenean jarriko dira, erliebearen topografiari jarraituz.
  - Oro har, instalazioen ibilbideak erliebearen kotei jarraituko die, eta lurraren geomorfologiari egokituko zaio. Trazadura zuzenak leku laueta soilik baimenduko dira.
  - Lehentasunez, komunikazio bideen (errepideak, trenbideak eta abar) paralelo eta gertu jarriko dira, lurraldean trazadura berriak egitea eragozteko, eta segurtasun-distantziak errespetatuko dira beti.
  - Gertu beste linearen bat badago, lehentasunez egungo linea bitan adarkatuko da, beste linea bat eraiki beharrean. Hori ezinezkoa bada, arrazoi tekniko nahikoa izanik, linea berria aurrekoaren ahalik eta gertuen jarriko da, korridore bera erabiltzeko, segurtasun-distantziak errespetatuz, betiere.
  - Euskarrien diseinuan, faktore erabakigarria izango da paisaia-inpaktua ahalik eta gehien gutxitzea; lurrari egokitu beharko zaio eta lur-berdintzeak eta -lekualdatzeak ahalik eta gehien murriztuko dira.
  - Natura babesteko edozein figuratetik edo korridore ekologikoetatik igarotzen diren aireko instalazio elektrikoek, indarreko segurtasun-neurriak betetzeaz gain, hegaztiak babesteko gailuak edukiko dituzte, kable bihurrituak edukiko dituzte, eta gurutze isolatzaileak, edozein egoera atmosferikotan eroaleak ez diren materialez egindako euskarriekin.



12. Elektrizitatea garraiatzeko linea berriak eraikitzeak premia justifikatzea, linea zaharrak baztertu eta aurretik zeuden korridoreak aprobetxatzeko (lineak trinkotzea) aukera edo eratorritako ingurumen-inpaktuak baztertu edo mugatzea dakarten beste linea batzuk erabiltzeko aukera aztertuz.
13. Aprobetxamendu hidroelektrikoei dagokienez, beste gauza batzuen artean, instalazioen efektu metatzailea ikertzea, ezaugarri ekologiko zein morfo-dinamikoen gainean efektu negatiborik gerta ez dadin eta, era berean, aztertutako ibaietan uraren erabilerari buruzko efektu negatiborik gerta ez dadin.

#### Kanporekiko energia-mendetasuna European

#### *Dependencia energética exterior en Europa*




Iturria: EVE. Energia datuak





**Barne-kontsumo gordinaren egitura European energiaka**  
*Estructura del consumo interior bruto en Europa por energías*

**2013**




**Oharra: "Gainerakoa" energia nuklearra, saldo elektrikoa eta besteak sartzen dira**  
*Nota: "Resto" incluye energía nuclear, saldo eléctrico y otras.*

Iturria: EVE. Energia datuak



**Energia primarioaren ekoizpena eta barne-kontsumo gordina Europan per capita**  
**Producción primaria y consumo interior bruto de energía en Europa per cápita**




Iturria: EVE. Energia datuak



**Azken kontsumoaren egitura European sektoreka**  
*Estructura del consumo final en Europa por sectores*

**2013**



Iturria: EVE. Energia datuak



# 12

GOBERNANTZA:  
Parte-Hartzea, Antolaketa,  
Adierazleak







## 12 GOBERNANTZA: Parte-Hartzea, Antolaketa, Adierazleak

Indarreko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan, azken kapitulua “Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aplikatzeko gakoak eta erreferentziak” izendatzen da. Kapitulu horretan hainbat gai jorratzen dira, esate baterako, udal-plangintzak eremu funtzionaletara egokitzeari buruzkoa, bizitegi-lurzoruen eskaintza zenbatzeko kalkuluari buruzkoa, natura aldetiko interesa duten eremuei buruzkoa eta, azken atalean, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aplikatzeko arauari buruzkoa da.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozesuan azken zati hori gobernantzaren eremuan kokatzea proposatzen da, hau da, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak kudeatu, garatu eta aplikatzearekin lotutako alderdietan kokatzea, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen hirugarren zutabea izan dadin zati hori, lurralde-ereduaren oinarriekin eta lurralde-ereduarekin batera.

Berrikusitako lurralde-antolamendurako politikan partaidetzak duen garrantzia kontuan hartuz, egokitze jotzen da alde batetik partaidetza eta, beste alde batetik, gobernantza bereiztea. Partaidetzari buruzko atalean lurralde-antolamenduaren garapenean eragile publiko zein pribatuak eta herritarrek izan beharreko esku-hartzearekin zerikusia duten alderdiak jorratuko dira. Bestalde, gobernantzaren atalean lurralde-politikaren kudeaketa on batean eragina izango luketen alderdiak jorratuko lirateke.

Gobernantzaren atal honen barruan lurralde- eta hirigintza-adierazleei buruzko azken puntu bat biltzen da, lurralde-antolamenduko politikaren kudeaketa egokirako tresna instrumental gisa.



## 12.1. PARTE-HARTZEA

***Partaidetza berez da erronka, izan ere, kudeaketa publikoaren kultura aldatzea dakar eta baita gizartea bera ere. Eta, kulturarekin lotutako aldaketa guztietan gertatzen den moduan, denbora beharko da aldaketa hori egokitu eta baitaratutako joerak baztertzen joateko.***



Proposatzen den partaidetza ez da Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko abiatutako prozesura mugatzen; aitzitik, partaidetza lurralde-antolamendurako politikaren osagai natural bilakatzeko formulak eta tresnak zehaztea da xedea.

Kulturarekin lotutako aldaketa guztietan gertatzen den moduan, denbora beharko da aldaketa hori egokitu eta baitaratutako joerak baztertzen joateko.

Gainera, berrikuntza da eta araudira egokitzeko erronka ere aurrez aurre ageri da, berrikusteko prozesu honetan gertatzen den moduan. Tradizionalki, administrazio-izapidean partaidetza administrazioei entzunaldia eta informazio publikoa emateko faseetara mugatu da. Haatik, partaidetza mugatu hori gaingitu egin nahi da, politikaren kudeaketara bertara hedatuz.

Oinarrizko Dokumentu hau prozedurak jasan duen berrikuntzaren adibide argia da. Hain zuzen, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozedura parte-hartzailea abiatu baitzen, egokitzen jo zen partaidetza hori, aldezturik, Gidalerroen Aurrerapenaren aurkezpenaren ahalbidetzea. Aurrerapen hori Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legean aurreikusitako lehen dokumentu-izapidea da. Horrenbestez, Oinarrizko Dokumentu hau Eusko Jaurlaritzak Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen berrikuspenaren aurrean duen jarrera jasotzen duen dokumentu modura proposatzen da, eta partaidetzarako gonbitea egiten da, Aurrerapen hori modu parte-hartzailean egin dadin.



Halaber, partaidetza hori plan batean zehaztea berrikuntza da. Horrela jasotzen baita uztailaren 27ko Jaurlaritzaren Kontseiluaren Akordioan, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozedura abiatzeari buruzkoan.

Oinarrizko Dokumentu honetan eransten den partaidetzarako plana inplikaturako aldean artean adostu beharreko proposamen bat da, eta etengabe egokituz joango da. Partaidetzarako plana 2015eko azaroaren amaieran Oinarrizko Dokumentua aurkeztu zenetik Gidalerroen Aurrerapenera arte aurreikusi da. Aurrerapen hori, hasiera batean, 2016. urtearen amaierarako aurreikusten da. Berrikuntza baten aurrean gaudenez, partaidetzarako planaren denbora-eremua lehen fase horretara mugatzea lehenetsi da, ondoren, baitaratutako esperientziaren arabera, beste partaidetzarako plan batzuk osatuz joateko.

Proposatzen den partaidetza presentziala nahiz digitala da.

Partaidetza presentziala, alde batetik, lurralde-antolamendurako Legean aurreikusitako organoen bilkuretan aurreikusten da, hots, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen (EAELAB) eta Lurralde Politikako Organo Aholku-emailearen bilkuretan. Halaber, partaidetza presentziala aurreikusten da beste instituzio edo erakunde publiko batzuekin egiteko bilkuretan. Beste alde batetik, eragile edo herritarrekin egiteko topaketa edo bilkuretan ere partaidetza presentziala aurreikusten da.

EAELABaren koordinazio-funtzioa sendotzeko xedez, hura osatzen duten herri administrazioen aldetiko partaidetza aktiboagoa proposatzen da, eta lurralde-antolamenduari dagozkion gai zehatzak modu koordinatuan lantzeko hitzaldi tematikoak sortzea.

Halaber, Lurralde Politikako Organo Aholku-emaileak bere aholkularitzako funtzioak modu aktiboan bete ditzala planteatzen da, eta Eusko Jaurlaritzak Organo hori haren barnean lankidetasuna aberasgarri bat sortzeko beharrezkoa den maiztasunez deitzea.

Halaber, instituzio eta erakunde publikoekin bilkurak egitea proposatzen da, besteak beste, Eusko Legebiltzarrarekin, Batzar Nagusiarekin, Udalekin, Ekonomia eta Gizarte Batzordearekin eta unibertsitatearekin.

Instituzioz aparteko bilkurak lurralde-maila ezberdinetan planteatzen da, nagusiki, Lurralde Historikoetan edo eremu funtzionaletan.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozeduratik partaidetza-foro egonkorren sorrera erator daiteke.

Partaidetza telematikoa dagokionez, Eusko Jaurlaritzarekin komunikazio birtuala izateko ohiko bideak jartzen dira erabilgarri, esate baterako, Irekia zerbitzua edo gizarte-sareak (Facebook esaterako), Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen berrikuspenarekin lotutako ekarpen bakoitza aztertu eta erantzuteko konpromisoarekin. Arlo telematikoa partaidetza sustatzeko egokitzat jotzen diren trenen baitakoa izango da.

Finean, lankidetzak oinarri duen eztabaida bat finkatu nahi da instituzio mailan nahiz gizarte mailan.

## 12.2. GOBERNANTZA

***Berrikuspen horren barnean LAG, LPP eta LPSetako planetako zehaztapenen eraginkortasuna ebaluatu beharko litzateke modu homogeneo eta sinplean, haien garapena balioesteko baliagarri izan dadin.***



Hogeigarren hamarkadaz geroztik “plangintzarako bloke” izendatu dena osatu da pixkanaka, LAGekin, LPPekin eta LPSeekin osatzen dena. Gainera, ordutik esperientzia metatu da eta esperientzia horretatik abiatuta hainbat proposamen egin daitezke gobernantzari dagokionez, esate baterako, araudiaren ebaluazio, zehaztasun eta sinplifikazioari buruz, LPP eta LPSetarako eduki eta elementu grafikoen homogeneotasunari buruz, abiatu gabeko LPSen aukerak balioesteari buruz, eta lurralde-antolamendurako tresnen izapideak denboran murrizteari buruz.

Berrikuspen horren barnean Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako, LPPetako eta LPSetako zehaztapenak eraginkortasunez ebaluatzeko moduari buruzko lanketa egitea proposatzen da, modu homogeneo eta sinplean egite aldera, haien garapena balioesteko eta egokitzea jotzen diren neurriak hartzeko baliagarri izan dadin. Horretarako, adierazle jakin batzuk finkatu beharko lirateke, ebaluazio hori behar bezala egitea ahalbidetzekoak.

Jarraipen-ebaluazio eta -txostenak ezarritako epeen barnean egin beharko lirateke eta horietan ere partaidetza txertatu beharko litzateke.

Lurralde-antolamendurako tresnetako zehaztapenen zehaztasunari dagokionez, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan, LPPetan eta LPSetan modu argi eta bereizian ezarri beharko lirateke zehaztapen lotesle direnak eta gomendio izaera dutenak. Halaber, komenigarria izango litzateke hiru tresna horietako lurralde-zehaztapenak modu sinplifikatu eta antolatuan jasotzea haiek onartzeko Dekretuetan. Zehazki, eranskinetan jaso beharko lirateke. Horrek aparteko dokumentu batean osorik idatzi behar direla esan nahi du.



| A.F.: Zaratuz-Azpeitia     | 68,82                                                                          | 82,59                                                             | 23,48                                                                  |
| A.F.: Eibar                | 109,02                                                                         | 122,89                                                            | 37,88                                                                  |
| A.F.: Mondragón-Bergara    | 67,41                                                                          | 75,17                                                             | 30,11                                                                  |




## 2. Eranskina:

### Gune naturalak



a) EAEko Naturagune babestuak

EAE-KO NATURAGUNE BABESTUAK (2015)



**Parke naturalak**

|    |                |
|----|----------------|
| 01 | Aiako Harria   |
| 02 | Aizkorri-Aratz |
| 03 | Aralar         |
| 04 | Armañon        |
| 05 | Gorbeia        |
| 06 | Izki           |
| 07 | Pagoeta        |
| 08 | Urkiola        |
| 09 | Valderejo      |

**Babestutako biotopoak**

|    |                                 |
|----|---------------------------------|
| 10 | Gaztelugatxe                    |
| 11 | Iñurritza                       |
| 12 | Itxina                          |
| 13 | Laguardiako aintzirak           |
| 14 | Bizkaiko Meatzaldea             |
| 15 | Leizaran ibaia                  |
| 16 | Deba-Zumaia itsasertzeko tartea |

**Txingudiko Plan Berezia**


**Urdaibaiko biosfera-erreserba**

Iturria: guk eginikoa



**b) EAEko Kontserbazio Bereziko Eremuak (Natura 2000 Sarea)**

**EAE-KO KBE - KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUAK (NATURA 2000 SAREA, 2015)**




|    |                                 |    |                                    |
|----|---------------------------------|----|------------------------------------|
| 01 | Aiako Harria                    | 23 | Urdaibaiko ibai-sarea              |
| 02 | Oria Garaia                     | 24 | Barbadungo itsasadarra             |
| 03 | Arno                            | 25 | Oriako itsasadarra                 |
| 04 | Astondoko haremunak             | 26 | Urolako itsasadarra                |
| 05 | Zadorraren sistemako urtegiak   | 27 | Arakil ibaia                       |
| 06 | Urdaibaiko artadi kantauriarrak | 28 | Araxes ibaia                       |
| 07 | Pagoeta                         | 29 | Artibai ibaia                      |
| 08 | Urkiola                         | 30 | Baia ibaia                         |
| 09 | Valderejo                       | 31 | Barrundia ibaia                    |
| 10 | Gaztelugatxe                    | 32 | Ebro ibaia                         |
| 11 | Iñurritza                       | 33 | Ega-Berron ibaia                   |
| 12 | Itxina                          | 34 | Ihuda (Ayuda) ibaia                |
| 13 | Laguardiako Aintzirak           | 35 | Lea ibaia                          |
| 14 | Bizkaiko Meatzaldea             |    | Leitzarar ibaia                    |
| 15 | Leitzarar ibaia                 | 37 | Omecillo-Tumecillo ibaia           |
| 16 | Deba-Zumaia itsasertzeko tartea | 38 | Urumea ibaia                       |
| 17 | Garate-Santa Barbara            | 39 | Zadorra ibaia                      |
| 18 | Hernio-Gazume                   | 40 | Salburua ibaia                     |
| 19 | Izarraitz                       |    | Gaztelugatxeko Doniene             |
|    | Iñurritza                       | 42 | Txingudi-Bidasoa                   |
| 21 | Jaizkibel                       | 43 | Ulia                               |
|    | Pagoeta                         | 44 | Urdaibaiko Itsasertzak eta Padurak |

Iturria: guk eginikoa



**c) Euskal Autonomia Erkidegoko korridore ekologikoen sarea**

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KORRIDORE EKOLOGIKOEN SAREA**



|    |                                                                                                                                                              |
|----|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 01 | Armañon-Ganekogorta-Gorbeia                                                                                                                                  |
| 02 | Urkiola-Urdaibaiko artadi kantauriarrak-Oiz mendia                                                                                                           |
| 03 | Arno-Urdaibaiko artadi kantauriarrak                                                                                                                         |
| 04 | Izarraitz-Arno-Haranerreka-Karakate-Irukurutzeta-Agerre Buru-Aizkorri-Aratz-Gorostiaga mendia-Udalatx                                                        |
| 05 | Andutz mendia                                                                                                                                                |
| 06 | Pagoeta-Izarraitz                                                                                                                                            |
| 07 | Pagoeta-Hernio-Gazume                                                                                                                                        |
| 08 | Hernio-Gazume-Aralar-Izarraitz-Aiako Harria-Murumendi-Araxes harana-Jaskugane-Basabe                                                                         |
| 09 | Aralar-Aiako Harria-Adarra-Usabelartza                                                                                                                       |
| 10 | Aiako Harria-Jaizkibel                                                                                                                                       |
| 11 | Aizkorri-Aratz-Aralar                                                                                                                                        |
| 12 | Aizkorri-Aratz-Entzia                                                                                                                                        |
| 13 | Entzia-Ekialdeko lautadako basoak-Aldaiako mendiak-Gorbeia-Aizkorri-Aratz-Albertia mendiko basoak-Motxotegiko basoak eta Albina-Urkiola-Albinagoiako pagadia |
| 14 | Gorbeia-Urkiola                                                                                                                                              |
| 15 | Ordunte-Armañon-Gorbeia-Arkamo-Gibijo-Arrastaria                                                                                                             |
| 16 | Arkamo-Gibijo-Arrastaria-Urkabustaizko Harizti Irlak-Gorbeia                                                                                                 |
| 17 | Gorbeia-Urkabustaizko Harizti Irla                                                                                                                           |



|                          |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |
|--------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>18</b>                | Oro                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |
| <b>19</b>                | Arkamo-Gibijo-Arrastaria                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |
| <b>20</b>                | Badaiaiko mendilerroa-Arrato-Arkamo-Gibijo-Arrastaria-Gorbeia                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |
| <b>21</b>                | Bovedako mendilerroa-Valderejo-Gasteizko Mendi Garaiak-Raso mendia-Angostoko haitzartea-Artzenako mendilerroa-Arkamo-Gibijo-Arrastaria, Atiegako mendiak-Bellojin-Somo-Atalaia-Canto blanco-Arreoko aintzira-El Encinal mendia-Zubillagako artadia-Gorbeia-Tuyoko mendilerroa-Gasteizko mendebaldeko mendiak-Gasteizko mendi garaiak-Zuazoko Baso Irla-Askartzako Baso Irla-Lautadako Baso Irlak-Entzia-Gasteizko Ekialdeko Mendiak-Izki |
| <b>22</b>                | Arreoko aintzira-Fontechako artadia-Zubillagako artadia                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
| <b>23</b>                | Portillako mendilerroa-La Solana muinoa-Kantabria mendilerroa                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |
| <b>24</b>                | Izki-Toloño mendilerroa-Kantabria-El Pradoko amildegia-Faidoko pagadiak-Jaundel Mendiaren Area                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |
| <b>25</b>                | Entzia-Lokiz-Hornillo mendia-Izkiz-Kodes                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |
| <b>26</b>                | Artako artadia                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |
| <b>27</b>                | Kantabria mendilerroa-Dueñasko pinudia-Lasernako abariztia                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |
| <b>28</b>                | Kantabria mendilerroa-Lezako erkameztiak-Navaridasko artadia-Ebro ibaia                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
| <b>29</b>                | Kantabria mendilerroa-Ebro ibaia (Mesón, Herrera)                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |
| <b>30</b>                | Kantabria mendilerroa-Ebro ibaia (Valahonda)                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
| <b>Ibai-korridoreak:</b> | Calera, Karrantza, Barbadun, Asua, Butroe, Oka, Lea, Artibai, Deba, Urola, Oria, Urumea, Oiartzun, Bidasoa, Kadagua, Nerbioi, Altube, Zaia, Alegria, Zadorra, Omecillo, Baia, Ihuda, Inglares, Ega, Ebro.                                                                                                                                                                                                                                |

Iturria: guk eginikoa



d) *EAEko esku-hartze ekologiko bereziko eremuak*

**EAE-KO ESKU-HARTZE EKOLOGIKOKO EREMUAK**




 Azpiegiturekin elkarrenergina duten tartearak  
Zaharberritze ekologikoko eremuak

Iturria: guk eginikoa



e) *EAE-KO Eskualdeko Azpiegitura Berdea.*

**EAE-KO ESKUALDEKO AZPIEGITURA BERDEA.**



|  |             |
|--|-------------|
|  | Sare Berdea |
|  | Sare Urdina |

Iturria: guk eginikoa



# 3. Eranskina:

**Bizitegi-Kuantifikazio prozedura eguneratzea**







## 1. BIZITEGI-KUANTIFIKAZIOA

Udal-plangintzarako bizitegiak kuantifikatzeko metodologiak bi helburu bete nahi ditu. Lehenik, kuantifikatzeko metodo orokorra azaltzen da, kasuan kasuko proiektzio zehatzagorik gabe, EAEko edozein udalerriko bizitegi-ahalmena nahikoa zehaztasunez kuantifikatzea ahalbidetzen baitu. Bigarrenik, azaldutako metodologiak erreferentzia gisa erabili ahal izango den kontzeptuzko eskema bideratuko du, kasuan-kasuan egoki irizten diren egokitzapen eta hobekuntzekin, Lurralde Plan Partzial ezberdinek dagokien eremuko udalerrietarako egin behar duten bizitegi-ahalmenaren kuantifikaziorako.

Formulazioak kontzeptu orokorrak dakartza, eta horiek Lurralde Plan Partzialek kasuan-kasuan identifikatzen dituzten lurralde-ereduaren zuzenketekin batera aintzat hartu beharko dira. Azpimarratu behar da zuzenketa horiek behar beste zehaztu beharko direla, hala tamainari, nola denboran zeharko erritmoari dagokionez, azaldutako kuantifikazio-metodoak barne hartzen dituen osagai orokorrei arazorik gabe eransterik egon dadin. Gainera, zuzenketa zehatz horiek eragindako udalerri ezberdinen gaineko eragin positibo eta negatiboak identifikatu beharko dituzte, lurralde-ereduan proposatutako aldaketek erantsitako eragin metatua ezerezean gera dadin (dagozkion fluxuetarako proposatutako lurralde-eremuarena ez den jatorri edo jomuga bat zehazten den kasuetan izan ezik).

Bestalde, metodologia honetan proposatzen diren kasu orokorrak eguneratu egin beharko dira denbora igaro eta informazioa berria eduki ahala. Bigarren etxebizitza eta hutsik dauden etxebizitzaren inguruko alderdiek interes berezia dute, informazio orokorra ez baita oso fidagarria atal hauen inguruan. Fenomeno horiek garrantzi berezia duten udalerriek dagokion informazioa eman eta gai horien inguruan ezarritako kasu eta koefizienteak justifikatu beharko lituzkete.

Era berean, nahitaezkoa da joerak identifikatzeko erabilitako biztanleria- eta etxebizitza-kopuruak homogeneousak direla eta proposatzen den proiektziorako denbora-tarte egokia betetzen dutela ziurtatzea, identifikatutako joerek aztertutako aldagaien egiazko portaera isla dezaten.

Planeamenduaren eragileen arreta eskatzen duen beste alderdi bat, plangintza-ariketa orori atxikitako denborazko erreferentziak egokitasunez tratatzea da. Ezinbestekoa da kuantifikazioaren denbora-mugak, erabilitako aldagaietarako erreferentziazko datak eta fluxu eta bariazio garrantzitsuen urteko erritmoak argi eta garbi zehaztea. Zehaztasun horrek proposatutako kuantifikazioaren inplikazioak hobeto ikustea eta ondoriozko planaren ebaluazio gardenagoa egitea ahalbidetzen ditu, zehaztasunez mugatutako denbora-tarte baten inguruko beharren proiektzioaren inguruko kuantifikazioak baino ez baitu zentzua.

Bizitegi-ahalmena kuantifikatzeko metodoa bi urratsetan egituratzen da. Lehenengo urrats batean, etxebizitza-parkeak behar duen gorakada kalkulatzeko da, horretarako etxebizitza nagusien beharrak, bigarren etxebizitzaren eskaria eta aurrekoei lotutako etxebizitza hutsen aurreikuspena hartzen dira kontuan. Bigarren urrats batean, plangintza-aldiaren hasierako unean egokia den bizitegi-ahalmena kalkulatzeko da, aurreko urratsean proiektatutako etxebizitzaren gorakadari harrotze-faktorea ezarrita. Bederatzigarren taulak azaldutako kuantifikazio-metodoaren aurkezpena laburbiltzen du, erabilitako formulazioa, kontzeptuak eta parametroak barne hartuta.



## **1.1. Bizitegi-beharrak**

Bizitegi-beharren kuantifikazioak lurralde-ereduaren zuzenketa eragina ez ezik, sei batugai ere hartzen ditu kontuan, ondoriozko emaitza osatzeko.

$$\mathbf{BB = LEZ+A1+A2+B1+B2+C1}$$

Honako hauek dira aintzat hartu beharreko sei osagaiak:

### **1.1.1 LEZ. Indarreko lurralde-ereduaren zuzenketa**

Udalerrri bakoitzaren osagai espezifikoak da, eta dagokion eremu funtzionaleko Lurralde Plan Partzialean xedatutako lurraldearen orekarako estrategiekin zerikusia du. Osagai horretan islatzen dira lurralde-plangintzak udalerrri jakin batzuetan ezar ditzakeen hazkunde selektiboak nahiz dagoen lurralde-erabilgarritasunaren edo azpiegituren, ekipamenduen eta lurralde-planak aurreikusitako hiria birgaitzeko eragiketen inguruan sortzen diren inplikazioen arabera plan horrek artikulatzen dituen beste kontzeptu batzuk. Oro har, zenbait udalerriren hazkunde handiagoa beste batzuen hazkunde txikiagoak konpentsatu beharko luke, osagai horrek berekin dituen migrazio-fluxu berriei kanpoko jatorria aurreikusten denean izan ezik. Osagai hori bat dator 1997ko LAGek azaldutako 1. osagaiarekin, hau da, «lurralde-ereduaren inplikazioak» deiturikoarekin. LAGen aldaketa honen ondoriozko bizitegi-ahalmena kontuan hartuta, LPPak LEZ ereduaren osagaia egokituko du; Hazkunde Selektiboko ekintzak ez luke izan behar, salbuespeneko aldaketa-egoerak izan ezean, ereduaren osagai baten ezarpena, gainerako osagaietatik datorren ohiko bizitegi-ahalmenak udalerrri bakoitzak azken urteotan izandako dinamismo espezifikoak jasotzen baitu.

### **1.1.2 A1. Bertako biztanleriaren kopurua aldatzeak sortutako etxebizitza nagusien beharrak**

Aintzat hartutako lurralde-eremuan bizi den biztanleriaren aldaketaren (gorakada edo beherakada) ondorioz sortutako etxebizitza nagusien beharra jasotzen du. 1997ko LAGetan azaldutako «hazkunde demografikoa» izeneko 2. osagaiarekin parekatzen da.

### **1.1.3 A2. Familia-tamaina aldatzeak sortutako etxebizitza nagusien beharrak**

Aintzat hartutako lurralde-eremuko batezbesteko familia-tamaina aldaketaren ondorioz etxebizitza nagusien beharretan izandako aldaketa jasotzen du. 1997ko LAGetan azaldutako «familia-egituraren aldaketa» izeneko 3. osagaiarekin parekatzen da.

### **1.1.4 B1. Etxebizitza nagusien eskaria aldatzeak sortutako bigarren etxebizitzaren eskaria**

Aintzat hartutako lurralde-eremurako aurreikusitako etxebizitza nagusien kopuruaren (A1 eta A2 osagaiak) aldaketari lotutako bigarren etxebizitzaren eskarian izandako aldaketa jasotzen du. Erabilera nagusirako aurreikusitakoak baino etxebizitza gehiago aurreikusi beharra adierazten du osagai honek. Osagai honek A1 eta A2 osagaien bitartez aurreikusitako etxebizitza nagusien kopurua bermatu ahal izateko bigarren etxebizitzaren eskaria asetzeko gehigarria aurreikusi behar dela adierazten du. 1997ko LAGetako bigarren etxebizitza koefizienteari (BEK) eusten zaio, etxebizitza okupatuen (erabilera nagusikoak zein bigarren erabilerakoak) eta etxebizitza nagusien arteko ratioa adierazteko, baina osagai hori kalkulatzeko era aldatzen da.



### **1.1.5 B2. Bigarren etxebizitzaren koefizientea aldatzeak sortutako bigarren etxebizitzaren eskaria**

Aintzat hartutako lurralde-eremuan bigarren etxebizitzaren eta etxebizitza nagusien arteko proportzioan emandako aldaketak (BEK koefizientearen aldaketak, alegia) eragindako bigarren etxebizitza kopuruaren aldatzea (gorakada edo beherakada) jasotzen du. Osagai hori baliogabea izango da, koefiziente horretan emandako aldaketari buruzko zehaztasunik izan ezean. Hala ere, bigarren etxebizitzaren eta erabilera nagusiaren arteko proportzioan aldaketarik izanez gero, osagai honek bigarren etxebizitzaren kopuru gehigarria jasoko du (BEK koefizientearen gorakada aurreikustekotan), edo, bestela, bigarren erabileratik okupazio nagusira pasa litezkeen etxebizitzaren kopurua (BEK koefizientearen beherakada aurreikustekotan). Kontuz ibili beharreko gaia da, hala eskuragarri dagoen estatistika-informazioaren anbiguitasunagatik, nola esparru honetan politika alternatiboak izateko aukeragatik. Beraz, osagai hori erabiltzerakoan hausnarketa sakona egitea eta adostasun-maila handiz jokatzeko gomendatzen da. Osagai hori erabiliz gero, kasu gehienetan balio negatiboa izatea espero daiteke, bigarren etxebizitzak etxebizitza nagusi bilakatzeko joera islatuta. EAEko udalerritik askotan gertatzen ari den joera da, hain zuzen, bereziki hiriburuetatik gertuko eremuetan.

### **1.1.6 C1. Okupatutako etxebizitzaren kopurua aldatzeak sortutako etxebizitza hutsen aurreikuspena**

Aintzat hartutako lurralde-eremurako kontuan izandako epealdian zehar okupatutako etxebizitzetan emandako aldaketari (A1, A2, B1 eta B2 osagaiak) lotutako etxebizitza hutsen aurreikuspena jasotzen du. B1 osagaiarekin gertatzen zen bezala, osagai honek ere okupatutako etxebizitzaren aurreikuspena baino etxebizitza gehiago aurreikusi beharra islatzen du, frikzio-faktore askoren (eskualdatze-aldiak, zaharberrikuntza, etab.) ondorioz etxebizitzaren zati bat huts teknikoan egoten baita beti. BEK koefizientearen moduan, etxebizitza hutsen koefizientea (EHK) ezartzen da, dauden etxebizitzaren (okupatuta edo hutsik) eta etxebizitza okupatuen (nagusia edo bigarren etxebizitza) arteko ratioa erakusteko.

## **1.2. Beharrak kalkulatzeko ezarri beharreko irizpideak**

### **1.2.1. Biztanleria-proiekzioa (B)**

EAEko biztanleriak ia hiru hamarkada daramatza 2.100.000 biztanleren inguruan egonkor. Ildo horretatik, 1981. urtetik 2001.era beheranzko joera txikia (urteko batezbesteko bariazio-tasa: -% 0,1) eta azken urte horretatik neurrizko gorakada izan du. EAEko eta bertako lurralde-eremu ezberdinetako biztanleriaren 1981. urtetik 2011. urtera bitarteko bilakaera laburbiltzen du 1. taulak.



**1. taula. Biztanleriaren bilakaera lurralde-eremuaren arabera**

| Lurralde-eremua                      | Biztanleria |           | % EAE gainean |        | 2011ko indizea |
|--------------------------------------|-------------|-----------|---------------|--------|----------------|
|                                      | 1981        | 2011      | 1981          | 2011   | 1981-100       |
| EAE                                  | 2.141.808   | 2.179.815 | 100,00        | 100,00 | 101,77         |
| <b>Lurralde historiko bakoitzeko</b> |             |           |               |        |                |
| Araba                                | 257.850     | 321.254   | 12,04         | 14,73  | 124,59         |
| Bizkaia                              | 1.189.278   | 1.153.351 | 55,53         | 52,91  | 96,98          |
| Gipuzkoa                             | 694.681     | 705.210   | 32,43         | 32,35  | 101,52         |
| <b>Eremu funtzional bakoitzeko</b>   |             |           |               |        |                |
| Enkartzioak                          | 31.317      | 32.013    | 1,46          | 1,46   | 102,22         |
| Beasain-Zumarraga                    | 72.016      | 69.150    | 3,36          | 3,17   | 96,02          |
| Bilbo metropolitarra                 | 959.573     | 906.973   | 44,80         | 41,60  | 94,52          |
| Donostia                             | 382.577     | 399.548   | 17,86         | 18,32  | 104,44         |
| Durango                              | 66.648      | 76.061    | 3,11          | 3,48   | 114,12         |
| Eibar                                | 86.578      | 72.414    | 4,04          | 3,32   | 83,64          |
| Gernika-Markina                      | 74.366      | 72.142    | 3,47          | 3,30   | 97,01          |
| Igorre                               | 12.277      | 13.646    | 0,57          | 0,62   | 111,15         |
| Guardia/Laguardia                    | 9.559       | 11.710    | 0,45          | 0,53   | 122,50         |
| Laudio                               | 40.692      | 41.474    | 1,90          | 1,90   | 101,92         |
| Arrasate                             | 68.574      | 63.630    | 3,20          | 2,91   | 92,79          |
| Mungia                               | 17.041      | 26.254    | 0,80          | 1,20   | 154,06         |
| Tolosa                               | 44.973      | 46.001    | 2,10          | 2,11   | 102,29         |
| Araba Erdialdea                      | 214.208     | 274.902   | 10,00         | 12,61  | 128,33         |
| Zarautz-Azpeitia                     | 61.410      | 73.450    | 2,87          | 3,36   | 119,61         |

Iturria: Egileak berak egindakoa, Eustaten datuetan oinarrituta (Biztanleriaren errolda eta estatistika).

1996-2011 aldian ikusitako biztanleriaren bariazioaren urteko tasa ezarriko da (Eustaten bost urteko seriea) edo, hala behar izanez gero, plan berrikuspenaren aurrerakinaren akordioaren aurreneko urtearen aurreko hamabost urteetan izandako biztanleriaren aldaketari buruzko datu ofizialak. Horrela, kalkulaturako bariazio-tasa negatiboa ateratzen denean, ikusitako balioaren erdira murriztuta erabiliko da tasa, neurketa-akats posibleen eragin negatiboa arintzeko eta atzeraldi demografikoak kontuan hartutako lurralde-eremuan familia-tamainaren murrizketa handiago gisa izan dezakeen ondorioa simulatzeko.

**1.2.2. Batezbesteko familia-tamaina (BFT)**

Biztanleriaren bizitegi-beharrak zehaztu ahal izateko funtsezko aldagaia da, biztanleria eta etxebizitza nagusia batezbesteko familia-tamainaren bitartez lotzen baitira, familia-tamainatzat etxebizitza berean bizi diren pertsona-kopurua jota.

**2. taula. Familia-tamainaren bilakaera EAEn.**

|                                                      | 1981 | 1986  | 1991  | 1996  | 2001  | 2006  | 2011  |
|------------------------------------------------------|------|-------|-------|-------|-------|-------|-------|
| Batezbesteko familia-tamaina (pertsona/etxebizitza)  | 3,73 | 3,53  | 3,34  | 3,07  | 2,79  | 2,64  | 2,53  |
| Urteko batezbesteko bariazioa (%) aurreko datarekiko |      | -1,30 | -1,10 | -1,62 | -1,77 | -1,07 | -0,83 |

Iturria: Eustat (hainbat urtetako Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Errolda)



Urteko % 1,5eko murrizketa-tasa ezarriko zaio eskuragarri dagoen azken informazioan jasotako familia-tamaina aldagarriari, udalerriko familia-tamainarena (hau da, familia-tamainaren balioa eta unitatearen arteko aldea).

### 1.2.3. Bigarren etxebizitzaren koefizientea (BEK)

2011ko Erroldan jasotako tasa ezarriko da (edo 2001 eta 2011ko emaitzen batezbestekoa, 2011n jasotako koefizienteak 2001ekoa gainditzeko badu). Ezarritako koefizientearen balioa 1,25 (hau da, bigarren etxebizitza bat lau etxebizitza nagusiko) edo hori baino gehiagokoa izanez gero, justifikatu egin beharko da. Planaren hasieran zeuden bigarren etxebizitzaren zati baten eraldaketa azal daiteke; eta, horrela, proiektatutako bizitegi-beharrak murriztu, baina kasu horien tamaina eta bideragarritasuna justifikatu beharko dira.

### 1.2.4. Etxebizitza hutsen koefizientea (EHK)

Etxebizitza huts tekniko bakoitzeko, 1,04 eta 1,08 arteko tasa ezarriko da, kasuan kasuko udalerriaren biztanleriaren arabera (ikus balioen taula 3. koadroan). Beste balio batzuk erabiltzen direnean, ezarritako koefizientearen balioa justifikatu beharko da. Planaren hasieran zeuden etxebizitza huts batzuk erabilgarri bilakatzea aztertu daiteke eta, horrela, proiektatutako etxebizitza-premiak murriztea, baina horretarako, oinarrian dauden hipotesien tamaina eta bideragarritasuna justifikatu beharko dira.

3. taula. Etxebizitza hutsen koefizientea (EHK) udalerriaren tamainaren arabera

| Maila | Udalerriko biztanleria              | EHK  |
|-------|-------------------------------------|------|
| 1     | 20.000 biztanle edo gehiago         | 1,04 |
| 2     | 7.000 eta 19.999 biztanleren artean | 1,05 |
| 3     | 3.000 eta 6.999 biztanleren artean  | 1,06 |
| 4     | 1.000 eta 2.999 biztanleren artean  | 1,07 |
| 5     | 1.000 biztanle baino gutxiago       | 1,08 |

## 1.3. Bizitegi-ahalmena

Udalerriko bizitegi-beharrak kuantifikatu ostean, planaren aldirako aurreikusitako behar horiek planaren hasieran eskatutako bizitegi-ahalmenaren balioespen bihurtu behar dira, antolamenduaren iraupenerako identifikatutako beharrak aseko direla bermatzeko.

Behin-behineko onarpen-datan udal-plangintza nagusian aurreikusten den bizitegi-ahalmen deritza hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarri sektORIZATU gisa sailkatutako bizitegi-eremuetan eraikitze baimena ematen den bizitegi berrien guztizko kopuruari. Nahi izanez gero, kuantifikazioan, landa-guneen ahalmena ez ezik, Arabako kontzeju guztiei dagokiena ere sartu ahal izango da.

Aurreikusitako beharretara egokitutako bizitegi-ahalmena kalkulatzeko, harrotze-faktore bat ezartzen da. Hala, bizitegi-beharren zifra (hortaz, antolamenduaren indarraldirako aurreikusitako bizitegi-eraikuntza) antolamenduan kalifikatutako lurzoruen hartze-ahalmen bihurtzen da, kalkulaturako beharrak aseko direla bermatzeko.



$$BA = (BB \times HF) - EH$$

**BB:** Bizitegi-beharrak

**HF:** Harrotze-faktorea

**EH:** Etxebizitza hutsa (1.3.2 atalarekin bat)

**Muga txikiagoa azaltzen da, eta bizitegi-ahalmenaren erdia izango litzateke.**

### 1.3.1. Harrotze-faktorea

Harrotze-faktoreak erantzuna ematen dio plangintzaren hasieran identifikatutako bizitegi-ahalmenaren beharrari, baldin eta horrek nabarmen gainditzen badu planaren indarraldirako zenbatetsitako bizitegi-beharren tamaina. Marjina hori faktore ugarirengatik azaltzen da, faktore horiek bizitegi-lurzoruek aurreikusitako kontsumoa sobera gainditzea eskatzen baitute. Faktore garrantzitsuenen artean, honako hauek aipa daitezke: hiri-lurzoruari dagokiona bezain merkatu segmentatu eta diskriminatu izaten diren gorabeherak; planaren egiazko exekuzioa edo iraunaldia nabarmen luza dezaketen administrazio-prozedura garrantzitsuen geldota-suna; eta, beharren proiektzioaren balizko akatsak. Azken horren ondorioa bereziki kaltegarria izan daiteke sekulako zurruntasuna duen merkatu batean. Harrotze-faktoreak, funtsean, planaren epealdirako aurreikusitako beharren derrigorrezko puztea adierazten du, epealdi horren amaieran erabili gabeko bizitegi-lurzoruaren izakinak nahiko zabalak izan daitezen eskaintza faltagatik merkatuak ez dezan beroaldi onartezinik jasan. Kontzeptu hori argitzeko asmoz, esan daiteke 8 urteko plangintzari ezarritako 2,5eko harrotze-faktoreak, planaren hasieran kuantifikazioan aurreikusitako erritmora, 20 urteko bizitegi-eraikuntza asetzeko lurzoru nahikoa identifikatzen duela. Horrela, plana amaitzean 12 urteko bizitegi-eraikuntzarekin pareka daitekeen bizitegi-ahalmena izatea aurreikusten da. Kopuru horrek nahikoa dirudi, bizitegi-lurzoruaren merkatuan estugune onartezinik ez dela izango bermatzeko.

Jakina denez, planean aurreikusitakoak baino eskari-maila handiagoek, plangintza burutzeko atzerapenak edo plan berria berandutzeak, harrotze-faktoreak teorikoki berma dezakeen segurtasun-marjina murriztu dezakete. Harrotze-faktorearen balio egokia aukeratzea, planaren egiazko iraunaldirako merkatuaren funtzionamendua bermatzeko nahiaren eta, jasangarritasunaren eta baliabide eskasen erabileraren eraginkortasunaren ikuspegitik, hiriaren hazkundea murrizteko komenigarritasunaren arteko konpromisoa da.

Udalerriaren tamainaren arabera (ikus balioen taula 4. koadroan) 8 urterako kalkulaturako bizitegi-premiei 2,2 eta 3 arteko gehienezko harrotze-faktorea ezartzea proposatzen da. Udalerriaren tamaina murriztu ahala harrotze-faktorea handitu egiten da, tamaina hori zenbat eta txikiagoa izan, merkatua orduan eta zurrunagoa baita (bai arrazoi fisikoengatik, bai jabetzen kontzentrazio handiagoarengatik), eta proiektzioek fidagarritasun-maila txikiagoa baitute kasuan kasuko lurralde-eremuaren tamaina murrizten den heinean.

#### 4. taula. Bizitegi-beharretan ezarri daitekeen bizitegi-ahalmenaren harrotze-faktorearen balioa, udalerrien tamainaren arabera

| Maila | Udalerriko biztanleria              | Harrotze-faktorea gehi. |
|-------|-------------------------------------|-------------------------|
| 1     | 20.000 biztanle edo gehiago         | 2,2                     |
| 2     | 7.000 eta 19.999 biztanleren artean | 2,4                     |
| 3     | 3.000 eta 6.999 biztanleren artean  | 2,6                     |
| 4     | 1.000 eta 2.999 biztanleren artean  | 2,8                     |
| 5     | 1.000 biztanle baino gutxiago       | 3,0                     |





### 1.3.2. Etxebizitza hutsak

lido horretatik, ezartzen da udalerri bakoitzaren bizitegi-kuantifikaziorako kontuan hartu behar diren bizitegi hutsen balioa gutxienez udalerri horretan dauden etxebizitza guztien % 2 izango dela. Beraz, txertatu beharreko balio gisa, etxebizitza huts guztien % 50 sartuko da, eta kopuru horri kendu egin behar zaizkio 3. taulako Bizitegi Hutsen Koefizientean definitutako etxebizitzaren portzentaje tekniko.

Osagai hori ezartzeko, bizitegi-ahalmenaren zenbatekoari kendu beharko zaio bizitegi-beharrei harrotze-faktorea ezartzearen ondoriozko emaitza.

### 1.4. Muga gehigarriak

Azkenik, kuantifikatzeko metodologia hau ezarritakoan lortutako emaitzen bi baldintza gehigarriak erantsi dira, proposatutako erregelen ezarpen mekanikoaren ondorioz eman litezkeen muturreko emaitzak galarazteko. Honako hauei ezarriko zaizkie muga horiek: batetik, oso iragan atzerakorra duten udalerriek; eta, bestetik, aurreko urteetan bat-bateko hazkunde handia izan duten udalerriek.

Lehenengo kasuan, arloko eragileei jarduteko nolabaiteko ahalmena emango dien eta demografiak behera egiten duen egoera batean merkatuaren funtzionamendua gehiegi murriztuko ez duen gutxieneko bizitegi-ahalmena ziurtatzea da helburua. Bigarren kasuan, gehiegizko estrapolazioak saihestu nahi dira, zaila baita horien ondorioz gauzatzen diren ekimenak zuzentzea. Jakina, beharrezkoa izango da indarrean dagoen plangintzaren eguneratzea azkartzea, denboran dirauen eta harrotze-faktorea bermatu nahi duen marjina agortzea mehatxatzen duen hazkunde azkartuaren kasuan.

Honako hauek dira udalerriaren bizitegi-ahalmenaren azken kuantifikazioari ezartzen zaizkion bi muga gehigarriak:

1. Udalerri guztietarako, bizitegi-ahalmena ezin izango da hirigintza-plangintza onartu zeneko etxebizitza-parkearen % 50etik gorakoa izan.
2. Edozein udalerri hasierako etxebizitza-parkearen % 10ren pareko bizitegi-ahalmena jaso ahal izango du. Era berean, 20ko gutxieneko etxebizitza-ahalmena ezartzen da. Kopuru hori dagokion Lurralde Plan Partzialak egokitu ahal izango du, hala behar izanez gero.

### 1.5. Etxebizitza kopurua eta eraikigarritasuna

5. taulak azken urteotan eraiki diren etxebizitzaren batezbesteko azaleraren balioespina jasotzen du, babes erregimenaren eta tipologiaren arabera. Eraikitako azalera kontzeptuan ez da barne hartzen garaje, trasteleku eta horrelako lokalak, gehienetan sestrapean edota estalkipean aurkitzen baitira etxebizitza anitzeko eraikinetan. Familia bakarreko etxebizitzetan, garajea barne hartzen da, hori sestrapean egon ezean (eraikitzen diren etxebizitza familia bakarren % 50en kasua dela zenbatetsi da).

Adibide edo argibide gisa, eraikitako azalera eta etxebizitzaren azalera erabilgarriaren arteko ratio moduan 1,32 balioa erabili da BOEentzat, ohikoa den zifra baino handiagoa, alegia. Balio



bera erabili da etxebizitza anitzeko eraikinetan kokatutako etxebizitza libre eta tasatuetan ere. Elkarri atxikitako etxebizitzaren eta familia bakarren etxebizitzaren kasuetan 1,25 balioa erabili da, hori ere adibide edo argibide gisa.

5. taulan adierazten diren batezbesteko azalera balioak EAE osorako balioespenak dira. Landa-guneetan eta lurzoru baliabide handiagoak dituzten esparruetan, etxebizitzaren batezbesteko azalera balioak handiagoak izango lirateke; Bilbo Metropolitarraren batezbesteko etxebizitza, aldiz, txikixeagoa izango litzake. BOEi esleitutako batezbesteko balioa zehazteko, honako hipotesi hau erabili da: etxebizitza horien % 5etik 10era logela bakarrekoak dira, beste % 40tik 50era bi logelakoak (3 edo 4 ohekoak) dira, eta % 45etik 55era hiru logelakoak (5 edo 6 ohekoak) dira.

Etxebizitza-mota dibertsifikatzeko komenigarritasunaren alde egiten duten seinaleak daude, bereziki azalerari dagokionez. Familia-tamainaren etengabeko beherakadak, pertsona bat edo biko familien gorakadak, eta etxebizitza erosteko prezio garestiak (hala jabetzan, nola alokairuan) etxebizitza txikiagoen aldeko eskari-segmentua legokeela adierazten dute, honelako ekimenen aurrean gizartearen eta hainbat sektorearen erresistentzia nabaria ere antzeman arren. Sakon aztertu beharreko gaia da hori, etxebizitza bakoitzaren batezbesteko azalera murriztea eta bizitegi-lurzoruaren kontsumoa gutxitzea ahalbidetuko bailuke.

#### 5. Taula. Gaur egun eraikitzen den etxebizitzaren batezbesteko azalera EAEn

| Etxebizitza mota                                | Azalera (m²) |                  |
|-------------------------------------------------|--------------|------------------|
|                                                 | Erabilgarria | Eraikia          |
| BOE (batezbesteko orokorra)                     | 68           | 90               |
| logela 1                                        | 48           | 63               |
| 2 logela                                        | 62           | 82               |
| 3 logela                                        | 76           | 100              |
| Etxebizitza tasatua                             | 80           | 106              |
| Etxebizitza librea                              |              |                  |
| Etxebizitzarako eraikinen batezbesteko orokorra | 81           | 106              |
| 2 logela                                        | 72           | 92               |
| 3 logela                                        | 90           | 119              |
| Elkarri atxikitako etxebizitzak                 | 120          | 150              |
| Familia bakarreko etxebizitzaren urbanizazioa   | 180          | 250 <sup>a</sup> |

<sup>a</sup> Eraikitako azalera garajea barne hartzen du, sestrapean egon ezean (kasuen % 50ean zenbatetsia)

Iturria: Egileak egin, eragile pribilegiatuak emandako informazioan oinarrituta.

## 2. 2014-2022RAKO KUANTIFIKAZIO-METODOAREN EZARPEN ADIERAZGARRIA

Azaldutako metodologia horren funtzionamendua eta edukia argitu nahian, EAEko udalerri guztietarako eta 2014-2022 epealdirako (hau da, 2014ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra arteko epealdia) simulazio orokorra egin da. Kuantifikazio horrek ez ditu indarrean dagoen lurralde-ereduaren zuzenketa-osagaiak (dagozkion LPpek definitu beharrekoa) barne hartzen, eta ez dira aintzat hartu udal-eremu ezberdinetan ezarri daitezkeen bigarren eta hutsik dauden etxebizitzaren koefizienteen balizko aldaketak. Beraz, B2 (bigarren etxebizitzaren koefizientearen aldaketaren eragina), berez, baliogabea da. Gainera, 1,25ean ezarri da bigarren etxebizitzaren koefizientearen (BEK) balioa, dagokien balio historikoak kota hori gainditzen duen udalerrietan. Jakina, aintzat hartu ez diren faktore horiek kontuan izateak ondorio nabarmena izango du

udalerrri eta eremu funtzional dezenteetan eta, baliteke baztertu ezinezko eragina izatea EAE osoko balio erantsietan.

## 2.4. Etxebizitzen beharrak (2014-2022))

6. taulak aintzat hartutako 8 urteko epealdirako (2014-2022) beharren kuantifikazioa laburbiltzen du. Epealdi horretarako bizitegi-behar metatua 88.144 etxebizitzakoak izango direla aurreikusten da, hau da, batezbesteko eraikuntza-erritmoan 11.018 etxebizitza urtean. Lurralde-eremu dinamikoenetan kalkulaturako beharra epealdiaren hasieran dagoen parkearen %15etik %25era bitartekoa da, eta kopururik handienak Mungia eta urrunago Igorre, Arabako Errioxa eta Guardian agertzen da, azterketak Bakio eta Bastidako bigarren etxebizitzaren litekeen eskari osoa barne hartzen ez badu ere. Durangaldea, Urola-Kosta, Tolosaldea eta Laudio eremu funtzionaltarako kalkulaturako beharrak hasierako parkearen %10aren inguruan kokatzen dira. Dinamismo demografiko txikiagoko 4 eremuetan (Debabarrena, Debagoiena, Busturialdea-Artibai eta Bilbo Metropolitarra) bizitegi-beharren estimazioa ez da hasierako parkearen %8ko kotara heltzen. Kasurik muturrekoenak Deba bailaran hautematen dira, bertan, biztanleria-kopuruaren aldaketa (A1 osagaia) dela-eta, etxebizitza nagusiaren beharrak balio negatiboa hartzen baitu, neurrizko muntakoa izan arren.

**6. Taula. 2014-2022 epealdirako aurreikusitako bizitegi-beharrak**

| Lurralde Eremua               | Bizitegi-beharrak guztira | % etxebizitza parkearen gainean | Biztanle-aldaketa A1 | A2 Familia-tamaina | B1 Bigarren etxebizitza | C1 Etxebizitza hutsa |
|-------------------------------|---------------------------|---------------------------------|----------------------|--------------------|-------------------------|----------------------|
| EAE                           | 88.144                    | 8,81                            | 15.400               | 64.216             | 4.312                   | 4.209                |
| Lurralde historiko bakoitzeko |                           |                                 |                      |                    |                         |                      |
| Araba                         | 21.316                    | 13,96                           | 9.402                | 9.651              | 1.229                   | 1032                 |
| Bizkaia                       | 39.781                    | 7,57                            | 2.266                | 33.847             | 1.772                   | 1892                 |
| Gipuzkoa                      | 27.047                    | 8,39                            | 3.732                | 20.718             | 1.311                   | 1285                 |
| Eremu Funtzional bakoitzeko   |                           |                                 |                      |                    |                         |                      |
| Balmaseda-Zalla               | 1.482                     | 9,27                            | 380                  | 944                | 77                      | 81                   |
| Beasain-Zumarraga             | 2.718                     | 8,43                            | 481                  | 2.030              | 57                      | 150                  |
